

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

ORIXE GAITZESIA





Orixeren harrizko irudia, Leaburuko Tomas Ugartamendiak 1988an egina, elizarako bidean ezarria. Inoiz Orixara joaten bazara, gera zaitetz bere aurrean eta, gure artean obi den bezala, galde iezaiozu: “zer

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

ORIXE GAITZESIA

Utriusque Vasconiae

© Paulo Iztueta Armendariz

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2003ko iraila

ISBN: 84-932654-9-7

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239

AURKIBIDEA

SARRERA	9
LEHEN ZATIA: HAURTZAROKO TRATEGIA	13
I.AMA-GOSE (1888-1905)	15
Orexako Iriarten hiruzkiak	15
Uitziko Errekalden inudearekin	23
Amarik ez	28
Amona Mari Axuntxi	33
Mari Mikela Iriarte ongilea	36
II.ORIXEREN HERRIA	39
Orexa	39
Uitzi	43
Baserria	50
Plazaolako trenbidea	53
III.UITZITIK OREXARA TXANGOIA	59
BIGARREN ZATIA: ORIXE ILUSTRATUA	69
IV. JESUSEN LAGUNDIAN (1905-1923)	71
Humanitateak Xabierko Ikastetxe apostolikoan (1905-1907)	73
Nobiziatua eta humanitateak Loiolan (1907-1909)	76
Erretorika Burgosko “La Merced” Ikastetxean (1909-1911)	79
Filosofia (1911-1914) eta Teologia (1920-1922) Oñan ..	84

V. ZAZPI URTE BELTZAK (1914-1920)	91
Comillasen maisu txiki (1914-1917)	95
Carrión de los Condesen (1917-1918)	104
Tuteran (1918-1919)	107
Xabierren berriro (1919-1920)	124
Oñan (1920-1922)	126
Xabiertik etxera	131
Orixe eta Jesusen Lagundia	136
Bizitzako itzal handia: apaizgorik eza	138
VI. JESUSEN LAGUNDITIK OHILDUA	141
Arrazoi hutsalak	142
Euskal nazionalismoaren harra	146
Espiritu kritikoa, autoritarismoaren biktima	152
HIRUGARREN ZATIA: ORIXE LAIKOA GERRAURREKO	
ZURRUNBILOAN (1923-1936)	155
VII. ORIXE BILBON (1923-1931)	157
VIII. OREXAN: GARTZELA ETA IHESA (1931-1938)	167
San Kristobalgo kartzelan	171
Orexatik ihesi	177
Uitzin ezkutatuta	180
LAUGARREN ZATIA: ORIXE ERBESTEAN (1938-1954)	183
IX. IPARRALDEAN ZAKUR GALDU BATEN MODURA	
(1938-1950)	185
Errefuxiatuen aldeko laguntzak eta erakundeak atzerrian	186
Batetik bestera	187
Donibane Lohizunen (1938-1939)	188
Gurseko zelaian (1940)	189
Gursetik Suabionera (1940-1943)	202
Betharramanen irakasle (1943-1945)	203
Bidarrain (1945-1946)	206
Donibane Lohizunen berriro (1947-1949)	209

X. AMERIKAN (1950-1954)	215
Txango luzea Amerikan zehar	216
Quitotik Guatemalara (1950)	222
El Salvadorko Zaragozan (1950-1954)	224
Amerikan egindako lanak	229
Guatemalan etxerako bidean	230
BOSGARREN ZATIA: ORIXE ETXERATUA (1954-1961)	239
XI. BIZITZAREN ILUNABARREAN	241
Orixe Lazkaon (1955)	248
Orixe Tolosan berriro (1956)	256
Orixe baserrian (1956-1958)	256
Orixe Araman (1958)	263
Orixe Añorgako Zabalegin (1959-1961)	266
Requiescat in pace	268
Bizi da	271
SEIGARREN ZATIA: ORIXEREN NORTASUNA	273
XII. LANGILE HANDI, POBRE ETA ERI	275
XIII. IZAERA ETA GRINAK	283
XIV. EMAZTEKI BATEN OROITZAPENETAN	291
ITURRIAK	301

SARRERA

Orixe saiogilearen emaitzak ezagutzera eman eta haren idazlanaren inguruan sortutako eztabaidaren txingarrak hozten utzi ondoren, hirugarren liburuki honetan Orixe gizonaz izango dugu jarduna. Idazlan bakoitzaren atzean idazlea ezkutatzen omen da, hezur-haragizkoa, nonbaitekoa, nolabaitekoa. Idazle bakoitzaren atzean, bada, garai eta leku jakin batean sortu eta bizi izandako gizakia aurkitzen da, izan dadila gizonetzkoa zein emakumezkoa. *Topos*-ek eta *ethos*-ek elkarri dei egiten diote. Berritasun-minak ziztatuta, literatura egiteko giro egoki baten bila atzerrira emigratzen duten idazleek ere –eta hau esatean Ur Apalategik¹ euskal idazle berrien paratopia hautatuaz egiten duen lan jakingarria dugu gogoan–, berekin daramatzate, gogotik ezin erantziz eraman ere, sortuak izan direneko gizarte-giroak kutsatutako azturak, bizitza osoan zehar, agian, sakonenak gertatuko zaizkienak.

Orixeren sorkuntzan artifizioek eta fikzioek leku gutxi betetzen dutelakoan gaude. Beharbada, beharrik ere ez zuen sentitu. Izan ere, bizitzak berak jarri zizkion aurrean, gehienetan bila joan gabe, existentzi egoera lazgarriak, bizipen berri eta sarkorren iturri izango zitzaizkionak. Amarik ezaren sentipena modu tragiko batez biziko du; berebat, apaizgintzatik baztertua izanak erruduntasun-komplexua eragingo dio, kondenatua sentitzeraino; politikan, gerrate zekenak erbestean jarriko du, nora joan aukera handik gabe, batean kartzelan, bestean

¹ “Estatu Batuak: Euskal idazle berrien paratopia hautatua, ethos literario modernoaren berme”, Peillen, Txomin (koord.): *Euskaldun etorkinak Ameriketan*, Utriusque Vasconiae, Donostia. Egilea hemen Canoren *New-Yorkeko kronikak* eta Gabilondoren *Kaliforniatik bihotzez* literatur lanak aztertzea mugatzen da.

atzerrian ihesi, noiz Iparraldean, noiz Amerikan; eta erbestetik bueltan, etxeratua izan eta gero, berriro erbeste-egoera arnastuko du euskal munduan, Euskaltzainditik urrundua, belaunaldi berrikoekin loturarik egin ezinik. Bakarrik bizitzan. Bakarrik pentsamenduarekin hizketan. Bakardadean aditzen duen isiltasuna da Orixeren *ethos*-a, berez bere eta unean uneko egoera jakinek sortarazi diotena. Horregatik du Orixen hitz poetikoak duen indarra, bizipenen zintzotasunetik datorrena. Orain ulertuko da zergatik ezarri dugun liburukiaren izenburuan “Orixe gaitzesia”. Ez, noski, hitz kalifikatzaile hori guk asmatu dugulako, bere buruari berak ezarri ziolako baizik.

Liburu honetan, guztien gaineratik, Orixe gizonaren barruan sartu eta haren barruko hotsak eta aieneak, pozak eta negarrak, haren bihotzaren deiadarrak eta adimenaren gogoetak, haren azpikontzientearen erreboltak eta niaren zentsurak jasotzen ahalegindu gara. Haren biografian geratuko dira oraindik hainbat pasadizo eta gertakari miatzeke, baina hasteko, eskuratu ditugun iturrien neurrian, lehen urrats batzuk bederen eskaintzeko modua izan dugu.

Zapore mikatza uzten duela errebaso biografiko honek? Baliteke. Gure asmoa ez da izan garraztasuna miazkatzen geratzea, gizonenak bere handian bezainbat txikian erakustea baizik, historiografian azaltzen den bezala, ospe handien azpian miseriak ere ezkutatzen baitira. Baina haren bizitzan, batez ere, idazle profesionala izateko erabakiak maila ekonomikoan dakartzkion ondorio negatiboetan nabarmentzen da, enkarguz egindakoetatik bizi ezin eta, inork emandakoetatik bizi behar izan baitzuen. Orixe izan da bere lumatik bizitzen arriskatu zen lehen euskal idazlea. Atxagaren eta oraingo beste hainbat idazleren bokazio profesionala gerozko fenomeno da eta, gainera, beste garai batean kokatu beharrekoa. Orixe euskarak bizitzeko adina ematen ez zuen garai heroiko horietakoa izan genuen.

Beste ohar bat ere egin beharrean gaude, *Orixe saiogilea* liburu-kian zehaztu gabe utzitako zerbait argitzeko asmoz. Hor, *El trato con Dios* delako saioaz dihardugun XVI. atalean, esaten genuen ez genekielako nongo eta zein apaizek aholkatu zuten gaztelaniaz idaztera. Martin Oiarzabali 1951ko urriaren 4an egindako gutunean aurkitu dugu horren azalpena: “Argi-Erri aurrera deramat. Uste baño obeki atera zait edo ateratzen ari zait. Ortako ba-daukat indarririk aski. Iainkoa lagun. Nere nota guztiak ez ba’da ere, geienak bialdu zizkidaten. Lenbizi euskeraz, baño gero erderaz ere atera nai nuke ‘El trato con Dios’, Markiegi ta Guridi apaiz ziranak ederki legokela ta gauza bearra zitekela

esan baitzidaten. Ordurako euskeraz egiña neukan. Orain asko aldatu dut. Ez dira alperrik ioan oinbeste urte. Sekulan gauzarik argi ta garbi ipiñi ba'dut, au iduri zait ipiñi dutala". Aholkulari horiek, bada, Markiegi eta Guridi apaizak ziren, biak gerratekoan hilak.

Bestalde, jakinda Orixe bizileku askotatik pasa izan dela, haren bizitzari buruzkoa osoagoa izan dadin, pentsatu dugu aberasgarri izan zitekeela, pasarterik garrantzitsuenetan bederen, testua euskarri fotografikoz hornitzea. Oraingoz, Amerikakoak zuri joan zaizkigu. Beste hainbat gauza bezala. Egilea ondo ezagutuz, hobeto ezagutuko da haren obra. Esperantza horrekin jartzen dugu zure eskuetan.

Paulo Iztueta Armendariz
Donostian, 2003ko ekainaren 4an

LEHEN ZATIA
HAURTZAROKO TRAGEDIA

LEHEN ATALA

AMA-GOSE (1888-1905)

“Artzai bazera, ba dakizu zer
dan ‘arkume gaitzesia’;
–praille bizardun batek jarrita
ori nun izengoitia–.
Añiak, ama bat, bi ere ez aski,
Gose-erasana guzia;
Beti erkitu geldi-bearra,
Ama geïgoren isia”

Orexako Iriarten hirukiak

Orixeren drama, inoiz gainditu ez zuen drama mingotza, amarena izan da edo, agian hobeto esanda, amarik ezarena. Gauza jakina da jadanik, askok askotan esana delako, Orixe hirukia zela. Maria Manuela Inazia Pellejero amak, berak ama “Manazi” deitzen dionak, hiru haur munduratu zituen 1888ko abenduaren 6an, eguerdiko hamabitant, Orexako Iriarte baserrian: bi mutil, Nikolas eta Martin, eta neska bat, Dionisia, berak etxeko izenez *Quito’n arrebarekin*-en “Denuxi” deitzen dion arreba. Martin 2 urterekin hil zen, 1890eko otsailaren 18an. Bere anaiabelkideari *Barne-Muinetan*-en eskaintzen dion poeman, hirugarren ahapaldiak honela dio:

“Aingeru gazteñôk erauzi zinduan
Jaunaren aginduz eltzaur-adarretik.
Han geldi ginduzun gu biôk gordinik
Eltzaur-oskol barnên ondu-bitartean”
(BM; IG, I, 446).

Dionisia, berriz, “Damas Catequistas”en sartu zen 34 urterekin. Amerikan 47 urte egin ondoren, Loiolako komentura erretiratu zen zahartzaroan eta bertan hil zen 1979ko ekainaren 26an, 90 urterekin, Institutuan 56 urte egin eta gero. Loiolako moja-komentuan ama Nagusiarekin 1987ko otsailaren 13an izandako elkarrizketan jaso ahal izan genuenez, erlijiosa oso jarrabidezkoa izan omen zen, santa-fama zeukana. Bere alde asko esaten duen datu horren ondoan, sinestezi-
nezko beste gauza harrigarri bat ere jakin genuen, oraingoan Jose Mari Aranaldek 1987ko urtarrilaren 22ko elkarrizketan esanda, eta da eus-
kara erabat ahaztu omen zitziola, hitz solte batzuk besterik ez omen zituen egiten. Neurri batean, konprenitzekoa ere izan liteke hori, bal-
din kontuan hartzen bada Amerikan 47 urte luze egin zituela, eta ho-
rietatik hainbat Quiton. Berarekin hiri honetan egindako egonaldia
gogoratuz jarri zion Orixek bere liburuetako bati, hain zuzen, *Quito’n
arrebarekin* izena. Baina lan hau burutu aurretik, bere anai Martini be-
zala, une hartan Txileko Quiton aurkitzen zen bere arreba sabelkide
Denuxiri ere beste poema bat eskaini zion, poema-liburu berean eta
segidan, zazpi ahapaldiz osatutako otoitz beroa. Mezu hau igortzen dio
lehen bi ahapaldietan:

“Hurrun aiz, hurrun dun gure Martin; emen
aitaren ondoan nauzute, ta an goien
amarekin hura.

Jainkoak barreia
gindunan bere esku legun begidunez:
alere esku huntan geuden zorionez,
ezin âldeginki. Bai esku zabala,
sabel berokia, begi maitekorra”
(BM; IG, I, 447).

Sabelkideak zituen anaiari nahiz arrebari egindako poema bietan, azkenekoak ideia bera jasotzen du, hots: amaren sabelean hiruek sortu ziren bezala, hiltzean, hiruek bat egin dezatela Jainkoaren altzoan:

Lehen poeman:

“Amak sabelean gu suma bezala
suma zagun Jauna. Ilen garenean,
ark baino barnago altzoan gaitzala”
(BM; IG, I, 447).

Bigarrengoan:

“Gu bien gorputzak ama lurak irets
ditzanean, ordûn, Jaun hunen altzoan
arimôk bi bitez betiko beroan”
(BM; IG, I, 448).

Hirukien gertaera ez hain ohikoaren berri dakarren “Denok bat”
poeman irakurtzen denez, jaiotzen azkena Nikolas bera izan zen:

“Ama gaisoak, aurraldi batez,
titi bañon aur gehiago:
ez nindun gaiztoz goseak utzi.
Gaurgero zeruan dago.
Azken jaioa nintzalako, ni
besteak bañon aulago;
bi inñude ta ama bañño amona
ez nuan gorrotoago”
(E; IG, I, 211).

Aiton-amonak –Mateo Ormaetxea eta Maria Frantziska Etxeberria
Gibelalde, Zaldibiakoa–, haren bataiorakoan izan ziren. Ez zuen ama-
puntakorik izan, baina bai aitapuntakoa: Inazio Orizabazala, Amez-
ketakoa. Donostiako elizbarrutiko Artxiboan gordetzen den Orezako
Santa Krutz parrokiako jaiotze-liburuan datorrenez, Saturnino Gastesi
apaiz jaunak bataiatu zuen.

Iriarteko hirukien pasadizoa ezaguna bada ere, ez da hain ezagu-
na ama Manasik berak 1877ko urriaren 14an bizkiak izan zituela: Joa-
kin Lorentzo eta Teresa, hurrenez hurren, gaueko 11tan eta 11,30etan
jαιοak. Ezezagunagoa da oraindik, bigarren bizkialdi batean, Petra Ma-
ria eta Pedro Bartolome munduratu zirela 1886ko ekainaren 21ean,
lehenengoa arratsaldeko 6,30etan eta bigarrena gaueko 11,30etan. Hiru
erdialditan zazpi haur. Bada zerbait! Baserri hartan jaiok asko ziren,
hilak ez gutxi. Teresa 32 urterekin hil zen, 1909ko maiatzaren 11n,


Orixeko Loiolan Nobiziatua eta humanitateak bukatu zituen urtean, hain zuzen; Pedro Bartolome, berriz, 4 urte besterik ez zituela, 1890eko maitzaren 7an.

Baina zenbat senide izan ziren guztira? Hau jakiteak lanak eman dizkigu. Hara zer dioten Orixek berak: “Ire ta nere amak zer-euki gutxi, ta amar aur ordurako: bi bixkialdi, irukiak; gero bakarka lau, onik yaioak (QA; IG, I, 710). Eta beste pasarte batean, umetan hildako anaia batez ari dela, hamabigarren baten berri ere ematen du: “Guk amabiren artean bakarra yunagu” linboan (QA; IG, I, 742). Orixek esandakoari erreparatzen badiogu, korapiloa askatzen ez da aise. Lehen testuan “bi bixkialdi, irukiak; gero bakarka lau, onik yaioak”, esaten baitigu –beraz, guztira hamaika dira eta ez hamar–, nolatan dio bestean “amar aur ordurako”? Lehenago, hain zuzen, beste hau ere esana dauka: “amaika ongi elduak, eta bat eldugabe yaioa” (QA; IG, I, 707). Badirudi testuak berretsi egiten duela diogun hau. Gainera, testu horren arabera, heldu gabe jaioa bere aurrekoa izan zen. Esaldiaren testuinguruak hala ematen du aditzera, Uitzira zergatik eraman zuten esplikatzeko ari baita. Gero, linboaz diharduen beste pasarte batean, agertu zaiona Matxin al zen galdetzen dio Denuxik, eta Orixek erantzun: “Ez, amabigarrena” (QA; IG, I, 741). Aita zenak esaten dionez, linboko haur hori anaia zen. Beraz, testu honen arabera, heldugabe jaiotakoa da azken senidea, hamabigarrena, eta, gainera, anaia izan zela zehazten du. Hara hemen nola aurkitzen garen nahasbidean sartuta. Entzun ere entzun izan dugu, erdi-txantxetan, etxean bertan ere ez zekitela zenbat senide izan. Hainbeste izan, izan!

Orixeren testu hauek ez gintuzten argitzen eta Donostiako elizbarrutiko Artxiboan jasotzen diren Orixeko Santa Krutz parrokiako jaiotze-liburuetara jo genuen. Horko agerietan Jon Bautista Ormaetxea Etxeberria eta Maria Manuela Inazia Pellejero Gibelalde gurasoengandiko seme-alaben izenak datoz erregistraturik jaiotze-agerietan: Maria Frantziska (1874-06-10), hurrengo egunean bataiatua; gero Joakin Lorentzo eta Teresa (1877-10-14) eta Petra Maria eta Pedro Bartolome (1886-06-21) bizkialdiak; segidan Dionisia, Martin eta Nikolas hirukiak (1888-12-6) eta, azkenik, Maria Eusebia (1890-12-15), hau ere Iriarten jaioa. Orixek *Quito'n arrebarekin*-en birritan bederen aipatzen duen “Euxebia” arreba hau izango da, hain zuzen, etxean bizitzen jarriko dena, Inazio Iturralderekin ezkontuta.

Zenbat senide ziren? Ez dakigu zuzen. Arestian aipatutako jaiotze-agiri horietan 1886tik 1877ko haurraldira 9 urteko tartea dagoela ageri da eta litekeena da tarte horretan beste batzuk jaio izana ere. Baina zenbat, bi ala hiru? Ez jakin. Hemendik aurrera dena da suposizio hutsa. Suposatzen bada bi jaio zirela, orduan Orixeren “ama aur ordurako” ongi dago, baina oker “gero bakarka lau”. Baina suposatzen bada hiru jaio zirela, orduan alderantziz gertatzen da, “gero bakarka lau” zuzen eta “amar aur ordurako” oker. Zailtasunak ez dira hor bukatzen, zeren, baldin onartzen bada guztira hamabi senide izan zirela eta hamabigarrena, hain zuzen, haur hila izan zela, orduan Orixeren ondotik jaiotako Maria Eusebia ezin izan daiteke etxeko gazteena. Beraz, supozisioaren kateari segida emanaz, ondorio honetara iristen gara, hots: baldin hamabi izan baziren –hamabigarrena denbora baino lehen jaioa–, hamaikagarrena Maria Eusebia izan zela eta hamargarrena Nikolas bera. Eta beraren aurretik, onik jaiotako, hiru eta ez lau. Eta 1886-1877ko epealdi horretan bi jaioko ziren eta ez hiru. Baina baldin heldugabe jaiotako anaia hura Orixeren aurrekoa izan bazen –eta kasu honetan hamabigarrena zela esatea oker esana legoke–, orduan ondorioz ateratzen dena da Orixe bera izan zela hamaikagarrena eta hamabigarrena Eusebia. Eta beraren aurretik onik jaiotako lau eta ez hiru, eta, beraz, aipatutako 9 urteko epealdi horretan jaiotako hiru izango ziren eta ez bi, eta, gainera, heldugabe bat. Ezin nahaste handiagorik! Dena den, iluntasun guztiak erabat gaunditza heldu ez bagara ere, jaiotze-agirietatik atera ditugun bederatzi senide horiez aparte, beste lau izen hauek ere ziurtatu ahal izan dira Jose Mari Aranalderen bidez: Lontxo eta Benantxio, biok Amerikan bizi izanak; Joan Joxe, gaitzenez «Korkotxa» deitua eta Tolosan merkatari abila izana, eta Luis. Hamahiru senide bederen izan ziren. Azken hauen jaiotze-urteak, ordea, ezin lortu izan ditugu.

Esanik dugu Maria Eusebia Iriarten jaioa dela. Honek esan nahi du, baldin bera izan bazen senideetan gazteena, haren aurrekoak ere bertan jaiotako izango zirela. Baserri hau, errepidetik gora goazela, herri-sarreran eskuinetara dago. Gaur egun, itxura ederreko baserria da, berrituta dagoena. Ormaetxea-Pellejero familia han bizi izan zen garai hartan, bi etxebizitzakoa izan zen. Nikolasen familiaren etxebizitza honek, hain zuzen, beheko aldetik zuen etxerako sarrera. Gaur hor etxorde bat aurkitzen da eta, fatxadatik begiratuta, eskuineko alboan beste etxorde bat ere bada.



Iriarte baserria, Orixeren jaiotetxea, herriko sarreran. Jaiotza-plaka goiko etxearen fatxadan ezarria badago ere, Orixe jaiio, etxorde antzeko beheko etxean jaiio zen. Orain gaztandegi gisa erabiltzen dute artzain-kooperatibakoak.

Ez atzerrian bakarrik, Orixeko herritxoan bertan ere erromes ibili zen Nikolasen familia, baserri batetik bestera aldatuz. Horixe zen maizter askoren patua, hau idazten duenak ere bere etxean ere ezagutu izan zuena. Orixeren gurasoak, noiz ez dakigula, herri-gunetik aparte samar dagoen “Benta Berri” baserrira aldatu ziren. Maldan albo batera etzanda bezala dagoen baserri hau, gaur egun, borda bihurtua dago, eta Nafarroarako bidean aurkitzen da, aurrean, ezkerretik eskuinera, basurdeak hain maite duten Ziari, Iliarratsu eta, Lizartzarekin mugakide, Narbaitzu mendiak dituela. Bigarren baserri honetan, etxaldeko arreba Maria Eusebia ezkonduta, familia berri bat hazi zen. Etxean argirik eta urik ez, herrira joateko urruti samar, pentsa zer moxtade izango zen bakardade hartan. Azkenean, “Gogortzanea” baserria erostea erabaki zuten eta hor jarri ziren bizitzen.



*Benta Berri baserria, Orixeren bigarren baserria, Urkieta mendia aurrean duela.
Denbora luzez borda gisa erabilia, egun etxe-bizitzarako enaberritzen ari dira.*

Gogortzanea noiz erosi zuten ez badakigu ere, badirudi, jadanik 1931rako edo, han jarri zirela bizitzen eraberrituta. Erosketa honetan Orixek ere jarri omen zuen bere dirua, nahiz eskrituretan haren izenik ez agertu. Hitza emana zioten, antza, bera bizi zen artean etxe hartan izango zituela jana eta ohea, bere arreba Denuxiri esplizituki jakinarazten dion bezala: “Etxera itzuli ba’nendi, yana ta etzana nere zetunak beñipeiñ” (QA; IG, I, 712). Orixe Gogortzanen bizi izan zen Bilbotik 1931n etxeratu zenean. Benta Berriko alaba zaharrenak, Benantzia Iturraldek, eman zion segida Gogortzaneke etxaldeari. Baserri hau, Lizartaldeko sakana bistaratzen duela, plazatik Espururako bidean aurkitzen da, “Matxinea” eta “Lartea” baserrien erdian. Baserriak, mendebaldera, burdinazko balkoi jarraitua du, Narbaitzu eta beheko harana eskupean dituela. Sarrerako atea eta leihoak harlanduz eginak ditu.



Gogortzanea, Orixeren hirugarren baserria, Espururako bidean. Orixek hemen egin zituen gerraurreko urteak eta Ameriketatik itzuli ondokoak.

Familia ugaria izatea normala bazen ere garai hartan, askotxo zen, zalantzarik gabe, Iriarteko guraso haientzat. Nikolas jaio zen egunean, hala kontatu zigun herriko Jose Mari Malkorrek 1985eko abuztuaren 4an egindako elkarrizketan, haren aita Joan Bautista Ormaetxea mendian omen zen eta auzoko lagun batek “zer berri?” galdetu zionean, negarrari emanez, “hiru” erantzun omen zion. Ez zen gutxiagotarako! Orixeko maldan baserritar aberatsik ez bazen, Ormaetxeatarrenean apenas ibiliko ziren dirua eta jana sobera. “Orixen etsitzen duenak, ipernuan ere etsiko likek” (QA; IG, I, 708), esaten omen zuen Uitziko aitona Zimurrok. Bazekien zerbait.

Orixe hirukia izateak arazo berri bat sortu zuen familian. Hiru haur beti hiru baitira, ezin izan zuten etxera inuderik ekarri. Bere aurreko arreba Petrak zorte hobea izan zuen: “Gu bion aurreko arrebak etxera ekarri al izan zunan inñudea, ta nik ikusi nenunan ire izeneko illoba, inñudea bañon ama maiteagotzen; begien aurrean baitzedukan beti” (QA; IG, I, 710)). Berak, ordea, ez. Hirukia izateaz gainera hiru-

garrena jaio baitzen, harentzat ez zen Orexan titirik ez amaren bularean ez inudearenean. Norbaitek behar eta, Nikolas eta Denuxi suertatu ziren etxetik kanpora joan beharrean: Nikolas Uitziko “Errekalde” baserrira, Arrosa inudearen titi epelera haztera, eta Denuxi Aresora. Hemen izanak gara zein familiatan bizi izan ote zen galdezka, baina bertako zaharrek ez digute arrasto jakinik eman ahal izan. Zerbait entzuna zutela, bai, baina zerbait zehatzik batere ez. Dirudienez, denbora gutxi egin zuen Areson, zeren Denuxi Nikolasi aitortzen dionez, ez baitzuen gordetzen Aresoko ezein akordurik: “Ni ez nintzian konturatu ere” (QG; IG, I, 708). “Napar beltza” deitzen baitzioten, orduan ikasi omen zuen Areson hazia izan zela.

Uitziko Errekalden inudearekin

Leitzatik Lekunberrirako bidean, errepide nazionala utzi eta, Uitziko plazarako bidea hartzean, eskuinetara aurkitzen da Errekalde, baserri galanta bezain ederra, atzealdean “Iturriandi” izeneko aska duela. Ikazkinek iturri honetako askan garbitzen zuten musua asteburuz menditik jaisterakoan.



“Iturriandi”-askan aurpegiak garbi
-astean ezpaitute azalik ikuzi-;
ortzak eta sakela bakar-bakar zuri,
gaiñerakoa ikatz, eskuak illinti-“
(E;IG, I, 1991, 43).

Errekalde baserria, eraikin trinkoa da, oinplano erregularrekoa. Harrizko eraikuntzetan ohi denez, karga-murruaren sistema darama. Hormak harrizkoak ditu eta harlanduak nabarmentzen dira izkinetako eskantzuetan nahiz ate eta leihoen ertzeetan. Tarteak, berriz, igeltsuz estalitako harlangaitzezkoak dira. Lau oin ditu eta, baserrietan ohi denez, burdinazko balkoi jarraitua du, fatxada nagusitik begiratuta, ezkerreko alboan. Armarriduna da. Fatxada nagusiko sarrera, erdi-pun-



*Errekalde baserriaren fatxada nagusia Elbarrengo auzoan.
Baserri honi kantatu zion ahapaldi hau:*

“Ortakoz, aipa-bearra dizut
azi ninduten sukalde:
ain zuzen, etxe aren izena
lên dakizun “Errekalde”.
Nere lénengo euskal-eskola,
nere sortetxeko alde.
Euskalerriko biotza dut nik,
artaz nai baduzu galde”
(E; Ib, I, 1991, 210).

tuko arku batez eratutako baoa da. Aldamenean, eskuinetara, beste antzeko bao bat ageri da, orain estalia dagoena. Teilatua hiru uretakoa du. Gailurra, berriz, balkoi jarraitua daukaneko fatxadarekin paraleloa da.

Errekaldeko familiez hitz egitean, han hiru sukalde zeudela esaten du Orixek “Denok bat” poeman. Badirudi hiru familia bizi izan zirela Orixen hara eraman zutenean: beheko solairuan bi, eta gainekoan, berriz, Fermin Lasarte apaiza, Karitateko Alaben kaperaua. Bitxia bada ere, Orixek bere lanetan ez du apaiz jaun horren izenik ere aipatzen. Sukalde batean –oraingoan, nahasketarik egon ez dadin, zehatzago esanda–, amona Mari Axuntxi Huizi Zubieta eta aitona Jose Ramon Etxarri bizi ziren, eta hauekin batera, beren seme Jose Migel Etxarri, bizibidez zapataria zena, Arrosa Ariztimuñorekin ezkondua. Uitziko parrokiako jaiotze-liburuan Maria Ascensión Huizi Zubieta izenez erregistratua datorrena, 1829ko maiatzaren 28an jaio zen, goizeko 11,30etan, eta egun bereko arratsaldeko 4,30etan bataitu zuten. Aitona sortzez Lekunberrikoa zen eta gaitzizenez “Zimurro” deitzen zioten. Xuhurra zelako, agian? Rora Ariztimuño Olaetxea, Orixek “Arrosa” deitzen diona, 1862ko abenduaren 9an jaio zen. Nikolas haurra bularreratu zuenean, beraz, 26 urteko ama gaztea genuen. Beste sukaldean, berriz, beste amona bizi zen, Maratiste, Arrosa inudearen ama, alegia, eta familia honetan Arrosaren ahizpa, Maria Inazia Ariztimuño, zegoen ezkondua Joan Martin Ansorenarekin. Beraz, bi ahizpa bizi ziren baserri berean sukalde banatan. Orixerentzat haiek ziren familiako bakarrak, bere haurtzaroa errailetatik bihotzeraino markatua utzi ziotenak, “Denok bat” poemako ahapaldi honetan egoki asko adierazia datorren bezala:

“Aur nintzalarik bi ama-alaba
banetan ziraden bizi.
Txikienean alaba unidék
arretaz ninduan azi.
‘Beste sukalde’ zitzaionera
zenbat aldiz nun igesi,
amonordeak –zeruan bedi-
âl du gaurgero ikasi”
(E; IG, I, 210).

Egin ohi den galderetako bat da ea nolatan agertu zen Orixen Uitziko baserri horretan, eta ez beste batean. Noski, inudeak ez ziren noiznahi eta nonahi izaten. Kasu honetan, ordea, badirudi Orixen eta

Uitziko bi familia hauek lehendik ere ezagunak zirela. Amona Mari Axuntxiren aitona, herriko Fermin Ixurko apaizak esan zigunez, Orexako semea zen. Beraz, ez zen erabat harritzekoa Nikolas haurra Errekaldeko sukaldean ikustea. Baina zein sukaldetan? Hasteko, Orixeri berari emango diogu hitza *Quiton arrebarekin*-en: “Amona Mari-Axuntxi, aita zapatariaren ama, oso emakume yainkozkoa zinan. Arengandik ikasia naun otoitz egiten. Gaixoak etzekinan irakurtzen. Ni eramaten nindunan balkoiera, Gurutze-Bidea irakurri niezaion. Zenbat malko ixil! Nere Yainko-bidean ez dinat uste ark aiña iñork eragin naunik. Ua izan nenunan lenengo irakasle. Beste amona Maratiste, beste sukaldekoa, amona Arroxa'ren ama. Biak sukalde banatan bizi itxinan: alaba sukalde txikian nerekin eta ama aundian. Ni geienetan beste sukaldean nintxinan, zerbait yaten edo edaten. Artalde ederra ziñatenan. Amaika gazta-mami ta gazura eman zidanen gaixoak!” (QA; IG, I, 710).

Artalde eder hori zaintzen zuen Errekaldeko artzaina, hain zuzen, Joan Martin Ansorena genuen. Esan digutenez, Orixe aldamenen izaten omen zuen. Erdiak jezteko garaian, Errekaldeko bordara joaten omen zen, marmita hartuta, aldapan gora, bi eskuez dindi-danba atabal-hotsa ateraz.

Halako batean, halakoak usu gertatzen baitira, bi familia horiek elkarrekin ondo etortzen ez zirelako, inudearen familia “Joantenea” baserrira aldatu zen, eta, haiekin batera, jakina, baita Orixe ere. Ez dakigu baserri-aldaketa hori noiz izan zen, baina, Fermin Ixurko jaunaren ustez, Orixe hilabete batzuk besterik ez zituen egin baserri horretan. Ordurako, noski, mutil kozkor heldua zen. Orixeren aipuetan, hau ere gogoan artzekoa da, Errekalde agertzen da beti, inoiz ez Joantenea.

Errekaldeko familiakoak –Jose Migel Etxarri eta Arrosa Arztimuñoren etxeokak, alegia–, ez ziren izan zorte handikoak. Mila zoritxar gertatu zitzaizkien. Ia gehienak gazterik hil ziren. Arreba Denuxik Uitziko haiek noiz hil ziren galdetzen diolarik, hauxe erantzuten dio: “Aspaldi. Zapataria nik amasei urte edo nitula. Andik luzaro gabe ama Arrosa. Aiek ere amar aur izan zetunaten, eta guziak gazterik il itxinan, bi ezik. Sukalde doakabea! Beti ubarrazkian. Gaur bei bat il, biar urde bat, urrena aur bat; azkenean aitamak. Alako yende onik ez nenunan arkituko billa ibillirik ere. Nik ere alde egin nenunan eta ez gurasoen etxera, txori galdu onek” (QA; IG, I, 710).

Beraz, Errekaldeko aitona-amonordekoak Orixe Oñan filosofi ikasketak egiten ari zela hil ziren: amona Mari Axuntxi Huizi 1912ko

azaroaren 27an, 83 urterekin, eta aitona Jose Ramon Etxarri Ostiz, hurrengo urtean, 1913ko abuztuaren 11n, 84 urteak beteta. Handik laster, 1915eko ekainaren 27an, hilko da Arrosa Ariztimuño etxekoandre gaztea ere, 52 urterekin. Honek ordurako hila zuen Jose Migel Etxarri senarra, heriotza-liburuko agerian Arrosa alarguna zela esaten baita. Noiz? Orixek dakarrenez, berak “hamasei urte edo” zituela, 1904an edo, Iruñean. Arrosa inudearen heriotzak Orixek Comillasen maisutza-ko urteak egiten harrapatu zuen. Besteak, arestian esan bezala, hamar edo hamabiren bat urte lehenago.

Orixek, aipaturiko testu horretan bertan, hamar seme-alaba izan zituztela, dio. Eta horietatik, bi izan ezik, beste guztiak gazterik hilak. Zergatik ote?

Errekaldeko familiaren berri gehiago jakin nahiak eraginda, Uitziko Pedro Ariztimuño Galarza jaunarekin hizketatu ginen 1985eko uztailaren 26an, Iruñeko bere etxebizitzan. Apaiz hau 1911ko maiatzaren 16an jaio zen, Joantenean hain zuzen, eta, Orixek lagun mina izaki, hainbat xehetasun eman zizkigun. Berak, Orixek Uitziko utziz gero, Errekaldeko hiru neska eta hiru mutil ezagutu omen zituen, berak lehengusu eta Orixek anaiordeko eta arrebatordeko zituenak. Neskak Maria Manuela Eulogia, Joana Josefa eta Maria Rosa Josefa izan ziren, hurrenez hurren, 1892ko martxoaren 11n, 1896ko otsailaren 17an eta 1904ko abuztuaren 30ean jaioak. Zaharrena, Maria Manuela, Leitza-ko tisiko batekin ezkondu zen. Kutsua etxean sartu zen eta, horren ondorioz, lehenik Manuela hil zen eta gero Joana Josefa, elizakoak Errekalden hartuta; hirugarrena, hau ere kutsatuta, Donostian hil zen. Mutilek Inazio, Migel Joakin eta Florentzio zuten izena, hurrenez hurren, 1893ko abenduaren 21ean, 1898ko martxoaren 13an eta 1902ko otsailaren 23an jaioak. Etxetik irteten lehena Migel Joakin izan zen eta, Berastegiko Alduntzin abizeneko batekin esposatuta, herri horretan jarri ziren bizitzen. Inazio, berriz, Jesusen Lagundian sartu zen, baina gerora, handik aterata, langilezain bezala aritu zen lanean Amerikan. Florentinoren berririk ez genuen jaso.

Pedro Ariztimuño apaiz jaunak sei anai arriben berri ematen du. Noski, horiek ziren berak ezagutu zituenak. Orixek, berriz, hamar izan zirela esan digu lehen. Nork arrazoi? Ez batak eta ez besteak, guztira zortzi izan baitziren. Pedro Ariztimuño jaunak emandako zerrenda horretan bi zaharrenak falta dira: Jose Ramon, Orixerekin titikide izana, eta Pedro Jose, urte batekin hila, 1891ko maiatzaren 10ean. Zaharrena, hain zuzen, 1888ko abuztuaren 15ean jaio zen, justu Orixek

baino lau hilabete lehenago, azken hau, gogoratuko denez, abenduaren 15ekoa baita.

Jende ona Errekaldekoa, munduan beste bat hoberik ez Orixerentzat, baina han ere zoritxarra eta malura nagusi.

Maria Inazia Ariztumunok eta Joan Martin Ansorenak osatutako beste familiaren zehetasunak jasotzen ere ahaleginduko gara. Bost seme-alaba izan zituztela esan berri digu Pedro Ariztimuño Ansorenak 2003ko maiatzaren 31ko elkarrizketan, berak osaba-izeba zituenak: Pedro Jose, Zelestina (bere ama), Maria, Santos eta Joan Maria. Errekalden, lehenago zaharrak joan eta bigarren belaunaldian, beste bi familia bizi izan ziren, oraingoan bi anaia bi ahizparekin ezkondata: batean, Zelestina Ansorena Frantzizko Ariztimuñorekin, eta hauek bederatz bi seme-alaba izan zituzten, horien artean lehen aipatu dugun Pedro Ariztimuño Ansorena berriemailea, bestean, Maria Ansorena Jose Maria Ariztimuñorekin, hauek ondorekorik gabe. Orixe Orexatik ihesi joan zenean bi familia horiek aurkitzen ziren han, berak familiakoak bezala zituenak. Gerraurrean bezala erbestetik itzultzean ere, Uitzitik agertzen zen guztietan Errekaldera biltzen zen. Hura zuen bere etxea.

Gorabehera hauek ez dute iruzkin beharrik, Orixeren jatorrizko famili giroa nolakoa zen jakiteko. Nolanahi ere, hemen esandako guztia kontuan hartu beharrekoa izango da, Orixe mundua nola ikusi zuen argitu nahiko dugunerako.

Amarik ez

Mundura ekarri zuen sabela Orexako Iriarten eta hazkurria eman-go dion titia, berriz, Uitziko Errekalden. Lehen argia Orexan eta ondorengo berotasun-printzak Uitzin. Bi ama, baina, azken finean, berak garrasi baten garraztasunez dioen bezala, amarik ez. Hautzaroko oroitzapenak oso gogoan dauzka: “Arroxa Aristimuño nenunan inñude: ‘Ama Arroxa’, nik egizko ama uste nuna. Ta uste ori nork kendu, oraintxe ere... ! Onela esaten erakutsi zidatenenan: ‘Ama Arroxa ta ama Mañazi’” (QA; IG, I, 710).

Amarik eza txiki-txikitatik izango du Orixe haurrak, Orixe gazteak, Orixe helduak bere kalbario betikoa; bi amaren irudiak barnemuintetan itsatsita eramango ditu etengabeko borrokan, nahigabez gainezka. Berak, labur baina zorrotz, honela adierazten digu bere barruko minaren urradura: “Ortatik gelditu zaidan beti biotzean ezin betezko

utsa” (QA, IG, I, 710). Hori esan eta, Suitzan gertatua aipatzen dio arrebari. Hara: emazte batek bikiak izan zituen amaetxe batean. Haurrak garbitu aurretik amak ikusi ez eta, horietako bat beste ama bati eman omen zioten. Hamar urteren buruan jabetu omen ziren nor no-rena zen eta orduan epaiak seme bakoitza egiazko amari ematea erabaki omen zuen (QA; IG, I, 711). Gertakari hori gogoan duela, Orixek, bere kasu pertsonalari aplikatuz, zintzoa bezain mingotsa den aitorten hau jartzen du luman: “Nik nere buruz irizten zionat, bañan etzaidan iruditzen ondo egia dagonik. Noizean bein egiazko amarengana joan –Ni Oresa’ra bezala– ederki zegoen, bañan amar urteko mutikoak, us-tez ama zutenarengandik bananeraztea, gogor iruditzen zaidan. Ama Arroxa ta ama Mañazi batean agertu ba’lekizkida, nor lenik musukatu? Lazgarridun; baña biotza nagusi. Nere bizi guziko utsaldia: bi ama ta amarik ez” (AQ; IG, I, 711).

Aitorten tragikoa benetan Orixeren haxe, amaren magala eta beroa baino gehiago inudearena ezagutu duen bati dariona. Orixek hotz sentitzen da bere amarenganako barne-begiratuan. Badu horrek bere esplikazioa. Orixek, justifikazio gisa edo, aurreratzen duena zera da: alegia, bi urte egin arte ez zutela inudearen etxetik bere gurasoen etxera eramane eta bertaratu zutenean, ordurako ezaguera poliki baitzuen, ezin omen zuen han etsi. Ez jan ez lo, Nikolas haurra trantze hartan ikusita, inudeari gaztigatu omen zioten etor zedila haren bila. Amona Mari Axuntzik eramane omen zuen bizkarrean hartuta, lau orduko bidean mendiz. Orduan hirurogeita bat urte inguru zituen amona hura, ez zen amona makala horrelako pardela bizkarrean eramateko!

Harrezkero, urtero, Santa Kurutzetan eramaten omen zuten Oresara. Eta bera, berriz, festetako hirugarren eguna noiz helduko zainzain handik aldegiteko. “Au ez da gure etxea; amarengana yoan bear dut” (QA; IG, I, 707), errepikatzen omen zuen Nikolas txikiak. Denuxi arreba ere, lehen esan bezala, Areson hazia zen, gurasoen etxetik kanpora hura ere; baina, nonbait lehenago etxeratu zutelako edo, agian, neskatoak mutikoak adinako ezaguera ez zuelako, ez dirudi Nikolasek bezainbat sufritu zuenik.

Uitziko Errekalden “ama Arroxa ta ama Mañazi” esaten erakutsi baitzioten, nork kendu hari burutik Errekaldekoak guraso ez zituenik? Kontrakorik ez zuen entzun ere egin nahi izaten: “Egiatzko gurasoak guraso nitunik ez siñestu nai. Esanago ta gutxiago” (QA; IG, I, 707).

Uitziri agur egin eta hamazazpi urteko mutikoa zela, Xabierera joan zenean (1905), beharbada horrelakoetan familia parentesi artean

jarri eta lagunarte berrian sartzen delako, Orixek bere amaz erabat ahaztuta ikusten dugu. Baina noizbait oroitzen da eta “Nere ama” eta “Mañazi” izeneko poemak eskaintzen dizkio. Biak aparte emango ditugu, bakoitzak baitu bere mezu berezia, arras nabarria dena.

“Nere ama” poematik osoa ez bada ere, muina bederen transkribatuko dugu, bere laburrean Orixek hemen husten baitu bere barrunbea:

“Ni asuri gaitz-etsia;
zu ordea, eusko-andre
zail-etsia.

Zure magal txokorik ez
nik ikusi, musurikan
artu ere.

Nola maiteko zaitut ba
ezagutu ez bazaitut?
Jakiña da.

Iru umetxo sortu giñan,
badakizu, sabelaldi
bakarrean.

Irurok ezin azirik
urruti bial ninduzun
zure etxetik.

Gero Jaunak bereratu
ta, ez zait amarik zanik
bururatu.

Orain ezagutu ditut
nere erria ta ama, gaurtik
maite ditut.

Zu erririk garbiena
ta zu andre guzietan
bizkorrena.

Zuek ezaguaztera
noa neurtitzez, baita ere
gure euskera”.
(IG, I, 457-458).

Berandu bada ere, azkenean barruan zeraman harrak, hots, amaren ausentzia luzeak ukitzen du Orixeren sentimen poetikoa. Berandu diogu, zeren “Nere ama” poema hau bederen 1919az geroztikoa baita, zalantzarik gabe. Aita Onaindiak (1965, 147-149), “Orixe olerkari” artikuluan, Auñamendik argitaratutako Nikolas Ormaetxearen *Euskaldunak poema eta Olerki guziak* argitalpenean oinarrituta seguru asko, poema hori 1915ean egindakotzat jotzen du eta, uste honen arabera, Orixek hogeita zazpi urte inguru izango zituen hori mamitu zue-nean. Baina poema horretan “gero Jaunak bereratu/ ta, ez zait amarik zanik/ bururatu” esaten baita, ezin da izan ordukoa, bere ama Maria Manuela Inazia Pellejero Gibelalde 1919ko abenduaren 1ean hil baitzen Benta Berri baserrian, 70 urterekin. Orixek 31 urte zituen ama hil zitzaionean eta orduan Xabierren aurkitzen zen, artean zigortuta. Bere amarengana itzultzen den semea, jadanik seme heldua da, seme gizondua, arrazoiz eta sentimenduz jantzia.

Joxe Azurmendik (1976, 54), poema hori irakurtzean, hauxe idatzi zuen: “Orixeren ama kasik kontzetu bat da, irudi bat: ‘eusko andre zail-etsia’... Harrigarria abstrazio forma hori, erabateko konkrezio falta bait dirudi, contenido konkretu baten itxura hutsa harturik”. Ez hori bakarrik. Abstrakzio hutsa da, eta negatiboa, darabiltzan hitzak ere halakoxeak baitira: “gaitz-etsia”, “Zure magal txokorik ez/ nik ikusi, musurikan/ artu ere ez”, “urruti bial ninduzun/zure etxetik”... Badirudi epaile baten akusazioak direla. Gupida gabeak. Eta poemaren amaieran, Euskal Herria eta ama sentitzen ditu edo, Joxe Azurmendirekin esateko, “haurtzaroa” berraurkitzen du.

“Mañasi” poema, giro psikologikoaren aldetik begiratuta, beste kera batekoa da. Liturgian Ama doloretakoari bezala, Orixek bere ama zoritxarrekoari kantatzen dio poema honetan. Lehenik aita galtzen du gaztainadian, adaska ustel batek huts eginda gaztainondo gainetik erortzean. Gero, artean neska gazte zen Mañasi bera, morkotsak bil-tzen ari zela, gaztainondotik jautsitako morkots batek begi ederrean jotzen du gora begiratzean. Eta begia galtzen. Horra hor bi zoritxar:

“Gaztaiñadia!
 Len gure Mañasi’k aita galdu eta
 orain begia!”
 (IG, I, 458).

“Nere ama” poema hotza, abstraktua, salataria den bezala, “Mañasi” beroa, konkretua, urrikalkorra da. Kontrako indarrak dabilzkio

borrokan, aldiz zapuztua eta aldiz bere egiazko amarenganako maitasunaren zordun sentitzen delarik. Halere, ama Mañasiren ala inude Arrosaren artean hautatu beharra gertatuz gero, lehen esan denez, Uitziko amaordekoaren alde egingo du. Orixeren bihotzari poesiak sortarazi dizkiona, alabaina, ez da izan Arrosa, Mañasi baizik. Puntu hau ohargarri dela uste dugu, zeren egia baldin bada poesia bihotzaren hitza dela, ez baita egia txikiagoa bihotzak ez dakiela hitz egiten adimenaren eraginik gabe.

Eta aita, zer? Aitaren izena ez zitzaion oharkabean pasatu. *Quito'n arrebarekin* lanean, Orexaren deskribapena egiten ari dela, azken partean bere aitaren berri ematen du: “Urte ederrik eman nenunan 1931'tik 1936'era! Bi tartean aita zanaren eriotza. Etxean gertatu nintxinan. Ezaguera osoan zegonan. Arritzekoa –gaur euskeraz itsusi dana– azkenetan iketan asi zitzaionan Jesukristori: ‘Ator, ator lenbailen’” (QA; IG, I, 709-710).

Aita Joan Bautista Ormaetxea Etxeberria, Orexako Santa Krutz parrokiako heriotza-ziurtagiriak dakarrenez, 1935eko otsailaren 14an hil zen Gogortzanean, 83 urterekin. Hiletak eta lurra ematea hurrengo egunean egin ziren. R. M. Azkuek, dolu-minez, eskutitz hau bidali zion Bilboko Euskaltzainditik 1935eko otsailaren 20an: “Adiskide maite Orixek: Zure aitaren eriotzaren berri gure Maidaganek lengo egun batean eman zidan. Bere izena yakin nuen nik, *Absolve, Domine, animam famuli tui N.* esatean, aipatu al izateko (*Euzkadi*-n irakurri dut, egungo zenbakian). Egungo *El Día*-tik oso pozik yakin dut aspaldion artu nai nuen berria. ‘El eximio poeta euskaldun Don Nicolas de Ormaetxea acaba de entregar a la Sociedad ‘Euskaltzaleak’ un magnífico poema, en catorce cantos...’. Lenengo berriaz garbaikide nauzu ta zure aita onaren izena gogoz aipatuko dut nire otoitzxoetan. Bigarren berriaz pozkide naute Donostiako Euskaltzaleak. Biotzez zurea Jesusen Biotzean. Azkue”.

Ama jesuitetan zela galdu zuen Benta Berrin; aita, berriz, Gogortzanean, bera etxean zela. Egiazko amaz gozatzeko aukerarik izan ez bazuen, aitaren ondoan egon ahal izan zuen azken urteetan bederen.

Santi Onaindia Orixek bere aita behin bakarrik aipatzen duela-koan dago. Baina irudipen hori ez da zuzena, Orixek erabilia baitzuen jadanik aitaren gaia. *Euskaldunak* poeman, adibidez, badu garrantzirik aitaren irudiak. Maila historikoan, *Santa Kruz Apaiza* liburuan (SKA; IG, I, 671) adibidez, bere aita Joan Bautista Ormaetxearen lekukotza

dakar Berastegiko alkatearen historia kontatzerakoan. Aita ez dago ausente, beraz, Orixeren bizitzan.

Amona Mari Axuntxi

Amona Mari Axuntxi sarritan ekarri dugu orrialde hauetara. Eta berriz ere berarengana itzuli beharrean gaude aparteko ataltxo honetan. Amona Mari Axuntzik Orixen bizitzan izan zuen eragina modu berezi batez nabarmenduko ez bagendu, ez genuke behar bezala azalduko ez honen haurtzarora ez gaztarora ez zahartzarora ez ezer. Amona Mari Axuntzik Orixeren bizitza mistikoa osoki betetzen du. Jose Mari Aranaldek, *Jainkoaren billa*-ri egindako hitzaurrean (JB; IG, I, 815), Orixek otoitzean irakasle lehen eta gorena amona Mari Axuntxi izan zuela aitortzen du: “Bestaldera, ez diteke esan Orixe’k sakristi-kutsua dunik, ez liburu ontan datorrenez, ez beste askotan agertu danez. Ez du sakristikoa, etzekoa du, euskaldun-kutsua eman zion sukalde artakoxea. Lan au nori eskeintzen dion ikusi besterik ez dago. Jesus’en Lagundiko norbaiti opa al dio? Beste nunbaiteko apaiz naiz praileren bati? Ez; Uitziko Errekalde’n ezagutu zun amandre xarrari, baizik. Ainbat aldiz aotan zun amona Mari Axuntxi’ri”.

Quito’n arrebarekin-en, “Bolibi’ko zabaldia” atalean, ezin du etsi amona Mari Axuntxi gogora ekarri gabe Amerikako zabaldien bakardadea eta isiltasuna dastatzean. Zergatik oroitzen den hartaz? Jarraiko testu honetan ematen dio erantzuna bere arreba Denuxiri: “Uitziko Entzelaira mutiko lenbizikoz arekin larranbillu biltzera atera nintzanean, an ikusi nitunan, Uitziko kabi txiki artatik aterarik, alderdi batean Aralar’ko malloa, ta bestean Beruete’ko, Ezkurra’ko, Leitza’ko, Goizueta aldeko mendiak. Ordun esan nionan: ‘zein aundi ote da mundua?’, ta, ‘aundiago Yaungoikoa’ esan zidan. Zer egaldia egiñerazi zidan amandre arek lenbizikoa! Olako bultzara eragiñez, gaiñak eman zizkidanan, ikara gabe aurrera egiteko, txorikume oni. Geroztik apika egin diñat egaldi aundiagorik, an asita zabaldi ontaraño. Emen arkitu nenunan nere burua, orduko ta oraingo berbera, Yainkoa bezala” (QA; IG, I, 714-715).



Argazkiaren ezker aldean Orixek askotan aipatzen duen Entzelaiko mendi-aldea, eta eskuinaldean, Trintintzuloko gailurra. Inguru horretatik ederki bistaritzen dira Analarko mendi garaiak. Errekaldeko borda bertan aurkitzen da, zubaitz artean ezkutatua. Hori zuen Orixek bere artzaintzako mendia. Korrika ere ingurune horretako zelai-gune batean egiten zuen.

Entzelaiko pasarte hori, testu honetan baino lehenago, *Euskaldunak* poeman aipatua zuen, “Letari” poemako 176 eta 181 ahapaldietan, hain zuzen:

“Noranai begira ta mendi ikaragarri:
itzul eta inguru, ba da zertaz arri;
Amonak Entzeilai’ra baitzuen ekarri?,
mutillak sumatzen du orduko dardari;
gerta bezala dio jalkitzen neskari;

-Lenengoz atera nun kabitik mokoia
(artean soil nekian erriko zokoa);
larranbillutan giñan: ‘Zenbat da mundua?’
esan nion; eta arek: ‘Aundi... Jaungoikoa’...
bein ere etzait aztuko ango zirrakoa”
(E; IG, I, 263).

Amona Axuntxiren erantzunak egin zion “zirrakoa” ez zaio sekula ahaztuko. Gerora ere, Jose Mari Aranaldek hitzaurre berean dioenez, inoiz, negarrez aipatzen omen zuen pasarte hori. Beste inon baino zehatzago, “Gaur-izar. Amona” poemako bertso honetan esaten du zenbat ikasi zuen amona “ez-iakin iakintsu” harengandik:

“Bost aldiz ikusia naiz
egon aretan amañi,
ez-iakin iakintsu aren
ikasle zur nintzala ni.
Ua bezela nai nuke
ikasian ez-ikasi.
Ua lako gurasorik
otoitzean ez dut kausi”
(IG, I, 610).

“Ama naigabetuari” poeman, Ama Birjina Doloretakoari eskaintzen dizkio Errekaldeko sukaldeko minak eta ezbeharrak arrosarioa errezatzeke orduan. Hala kantatzen dio:

“Gure sukaldean ziñan miñetan aipatua.
‘Erregiña eder ori, nekez inguratua’.
Negar-aspertua baiñon obe genun kantua;
baiña bein, eten zitzaigun... Miña zan alakoa!”
(IG, I, 559).

Baina hurrengo bigarren bertsoan, etxeko senideen aipamena orotara egin ondoren, amona Mari Axuntxiren heriotza gogoratzen du:

“Amona Mari Axuntxi etorri zait gogora.
Zure Jasokundeari aurten ein dio gora;
bestetaz zerbait esan nai, ez dakit nondik nora;
iñutama ez dezadan utzi, beintzat, albora”
(IG,I, 559).

Jainkoaren billa liburuan, “Signum contradictionis. Ez’aren eta bai’ren bandera”z ari dela, “Ama naigabetuari” poeman darabilen gai bera iraultzen du. Hemen ere Nekeetako Ama eta amona Axuntxi ditu gogoan. Gaia ez ezik, bertso-zati bat ere –zertxobait aldatua– errepikatatu egiten du:

“Erregiña ederra
urrukiz betea,

(au da, urrukiz edo penaz).
Erregiña eder ori,
nekez inguratua...

Zenbat malco txukatu zituan etxe naigabetu artan!

Amona Mari Axuntxi!
Ondarra bego”
(JB; IG, I, 951).

Beste pasarte batean, *Jainkoaren billa* liburu berean, Uitziko Eguberriaz oroitzean, amona Mari Axuntxi gau honetan kontu-kontari jarduten zitzaizela esaten du. San Joan Bautista eta Ebangelista nahastuz, Eguberritako gertakari pozgarriak kontatzen omen zituen.

Egia da, pasarte batzuetan, Orixe lehen esanak berresaten ari da. *Quito'n arrebarekin*-eko “Bolibi”ko zabaldia” atalean dakarrena eta *Euskaldunak*-eko “Letari” poemako ahapaldi batzuk ezin dira banatu inola ere, banatu ezin diren bezala “Ama naigabetuari” eta *Jainkoaren billa*-ko “Nekeetako Ama” poemak. Jarraitasun nola tematikoa hala literarioa ezin garbiago nabari da poema horietako ahapaldi batzuetan. Baina kasu honetan errepikak badu garrantzirik. Esan nahi du txikitan amonaren otoitz-eskolan ikasi zuen hark, prestakuntza intelektualean heldutasuna lortu eta gerora ere, ezin izan zuela bihotz-begietatik galdu baserri umil hartako amona sotil haren presentzia espirituala. Ikazkinaren fedea izango zen segurua asko harena, jaierez betetakoa eta agian arrazoiz ez aski argitua. Zer axola! Fede huraxe zen, hain zuen, Orixerentzat balio zuena, barrutik irteadakoa, erraiak kilikatu ohi dituen horietakoa.

Mari Mikela Iriarte ongilea

Emazteki honek horrenbesteko eragina izan ote zuen, bada, haren bizitzan, *Quito'n arrebarekin*-en aparteko ataltxo bat eskaini ziezaion? Dirudienez, bai. Ongile izatean datza horren arrazoi nagusia: “Eskolan aurrenekoeri urtero soifneko osoa ematen zigutenan, eta guziera zerbait yantzi. Ni beti soifneko berriz yoaten nindunan Orixe’ra” (QA; IG, I, 708). Amona Mari Axuntzik bere mutikoaz harro-harro esan ohi zenez, herriko festetan Nikolas bezala jantzirik beste inor ez Orexako Iriarten. Mari Mikela Iriarte andereari esker joaten omen zen hain soineko dotorez apainduta. Denuxiri emazteki hori nor zen eta zergatik zuen hain begiko kontatzen dio:

“N. Mari Mikela izan nenunan nik lenbiziko ongile aundia. Ez al dakin? Orixen ikasi zunan pianoa Montes'ekin. Bai al dakin nola yoan zan ara? (...) Gaixoak aurretan edaten ikasi omen zunan, eta gaitz ori sendatzeko sendagai bat omen zinan, ua artu ezkeror gorroto artzen baitzioten edariari.

D. Zer sendagai zan ori?

N. *Muxu-larru* izena ematen ziotenenan. Bai omen zinan sendagille prantses bat Muxu Lerrua {Monsieur Le Roy}, eta arengandik izen polit ori. Arekin kentzen omen zunan moxkorra gure Montes'ek. Bitartean musika irakatsi omen zionan beste zerbait eskolarekin. Orregatik edo, ni yaio nintzanean eta Uitzira eraman nindutenean, Mari Mikelak bereiziki nindunan maite. Denentzako zunan biotz ona gaixo arek.

D. Eta nondik ikasi zun gure erri kaxkarraren berri?

N. Montes zana Gorriti'n apaiz egona baitzan gu Iruñeko eliz-barutiko giñala” (QA; IG, I, 708-709).

Mari Mikela Iriarte, Uitziko Otsanbelako andere hori, Jose Marianoren iloba zen, Ortiz jaunarekin esposatua. Antza, jaun honekin ez zen ongi etortzen Orixen, politikan ez baitziren irizkideak. Honen ize-nik ez du aipatzen *Quito'n arrebarekin*-en. Jauntxo hori zein joera politikotakoa zen jakiterik izan ez badugu ere, esan beharrik ez dago euskaltzaletik gutxi zuela, gutxiago abertzaletik. Hori dela eta, Orixek, eztabaidarik izaten omen zuen berarekin.

Adineko oraingo uitziarrek gogoan dituzte Otsanbela jauregiko senar-emazte horien seme Fidelek zaldiekin egiten zituen erakustaldiak. Zaldiak harrigarriro bezatuta zeuzkan eta nolana hiko pirueta-motak eginarazten zizkien. Batean belauniko jarrita, beste batzuetan aurreko hankak zutik zituztela, eta horrela. Niri, horrelako balentriak entzutean, Jerez de la Fronterako zaldi-eskolakoek hango hareazko aretoan eskaintzen duten ikuskizun harrigarria zetorkidan gogora. Fidel jaun hori ez zen nornahi herrian. Zaldiek tiratuko kotxeetan ibiltzen omen zen, eta, herriko norbait Iruñean edo beste nonbait ikusiz gero, hari zerbait eskaini gabe ez omen zen geratzen. Otsanbelako familia, handikien odolekoa zen, bai, baina, Orixeren ustez, baita herri-maitale ere. Familia honek pagadi-eremu handiak erosi zituen –esaten denez, hutsaren truke–, 1936ko gerratea baino lehen, orduan baserritar maizterrek ez baitzuten dirurik. Ortiz-Iriarte familiak, dirudienez, bere inbertsioak “Morris” enpresan zeuzkan eginak. Horko kapitalaren % 20 inguru harena zela esaten da herrian.

Mari Mikela Iriarteren alkohol-gaixotasuna sendatzen eta, aldi berean, hari musika irakasten saiatu zen Joan Bautista Montes Oiarbide apaiza ospe gaitzekoa izan zen bere garaian. Orexako semea zen, 1797ko azaroaren 20an jaioa. Apaiztu eta gero, 1826an hain zuzen, Gorritirako izendapena eman zioten, orduan Oresa, Gorriti bezala, Iruñeko elizbarrutikoa baitzen. Gasteizko elizbarrutia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa batera hartzen dituen, geroztikoa da, 1862an sortutakoa, hain zuzen. Gorritin, hala dio Antonio Maria Labaienek (1958, 170), eliztar batzuek ez bide zuten beren gogoko artzaina. Aitzakiaren bat behar eta, herritar batzuk Iruñeko Apezpikuarengana joan ziren meza santiamen batean ematen omen zuelako kexatuz. Apezpikute-gitik hirugarren oharra etorri zitzaionean, Montes jaunak, haserretuta, paper-ertzean hitz hauek jarriz erantzun omen zion: “Enterado, Montes”. Harrezkero, Nafarroako apaizek, batik bat, arazoren bat bukatutzat eman nahi zutenean, esaera horretara jotzen omen zuten.

Apaizarekin zeuden bezala tematurik egonda, edozein abagune aski zen handik haizatu ahal izateko. Aitzakia hori Oresa Joakin Lorentzo Ormaetxea apaiza 1848ko abenduaren 5ean hiltzean etorriko da. Orduan Oresa erretoretza hutsik geratu baitzen, auzokoek Joan Bautista Montes herritarra izendatuko dute erretore. Oresan 29 urte luze egin eta gero, oso zahartuta hilko da 1877an.

Montes apaiza, gizon polifazetikoa genuen, gizon jakituna. Matematikari eta musikari aditua. Felipe Gorriti musikariaren adiskidea. Parisen 1867an Piano-Erakusketa bat egin zen eta bertara txikian egindako piano-eredu bat bidali zuen, gero Ibarren “Aguirre” markarekin egin eta Euskal Herrian zehar hainbeste zabaldu zena. Oresa prozesioetan, kapa plubialaren azpian, klarinetea eramaten omen zuen agur-abesti edo moteteak kantatzeko. Bazterretan berak egindako eguzki-erlouririk ere bada, hala nola Ibarren, Leaburun eta Gorritiko elizan bertan. Oresarako errepide-proiektua ere –gaurko hori, alegia–, berak egina da. Madrilen matematikako tratatu bat argitaratu zuen. Idazle ere bazen. Baditu zenbait artikulua argitaratuak Madrilgo *La Paz* egunkarian. Pentsakeraz, liberala genuen. Elduainerako izendatua omen zegoen, baina, ezker-kutsukoa zelako edo, atzera bota omen zuten. Hala adierazi zigun A. M. Labaien jaunak Tolosan 1985eko uztailaren 5ean izandako elkarrizketan. Apaiz polifazetikoa bezain bitxia. *Avis rara* horietakoa garai hartan, dudarik gabe. Apaiza, musikaria, matematikaria, proiektuegilea eta, gainera, liberala eta, errematerako, umoretsua. Gauza gehiegi batera eliz hierarkiak begi onez ikus zezan.

BIGARREN ATALA

ORIXEREN HERRIA

Plurala erabil genezakeen, Orexa eta Uitzia adierazteko. Baina ez. Nahiago izan dugu singularrean jarri, zeren, nahiz eta harenean sentimendu nahasi eta zenbait unetan kontrajarriak aurkitzen diren Uitzia eta Orexan bizi izandako haurtzaro eta gaztaroan, azken batean, batez ere urteetan aurrera joan ahala, bien sinbiositik herri bakarra jaulkiko baita, haren obra guztian zehar modu batera edo bestera agertzen dena. Herri hori, berdin zaio Uitzia nahiz Orexa deitu, nekazaritzan eta artzantzan oinarritutako herri txiki bat da, industri gizartetik eta hirigirotik urrun kokatua dagoena, gizarte-mugikortasun gutxi duena. Komunikabideek dakarten eraldakuntzazko mezu eraginkorra nekez jasotzen duen horietakoa. Arras mendikoa. Herri txiki honetan bizi izandako nekazal gizarte-girotik datorkio Orixeren lumari bukolikotasun-kutsu kargatua. Dena den, *Quito'n arrebarekin*-en bai Uitzia eta bai Orixari ataltxo bat eskaintzen dienez gero, herritxo horietatik barrena itzulitxo bat egitera gonbidatzen gaitu. Oreatatik hasiko gara, handik Uitzira joateko.

Orexa

Orexa jaioberritan utzi behar izan bazuen ere, umetan handik noiz aldegingo zain egoten bazen ere, ez ezazula pentsa saltzeko zeukanik. Orexaren edertasuna eta bertako bakardadea goretsiz, bere jaiob-

terriaz pasarte arras positiboa eskaintzen du. Ez baita luze-luzea, oso-rik emango dugu:

“Orixek ere ba yun zorapidea. Dalako Uitziliburu ori an egin nunnan, eta adiskide batek au esan zidan gure balkoian zegola: ‘Emen poema ori egiteari ez diot esker aundirik ematen; neronek ere errex egin nezaken balkoi txoragarri ontatik’. Zeru geiago ageri din Orixetik bai. Asi Errazkingo Mallotik, obeki esan Baraibar’ko ta Uarte-Arakil’go muga basotik eta Aya’ko Andazarrate ingururaño ba yunate begiek zer ikusi. Aralar, Urkieta, Narbaitzu, Agiñegi, Beizama’ko basoak, Albistur, Urkizu, –azpialdean egiten zetunan bertsoak Lizardi zanak–, Ernio, Zelatun, Andazarrate, Napar aldera Zotzune, Musairu, Unai-Garate. Zer arrano-arkaitza gure etxea! Esan dudan adiskide orrek, ‘egal-ontzia’ esan zionan; iduri baitu egan astea doala. Aldapa pikoa, zelairik ez, erriko enparantza baizik. Neguan an zegon errekondoan Lizartza, atsaldeko ordu bietarako eguzkirik gabe. Gu berriz argitan atsalde osoan, eguna aurreratu arte. Inguruz polita Orixek, etxe ez ainbeste; lurrez oso nekea lanerako. Bakartasunean bizitzeko, aukerakoa” (QA; IG, I, 709).

Zein deskribapen zehatza! Orixan inoiz izan ez denak ere erraz irudika dezake nolakoa den, edo izan litekeen. Bestalde, testu horretan aipatzen duen adiskide hori izan bide zitekeen Antonio Maria Labaien, noizbehinka han izaten baitzuen ikustera joanda. “Balkoi txoragarri” hori, berriz, Gogortzanekoa da.

Orexa Tolosatik hamabi kilometrora aurkitzen da eta, hara joateko, Lizartzan “Ugartetxeberria” baserriaren eta Sagrarioko Ama Birjina basilizaren paretsu, Z-240 errepide nazionala utzi eta, ezkerretara doan errepidea hartu behar da. Hortik Orixeko plazara lau kilometro t’erdi inguru daude. Iparraldetik Gaztelurekin mugatzen du, ekialdetik Nafarroarekin (Gorriti eta Areso aldera), hegoaldetik Nafarroarekin berriz ere (baina Azkarate eta Atallu aldera) eta mendebaldetik Lizartzarekin. Itsas mailatik 422 metroko altueran aurkitzen da, maldan baina babesean. Orixek berak esanik utzi du bere testu horretan nolako parajeak bistatzen diren Orixatik: “asi Errazkingo mallotik, obeki esan Baraibar’ko ta Uarte-Arakil’go muga basotik eta Aya’ko Andazarrate ingururaño”. Ikuskizun zabal bezain zoragarria begiek handik ikusten dutena!

Herri-erdian dagoen plaza angeluzuzenekoa da, herria bera hain maldatsua izateko, laua eta zabal samarra. Frontoi bat ere bada egina, estalia, plazaren azpialdean, baina geroztik. Plazaren alboetako batean

herrira datorren errepidea bukatzen da eta honen ondoan kokatzen da, hain zuzen, Udaletxea. Hiru oineko eraikina duzu, biziki ederra. Harlandu oso argiz egina da eta fatxada nagusian zehar banatzen diren erdi-puntuko arkuz eratutako karrerapeak ditu. Fatxadaren erdialdera, arkuen gainean, Orexako herriak Saturnino Gastesi Zubillaga apaiz jaunari (1864-1949) eskainitako harri-lauza aurkitzen zen hormari josia. Orain kendua dute. Irakurlea gogoratuko da, noski, Saturnino Gastesi hori izan zela Nikolas Ormaetxea bataiatu zuena.



Orexako herria, kaskoan Espuru ageri dela, Orixeren Tabor mendia, bere garaian alderik alde lizardiz jantzia zena. Herrian oraindik ere badira Orixe hango lizarretako batera igota ikusitakoak. Hona hemen Lizardiri kontaktzen diona 1929ko martxoaren 13ko gutunean: “Ametsak askotan egi ateratzen dira. Nik amets egin nun bein, lizar-gaiñetik erori nintzala, ta bai erori ta anka autsi ere andik luzaro gabe”.

Udaletxearen ondoan, goragune batean, altxatzen da eliza, Santa Kurutzen izenean eraikia. Angeluzuzeneko oinplanoa du eta nabe bakarrekoa da. Plazatik hara joateko eskailera maldatsu batzuk igo behar dira. Eta udaletxetik elizarako bidean, hantxe erdian, Orixeren harrizko irudia aurkitzen da, belarditxo batean kokatua, herritarrek bere

omenez mendeurrenekoan eskaini ziotena. Aulki baten eserita ageri da, bi eskuak belauen gainean jarrita, hara doazenei agur egiten.

Leandro Silváneek dakarrenez (1974, 57), Orixek, guztira 36 eraikin ditu, gehienak, noski, baserriak. Hauetatik 22 baserri, ehuneko 61,2 alegia, hiru oinekoak dira. Joan den mendearen hasieran (1900), Orixe jaio baino dozena bat urte geroago, Orixak 214 bizilagun zeuzkan; 1971n, berriz, 144 besterik ez. Bertako biztanleria dezente gutxitu da proportzioan ordutik hona: % 43,7.

Orexako ekonomia, funtsean, nekazaritza, abelazkuntza eta oihanlantzan oinarritu izan da. Baserritarren izerdi patsari esker, bertako so-roetan zerealak, artoa eta garia, lantzen ziren Orixeren garaian. Orain ez. Orain ozta-ozta barazkia. Belazeetan zuhain bikaina sortzen da, abelazkuntzarako (behi, ardi eta behorrentzako) oinarritzkoa dena. Geroztik, baserritarak fabriketara joaten hasiko direnean, batez ere, bertako ekoizpenik garrantzitsu eta baliosoena, zalantzarik gabe, oihanetik datorrena izango da, inguruetan baso hedatsuak baitaizka.

Nolanahi ere, Orixeren garaian bezala, egun ere Orixak lehengo paraje bera izanez segitzen du, baina eman da aldaketarik, batez ere, abelazkuntzaren sailean, belaunaldi berriak artzantza baitu bizibide nagusi. Sei lagunek osatutako artzainen kooperatibak bizitza berria eman dio Orixako herriari eta gazte-talde honek merkatuan produktu bat baino gehiago jartzeko gaitasuna erakusten du, nola gazta hala esnea eta mamia ekoiztu eta merkatuan jarritz. Lanbide berri honek, ordea, ez du bizilagunen kopurua gehitzea ekarri, bertan bizi direnak 80 lagun inguru baizik ez baitira. Bestalde, esan daiteke lehengo baserri-bizitza ere bukatua dela, familia bat bakarra baita baserri-lanetik bizi dena, behi-esnea salduz. Beste baserritarrek larre-behiak dituzte.

Dena den, Orixek Anakarren barna Uliko ibilaldia egingo balu, lehen otadi eta garo-leku izanak labakituak izan direla konturako litzateke eta orain, lehen ez bezala, bi mila inguruko artaldea ikusiko luke bazkatzen hango belardi narroetan. Guztira, 43 hektareatik gora izan dira luberrituak. Goiuko kaskoan bada hamahiru hektareako arto-soro ederra.

Horixe duzu Orixeren jaioterria, berak hasierako testu hartan esan digun bezala, “inguruz polita, etxez ez ainbeste; lurrez oso nekea lanerako”. Hantxe dago Oresa, txori baten antzera zeruan gorantz egin nahiz bezala, lurtarren begietatik malkar batean erdi-ezkutatuta. Hantxe landu zuen *Euskaldunak* poema, irudimena Uitzu aldera piztuta,



Orexako artegi-gunea, Espuruko zelaien babesean kokatua dagoena. Herriko gaztetalde batek hor du bere bizibidea, Orixek gaztaroan bizi izandako lanbide berean.

gerraurrean bukatua. Poemako azken ahapaldian, bertsolariek egin ohi dutenaren antzera, Orixek ere bukaera “Kristo jaiorik emeretzireun hogei ta amalaugarrenean” eman ziola esaten du. Behar ziren orrazketak egin eta gero, “Euskaltzaleak” elkartearen esku utzi, ordea, hurrengo urtean utzi zuen.

Uitzi

Sarrera gisa, Nikolas eta Denuxiren arteko elkarrizketatik pasarte hau jasoko dugu:

“D. Ni Uitzin bein izan nauk i ikusten, eta ez diat ango oroipen aundirik. Etxe ederrak bai.

N. Nik ez diñat esango zein politago, baña neretzako ba yun ba-koitzak bere zorapidea. Nik, benipein, Uitziren bearra izan diñat.

Nere lenbiziko euskal-eskola gure sukalde ua izan zinan. Artaz egiña diñat liburu bat: onezkero bidean din. Ango belardi, baso, ikazkin...” (QA; IG, I, 709).

Egia da, *Quito'n arrebarekin*-en, Oresa eta Uitziko herriak konparatzean, apenas deskribatzen duen Larraungo herrixka hori. Eta honen arrazoia ere ematen du, esatean lehenik egina daukala liburu oso bat horko berri emanez. *Euskaldunak* poema da horren lekuko. Deskribapen polit honekin irekitzen du liburuia “Pestaburu” poeman, behin batean Jon Lopategi bertsolariari buruz ederki asko kantatzen entzun geniona:

“Naparroa zârrean Larraun'en Uitzi,
belar goxo tartean eper-kabi iduri.
Belardien inguruz kabi orren esi
baso maitea dago, ikazkin-lantegi”.
(E; IG, I, 40).

Bai ederki egina dagoela Uitziren kokapen geografikoa, kaskotik begiratzean “eper-kabi” iduri baitu. Egon, zokogune batean dago, Beas-kubi, Urbiñete eta Oltzo mendien erdian, Larraungo haranean, Lekunberriatik 6 kilometrora eta Leizatik 8ra. Mendi-magalak basoz beteak



Uitziko herria, Leizatik datorren errepide-kaskotik beginaturuta.

ditu eta herri-inguru guztian zehar zabaltzen diren belazeen berde bortitzak sekulako bizitasuna ematen dio paisajeari. Itsas mailatik 700 metro gora aurkitzen da, Orexa baino 278 metro gorago. Leku hotza hangoa, eta bustia. Neguan, elurra sarri. Mendebalde eta iparraldeko haizeek gogor jotzen dute. Iparraldean Leitza dauka, 8 kilometrorra, ekialdean Beruete, hegoaldean Azpiroz eta Lekunberri, hau 6 kilometrorra, eta mendebaldean Gorriti. Uitzik XIX. mendearen bigarren aldian, Pascual Madozen hiztegi geografiko-historikoan datorrenez, 38 etxe zeuzkan. Orixe XIX. mendearen hondarrean (1888) sortua izaki, Pascual Madozek eskaintzen duen datu hori baliagarri izan daitekeela uste dugu Orixeren garaiko Uitzik hartaz jabetzeko. Zenbait etxetan familia bat baino gehiago bizi zen. Bertako zaharrenek hiru eta lau etxebizitzakoak ere ezagutu izan dituzte. Ez da batere harritzekoa, beraz, Errekalden hiru familia bizitzea. Etxea berea zutenak hogeiren bat familia izango ziren, ez gehiago. Beste guztiak, maizterrak. Halaxe ziren Errekaldekoak ere. Martin Satrustegi jauna, Garesen bizi zena, zuten nagusi. Ordainketa-modua bi modutara egiten zen: dirutan edota, baita ere, maizter-lanen truke. Nagusiak lana zuenean, maizterra hartu eta berekin eramaten zuen lanera. Diruaren truke, ez zitzaion gauzarik ematen nagusiari.

Zenbat bizilagun ote zituen Uitzik mende honen hasieran? Ez dakigu. Pedro Ariztimuñok 350 laguneko kontua egiten du bere gazte-garaian. Latxagak, 1970eko bere artikulu batean, datu hauek ematen ditu: 30 familia eta 250 bizilagun. Biztanleetan Orexa halako bi urte berean. Egun, baserri asko hutsik aurkitzen dira, hauen artean familia bi eta gehiago izaten zirenekoak ere bai, eta 150 biztanle baino askoz gehiago ez ditu izango.

Uitziz idatzi dutenak bat datoz, aho batez etorri ere, etxe ederrak dituela esatean. Orixe ere Denuxiren ahoan baieztapen bera jartzen du: “Etxe ederrak bai”. Luis Villasantek (1967) ere beste horrenbeste esango du herri hori ezagutu eta gero: “Etxe ederrak eta galantak, hori bai. Denak moltsoan. Erriko eliza, San Migelen izenez”. Latxaga (1970) ez da motzago geratzen: “Erri tontorrean eliza ta inguruan Nafarroan dauden etxerik ederrenak”.

Eta izan, halaxe dira: apartak. Banan-banakoak. Etxerik ederrenak, halere, herri-gainean daude. Gorriti aldera abiatzen garela, eskuinetara plaza eder bat du, aurrean ezker paretarik gabeko frontis bikain batekin. Errebotean eta plaza laxoan jokatzeko egokia, Ipar Euskal Herriko frontoietan ohi den bezalakoa. Plazaren behealdean “Otsanbela” jauregia



Otsanbelako jauregiaren fatxada nagusia. Aspalditik hutsik da horrelako etxea, herriko beste hainbat etxe ederren antzera.

aurkitzen da, handikia bezain zoragarria, oinplano erregularrekoa, behe-tik goraino harlanduz egina. Harlandu honek erabat agerian utzita daude beheko oinean, izkinetako eskantzuetan eta leihoen ertzeetan. Tarteek igeltsuzko gain-estaldura daramate. Fatxadan, beheko oinean, sarrerako atea irekitzen da, erdi-puntuko arkuz eratu. Altueran beste hiru oin hartzen ditu, oin bakoitzean launa leiho irekitzen direla. Konposizioaren nolakoa alboetako leihoek eta izkinetako eskantzuek markatzen dute. Erdialdean, berriz, hiru oineko leihoek eta balkoiek eratu-tako konposizio erretangularra azaltzen da. Hor kokatzen dira Ama Birjinaren irudia, eta honen gainean armarria. Badirudi erdialdeko konposizioa Ama Birjinaren funtzioan egina dagoela. Teilatua lau uretakoa du. Ez dugu eraikuntza-datarik ikusi. Nork egin zuen? Ez gara jakitera iritsi, baina, seguru asko Jose Mariano Otsanbela, herriko eskolak egin zituen bera, izango zen egilea. Jauntxo hau, Latxagak dakarrenez, 1794an jaio zen eta, salerosketan ibiltzen zen bere osaba batek Cadiza eraman eta gero, handik, noiz ez dakigula, Amerikara joan omen zen.

Liman Aurrezki-Kutxa baten jabe izatera iritsiko da, aberasteraino. Non hil zen ez dakigu, baina bai noiz: 1880an. Horregatik esaten du Orixek *Quito'n arrebarekin*-en berak ez zuela ezagutu Mariano Iriarte Otsanbela hori, bera jaio baino zortzi urte lehenago hila baitzen.



Martinperenea jauregia, Arraizarena izana, Martiarena familiak erosi zuen eta egun bertako senide batzuk bizi dira.

Plazaren ezkerretara, “Martinperenea” jauregiak berehala irabazten du ikuslearen harridurazko begirada. Eraikuntzaren aldetik, harrizkoa da, izkinetan harlanduak eta tartetean, berriz, agerian jarritako harlangaitz kalitatezkoak dauzkala. Fatxadaren konposizioari dagokionez, lau oin ditu. Oin bakoitzean bost leiho zabaltzen dira. Oin bakoitza markatzen duen erlaiza nabarmentzen da eta honek konposizioari erabateko zentzu horizontala ematen dio. Sarrerako fatxadaren

erdian, errepidea doan aldetik, balkoia kokatzen da harrizko mentsularen gainean. “Otsanbela” jauregiak bezala, honek ere lau uretako teilatua du. Atenakoarekin duen antzagatik, askok Nafarroako Partenona deitzen diote. XIX. mendean Karlos erregea, Fernando VII.aren anaia, egon omen zen han.

Jauregi honen nagusiak Arraiza familiakoak genituen, garai hartan Nafarroako politikan oso aurrera ibiliak. Bertako semeak Iruñeko alkate, Nafarroako diputatu eta Diputazioko lehendakari izanak dira. Eta biziki aberatsak. Uitzin entzun izan dugunez, urteak zenbat egun hainbat etxe omen zituen familia honek. Erriberan etxe asko, eta Uitzin bertan hiru bederen bai. Oraingo nagusi berria Martin Martirena da. Honi zor dizkiogu Orixeri buruzko zenbait pasadizo nahiz herriko beste hainbat xehetasun. Ez daukagu ahaztuta berarekin batera Errekaldeko bordan barna egindako ibilaldia ere.



Otsanbelako Jose Mariano Iriarte jaunak eraikitako eskola hau, Orixeren mendeurrena ospatu eta gero, Udalak eraberrinatu egin zuen eta harrezkero, “Orixenea” izenpean, aterpe gisa erabiltzen da, hezkuntzaren sailean zeregin osagarriak betetzeko. Elkarte desberdinetako jendearentzat irekia dago. Bertaratuko den taldea gutxienez hogei lagunekoa izatea eskatzen da. Orixek euskararen alde egindako lanari jarraipena ematea da kultur etxe honen asmoa, euskal munduak bizirik segi dezan Larraungo bailaran.

Frontoiaren eskuinaldean, aurreko partean, eskolen eraikina dago. Hau ere ederra, jauregi baten tankerakoa. Sarrerako atearen gainean, plaka batean, hauxe irakurtzen da: “A la memoria del caritativo Señor Don José Mariano Iriarte Osanbela el pueblo de Huici agradecido en el 23 aniversario de la fundación de sus escuelas. 23 de noviembre de 1903”.

Jose Mariano Iriartek, hil aurretik (1880), herriko neskato-mutikoak eskolatzeko 1877an eraikiarazitako ikastetxe zoragarri bat da. Eskola hau bi aldetan zatitua zegoen: bata neskentzat eta bestea mutulentzat. Haiek mojak zituzten irakasle, bertan bizi ziren Karitateko Alabak deitzen zitzairen horietakoak, eta hauek, berriz, maisua. Bailara osotik etortzen omen ziren ikastera.

Marianok ikastetxe hain handios hau zergatik egin zuen ere bada-kigu: bera umetan, zaldi edo asto gainean joaten omen zen eskolara Leitzaraino eta, berari gertatu zitzaiona aurrerantzean Uitziko beste inori gerta ez zekion, horregatik egin omen zuen eskola hori. Orixe mutikoak, hala dakar Jose Mari Aranaldek (1965, 36), hamaika urte arte eskola horretan egin zituen bere lehen ikasketak. Probetxu handiarekin, gainera, aurrenekoetan ibiltzen baitzen. Eskolan aurrera ondo zihoala eta, Errekalden eskerrona ematen zioten. Amona Axuntxi, Orexara joaten zenean bertan gera ez zedin, hauxe esaten zion: “Uitzin eskola ederra emanen diagu, ta ez duk egin bearko oinbeste aztarrika” (KA; IG, I, 708). Orexan bezala, hainbeste aztarrika egin gabe, noski.

Erakusleak ere halakoxeak izan zituen. “Berak aitortzen zuenez –J. M. Aranalde (1965,36) dugu kontatzaile–, an arkitu baizitun bi maixu bere biziandian ezagutu zitunetan onenak. Eskolan bat, maixua, ta azi zuteneko sendian bestea, amonordea. Askotan entzun genion, Uitziko eskolan izan zun ura bezelako erakuslerik etzula gero Jesus'en Lagundia'n ezagutu, eta andik kanpora ere ez”. Arimako gurasorik onenaren izena ezagutzen dugu: amona Mari Axuntxi. Eta eskolako maisuarena ere bai, honena Fermin Ixurko herriko erretoreak esanda. Pablo Gomez genuen maisu goresgarri hura, sortzez Valladolidekoa eta Aresoko Paula Huizirekin esposatua. Hau ere maistra.

Eliza eskolaren ondoan eraikia aurkitzen da, San Migelen izenean. Lehengoa erre egin baitzen, XIX. mendearen hasieran altxa zuten oraingo hau. Lorategi polit batetik pasatuz sartzen da bertara. Eliza barruko gauzarik aipagarriena korupeko sepulturak dituzu. Euskal Herri osoan ederrenetakoak omen.

Egin dugu geure jiratxoa Orixetik eta Uitzitik. Biak miresgarriak, bakoitzak bere xarma duela. Halere, Orixek, ez dakigu beronen edermenak aginduta ala sentikortasunak eraginda, Uitziti lehenetsiko du: “Nere buruaren eder-itsusi bizia izan diñat aspaldi artatik. Batzuk Uitziti alako erri itza zala; beste batzuk, Orixe olako erri purtzila zala. Nori sinetsi? Nere buruari. Yakina, ni Uitzit’ren alde” (KA; IG, I, 708).

Baserria

Orixek, *Quito’n arrebarekin* lanean, Uitziko “belardi, baso eta ikazkinak” aipatzean, bertako jendearen lanbideaz ari da. “Pestaburu” izeneko lehen kantuko bosgarren bertsoan, lanbide horri buruzko ja-kingarriak honela zehazten ditu:

“Lapurtarrek erakuts belar-sega-lanen;
Bizkaï’tik etor ziran txondorrek egosten;
giputz yayoak ere ba ziran zur-lantzen...
Bost ipui eder orok emen erain zuten!”
(E; IG, I, 40).

Orexan bezala, hemen ere lurraren, azienden eta basoen ustiapenean oinarritzen da gehienbat ekonomi jarduera. Basoan badira haritzak, pagoak, lizarrak, gaztainak, eta mendietan ardientzat larrea. Azpiak egiteko garo-leku ederrak ere bai. Soroetan artoa, garia, patatak, baba eta barazkiak egiten ziren. Behiak, ardiak eta basoan txondorrek. Horrelakoa zen Uitziko baserritarren bizimodua Orixeren gaztaroan. Behiak asko ez. Gehien zituenak hamarren bat, eta horiek haragitakoak. Bost behiko ikuilua handi samartzat jotzen zen. Ardiak baserri guztietan zeuden, hirurogei edo laurogei inguru; ehuneko artalde gutxi, bakarren bat edo beste. Jendea hortik bizi zen. Jan, berriz, talo-esneak gosaltzeko eta afaltzeko. Eguerdian ere taloa.

Gaur egun, lehen bezala, gehienak lurgintzatik bizi dira, nahiz eta gazte asko Leitzako paper-fabrikara, edo beste norabaitera, doazen lanera. Halere, funtsean, nekazal herria da Uitziti.

Baina Uitzin bizi izan zen garai hartan nolako baserri-mota eza-gutu zuen Orixek? Ez, noski, oraingoa bezalakoa. Ez pentsamoldez bakarrik, teknologiari dagokionez ere oso bestelakoa dugu gaurko nekazariaren egoera. Oraingo baserritarrak modernizatuak daude eta eder-

ki tresnatsuak. Traktorea baserri gehienetan sartua dago, basoetan pistak ireki dira, abelazkuntzarako artegi eta behitegiak eraiki dira. Aspalditxo desagertu ziren garai bateko aitzurra, sardea, eskuarea eta honelako tresnak.

Aipatzen ari garen gizarte-aldaketen argigarri dira ondoko datu hauek: nekazaritzaren mekanizazioari dagokionez, EAEn 1.000 eta Nafarroan 3.533 traktore zeuden 1962an. Honek esan nahi du traktoreen kopurua EAEn seitan biderkatu zela 1960ko hamarkadan. Motokultoreak eta motosegak, 1972-1982ko epealdian, 6.331 unitatetik 16.274ra pasako da EAEn.

Nekazaritzan ematen den iraultza teknologikoak, ekoizpenari dagokionez, errendimentua goratzea ekarriko du: Nafarroan, zerealek 1955ean 186.000 hektarea hartzen zituzten eta 276.400 tona jasotzen ziren; 1980an, hedadura bereko azaleran, 710.000 tona lortuko dira. Orobat abelazkuntzaren sailean: EAEn, baldin 1929an behi batek, batez beste, 1.800 litro-esne ematen bazituen, 1966an 2.500 litro emanago ditu eta 1981ean, berriz, zifra hori 3.560 litroraino ere iritsiko da. *Lurgintza*-k kudeatutako 109 nekazal ustiapenetan, batezbesteko, 4.350 litro-esne lortuko da behi bakoitzeko. Emaldik (1985, 142) dakartzan datuak dira horiek.

Orixek, jakina, oso bestelako baserria ezagutu zuen bere garaian, batez ere, gaztaroan. Nola Uitzei hala Oresa, biak ere basoz ongi inguraturik baitaude, baserriarrek ordu luzeak egiten zituzten baso-lanetan. Ikazkintzan ez gutxi. Basoak botatzen, garbitzen eta zuhaitzak landatzen, agian, ez gutxiago. Oraindik ere geure gaztaroko begien daukagu itzainaren irudia bere idi-pareari uztarritik helduta gurdi motzari tiraka. Gurdi motza bezalako tresnak egun museo etnografikoetan bakarrik aurkitzen baitira, Joan Garmendiarekin (1982, 113-159) batera esango dugu, gurdi honen kurtetxeak 92 zentimetroko zabalera duela eta albo-ko areseak, berriz, 90 zentimetro dituela. Kurtetxe honek hiru barra daramatza pertika zeharkatzen dutenak. Pertikak bi kabila ditu, bata tiratzekoa eta bestea lotzekoa. Bestalde, burkoen azpiko oholaren gainean, zulo bat du burko birakariaren ardatzarekin. Burko hau, beraz, birakaria da eta lau zulo daramatza, eta erdian badu burdinazko zurajea eta baita pertika ere, alderik alde zeharkatzen duena. Bide bihurrietan enborrak garraiatzeko erabiltzen zen, bera baitzen horretarako egokiena. Gurdi motz honi lotzen zitzaion enbor bakoitzak burdin-ziri bat baino gehiago zeramatzan, eta katemotzen bidez –burkoaren zuloetatik zetozenekin, alegia–, enborra behar bezala sendoturik geratzen zen.

Gurdi motza etxerik gehienetan aurkituko zenuen tresna zen, arestian esan bezala, enbor handiak basotik tiraka ekartzeko beharrezkoa. Uztak, zuhaina, garoa eta antzekoak etxeratzeko, aldiz, gurdia izan da baserritarraren ohiko garraio-tresna. Gurdiak, halaber, neurri jakinak ditu. Areseak 2 metro eta 30 zentimetro neurtzen ditu. Arese hauek, bide batez, zazpi barraz elkarturik daude. Kurtetxearen aurrealdean eta atzealdean bi ezpata daramatza, 14 zulo dituztenak. Ezpata horietan, zama trinkatzeko, legainekoa jartzen da.

Eta soroan lurra maneatzerakoan, nork ez ditu ezagutu area eta kostarea bezalako hain lanabes ezagunak? Area, azpialdean hortzak daramatza zurezko subila da. Normalean luzeka jarritako lau egurrek, arresumila izenekoek, eta zeharkako bi barrek osatzen dute. Lau arresumil horietan kokatzen dira hortzak, guztira hogeita lau, hogeita bi zentimetro ingurukoak eta azpialdetik kakotuak. Ertzeetako arresumilek, aurrealdean, burdinazko barra daramate eta hor kateatzen da abereek tira dezaten. Kostarea, arbia eta patata ereiteko erabili ohi zen, horretarako batez ere, lurrean areanak baino barrurago sartzen den hortzak baititu. Guztira, bost hortz. Horregatik, leku batzuetan, “bostortzekoa” deitu ohi zaio. Lanabes hau haritzaz egina da. Pertikak bi zulo dauzka kurtorean ezartzen diren kabilentzat, abereei erantsi ahal izateko. Pertika honi bi egur ateratzen zaizkio eta egur hauetan ezartzen dira hortzak.

Teknologi aldaketak berekin baitakar pentsakera-aldaketa ere, agian orain hobeto konturatuko gara euskal etnologiaren ikerketa-sailean sartzen diren nekazal gizarteko tresnen zantzu oraindik ez hain zaharrak hemen orain jasotzeak baduela bere leku bete, bere esanahi garrantzitsua, Orixeren mundu sinbolikoa ezagutzeko ezinbestekoa dena. Izan ere, ikusiz gatozenez, azken berrogeita hamar urte hauetan, sekulako eraldakuntza eman da Euskal Herriko nekazal gizartean, baita Uitz eta Orexa bezalako herri txikietan ere. Eraldakuntza hau teknologian, ohituretan eta beste hainbat gauzatan eman da, industri-gintzak eta komunikabideek eraginda, batez ere. Telebista eta irratia urrutiko sukalderraino iritsi da eta beren mezua egunaren edozein ordutan uzten dute, berdin gau osoan zehar. Uitzin zehazki, lehen astean hiru aldiz etortzen zen posta herrira, hots: igandez, asteazkenez eta ostiralez. Eta bidali, berriz, horien ondoko egunetan. Hor ikusten da, beste adibideetara joan gabe, gizarte-mugikortasunaren azken urte hauetako abiadaren handia.

Horrek guztiak zer esan nahi duen? Orixeren orduko nekazari-pentsaera zuzen ulertuko bada, geure irizpideak garai hartako nekazal gizartearen kokatu beste biderik ez zaigula geratzen. Nekazal gizartea esan dugu, eta ez, espreski, euskal gizartea, zeren XX. mende-hasieran Bizkaia eta Gipuzkoa aski industrializaturik baitzeuden. Orixeren pentsaera barrutik atzitu nahi duenak ezingo du ahaztu hemen laburki azaldu den nekazal mundu horren hezurdura ekonomiko, politiko eta kulturala. Orixeren irakurketa ahalik eta egiazkoena egin ahal izateko, Latxagarekin (1970, 6) batera diogu, Uitziz ezagutu behar da: “Euskal idazkietarako Uitziz ta Orixe bat eginak daude betirako. Uitziz Orixe egin zuen euskal kutsu alderditik eta Orixe urrezko izkietan Uitzizko euskal giroa ta sena azaldu dizkigu”. Horra hitz gutxitan asko esanda!

Plazaolako trenbidea

Mintzatu berriak gara komunikabideek gizartearen eraldakuntzan izan duten eraginaz. Berrikuntza teknologikoak gauzatzen hasi baino dezente lehenagokoa da Uitziz Plazaolako trenbideak ekarri zuen aldaketa. Zaila egiten zaigu herrien arteko komunikazioa sendotzera zetorren lokomozio-bide horrek Larraungo bailaran zenbaterainoko eragina izan zuen neurtzea; zaila, halaber, orduko herritarrek haren etorrera nola hartu zuten jakitea. Orixeri grazia handirik ez ziola egin, hau hobeto dakigu, honako hau idatzia utzi baitzuen El Salvador dorko egonaldian: “Igandean alaiago ziran Uitziz garai artan orain Pestaburuz baño. Ezagutu diñat Ingurutxoia iru tokitan batean ateratzen: erriko enparantzan, Marieneko larrañean, Irurte-Txabalean. Plazaola’ko burni bidea egin zunaten eta, agur ango alaitasuna! Lekunberritik ere etortzen zitinan igande atsaldea pasatzera” (QA; IG, I, 709). Gerora ere, ez zeukan nonbait ahazteko Plazaolako trenaren gertakari hori, gauza beretsua errepikatzen baitu “Dantza Nagusia” lanean, Amerikatik bueltan Uitziz agertu eta gero: “Gezurra dirudi, baiña neronek ikusia. Uitziz’n ba-zan txistulari bat, Manuel ‘aundi’ (Manuel Soroa), eta aren bi seme ere iotzen zekitenak; baiñan oso bakan ikusi genitun iotzen igandetan. Gaiñera ez ziran aski. Iru danboliñ bearko zuten beren soñugailluekin edozein igandetan; alegia, iru Ingurutxo batean ere ateratzen baitziran: bata erriko plazan; bestea Marieneko larrañean; bestea Irurte Txabalean edo Geratxoneko atarian. Orduan zan Uitziz erri alai, hainbeste ikazkiñ, zerrari ta basagizonekin,

Plazaola-trenak galdu zun bizibide ori. Orain zer ikusi dut igazko Samigeletan? Ziztua bazartua, zaldabaiaren ametsik ere ez, dultziña bat eta auspo-soiñu bat, eta eguerdi-erditan neskatxak bakarrik dantzari, mutil guziak geldit aldamenetik begira zeudela! Zer gauza itsa ta itsusia!” (IG, III, 1135).

Trenbide horrek behin betiko hautsi zuen Uitziko isiltasuna, hango lasaitasuna, hango bakea, nahiz eta, “Denok bat” poemako aha-paldi honen azken partean, erosotasuna ekarri zuela aitortzen duen:

“Bitarte artan basoa
ez aste-eguneko oiurik:
aizkorak, zerrak, otsik ez eta
gurdiak ere ez negarrik.
Ango musika errian, dena,
Aire berri biurturik.
Gaur Plazaola’k isillarazi,
trena arren ere, damurik”
(IG, I, 211).

Harrezkero, agur bere haurtzaroko herritxo kutsagabe haren xarma. Zahartzarora iritsita, hango ohiturak aldatuta ikusteak tristura besterik ez dio ekarriko.

Jakina, beste hainbat aurrerapenek bezala, Plazaolako trenak ere zerbait onik ekarri zuen, baina, ondikotz, izadiaren oreka puskatzearen truke. Prezio garestiegia. Trenbideak aldaketa suposatzen du eta, Joxe Azurmendik (1976, 60) egoki azpimarratzen duen bezala, edozein aldaketa da txarra, desegokia, epikoari buruzko ikuspegi kontserbadorrea daukanarentzat. *Quito’n arrebarekin*-eko testuan ikusi denez, Orixeek bere haurtzaroko igande haiek amesten ditu: igande alai haiek, dantza nagusia hiru lekutan ateratzen zeneko denbora zoriontsu haiek... Haiek bai garaiak! Denbora haiek betikotu nahi zituen. Beti lehengoaren bila.

Hego Euskal Herrian lehen gerra karlista bukatu eta laster hasi ziren egiten lehen trenbideak, horietan artean, Irundik Altsasurakoa. Plazaolako hau askoz berriagokoa da, 1914ko urtarrilaren 19an inauguratu baitzen. Orduko kronikak irakurriz, ikasten dugu inauguraziozeremonia Uitzin egin zela, hain zuzen, handikiro egin ere, Gipuzkoa eta Nafarroako eskualde biak anaikiro elkartu zirelarik. Trenaren konboi bat Donostiatik eta beste bat Iruñetik irten ziren goizeko hamai-

katan Uitzin elkartzeko. Biak han bat egin zutenean, musika-banda batek agurtu zituen. Trena herrietan barna pasatzean, hala dio Jose Zapirain berriemaileak (1945, 105-119), jendeak txaloka, goraka eta suziriak botaz hartu omen zuen haren etorrera. Iruñeko López Mendoz apezpiku jaunak bedeinkatu zuen, Donostiako Uhagón eta Iruñeko Gaztelu alkate jaunak han zeudela. Hamabitan bukatu zen zere-
monia. Handik, bi konboiak bat eginda, Iruñera joan ziren eta bertan, gertakariaren handia ospatzeko, bazkari eder bat egin zuten tren barruan. Egun hartan Uitziz eta inguruak elurrez zuri zeuden eta bazterretan hotz zen.

Garai hartan Oñan Filosofiako azken ikasturtea bukatzen ari baitzen, pentsatzekoa da Orixek ospakizun hori, ez soinez, baina gogoz oso hurbiletik segituko zuela. Baliteke, gainera, lehen aipatutako kronista berak (1945, 105) prentsan zekarren pasarte hau ere irakurri izatea: “Una nueva línea de comunicación une hoy a las dos provincias hermanas de Guipúzcoa y Navarra. Inútil será encarecer la importancia que encierra para la vida comercial e industrial del país esta nueva arteria por la que correrá la savia vivificadora del trabajo y las ventajas que para los pueblos que cruza el nuevo ferrocarril representa el avance realizado. Los silbidos de la locomotora hendiendo el silencio de los rranquillos valles navarros y repercutiendo entre los montes que forman sus famosos ‘barrancos’, fueron ayer heraldos anunciadores de una nueva era de progreso y de prosperidad para aquellos pueblos”.

Bistan da trenbide honek aurrerapen teknologiko izugarria zekarrela industri eta merkatal bizitzarako orokorrean eta, zehazki, Nafarroa eta Gipuzkoako eskualde menditsu hauetan. Berastegiko lurretan –Ameraun, Plazaola eta Ollokin zehazkiago esanda–, burdinolak lanean ari ziren. Gure oroimenetik istantean urruntzen baitira atzo goizeko kontuak, gogora dezagun Berastegiko meategiak bi zain zeuzkala orduan, batean burdinarena, eta bestean kobrea, blenda eta gale nazko piritarena. Joan den mendearen hasieran, 1907an, kixkalitako 8.578 tona karbonatu atera zituzten eta bertan lanean zebiltzanak 75 langile inguru ziren. Baziren, bada, beren lanbidea meategietan zutenak. Aparteko haran bakarti eta basa haietan takean-takean mailuen eta gabien hotsak entzuten ziren trenaren txistuak hango bazterrak zulatatu aurretik. Hori bai, trenbide berriak meazuloen ustiapena asko bizkortuko du, garraioa erraztuz bereziki, horixe baitzen, arestian esan bezala, bere helburu nagusia.

Trenbide hori errail bakarrekoa genuen, baporearen indarrez ibiltzen zena. Gehienbat meategietako metalak garraiatzeko erabiltzen zen, baita jendea eramateko ere, harik eta 1953ko uholdeak serioski porrokatu zuen arte. Uholde hark desegin zuen Alonso Zabala injenieruak, Gregorio Iturbe kontratistarekin batera, Leitzarango haran gordinan egindako monumentu aipagarri hura. Halakoxea da, izan ere! Orduko euskal trenbideetan nekez aurkituko zuen bidaiariak Plazaolakoak eskaintzen zuenaren tamainako ikuskaririk. Oraindik ere zubiekin topo egingo duzu, ur-jauziek begiak sorginduko dizkizute, han-hemengo elektrizitate-zentralek errekako ur lodien joan ezia begiratuz joateko gomita egingo dizute. Ez dakigu Orixek inoiz zeharkatu ote zuenetz, oinez edo trenez, Leitzarango harana. Baiezkoan bazukeen zer miretsi. Andoaindik Nafarroako mugara, 25 kilometro inguruko sakana luzatzen da, dena oihan. Leitzatik atera eta Uitzirako bidea hartzean, trenbideak gitarra baten itxura hartzen du, eta 2.700 metro lurpean egiten ditu. Tunelaren erdian, erabateko ilunak are eta misterioitsuagoa egiten duen mendi-errai luze hartan, ur-tantak edozein lekutatik jausten dira. Eta nolako hotsez jauzi ere, adoretuena ere



*Kaltzinaio-labeak XX. mende-hasieran, Berastegin, Leitzarango
Muntarreko tren-geltokian.*

kikilarazteko moduan. Uitziko geltokia herritik bi kilometro ingurura dago, Santa Grazi ermitaren ondoan. Uitzitik aurrera, bide ezaguna egiten zuen: Lekunberritik Irurtzunerera, Bi Haitzen arteko pasabide meharra zeharkatuz, eta handik, Sarasa eta Aisoin bidean utziz joanda, Iruñera. Donostiatik Iruñera, eta alderantziz berdin, hiru orduko bidea, orduko 25 kilometro eginez. Oraindik ere hortxe daude orduko arrastoak bizirik.

Ezin da ukatu trenbideek teknologi iraultza kualitatiboa ekarri zutela euskal gizartera. Plazaolako trenbideak ere helburu ezin jatorragoa zuen, hots: Nafarroako erresuma zaharrari itsasorako bidea irekitzea eta, bide batez, bi eskualdeen arteko harreman sozioekonomikoak estutzea. Plazaolako trenbidea inauguratu ondoko uda hartan zerbitzu berezi batzuk jarri zituzten Iruñea-Donostia, alde bietako joan-etorria egiteko: iruñearrentzat Donostiako hondartzak zeuden zain eta donostiarrentzat, berriz, Iruñeko San Ferminak. Dena den, trenbide honen bitzitza aski ahula izan zen. Trenbide honek bidaia turistiko arras polita eskaintzen zuen, hain paregabea, ezen, Berastegiko meategiak salbu, ez baitzuen herri eta industrialde garrantzizkorik zeharkatzen. Meategiak behera egin eta geroago uholdeen eraso jasatean, ordea, Leitzarango haranari bizia ematen zion tren umil eta trauskil haren zarata betiko isildu zen. Baina ez euskal kulturen bere arrastoak utzi gabe. Iñaki Zabaleta, Josetxo Lizartza, Gorka Reizabal eta beste batzuek bultzatuta, *Plazaola* izeneko aldizkaria argitaratu zuten 1980an, gero segidarik izan ez zuena. Nolanahi ere, leitzarren historiarako, horren konstantzia utzia digu Patziku Perurenak. Horko sarrerako artikulu batek dakarrenez, Plazaolako trenak “zibilizazioa” ekarri omen zuen Leitza ingurura. Hura daukate garai hartako modernitatearen ezaugarritzat.

Gaurkoak alboratu eta, gatozen, ahantzia ez baina, Oñan filosofi ikasketak bukatzen utzi dugun 25 urteko Orixerengana, trenbide hori Uitzin inauguratu zutenean urte horiek baitzituen. Honentzat, garbiki esanda, gisa horretako modernitateak ez zekarren gauza onik. Berak ez zuen maite izadiaren bake isila apurtzera eta ingurune industrializatu eta hiritartutik urrun bizi zen jende sotilaren ohitura garbiak andeatzera zetorren zibilizaziorik. Pentsaera tradiziomalari irmo atxikirik segitzen zuen berak. Bere erroak tradizioan botata zeuzkan eta berak gartzaroen halaxe ezagutu eta bizi izan zuen Uitzin haren isla gardenen da Orixeren pentsaera, herri honek ez baitu inolako industri eraginik izango Leitza papergintzako lantegia finkatuko den arte. Eta hau

oraindik kontu berria da, Orixeren ondorengo belaunaldiak ezagutu duena. Bestalde, Berastegiko meategietan lanean aritu zirenak aresoarrak eta leitzarrak izan genituen, baina ez uitziarrak. Plazalako trenbidea egin eta gero ere, Uitzik ikazkin, artzain eta nekazarien bizileku izanez segituko du.

Esanak esan ondoren, bada Orixeren pentsakera kontserbadoreari bere seinalea nondik datorkion aurreratzeko ordua. Hezkuntza eta kulturaren soziologian egindako hainbat ikerketek erakutsita, badakigu gizarte tradizionalari dagokion pentsakera, kontserbatismoa dela. Honek, Guy Rocher soziologoak (1968, 103) dakarren bezala, mehatxu gisa ikusten ditu aldakuntza eta berrikuntza: “*Le conservatisme* qui caractérise la mentalité traditionnelle est donc foncièrement une protection contre tout ce qui menace la tradition comme base de l’ordre intellectuel et de l’adaptation réussie à l’ordre naturel”.

Joxe Azurmendik (1976, 77-87) Orixeri arazoiz egozten dion “baserritarkeriak” gizarte tradizionalari dagokion kontserbadore-pentsamoldean du bere oinarria. Gure ustez, ikusmolde honen erreferentzian aztertu behar da haren obra guztia. Baina kontuz! Orixeren kontserbatismoa ez da derrigorrez ezjakintasunaren ondorio, gauza bat baita zerbait ulertzea, eta beste bat, arras desberdina, ulertua onartzea. Badira hainbat gauza adimenez ulertzera iristen garenak, baina onartzea zail egiten zaizkigunak. Norberaren porrota, adibidez, nekez onartzen da, nahiz eta horren zergatikoak eta nolakoak oso begien aurrean egon.

HIRUGARREN ATALA

UITZITIK OREXARA TXANGOA

Lehen ere esanak gara, zeharka noski, Santa Kurutzetan bere etxera eramaten zutela. Orduan elkartzen ziren han bera eta etxeko senideak, bera eta Denuxi ere. Berrogeita lau urte pasa ondoren elkar ikusten dute bi sabelkideok Quitoko moja-komentuan. Eta lehenago ere, jarraiko testu honetan aitortzen duenez, ez ziren askotan elkarrekin egonak: “Zenbat aldiz elkar ikusi ere? Amar bat aldiz, eta aietan urtean bein. Orixe’ra Pestaburura urtero yoatean ikusten indudanan. Eta yoan nintzanetan, bein konturatzen asi nintzan ezkerro, ez nizuten kasu aundirik egiten senide bakoitzari; bildurrez egoten bainintzan gurasoek etxean geldieraziko ote ninduten. Etzianan nik nai orduko etortzen irugarren eguna, andik aldegitoko” (QA; IG, I, 707).

Festetarako urtero joaten bazen eta, bestalde, arrega Denuxirekin hamar aldiz edo, egon bazen, honek esan nahi du Nikolas mutil-koskorturik ere joaten zela Orexara. Txikia zenean amona Mari Axuntxirekin mendiz mendi, bizkarrean hartuta. Gero, mutil-koskortzean, bere oinez joango zen, noski. Ez dakigu noren laguntzarekin, beharbada ez beti amonarekin. Orexakoak ere Errekalden izaten omen ziren herriko festetan, San Migelez, familiarteko harremanak, usuario zaharrean, orduan izaten baitziren. Batere ez dakigu, baina igoal asmatuko genuke baldin bagenio mendiz egingo zutela beren joan-etorria, eta mahaitik plazara joan gabe ere ez zirela itzuliko. Erritua zintzo demondre bete beharrezkoa zen.

Uitzitik Orexarako txangoaren kontua behin eta berriz errepikatzeko baita *Quito’n arrebarekin*-eko atal honetan, mendiko ibilbide hori pausorik pauso egiteko beta hartu genuen. Eta Uitzitik abiatu eta

Orexara heltzean, joanaldia Nikolas eta amona Mari Axuntxirekin batera egin genuela iruditu zitzaigun. Bidean usainduz zeharkatu genituen garo-lekuak eta otadiak, lagun izan genituen zuhaitzak eta errekek, larrean zebiltzan nahas-mahas ardiak eta behorrak, lurraren hezeak eta eguzkiaren beroak izerditan jarri zizkiguten gorputzak, bazi-rudien izadi osoa bere betetasunean hizketan ari zitzaigula. Mendi-txango honetan, beraz, bidaide izango zaitugu, Orixek egiten zuen mendi-bide hura oraindik ere bizi-bizirik baitago, lehen zen bezalaxe, aldaketa handirik jasan gabe.

Uitziko herri-gunea utzi eta, kanposantura doan bidean ezker hartuta, han datzatenak –amona Axuntxi, Arrosa amaordea eta beste ahaide kutunak– zaintzen dauden lizarrak amultsuki agurtu eta, aldatxoari ekiten diogu, eta gaindegitxo batera iristean, eskuin, Santa Kurutze ermita bistaratzen da, Orixek bere poeman aipatzen duena:

“Aldapa-gora gozelarik
Oillarradar zelaietan
Santa Kurutz'en Elizattoa
Dago Gorriti-bidean.
Mikel'ek ere Gurutzea du
Buru ta beso-gaiñean:
Onela garbi irakasten digu
Nora bildu gaitezkean”
(E; IG, I, 1991, 351-352)



*Hau da Santa Kurutzeko ermita, bere elizatariarekin.
Egun ikuilu bihurtua dago. Inguruan behorrak bazkatzen.*

Oillarradarreko belardi zabaletan dabiltzan behiek beren begokiak altxatzen dituzte gu ingurutik pasatzean, betiko lagun zaharrak baikinan, eta ermitaren parez pare, bidearen bestaldean aurkitzen den beitegi modernoari begiratu lasterra bota ondoren, oihanaren tenpluan barneratzen gara, pagoen arkitektura ederresten. Hain da baketsua pagadiko ibilaldi hau, ia nahi baino lehenago dugula aurrean Gorritiko muga.

Kokagune patxadatsu batean eserita dagoen herritxo honek hemezortziren bat etxe izango ditu elizaren inguruan tolestatuak. Goiza zen, 1985eko abuztua. Orixeren “Zer Paris Gorriti, gero ere!” (QA, IG, I, 709) esaldi hura entzun genuen Santa Barbara mendi-gailurre-ra begira bi begiak tink jarri genituen unean. Bagenekien garai batean gipuzkoarren eta nafarren arteko borroka-leku izana zela. Hango basilizatik hurbil, leize batean, karlisten garaiko gerra-tresnak aurkitu omen zituztela ere ikasi genuen. Baina txango hura, hain zuzen, lehendik sobera bananduak behingoz elkarrenaga ekartzeko asmoz pentsatua genuen. Eta guztia Orixe zenaren kariaz, berak lotu baitzituen, haragi eta odolez lotu ere, bi mendi-herriak, Uitzi eta Orexa. Bati egun Nafarroakoa lurraldea deitzea eta besteari Gipuzkoakoa, historiak noizbehinka egin ohi dituen trufa gaizto horietako bat besterik ez da.



Gorritiko Santa Barbara basiliza mendi-puntan, Uitzi aldetik begiratuta.

Gorritiko herritik pasatzerakoan, zakurren zaunkak entzuten eta baserritar mekanizatuaren traktoreak ikusten hasi ginen. Errepidea zeharkatu eta Pagozelaiko gainari heltzean, hesiarekin muga egiten duten belaze-ertzeetako lizarren hostaila dotoreak are atseginago egiten du gure ibilia.

Arteitako bordan atsedena ditzo bat egiten dugu. Merezi du. Oso borda txukuna eta polita da, ederki jaramon egindakoa. Gainaldeko garo-lekuan behorra bazkatzen ari da bere moxalarekin. Ataka bat pasa eta, beti ere alanbre-sare bat mugakide dela, garo-lekuan zehar gurdibidetik gora goaz. Atallu eta Azkarate ezkerretara ditugula eta atzean eskuinetara utzita Gorriti, eta urrutiago, Uitzu. Garo-leku honetan otdia ere ugari baita, larrea zikinduxea dago. Antza, mendiak garbi edukitzeko ganadu gutxitxo. Ote-punta berdeari behorrak gogoz heltzen dio, uda-saioan bihun-biguna egoten baita. Behi gorri betizuak ere badabiltza. Metaziri biluzien ondoan iazko garo-meta batzuk ere agertzen dira tarkeka-marteka.

Eta ohartzeko, Orexako Urkietako tontorra han aurrean bistaratuz, Pagozelaiko gaindegira iristen gara, Arteitako bordatik hona hiru ordu laurdeneko bidea egin ondoren. Uso-paradak, ardi-zintzarrien hotsa, artaldea abarotan pagadi azpian, pago-ezkurra ugari eta haritz-ezkurrik ez, mendizaleak badu zertaz ase Pagozelaiko inguruetan. Pagadi baten ondoan Ehiztarien Txabola deitzen diotena aurkitzen da, dena zementuz egina, seguru asko Orixeren garaian izango ez zena, berri-itxura baitu. Txabola honek azpialdetik bi leiho dauzka eta, sarrera gisa, aterpe bat, handi samarra, irekia, eta bertan beheko sua. Burdinazko ate batez itxia dago sarrera. Txabolatik gertu, pinudi txiki batean, itzalean dauden behor-talde baten zintzarriek alaitzen dute ingurua. Pagozelaiko kaskoan uso-parada asko ikusten dira, batzuk pago-puntetan kokatuak, beste batzuk lurraren gainean kukutuak eta, azkenik, beste batzuk lau tantairen gainean atondutakoak. Udazkenean ez da han giro izango!

Pagozelain, ezkerretara pinudia eta eskuinetara uso-paradak utzita, Musairura garamatzen bideari segitzen diogu, lehen aipaturiko alanbre-sarea dugula muga. Bidean eskinosoaren kanta entzuten dugu, ozen eta luze, gaztaroko geure mendietan entzuten genuen bezalaxe. Landaredia ezin oparo datorkigu ikusmenera mendi-bidean aurrera egin ahala. Ezker-eskuin eta ugari, elorri zuriauren pipita gorriak eta elorri beltzaren basaranak tartekatzen dira; txilarrak loretan daude, kopa antzeko lorez apainduak, batzuk morexkak eta beste batzuk, berriz, horixkak. Gorosti gutxi ageri da, tarteka bat edo beste, eta horiek txiki samarrak. Haritzak, orobat, banaka.

Musairuko gainean mugarri bat dago irmoki tinkatua dirauena, iparraldean Areso, hegomendebaldean Atallu eta iparmendebaldean Gipuzkoa daudela. Hemen dena da baso, oro pagadi itxia. Udako eguzkiak sarrerarik ez du hor. Hiru norabideko bidexkak zabaltzen baitira bertan, ez dakienarentzat gerta liteke okerreko bidea hartzea. Kontuz, beraz, bidea estaltzen duen orbel artean!


Aresorako pista ateratzeko, ezkerrekoari heldu behar zaio. Bidean goazela, kolore beltz-hori nabarmenez, uhandrea, erreka-inguruak hainbeste maite dituen marraztia, zotz tartean ezkututzen da, aski mantso, agian gure oin-hotsek izututa. Hura bere eremuan zebilen, pagadiaren sakanetik pasatzen baita erreka. Aresorako pista horretara mendi-lepo batera jaitsiz iristen da. Hortik aurrera segitu eta ezkerretara pinudia utziz, zeharka-meharka Ulizarko kaskora igotzen da. Baina pixka bat lehenago, Aresora daraman pista utzi behar da, eskuinetara dagoena. Zeharka gora joz, hain zuzen, eskuinetara Aresoko bezale eta baserri batzuk bistaratzen dira urruti samar.

Ulizarko kaskora heldu baino pixka bat lehenago, maldatxo batean, erdia zementoz eta beste erdia harriz egindako borda bat aurkitzen da, aldamenean belaze bat duela, jadanik orduan pinudi bihurtzen hasia. Teilatua zinkez eta altzairu herdoilgaitzez egina du. Barruan beheko sua eta butano gasa, biak ditu. Borda eraberritu hau Aresoko Zubirikoa da eta bazkideek kantina gisa erabiltzen dute ehiza-garaian. Oinez joanda, borda honetatik Aresora ordubeteko bidea dago. Ehiztarien borda horretatik berrehun metrora edo, bada beste borda bat ere, Eoarrekoa deitzen diotena. Hau lizarrez inguratua dago, baina honen aldamenean ere lau urteko pinua dator goraka. Borda-barruan, abarotan eta freskuran, behorrek aurkitu ditugu eguerdiko eguzkiaren eta mandeulien ihesi. Bordaren gainaldeko belazean belarretan ari dira Aresoko baserriak batzuk. Traktorearen inguruan dagoen zakurraren zaunkak salatzen gaitu handik pasatzerakoan, eta belarrean ari direnen begiradak sentitzen ditugu. Buruarekin agur egin, eta aurrera!

Borda hauek daudeneko mendi-kasko honi, hain zuzen, Ulizar deitzen zaio. Tontorra eta inguruak pinu arantzatsuz edertuak ditu. Haren magalean badira oraindik lauren bat belaze eder. Guztiak zeuden belarra ebakita, kolore zuri-horiztaz jantziak, eta batzuetan belarretak ere agertzen ziren. Ulizarrera hurbildu ahala, pagadi eta otadien artean, pinudiak gero eta ugariago agertzen direla ohartzten gara.

Ulizar 866 metroko mendia da, eta Uli aldera goazela, eskuinetara geratzen dena, berriz, Hirumugarrieta. Hementxe egiten dute muga

Areso, Berastegi eta Lizartzak. Uli mendia leku pausatua da. Badaude argiuneak, garo-lekuak eta pagadiak. Pinua ere bai, tarteka. Oinazpian inaurkinaren biguna sentitzen da, azpiketarako garoa bezain gozoa. Kirkirren etengabeko musikaren laguntzarekin konturatu gabe iristen gara “Uliko etxea” izeneko mendi-lepora. Hemen bi pista banatzen dira: bata, eskuinekoa, Berastegiko izotzaldera joaten dena eta, bestea, ezkerrekoa, Oresa, Lizartza eta Gaztelura daramana.



Uliko txabola, berrikitan lehengo etxearen ondoan egina, pagadipean iturri jariatsu batez eta zurezko mahaiez inguratua.

Nondik “Uliko etxea” delako izen hori?, galdetuko da, arrazoiz galdetuko ere, zeren orain handik igarotzean ez baita txabola berri bat besterik ikusten. Erantzuna inongo sinpleena da: hehen hor etxe bat izan zelako, eta etxearen ondoan txabola bat ere bai aziendak edukitzeko, nahiz eta gaur egun biak erabateko aurri-egoeran dauden. Bertan mendizainak bizitzen ziren. Berastegin eta, gogoratzen dira

nola oraindik joan den mendearen hasieran, gerraurrean, han bizi izan zen Azurmendi mendizaina bere familiarekin, gero handik Zegamara joana. Ondoren mutil zahar bat egon zen. Etxea zutik ezagutu zutenek txalet baten antzekoa zela diote, bere ikuilu, etxebizitza eta kantinarekin. Ingurune paregabea zen orduan, paraje txukuna eta zotal mardula zuena bere inguru guztian, belaze baten parekoa. Eta hor larrean auzo-herrietako artzainen eta mendizainen aziendak ibiltzen ziren, denetarik: oilo, zakur, asto, ardi, zerri, eta abar. Leku xarmanta eta biziki alaia izaki, jende asko joaten omen zen bertara, bereziki artzainjendea, Berastegi, Oresa, Areso, Lizartatik eta. Inguruetako neska-mutilen topaleku ere bihurtu zen, batez ere, igandeetan. Erromeria egiten omen zen, musika eta guzti.

Baina mendizainak baino lehenago, han, karlisten garaian, mikelleteak egon ziren. Berastegin kontatzen denez, handik pasatu omen zen behin batez Santa Kruz apaiza. Bertan bazkaldu, mikelletekin berriketan egon, zor zuena ordaindu eta, txintik esan gabe, handik hanka egin zuen. Leku erdi-mitikotzat dauka inguruko jendeak Uliko etxea. Oroitzapen oraindik ez hain zahar horiek berriro nahirik edo, lehengo etxearen aurrez aurre eta bidez behealdetik, harrizko txabola aratz askoa egin berria dute gazteluarrek. Orduko gazteek –etxeoengandik hasi eta, ikusi ahal izan dugunez–, malenkoniaz eta tristuraz gainezka gogoratzen dute Uliko etxearen inguruan zegoen giro jatorra. Hura omen zen paradisua hura! Eta orain akabo. Orain dena aldatua, ezin ezagutua. Etxea lurrean eta ingurunea basoak itota.

Orixe ere behin baino gehiagotan hortik pasatuko zen eta ezagutuko zuen seguru asko mendi-etxe hori. Agian pausatzen edo zerbait hartzen geratu ere bai, Uitzirako edo Oresarako bidean. Nork daki! Baina seguru nago orain dagoen lekutik jaiki eta bertaratuko balitz, ez lukeela paraje hura lehen begiradan ezagutuko. Mendi-txango hone-tan hortxe sumatuko luke aldaketarik handiena.

Ulitik aurrera eginda, berehala bistaratzen dira Oresako mendiak eta lurrak. Eskuinetara Berastegirako bidea utzi ondoren, pistan behe-
ra jaisten gara Oresaraino, nekerik gabe jaisten tapa-tapa, ezkerretara miretsiz Aralarko mendikate sorgindua eta, aldi berean, barne-tristura sentituz ikustean nola ari diren garo-lekuak otez zikintzen eta landare-dia pinuz ugaritzen.

Arratsaldea da eta Espuru gaineko soro batean patata ateratzen ari dira baserritar gazte batzuk. Sasoia da. Handik pasatzean, Orixek,

barne-gogoetan sartuta, kasko hartan zenbat ordu egin ote zituen galdetu genion geure buruari.

Orixeren bideak ibili ditugu, berak hainbeste bider zapaldu zituenak, bere lanetan maiz aipatzen dituenak. Orixek mundu zabaleko edertasunak ikusi eta mirestean, berak bizi izandako parajeak datozkio gogora, haien formak eta margoak, basoaren isiltasuna eta eguzkiaren argia. Nonahi dagoelarik ere, bere lurra, beti, euskal lurra da. Barrubarruan eraman zuen bere bizitza guztian. Eta barru horretatik erneko da gero haren obra.

Geure ibilaldi honetan zehar, uneoro, gogoan itsatsia ekarri dugu Nikolas haurrak eta mutikoak urtero egin ohi zuen mendiz mendiko txangoa. Izadiak oraindik bere birjintasuna gordetzen duen nafar eta gipuzkoar mendi naharo eta pausatuetan Orixeren haurtzaroko zantzuak jaso ditugu. Eta zuri, irakurle, inoiz ibilaldi bera egiteko tentazioa etortzen bazaizu, amore emazu, ez zara damutuko eta. Amona Mari Axuntxi xaharrentzat mendiko lau orduko ibilaldi hura ez zen



Gazte-talde bat Uitzitik Orexarako bidean,
2003ko irailaren 27an egindako ibilaldian.

laburra izango, ezta Orixerentzat ere. Baina seguru gaude mendien isiltasunean elkarri zer esanik pranko izango zutela.

Uitzi, Gorriti, Oresa eta inguruko hainbat mendi aipatzen ditu *Quito'n arrebarekin*-en. Baina Uli mendia ez. Bitxia benetan!

Mendiz mendiko txango hau, Orixeren mendeurrena 1988an ospatu zenez geroztik, udazkeno egiten da, orain arte bederen, inoiz huts egin gabe. Urrian edo azaroan, ez beti data jakin batean, uitziarrek eta orexarrek elkarri bisita itzultzen diote festa-giroan. Hirurogeiren bat neska-mutilek osatutako gazte-talde sasoikoa izaten da mendiko ibilaldia alaitasunez eta anaitasunez egiten duena, kontu-kontari, baina zangoak bizkor, eguna herri-bazkari batekin bukatuz. Behin Oresan, hurrengoan Uitzin, bi asteko tartearekin. Dena Orixeren omenez, haren haurtzaroko joan-etorriak oroituz. Ea ohitura honek aurrerantzean ere jarraitzen duen!


BIGARREN ZATIA
ORIXE ILUSTRATUA

LAUGARREN ATALA

JESUSEN LAGUNDIAN (1905-1923)

Xabierko Ikastetxe apostolikoa 1904an eraiki zen, eta lehen ikasurtean 25 mutiko hasi ziren ikasten, horien artean gero aipatuko dugun Tolosako Inazio Ariztimuño, Aitzolen anaia, hain zuzen. Orixe hurrengo urtean joan zen, 1905eko irailean, eta, berarekin bateratsu, hurrengoan hilean, Uitziko Zakarias Ariztimuño Gaztañaga, Martinpereneko semea. Biak apaiz izateko asmoarekin joanak ziren, baina beren ametsak ez dira osotara beteko, orexarra azkenean etxera bidaliko dutelako, eta uitziarriari, berriz, anaia lego edo laguntzailea izateko beste aukerarik ematen ez diotelako. Zakarias 1890eko irailaren 2an jaio zen, Orixe baino urte-pare bat geroago, eta zaharrago hil, 1975eko apirilaren 21ean. Bost anai-arrebetan, bera zen gazteena. Arreba biak moja sartu ziren Jesusen Alaben kongregazioan. Beste anaia txikitan hila baitzuen, etxera ezkonduetako anaia zaharrenak ondorengorik ez izaki, Ariztimuño familia itzali egin zen.

Noren bidez edo eraginez joan ote zen Orixe Xabierrera? Aita jesuita bat bokazio bila Uitzira agertu zen batean, Orixe bertako maisuak eta apaizak bultzatuta, ez berari sortu zitzaiolako, joan zela Xabierrera esaten digu Jose Mari Aranaldek (1865, 36). Besterik kontatzen du, ordea, anaia Joan Dorronsoro Irisarrik bere *Curriculum vitae*-n: “Antes de ir a Javier, me aconsejaron que fuera a verme con el Párroco de Betelu, el que llevó a Orixe a Javier”. Anaia jesuita hau Berastegin jaio zen 1901eko abenduaren 26an, “Maitone” a baserrian. Bost anaie-tatik hirugarrena zen familian. Hiru urte zituela, asto gainean jarrita, amaren gurasoek –ama bosgarren anaia jaiotzean galdu zuen–,



Jesuiten Xabierko Ikastetxea, 1904an eraikia. Ikastetxe izateari aspaldi utzi zion. Egun sarrean bonako hiru irakurtzen da euskara: "Jesulagunen komunitatea. Ispirtuakitate ekeza. Gogorretza. Gazteen bilhokia". Lehen aldiz sartu zen ikastetxe honetarik egingo dio agur betiko Orixe Lagundiari. Bere bizi-poz eta penen lekuko historikoa.

Orexara eraman zuten. Orixe, hain zuzen, Joan Dorronsororen Irisarri honen osaba txikia zen, bere amaren lehengusu propioa, alegia. Herriko Saturnino Gastesi apaiz ezagunak Arantzazuko fraileetara bidali nahi izan zuen. Baina berak, Orixe jesuitetan zegoela eta, harako gogoan agertu zuen: “por ser Nicolás también jesuita”. Badirudi Orixeren familian jesuitak oso presente zeudela, berak kontatzen baitu nola, 15 urte zituela, Orixeren anaietako batek eraman zuen Loiolara Gogo-Jardunak egitera. Bidea, noski, oinez Loiolara.

Uitziko anaia Zakariasek, bere haurtzaroko oroitzapenak hausnartzean, xaloki aitortzen du Nikolas eta bera elkarrekin ibili zirela eskolan eta Errekaldeko mutikoa lehenengoetakoia izaten zela eta bera, berriz, azkenekoetakoia. Orixe ikasten azkarra omen zen eta gaztelaniaz ere poliki egiten omen zuen. Bazitekeen Xabiererra baino lehen latina ere zerbait lardaskatuta edukitzea, bere etxeko apaizak erakutsita. Hala uste du behintzat Patxi Altunak (1991, 45): “Ez da dudarik gazteleraz eta latinez poliki hornitua eta buruz ongi jantzia ikusi zutelako utzi ziotela apaiz-bidea hartzen”.

Bere herrikide eta jesuitakideak egindako aitortzaren bidez egiaztatua geratzen da, bada, *Quito-n arrebarekin*-en dakarren hura: alegia, urtero soineko berriarekin egiten zela eskolan lehenengoetakoia zelako.

Humanitateak Xabierko Ikastetxe apostolikoan (1905-1907)

Xabierko Ikastetxean, nolako ezagutza-maila zeukan jakiteko, halako azterketa-moduko bat egin omen zioten sarreran. Jose Mari Aranaldek (1965, 37) dakarkigu Orixe berak hil aurreko egunetan berari kontatua: “*Oración compuesta* zaion oietako bat bota omen zioten, eta bereala erantzun omen zien, zein esangune zan aietan nagusi eta zeintzuk zitun eraskin eta nola”. Uitziz bezalako herri txiki batean hamaika urtean eskola utzia zuen hari ez zioten, antza, hain maila kaxkarra iritzi, eta Xabierren, humanitate-ikasketak burutzen, bi ikasturte osatu gabe egin zituen, hamasei hilabete baino ez, gazterik sartzen ziren beste ikasleek bost urte egiten zituzten bitartean. Azken hauen kasuan normalea zen urtez urteko ikasgaien irakaskuntza era sistematikoago batez jaso ahal izatea eta, ondorioz, prestakuntza orekatuagoa izatea. Orixeren kasua, beraz, gazte heldu bati zegokion izaki, salbuespen gisa hartu beharrekoa da. Zerbait onik ikusiko zioten ikasketetan aurrera egiteko bidea eman ziotenerako.

Orixe Xabierko Ikastetxean egon zeneko epealdian aita Felipe Millán izan zen nagusi. Eta irakasleen artean, 1905-1906 eta 1906-1907 ikasturteetan, Antonio Atutxa, Jose Agirre, Jose Díez, aita Félix Ayuso eta aita Jose Aranburu aurkitzen ziren. Bi ikasturte horietan zehar Latina, Greziera, Gaztelania, Historia sakratua, Espainiako historia, Historia unibertsala eta Geografia ikasten zuten mutikoek. Baina, batez ere, Latina eta Greziera ikasteari ematen zioten garrantzia jesuitek. Eta hori haste-hastetik. Ez da harritzekoa, bada, Orixek, bere ikaskide gehienen antzera, hizkuntza klasiko horiek menderatzen saiatzea eta poliki ezagutzea, nahiz denbora gutxiago izango duen, grezieraren kasuan bederen.

Ikasketak nola zeramatzan? Benetan ondo. Jose Mari Aranaldek (1865, 37) kontatzen duen anekdota honek ez du zalantzarako bide ematen: “Eskolan geiena zekitenak aurrena zirala jartzen omen ziran, ta ‘Orixe’ aurrena edo bigarren ibiltzen zan beti. Bein, aurrena zegola bildur zan –berak esaten zun– atzetik zeukanak aurrea artuko ote zion ikasgai batean. Ala, klaseko ordua iritxi da, ta larri gure gizona; baña arkitu zun lasatzeko artea. Garai artan oso errega omen zun sudurretik odola asiaztea. Ta zer egingo, ta klasea asteko puntuan, sudurrari azkurre egin eta odola asiazi, ta maixuari kanpora ateratze-baimena eskatu. Berak esanez gañera dakigu, beti bederatzi ta amar izan zirala notak. Bein bakarrik atera omen zun zortziko bat eta orduan negarrari eman ziola, esaten zun. Bidezko gauza zerizkion gañera uskeri arengatik negar egitea”. Patxi Altunak (1991, 45), Artxiboko datuak eskuan, zehaztasun osoz esaten du zein gaitan nolako notak atera zituen: “Latina eta gerkeraz besterik ez zutela ia ikasten. Halaz ere Orixeren notetan gerkerarenik ez da ageri. Lehen ikasturtean, 1905-1906koan, latineko eta historiakoak bakarrik ageri dira; bietan Bikain atera omen zuen urteko hiru azterketetan. Bigarren ikasturtean ere Bikain latinean eta geografian. Ikasturte honetan, halere, Ekaineko notarik ez du Orixek, ikasturtea amaitu baino lehen joan baitzen Loiolara jesuita izaten hastera”.

Grezieran zergatik ez zioten notarik jarri? Agian, ikasten denbora gutxi egina izaki, beste ikaskideen maila ematen ez zuelako? Litekeena, eta guztiz ulertzekoa. Dena den, jakingarri da zehaztasun horiek jasotzea, zeren, geroago azalduko den bezala, apaizgintzarako jarriko dizkioten oztopoen artean ez-gaitasuna aipatuko baita.

Ez bakarrik Uitziko eskolan, jesuiten Ikastetxean ere –ikasleri jantziago batean, alegia–, lehenengoetakoa genuen. Eta halaxe zen, nahiz eta osasunak ez asko lagundu. Aurreko testuan Jose Mari Ara-

naldek esan bezala, Xabierren sudurretik odol asko isurtzen zuen eta anemiko geratu zen. Ikasketa gehienak irakaslearen azalpenak entzun gabe eraman behar izan zituen. Hala dio bere “De mi vida externa” dokumentuan: “Fuera del año y cuarto que llevé en Javier las clases con regularidad, nunca pude después seguirlas sin trampear continuamente” (1943, 175). Gauza bat da piper egitea (berak “trampear” dioena) nahikariagatik eta beste bat ezinagatik. Orixek beste bere ikaskideek ez bezalako baldintza gaitzetan saiatu behar izan zuen ikasketak egiten. Hasieratik bertatik erdi-autodidakta izatea tokatu zitzaion. Halere, pentsatzekoa da, edozein kontsulta egiteko bertan izango zituela irakasleak nahiz ikaskideak.

Xabierko egonaldian, antza, hango “Santa Rosa” izeneko basora joaten zen bere ibilaldia egitera, eta hango bakardade isilean, otoitzari ekiten zion. Ahapaldi honekin hasten da “Lenengo txokoa” izeneko poema (IG, I, 610-611):

“Santa Rosa’ko basora
otoitz egitera noa.
Aizerik ez, ixil-billa
beti pake-zur nabilla.
Ezeren txintik ez dantzut;
Zu soilik entzun nai zaitut.
Urbildu naiz oianera,
eguneroko bidera”.

Kilkerrak kantuz sumatzen dituen bitartean, bere baitan erabat bildurik, nondik dabilen ere jakin gabe, irudimenak Uitzira ihes egiten dio Gorpuztzi-egunez:

“Idurituz Uitzira
an Corpus’ez Elizbira,
ez urian dan apaña,
baña neretako laña”.

Geroago, beste ahapaldi batzuetan, honela jarraitzen du:

“Asi naiz kantaz, ez bakun
Uitziarrekin lagun:
Pange lingua, Lauda Sion
eta biotzak zer dion.
Santa Rosa’ko basoan
nabillanik ez gogoan.

Bertan egíñez abaro,
ordua laister igaro.
Txirritak ixildu dira,
bukatu da Elizbira.
Eliz aretan goiz-Mezan
Jauna gogoz artu nezan”.

Baso horren aipamena poema bat baino gehiagotan egiten baitu, bertatik bertara ezagutu nahiak eraman gintuen Xabierrena. Baina han inguruan, beste behin, ez genuen basorik aurkitu. Zaharrek zioten han inguruan, beren garaian, olibondoak, mahastiak eta soroak besterik ez zituztela ezagutu. Hango txokoak ederki ezagutzen dituen aita Antonio Zavala jesuitak 2003ko maiatzaren 15eko gutunaren bidez jakinarazi zigunez, ba omen da Xabiertik Zangozarako bidean aldapa gora goazela, kilometro batera edo, “Santa Ana” deitzen zaion toki bat, alboan artadi eder bat duena. Orixek dakarren bezala, txirritek ere udan gogotik kantatzen omen dute. Litekeena da, beraz, Orixek toki-izenak nahastea, Santa Anaren lekuan Santa Rosa jartzea, alegia. Gauza ziurrik deus ez, halere.

Bestalde, poema horretan Uitziko oroitzapenak oso bizirik agertzen baitira, pentsatu izan da 1905ean ondu bide zuela eta, agian, izan zitekeela bere lehen poemetako bat. Baliteke hala izatea, eta hala bada, esan behar da harritzekoa ere badela adin hartan, Ikastetxean sartu berrian, baserri-usaina zekarren luma hark horrelako trebezia erakustea. Litekeenago iruditzen zaigu, gaiaren garapenean orduko oroitzapenez diharduen arren, geroago egina izatea eta, agian, beste nonbait, luma heldu baten ukitua nabarmentzen baita.

Nobiziatua eta humanitateak Loiolan (1907-1909)

Xabierko Ikastetxean 1906-1907ko ikasturtea erabat bukatu baino lehen, Urola bailarako Loiolara aldatzen da. Euskal Herriko punta batetik bestera. Jesusen Lagundian ofizialki sartu, 1907ko apirilaren 12an sartu zen, Nobiziatua hastean, hain zuzen. Erlijioso-gai guztiek egin ohi zuten sarrerako formula orokorra bete zuen Orixek ere, norberak bere eskuz bete beharrekoa, non, funtsean, Nagusien esaneko izango dela promes egiten baita: “Paratus item ad aliorum correctionem juvare, aliorumque defectus manifestare secundum praes-

criptionem et voluntatem Superiorum ad majorem Dei gloriam, necnon ad omnia officia et litteras perpetuo adocendas”. Nobiziatuan sartzeko boto-formula horretan agertzen denez, Xabierko Ikastetxe apostolikoan, Orixek “sub J. Alvarez auctore” egin zituen humanitateko bere bi urteak. Baina aurreko agirietan aita Felipe Millán agertzen da Nagusi bezala. Zer esan nahi ote du “sub J. Alvarez auctore” horrek? Agian bera izan zela ikasketen buru?

Orixek, beraz, Nobiziatuan ikusten dugu 1907ko apirilean, soinean sotana beltza jantzita, orduan Gaztelako probintziako Probintziala edo Prepositua zen aita Ignacio Maria Iberoren eta Loiolako Erretore eta Nobizio-Maisu zen aita Cesareo Iberoren onarpenarekin.

Loiolako Nobiziatua, 1907-1908 ikasturtean, gazte erlijiosoz ederki hornitua zegoen. Guztira, lehen urteko nobizio eskolastikoak 23 ziren, eta nobizio laguntzaileak, 14; bigarren urteko Nobiziatuan, berriz, humanitateak egiten ari zirenak 29, eta Gramatika berritzen zutenak, 12. Azken hauen artean aurkitzen zen Orixeri gero Oñan errepikatzaile gisa lagunduko dion Pedro Leturia ikaskidea.



Loiolako santutegia, Euskal Herriko jesuiten egoitza nagusia, mundu zabalean ere ezaguna dena. Orixek hemen egin zuen bere nobiziatu-aldia.

Orixe eta Jose Maria Estefania Zabala, gero haren literatur kritikaria izango dena, ia bateratsu hasi ziren Nobiziatua egiten. Hau hura baino hiru hilabete geroago, urte bereko ekainaren 14an sartu baitzen Jesusen Lagundian. Orixe baino urtebete gazteagoa genuen, 1889ko urriaren 28an jaioa. Bera, Orixe ez bezala, Bilbotik zetorren, industri gizarretik. Lehen ikasketak Bilboko Institutuan egin eta Deustuko Unibertsitatean ikasten ziharduen 18 urteko gaztea zen Jesusen Lagundian sartu zenean. Elkarrekin bi urte egin zituzten Loiolan Nobiziatua egiten. Orixe, Nobiziatuko bigarren urtean humanitate-ikasketak bukatzean, Burgosko “La Merced” Ikastetxera joan zen. J. M. Estefania, ez. Hau, latinean trebatu gabea sartu zelako, oraindik beste bi ikasturte (1909-1911) geratu zen Loiolan, latina eta humanitateak egiten. Berriro handik lau urtera, 1913an, elkartuko dira Oñan, Orixe Filosofiako hirurgarren urtea bukatzen eta J. M. Estefania lehen urtea hasten. Eta zazpi urteren buruan (1920), Oña izango da bi lagun min hauen azken topalekua, oraingoan Orixe Teologiako lehen urtea egiten eta J. M. Estefania, bigarrena. Guztira, lau urte dituzte batera eginak: bi Loiolan eta beste bi Oñan, baina ez ikasketa-maila berak egiten. Nolanahi ere, elkarren berri jakiteko adina denbora izan zuten Uitziko baserritarrak eta Bilboko hiritarrak. Euskal literaturentzat guztiz esanguratsua gertatuko da bi figura hauen topaketa, Orixeren sorkuntzak J. M. Estefaniaren kritikari zor diezaiokeen adinbat zor baitio honen euskal literaturarako zaletasunak haren lumari. Euskal letren plazara J. M. Estefania bezalako kritikari goren baten oniritziarekin ir-tetea beti ere berme ziuorra zen edonorrentzat. Orixek bazekien nori kasu egin 1920ko hamarkadaren azkenaldian sortutako literatur ezta-baida nahasietan. J. M. Estefaniaz pixka bat luzatu bagara, Orixeren literatur bizitzan izan zuen eragin nabarmenagatik izan da. Ez beste ezeragatik.

Nobiziatuan zer ikasi zuen? Ez asko, nobizioak gehienbat gai erlijiosoak lantzen aritzen ziren eta. Horregatik, astean ordu batzuk baino ez zituzten egiten Latina eta Greziera ikasten. Orixe izango da basilikan igande-arratsaldeetan arrosarioa errezatuko duena.

Nobiziatuko bi urteak bukatzean 1909ko apirilaren 13an, lehen botoak egingo ditu eta Junioradura pasatuko da. Hemendik aurrera, ordea, Hizkuntzak –latina eta greziera– eta Literatura ikasten ordu gehiago emango ditu eta orduan hasiko da autore grekolatindarren idazkiak dastatzen. Uda arte Loiolan segituko du.


Erretorika Burgosko “La Merced” Ikastetxean (1909-1911)

Antza, lehendik ere ezagutzen zuen Orixek Burgosko hiriburuan bertan kokatua dagoen ikastetxe hori, nobizioa zela, hilabete bat edo, egina baitzuen hango gaixotegi batean.

Hara iritsi zen egunak data zehatza du: 1909ko abuztuaren 20a. Ikastetxe honetan egiten ditu Erretorikako bi urteak. Bertan, 1909-1910 ikasturtean, 24 ikasle zeuden lehenengo urtea egiten, eta bigarrena egiten, berriz, 21. Oraingoan Pedro Leturia eta Orixe ikasgela berean aurkitzen dira. Aita Balendin Galdosek Greziera, bigarren mailako Historia orokorra eta Geometria irakasten die; aita Camilo Abadek, Poetika greko-latindarra eta Estetika. Bigarren ikasturtean (1910-1911), berriz, aita Isacio Morán eta aita Ramiro Arri izango dituzte irakasle, eta lehenengoak Erretorika, Hebraiera, Greziera eta Aritmetika irakasten die, eta bigarrenak, Poetika, Estetika eta Literaturaren historia. Nolanahi ere, esan behar da, irakasleok trebatuak diren arren, ez direla gai jakin batean espezializatuak. Atzerrian espezializatutako irakasle handiak –aita Errandonea eta Estefania bezalakoak, esaterako–, geroago etorriko dira. Aipatutako ikasgai horiek lantzeaz gain, idazkiak eta hitzaldiak ere prestatu behar zituzten. Norberak ahal zuen moduan eta ondoen zetorkion hizkuntza klasikoan.

Heziketa hau, funtsean, humanistikoa da, gehienbat hizkuntza klasikoan eta literaturaren inguruan oinarritzen dena. Jesuitek beren curriculum bereziaren bidez lortzen zuten prestakuntza intelektuala, apaizgaitegietan eta erlijiosoan ikastegietan lortu ohi zenaren aldean –beti ere orokorrean hitz eginda–, maila handiagokoa zela esan liteke, urtez luzeagoa ez ezik, edukien aldetik ere osoagoa baitzen. Ezaguna da hizkuntza eta literatura klasikoek pedagogia jesuitikoan izan duten eragina.

Orixek autore klasiko greko-latindarrak oso ondo ezagutzen zituela batek baino gehiagok esana da lehendik ere. Burgosko Erretorika bukatu ondoren, ikasleak hiruzpalau hizkuntza (latina, greziera, hebraiera, frantsesa edota, azken honen orde, ingelesa) aski ondo ikasita ateratzen zirela berretsi zuen Patxi Altunak. Orixe latinean arras trebea zela, hizkuntza horretan garai horretan paratutako bertsoek frogatzen dute. Grezieraz hain trebea zenik, orde, ezin omen da esan, hizkuntza horretan idatzitako olerkirik utzi ez zuelako Burgosko egonaldian. Oso posible da, normala bai bederen, latinez grezieraz baino gaituago izatea, Patxi Altunak (1991, 58-59) ematen duen arrazoi



Harri landuzko Ikastetxe zoragarri hau beneditarren monastegi izana da, XVI. mendearen bukaeran eta XVII. mendearen hasieran eraikia. Arlazón ibaiaren ondoan aurkitzen da, Katedralaren aurrez aurre. Egun, eraberriturik eta “NH Palacio de la Merced” izenarekin, luxozko hotel bihurtua dago. Barruan historia eta modernitatea ederki ezkonduta ikusten dira, jangelarena egiten duen klaustrotik hasita.

honengatik: “Ez litzateke harritzeko. Beste mutikoak hamar edo hamar maika urte zituztela joaten ziren Xabierra, eta Orixe hamazazpi zituela. Alde handia da, noski. Horrez gain hiruzpalau urtez aritzen ziren haiek han latina eta gerkeria ikasten, eta Orixe biez bakarrik. Hebreoarena oso gauza desberdina da: guztiak batera hasten ziren Burgosen ikasten eta ez zion inork inori ikasten jarduniko urteen alderik kentzen.

Gerkera beste batzuk bezain ongi menderatzen ez zuelako susmoa indartuko digu Oñako beste gertakari batek”. Grezieraz ez, baina hebraieraz badu bost lerroz osatutako olerkitxo bat egina.

Dena den, greziera beste batzuk bezain ongi menderatzen ez bazuen ere, badakigu ez zela batere maingua hizkuntza horretan ere. Eta honen froga da –berriro Patxi Altunaren (1991, 60-61) iritziari lotzen gatzaizkio–, Comillasa latina eta greziera erakustera bidali zutela, grezieraz hain trebeak ziren Páramo eta Olondriz ikaskideekin batera, nahiz eta Orixe filosofoak ez duen Oñan predikurik eginen hizkuntza horretan: “Baina gauza bat esan behar da hemen bertantxe Orixeren alde: gerkerazko predikalari Páramo eta Olondriz Filosofia bukatzea Comillas-a igorri zituztela ‘maisú txiki’ izatera eta lan-gerkerak irakastera, eta Orixe ere bai. Ez zen, beraz herrena Greziako hizkuntzan!”. Comillasa bidali bazuten, latina eta greziera ongi menderatzen zituela-ko bidali zutela pentsatu beharko da, eta ez zigortuta.

Ikasleek Burgosko Ikastetxe honetan ateratako notak ez dira eza-gutzen; beraz, ez dezakegu ezer zehatzik esan Orixeren ikasketa-arrakastaren gainean.

Nahiz eta osasunak ez lagundu, Burgosko “La Merced” Ikastetxean ez zuen denbora alferrik galdu, han ereindako haziari esker uzta betea bildu ahal izango baitu literaturako bere ganbaran. Nagusiengana-ko eskerrona agertzen du bere “De mi vida externa” ezagutuan (1943, 175), hangoak berarekin jator portatu zirelako: “La mala salud continuaba con los grandes hemorragias de nariz y fuertes dolores de cabeza. Los superiores me cuidaron muy bien, y en el aspecto físico gané mucho en Burgos. Me eximieron de la clase de la tarde, durante la cual me dedicaba suavemente al jardín. En Burgos estuve los dos años de Retórica, de los cuales saqué bastante aprovechamiento. Tenía fama de componer el latín tan bien como el mejor de clase. Muchas veces tuve que dejar de hacer la composición, pero como tenía buena memoria retentiva, se me quedó la frase y el estilo latino. No recuerdo si ya desde Loyola o desde Burgos escribí una carta larga en latín al que fue Inspector mío en Javier, P. Antolín Atucha, que cursaba Teología en Bélica. El asunto de ella debió ser o la semana roja de Barcelona o algún otro acontecimiento ruidoso. Los belgas dice que se admiraron de que en la actualidad se pudiese escribir tan bien el latín”. Orixek, besteen antzera, klase guztietara joaterik izan balu eta ikasi ezinak ete-naldirik sorrarazi izan ez balio, nork duda dezake ez zuela oraindik ere zuku gehiago aterako? Nik ez bederen. Eta honekin batera, bigarren

ohar bat ere bai. Zalantzarik ez da Orixek, oroz gainerik, latina zuela maite, biziki maite ere. Halaxe aitortu zigun Joan Inazio Otaegi apaizak 1988ko ekainaren 14an izandako elkarrizketan: “Berak, batez ere, latina menderatzen zuen ondo-ondo. Latinak eta euskarak ia-ia joera berdina dutela, zioen”.

Xabierren bezala, Burgosko Ikastetxean ere bertsoak lantzen jarraitu zuen. Ez dakigu noizkoa den, baina badirudi “Sinismen garbi” izeneko poema (IG, I, 612-614) hango egonaldian egindakoa dela. Xabierren “Santa Rosa”ko basora joaten zen bezala bere otoitzaldia egitera, Burgosko hirian, Arlanzón ibaian zehar luzatzen den zumardi luzean ibiltzen zen, handik kartusiarren monastegirako bidea hartuz. Deskribapen hau eginez ematen dio hasiera poema horri:

“Ekia baiño lèn
Burgos'ko Zumardi
ederrean barna
Ipar piña zantzu,
Opor-egun osoz
Kartusi aldera
Ixil otoitzean
oituraz noazu”.

Orixek hor goian “opor-egun osoz Kartusi aldera” joaten zela esaten digu. Baina noiz egin zituzten ikasleek beren txango horiek eta zenbat denborako ateratzen ziren? Dena zeukaten arautua: astearte eta larunbata arratsaldeetan ordu t'erdiko tartea zuten Ikastetxetik kanpo ibiltzeko, baina ez ibaiaz harago, hiri barruan, inguruko herrixketan barna baizik; ostegunetan, hamar t'erditan edo hamaikatan, hizkuntzen eskolak bukatzean, txango luzeagoa egiten zuten, kanpoan bazkaldu eta bostak aldera etxera etorriz. Ibilaldi hauek hirunaka egin beharrekoak ziren, lagunak aldioro aldatuz. Ez dakigu, Orixek “opor-egun osoz” dioenean, osteguneko txangoaz ari denetz. Seguru asko, bai. Bakarrik ala lagunekin, nola joaten zen ere ez dakigu, arauak hirunaka joatea agintzen zuela besterik. Orixek baimen bereziren bat ote zeukan bakarrik ibiltzeko?

Harridura sortzen duen beste puntutxo bat ere bada Orixerenean: alegia, Burgosen bi urte bizi izan eta, aurrean zeukan bertako katedralaz ez zaigula mintzatzeko, eta bai, poema honetan bezala, kartusiarren elizaz. Txolarteetan ibaiaz bestaldera joatea debekatua zeukatelako ote? Hala zeukaten, baina Orixerentzat, seguru asko, hori ez zen arrazoia,

beste hau baino: berak Kartusiko isiltasuna maite zuela, zumardiko bakean erosoago sentitzen zela, alegia.

Dakigun zerbait da berak, aisialdian, Kartusiarako bidea hartzen zuela, eta, kanpo-zentzuak batera ekarriz, inguruan miretsiz doan izadia, aldi berean, otoitz-gai bihurtzen zaiola:

“Landa dut otoitzgai:
begiz ta belarriz
asirik, nolabait
nai zaitut sumatu.
Zure begi omen
dan eguzkiari
goiz-laiño zuriak
eiten dio gandu”.

Atsegin betea, gogoan monastegian kokatzean aurkituko dugu, hango isiltasunean:

“Muskillen gainetik
urretxindor batek
oles eta oles
moxkorrik diardu.
Kartusian ixil
gau-loaren mende;
gauetz zuten xinta
otoitz eta Salmu.

Aiekin txandaka
zaitzala goretsi,
ez baitu txori ark
gauetz loa galdu.
Eguratsez, argiz,
begi eta kolko
aserik, ixilla
dut nik nere kantu”.

Poema bereko beste ahapaldi batean oraindik:

“Kartusi Eliza
Eliz ixillena,
pake ta siñesmen
zin-zifien eredu.

Barna guritzen dit
oraindik oraino;
siñesmen legorrak
guria sari du”.

Orixeren poesiaren hasieran, erdian eta bukaeran, hasierako bere poema hauetan ikus daitekeen bezala, paisaje jakin baten deskribapena aurkitzen da, kanpo-zentzuen oharmena eta, orotan, aurrera egin ahala gero eta sakonago, gogoeta eta sentipenen emana. Azkenean, Kartusiako elizan bezala, oro fede-bizitzan urtzen da harena.

Filosofia (1911-1914) eta Teologia (1920-1922) Oñan

Pankorboko haitzartea igaro eta, eskuin hartuz, Burebako bailarran barneratzen gara udaberriko galsoro berdeen freskuran, aste santuz, 2003ko apirilaren 8an. Bere urak Ebrora eramaten dituen Oka ibaiaren ertzean, Burebako mendien artean ezkutatuta eta harkaitzez inguratua, hantxe aurkitzen da konde-hiri zahar hau, XIII. mendea arte Nafarroako erresumako lurraldea izandakoa eta egun, berriz, Burgoskoa dena. Txikia baina xarmanta.

Alde guztietatik Erdi Aroko usaina darion hirigunean bertan, gaindegitxo batean jaikitzen da, handikiro baina soiltasunez, beneditarren San Salvadorko monastegia. Eskailera luze batzuk igo behar dira eliz atarira iristeko. Arte erromanikoa, gotikoa eta mudejarra, denak nahasian miresten dira sarrerako atea igaro eta barruko nabe nagusian barna aurrera lehen urratsak ematen hasi orduko. Aurrean, harrizko hilobi ilunetan Nafarroako erregeen hezurak gordetzen dira, besteen artean, Antso IIIa. Gartzes Nagusiarenak.

Elizaren alboan, eskuinean, dago monastegia, hainbat urtez jesuiten Ikastetxea izan zena eta egun Ospitale psikiatriko gisa erabiltzen dena. Lekuko gazteek doi-doi dakite, zaharragoei entzunda, hura jesuiten egoitza izandakoa dela.

Burgosko ikasketak bukatuta, 1911ko abuztuaren 18an, arratsaldeko 3,15etan, iritsiko da Oñara.

Hirurogeita hamabots filosofoen artean, Orixe bat gehiago. Teologoak oraindik gehiago ziren: hirurogeita hamazazpi. Bi komunitate osatzen zituzten eta ez ziren elkartzen urtean egun jakin batzuetan izan ezik.



Beneditarren monastegi hau, Mendizabal ministroaren desamortizazioaren ondotik, jesuitek beretu zuten eta bertan Filosofia eta Teologiako Ikastetxe nagusia ezarri. Mende bat eta erdi egin eta gero, 1969an utziko dute. Hango ikasleak Deustura pasatuko dira beren ikasketak egitera.

Hor hiru urtez jardungo du Filosofia ikasten garaiko maisu jesuita ospetsuen esanera. Anizeto Galdosek Logika eta Metafisika irakasten zituen; Fernando Gutiérrez del Olmo eta Jose Aldasorok, zientzia zehatzak, hala nola Fisika, Astronomia eta Matematika; José María Iberok, Kosmologia; Tomás Fernández, José Mostaza eta Modesto Armisének, Etika eta Zuzenbide naturala; José Antonio Menchacak, Biologia; Dionisio Dominguezek, Psikologia razionala eta Filosofiaren historia. Etikako irakasle, aita M. Armisen izan zuen. Orixeren irakasle izandako aita Mostazari buruz, ohar haxe dakar Patxi Altunak (1991, 61): “Ikasgai nagusietatik bi aipatzen ditu egunkariak: Sikologia enpirikoa, aita Jose Maria Iberok azaldu zuena, eta Etika, aita Jose Mostazak irakatsia. Hau bi urteren buruan Comillas-en biziko da Orixerekin batera eta honen etsairik handienetako bat izango. Ez dakigu beste ezertxo Orixeri dihoakionik, ez baitu honen izena aipatzen ere egunkariak”.

Orixek Literaturan abila zela frogatu zuen. Baina Filosofian? Irizpide bakartzat notak hartzen badira, badirudi ezetz. Patxi Altunak (1991, 67) dakartzan datuak dira hauek: “Hona, bada, lehen urteko

notak: bi ‘superavit’ eta bi ‘attigit’ –’gainditu du’ eta ‘heldu da’ esan nahi dute, eta gaurko ‘ongi’ eta ‘aski’ edo lirateke, apika–”. Eta segidan, ez dakigu zuzen zer argitzeko asmoz, aita Estefaniak ateratakoekin alderatzen ditu harenak: “Aldera itzazue orain anai Estefaniak, esate baterako, atera zituenekin: lau ‘superavit’ eta horietako bat gainera ‘cum excellentia’. Bigarren ikasturtean hauek: hiru ‘superavit’ eta bat ‘attigit’; anai Estefaniak, aldiz, lau ‘superavit’ eta horietako bat berriz ere ‘cum excellentia’. Hirugarren ikasturtekoak, Rebalida antzekoa izan ohi zen ‘De universa Philosophia’-koak, bi ‘aegre (hots, doidoi) superavit’ eta hiru ‘attigit’; Estefaniak, aldiz, bost ‘superavit’ eta horietako bi ‘cum laude’”.

Egia da, bai, ez zituela nota distiratsuak atera, ez bederen aita Estefaniak ateratakoekin konparatzeko modukoak! Zer gartatu ote zitzaien? Patxi Altunak (1991, 67-68) dio, gerta zitekeela desoreka hori, agian, denbora bere afizio pertsonaletan ematen zuelako edota, baita ere, burukominengatik, irakurtzen uzten ez ziotelako: “Horrenbestez Orixeren lagun mina eta miresle kartsua zen aita Felix Areitio jesuitaren honako hitz hauek, behin aita Juanito Goikoetxeari Loiolan esanak, aldez egia dira eta aldez ez: ‘Orixe nunca fue suspendido en sus estudios; él mismo decía que los asimilaba bien y que los aprobaba en los exámenes ampliamente y que aún le quedaba tiempo para otras actividades marginales’. Honi oso ongi lotzen zaio behin neri aita Daniel Gaston-ek, Xabierren 1919-1920ko ikasturtean Orixe ezagutu zuenak eta hau bezala poeta –aita Estefaniak oso istimatua, gainera– izanak, kontatu zidana: ‘Quizás llevado de su gran capacidad y afición a las letras vascas, hurtó no poco tiempo al estudio de la Filosofía, sin olvidar además que desde siempre sufrió muy fuertes dolores de cabeza. Horiek zirela eta, paper-liburuak irakurtzen ere ia uzten ez ziotelako, Pedro Letuariarekin batera, honek irakurri eta Orixek entzuna gogoan hartuz, prestatu zuela azterketa hura esan izan da gure artean”.

Gauza ziuira da, alabaina, osasunak laguntzen ez eta klaseetara joan ezin zelako, Nagusiek errepikatzailerik gisa ikaskide zuen Pedro Leturia jarri ziotela eta “De universa Philosophia” delako azterketa, errebalida gisakoa izan ohi zen hura, haren laguntzaz ikasi zuela, dena belarri hutsez. Orixek berak (1943, 175), “De mi vida externa”n, Oñan egindako filosofi ikasketez hiru lerro bakarrik idazten ditu, eta horiek Pedro Leturiari bere eskerrona agertzeko: “Mi salud seguía delicada. Los Superiores me dieron por repetidor a mi condiscípulo Pedro Leturia que es hoy Decano de la Universidad Gregoriana. A oído hice

pues la Filosofía, en la cual no fui por lo menos desahuciado al salir al magisterio”. Lagun ezin hobea izan zuen Orixek eta, gainera, argia bezain bizkorra. Antza, aita Intxaurrendietak 1988ko ekainaren 6ko elkarriketan aitortu zigunez, errepikatzaileen kasuan, ikasle azkarrek, eskuarki, ikasle azkarrekin uztartzen omen zituzten. Honek aditzera ematen du biak ere burutsuak zirela, edota halakotzat zeuzkatela. Errepikatzaileak irakurri eta Orixek entzun, belarriz ikasi bide zuen Filosofia orokorra.

Dena airean uzten duen Patxi Altunaren “esan izan da gure artean” delakoari buruzkoa, bada, lekuko zuzenak argitua utzi zigun. Eta gertatua hala izanda, ez al da fenomeno baten lana, entzumenari esker soilki, azterketak gaingitu ahal izatea bakarrik? Horrelako baldintzetan beste edonork ere lanak izango zituen, oso azkarra izanda ere, Orixe bezain airoso ateratzen. Gu bederen, Orixeren oroimen indartsuak benetan txunditua uzten gaitu. Puntu hau argitzeak badu bere garrantzia, geroago bizkarreratuko dizkioten salaketen artean bere adimengaitasuna jarriko baitute zalantzan.

Filosofi ikasketak 1914an bukatu eta maisutzan sei urte (1914-1919) egin eta gero, Teologiako lehen ikasturteari ekin zion Oñan 1920an, 32 urterekin, aita Bianchi erretore zela. Teologia ikastera joateak, berez, lehengo hutsegiteak ahaztuta zeudela suposatzen zuen. Orixek, beraz, ustez kitatuak zeuzkan bere zorrak.

Lehen ikasturte honetan, guztira, 40 teologo-ikasle aurkitzen ziren; lehen urtea egiten, berriz, 9 lagun zehazki. Jose Maria Estefania bigarren urtea hastera zihoan Orixek lehenengoari ekin zionean. Hau izango da leku berean egiten duten azken ikasturtea, hots, 1920-1921ekoa. Sei urteren buruan berriro elkarrengana joko dute, Jose Maria Estefania Urduñatik etorria eta Orixe, berriz, Xabiartik 1920ko abuztuaren 31n. Honen etorrerak, euskarari dagokionez, ekarri zuen berritasunik Oñako ikasketen plangintzan, orduan izendatu baitzuten euskal akademiako prefektu. Horrelako izendapena lehen aldiz eman zen jesuiten curriculum ofizialean. Euskal akademia hau 1922ko urriaren 3an sortu zen, berorren helburuak arautegi batean finkatu zirelarik. Patxi Altunak (1991, 77) honela iruzkintzen du Orixeren izendapenari buruzkoa: “Sortu da euskal akademia; berorren bizi-indarrak eta dinamikak urraziko ditu gero muga eta baldintza horiek. Izan ere, norbaitek idatzi beharko zuen, bada, *Deya*-n! Arau horiek ezarriz, ordea, bere burua zurituztat ematen zuten Agintariek eta hor konpon gero, nolako euskara ikasten zuten gazteek! Hori beren gain geldituko

zen eta batez ere Akademiaren buru izendatzen zutenaren gain. Eta badakizue nor izendatu zuten, Orixek, lehen nazionalista zelako salakuntza sartu ziotena”.

Orixek nahigabe handia izan zuen, teologi ikasketak hastera zihoala, *cursus minor* egin behar zuela esan ziotenean. Honen arrazoia Patxi Altunak (1991, 75-76) honela azaltzen du: “Badakizue, lehen esan baitut, nolako notak atera zituen Filosofiako hiru ikasturteen amaierako ‘De universa Philosophia’ zeritzan azterketan: bi ‘aegre (doidoi, alegia) superavit’ eta hiru ‘attigit’. Esan dezagun garbi, suspensorik ez, baina *Superavit* garbitik urruntxoko notak, eta –Orixek agian ez zekien, nik ere ez, hariak eta duela ia hogeitamar urte neure irakasle izan zenagana horren argitasun eske jo dudan arte– azterketa hura gañdituztat emateko *Superavit* garbia beharrezko zen. Hori dela eta, urteroko gogojardunak aita Sautu herri misiolari famatuarekin egin eta ikasturteari ekitean, horra non gaztigitzen dion Erretoreak, aita Bianchik, ‘cursus maior’-eko ikaskizunak ez baizik ‘cursus minor’-ekoak egin behar dituela, nota exkaxak atera zituelako”. Erabaki honek, maila intelektualean laido moduko zerbaiten sentipena ez ezik, bizitza erlijiosoaren mailan ere oztopo berri bat ere bazekarkion, zeren, lau boto sonatuak ez, baizik eta hiru egitera behartzen baitzuten. Orixerentzat lehenengoa garrantzitsua bazen, bigarrena ez gutxiago. Horra nola jausten den zoritxar gutzien zulo ilunean!

Goazen aurrera. Filosofian bezala, Teologian ere sona handiko irakasleak izan zituen. Ordukoak ditugu, besteak beste, Florentino Ogara, “Kristo gure errege” musika eta letra egin zituena, Beraza, Antonio María Arregui, Manuel Arin, Hormaetxea, Ibero, Marco Martínez, Echaguibel, José Zameza, Monreal, eta abar. Orixek, berari bere bokazioaren aldeko defentsan laguntza eskaini ziotenen artean, aita Beraza eta Llona aipatzen ditu. Berak aitortzen duenez, klaseak sekula ez bezala segitu zituen eta, honela, Teologiako bigarren urtea bukatzean “Ad audiendas confessiones” azterketa aise gañditu zuen. Halere, txikitatik zekarren osasun eskasaren malura ezin baitzuen bere gorputzetik uxatu, Filosofian bezala Teologian ere, Greziako peripatetikoen antzera, Morala baratzean barna ibiliz ikasteko baimena eman zioten Nagusiek. Testuliburua bera bezalako beste lagun batekin txandaka irakurritz, ikasgai hori ere belarriz ikasi behar izan zuen. Ez dakigu berak dioen “otro descabezado como yo” delako beste lagunkide hura nor izan zitekeen, ez baitakar haren izenik behin eta berriz aipatuz gatozen “De mi vida exterior” izeneko dokumentuan.

Filosofia eta Teologiako goi-ikasketak, bada, inolako oztoporik gabe burutu zituen, osasunetik falta zitzaiona adimenaren argitasunarekin osatuz. Hirugarren ikasturtea (1922-23) hasi eta berehala, hurrengo atalean zehaztuko ditugun arrazoiengatik, Xabierri bidaliko dute, eta handik hurrengo urtean etxera.

Xabierko azken ikasturtean teologi ikasketak bere kontura egin omen zituelako, eliz ikasketak bukatuta irten zelakoan dago Jose Mari Aranalde (1965, 37). Hau ez da erabat zuzena, zeren Oñan Teologiako bi urteak bakarrik egin baitzituen, eta egin beharrekoak lau baitziren. Xabierren gehienez ere urtebete egingo zuen bere kontura.

Azken urteak burutzeko oztopoak jarri bazizkioten ere, esan deza-kegu, osotara ez baina, Lagundian egin ohi ziren eliz ikasketak buru-tutzat eman daitezkeela. Lehen esan bezala, *cursus minor*-ekoen sailean, noski, *major*-ekoa baitzen Lizentziatura lortzera bideratuta zegoena. Hor jasotako trebakuntza intelektualean oinarrituko da Orixeren geroko ekarpen ugaria.

BOSGARREN ATALA

ZAZPI URTE BELTZAK (1914-1920)

Aurreko atalean Orixe ikaslearen ageriko curriculumak ikusi dugu, ahalik eta hoztasun handienez. Oraingo honetan, azaletik barrura sartuta, ezkutukoa agerian jartzen ahaleginduko gara. Xehetasunen bat edo beste errepikatzen bada, testuingurua bera beste alderdi batetik begiraturata, argitasun berriak dakartzalako edo, bederen, hala uste izan dugulako izango da.

Filosofi ikasketak bukatu eta Teologiarekin hasi aurretik, 1914-1920ko epealdia irakasten ematen du. Guztira, 6 urte egiten ditu mai-sutzan, honela banatuta: Comillasen 3 urte (1914-1917); Carrion de los Condesen urtebete (1917-1918); Tuteran urtebete (1918-1919); azkenik, Xabierren urtebete (1919-1920) berriro irakaskuntzan. Hurrengo ikasturtean, Oñara joan zen berriro, oraingoan Teologia ikastera (1920-1922). Hirugarren ikasturtea (1923-1924) hasi eta berehala utzi zuen, lehen esan bezala, handik Xabierra bidali zutelako. Uitzitik Xabiererra joan zen, orduan eramanda; Xabiertik itzuliko da etxera, baina oraingoan handik botata.

Baina zergatik bota zuten? Galdera honi erantzunez, aita Santi Onaindiari 1953ko azaroaren 10ean idatzi ziona aldatuko dugu hemen: “Nere biziko itzal aundia, itzal igaro egizu... edo bestela au jarri: ‘Hizo sus estudios en la Compañía de Jesús, de la cual fué despedido como San Luis Gonzaga y San Francisco Regis’” (1965, 129).

Galdera horri buruzkoa luzaroan ilunpean egon da, misterioz inguratua, Orixek berak ez baitzuen arrasto handirik utzi, ez bederen bera bizi zela argitaratutako idazki publikoetan. *Quito'n arrebarekin*

lanean, bere arreba Denuxik “zer gertatu zitzayian” galdetzen dionean, ozta-ozta, “bego, bego...” batekin erantzuten dio (IG, I, 1991, 711). Esanez bezala: “Nec nominetur”, eta puntu suspentsiboak. Beste behin, Begoñako zurubietan jesuita batekin topo egiten duelarik, “zer moduz bizi zara?” galderari, zorrotz bezain motz, honela erantzuten dio: “Munduak uzten nau, beintzat, Yainkoa serbitzen” (IG, I, 1991, 736). Esan nahiz bezala jesuitek ez ziotela utzi. Aipaturiko obra bereko beste pasarte batean ere aipatzen ditu jesuitak, 1936ko gerrate zibilekoan Francoren alde jokatu zutelako salatuz. Berak dioen “Aita Beltza” hori, ez da zalantzarik, Ledóchowski da, Jesusen Lagundiko aita Jenerala.

Jesuitetiko gaia, *Quito'n arrebarekin*-en ikus daitekeenez, gai debekatua da, aipatzeak bakarrik min ematen baitio. Ez du ukitu nahi. Orixe adiskide gisa oso hurbiletik ezagutu zuen Antonio Maria Labaienek (1965, 16) jesuiten “ardi-galduaz” honako eritzi hau ematen du: “Jainkoa'ren asmoetan ez zegoen ‘Orixe’ apeztu zedin; eta osasunkariz batetik, eta ayurritz edo iñoren esanera eta mendeko bizitzeko ezigaitza izaki bestetik, Jesuiten jantzia utzi ta aien artetik irten bearra izan zuan. Naiz erlijioz eta naiz jakitatez, aztarna sendoa utzi zioten ordea jesuitak, eta munduan bere buruaren jaun eta jabe geldi ta gero ere, beti azken-arnasa arte, Nikolas Ormaetxea'k beti gorde zuan Jesus'en Lagundiarenganako zaletasuna ta itzala, eta Loyola'ko Inazio Donearen semetzakoa”.

Bi arrazoi aurreratzen dira hor, iritzi publikoan nahiko onartuta egon direnak: osasun makala eta izaera gaitza. Hori guztia hala izanda ere, susmoa genuen funtsezko arrazoia esan gabe zegoela oraindik. Nahiz eta, ikerketa honetako ahaleginetan, jesuiten Loiolako Artxiborako sarbidea tamalez beti itxia gertatu, azkenean, Jose Mari Aranalderen bitartez, Antonio Maria Labaienek zeuzkan dokumentu pribatuetatik etorri zaigu arazoaren iluna argitu ahal izateko adina argibide, argitasun osoa dokumentu guztiak ikusi ahal izan daitezenean bakarrik lortu ahal izango bada ere. Labaien familiari esker mila ematen dizkiogu, dokumentu horiek Jose Mari Aranalderen esku uztean, adiskide min zuten eta hainbeste lagunduko zioten Orixeri, historiaren oraingo eta gerokoari mintzatzen zaion idazle handiari, zor zaion egia edo, bederen, egi zatia itzultzen bere laguntza eman zuelako. Ez deza-kegu, ordea, beste horrenbeste esan aita Patxi Altuna euskaltzainari buruz. Jakinaren gainean egonda gai honi buruzko dokumentaziorik bazela Loiolako Artxibo Historikoan, Bilbon Jesusen Lagundiko aita

Jose Luis Zinkunegi probintzialarekin hizketatu zinen 1985eko urriaren 30ean, Artxiboan sarbidea izan genezan eskatuz. Arazo horretaz informatuena aita Patxi Altuna zela eta, berarengana bidali gintuen. Honek hurrengo egunean bertan deitu zigun telefonoz, 1985eko urriaren 31n, hain zuzen, esanez, batetik, gertakariaren hurbiltasunak arazoaren pribatizazioa eskatzen zuela eta, bestetik, Lagundiaz kanpokoei ez zitzaieela haizu horrelako dokumentuak arakatzea. Ustez Bilbon irikia ikusi genuen sarbidea, azkenean itxia gertatu zitzaigun. Gaitzerdi, halere, zeren Patxi Altuna bera izan baitzen, Euskaltzaindiak Orixeri 1988ko azaroaren 27an Uitzin egindako omenaldi-hitzaldian gai hori xehetasun osoz azaldu zuena. Jakina, haren kontakizunan, osoa izan dadin, Orixek bere “De mi vida externa” dokumentuan dakarren bertsioa falta da.

Orixek, jesuetiko arazoaz diharduenean, “zazpi urte beltzen” aldia aipatu ohi du. Comillasen bere kalbarioa hastera doanean, “Goiz-argi. Dei bizia” poeman (IG, I, 1991, 614) garbiki ageri denez, ilun ikusten du bere erlijioso-bizitzaren etorkizuna eta, azken ahapaldian, Jaunari zuzentzen zaio laguntza eske:

“Ala Zuri, Jauna, esker amaigabe
bizi naizaño ta menderen mendeko.
Zazpi urte beltzak aстера zoazin:
Zure bear nintzan gogor irauteko”.

Berriz ere, baina oraingoan Amerikako bakardade ez-tian, denborak zauria zerbait sendatu eta gero, espiritua bareago daukanean, bi aldiz datorkio gogora “zazpi urte beltz” horien oroitzapena “Getsemani. Al badite” poema bikainean (IG, I, 1991, 546-547). Orduan jasadakoak oroitzuz, aiherrik gabe, bere otoitza poesia huts bihurtzen da, ez batere sentimentala, bai errotik barrukoa, ez inozoa, bai transzendentea. Duen indarragatik eta, batik bat, gertakari horrek bere bizitza guztian zehar izan zuen eraginagatik, oso-osorik hemen transkribatzekoa da:

“Orduantxe, Jauna, nolako miña
etorri zitzaidan neri!
Zuk eta biòk bakar dakigu
zazpi urte beltzen berri.
Zuk neri miñak bialdu eta
ni guzien gain igeri.

Zure laguntzaz ezin nezaion
ukorik egin ezeri.

Esaten nizun: ‘Noiz arte, Jauna?
Ala, jabetzen etzera
Zuk eman-âla jasan dutala,
jasango ere aurrera?
Azken-miñ ori bego beñipein,
ez naza jaurti lurpera’.
Baiñan ez neukan neronen mende
nere miñaren aukera.

Ezin dut âztu Urli’ren bidez
erauntsi zenidan lorra;
ez Sandi arek bide-erdian
ipiñi zidan zoztorra;
gero, Berendi egin nun topo,
gogorrik bazan gogorra.
Guzi oiekin ordaindu bezat
nere gaizkigiñen zorra.

Ezin etsi nik. Bego, bai, bego,
artuko dut olako min;
lekutuko naiz baztarrenera,
ez dedilla nitaz jakin.
‘Baiñan ez bedi nere gogora,
Zuk naia dezadan egiñ’.
Itz auek doi doi esaten nitun
ezpaiñez, biotzez ezin.

Gerta-bearra gerta zanean,
beste biderik ez neukan.
Ukatu, nola? Esku on orri
etsian muñ bear eman.
Etsi garaia eldu zanean
biotz osoz nizun esan:
‘Nik ez, Zuk naia gerta dedilla
zeruan eta lurrean’”.

Jasandako minaren berri Jainkoak eta berak, beste inork ez daki.
Tunel ilunaren iduriko epealdi hau, esan bezala, Comillasen hasten da.

Saubionen 1943an idatzitako bere testamentua, honela hasten da: “Habiendo desaparecido en el saqueo de mi casa por los falangistas mi correspondencia con los P.P. Provinciales y General, debo hablar de memoria de algunos sucesos que no son como para olvidados. Testifico decir llanamente la verdad ante los hombres que han de juzgar mis actos externos y ante Dios que ha de juzgar además los internos. Estos datos tienen su explicación completa en mi vida interna” (Iztueta, V, 1991, 175). Jatorrizko testua makinaz joa da eta, guztira, lerro-tarte bakarreko bederatzi orrialde ditu. Gaztelaniaz idatzia baitago, izan liteke hala idaztea euskara ez zekitenek ere gertatuaren berri zuzena izan zezaten.

Gerratekoan ustez galduak zituen dokumentuak, falangistek eraman zizkiotela baitio. Baina, nola ez dakigula, Antonio Maria Labaienen artxiboetan agertu dira, batzuk bederen, ziurrenik ez guztiak. Bi iturri ditugu, beraz, eskura: bata jatorrizko testua, gurutzatutako eskutitzetan oinarritzen dena, eta bestea, orduko gertakariak buruz oroituz, handik 20 urte geroago idatzia. Bigarren dokumentu honetan besteetan ilun samar geratzen diren puntu dezente argitzen ditu eta guztiz oinarrizkoa gertatzen da.

Comillasen maisu txiki (1914-1917)

Zazpi urte beltzen historiak Comillasen baitu abiapuntua, han Santanderko kostalde ederrean, bertatik has gaitezen orduko gertakarien mataza pitinka hariltzen. Hemen, dirudienez, osasun makalagatik eskola gogor eta luzeak eramateko ezindua zegoelako, oinarrizko Geografia irakasteko eta Ikuskaritza orokorra eramateko ardura eman zioten. “Praefectus morum” deitzen zioten erantzukizun hori zuenari. Orixe genuen, bada, hango apaizgai gaztetxoek Begirale nagusia eta bere esanera beste lau laguntzaile zeuzkan, hala nola anaia Severiano Páramo, Olondriz, Hidalgo eta Munarriz. Haren ardura zen ikasleak eskolan ez zeuden ordu guztietan haiek zaintzen egotea. Eta zeregin bikoitz horrekin batera, Greziera ere irakatsi zien atzeratuta zebiltzanei eta beste Seminarioetatik ezer ikasi gabe etortzen zirenei. Antza, Orixe irakasle ona zen, zeren Erretorika irakasten zuen anaia Lekunberrik, haren grezierazko apunteak zein onak ziren ikusita, testu bat egin zezala esan baitzion. Esandako eginkizunez gain, ikasle-sail baten “tonuen”

ardura ere izan zuen, baina lehen ikasturtean bakarrik, segida anaia Lekunberrik eman baitzion.

Ikasle gazte horiei, seminarista “txikiak” deitzen zitzairen eta hauen irakaskuntzaz eta ikuskaritzaz arduratzen ziren jesuitagaiei, berriz, “maisur txikiak”.



Jesuiten pontifize-unibertsitatea izandako Ikastetxe nagusi hau izen bereko herrian aurkitzen da, muino batean, itsasoari begira. Horren ondoan, argazkian ezkerrean, Seminario txikia dago, zubi batez bat eginda. Barrutik nahiz kanpotik garai bateko bere unibertsitate-egitura arkitektonikoa bere osotasunean gordetzen duen eraikin handientsu hau, azken hamarkada hauetan, beste gizarte-zerbitzu publikoetarako erabiltzen da. Hainbat euskal apaizen prestakuntza intelektuala, hauen artean euskaltzale batzuena ere bai, hango eskola jesuitikoan burutua izan da. Orixeren historia beltzak ere han du bere hasiera.

Ikastetxe horretan maisutzan hiru urte egin ondoren, berak asko uste ez duela, Carrión de los Condesera bidaliko dute, han beste urtebetez lan berean aritzera. Maisutzaren epealdia laugarren urtera arte luzatzen zireneko kasuak ere nahiko sarritan ematen baziren ere –beti ere lehengo Ikastetxe berean jarraituz–, jokabide hori ez bide zen ohi-

koa izaten. Hiru urte egin eta gero luzatzeak eta, gainera, Ikastetxez aldatzeak, bere lanean behar bezala erantzun ez zuelako edo, zigor-usaina zeukan. Purgatorioa deitzen zitzaion neurri horri. Orixeri ez zioten sekula esan, ez bederen ofizialki, purgatoriora zergatik bidali zuten. Bide ofizialetik at urte batzuk geroago jakin zuen, besteak beste, zer salatzen zioten. Zer? “Bizkaitarra” izatea, gero gutunetan ikusi ahal izango denez. Hori izango da Orixeren geroko kalamitate guztien has-tapena. Kontuan hartzeko datu bat gehiago euskal kulturaren historia berrian. Aitzakia, ez arrazoia, honetatik zetorren: alegia, seminarista-talde batek beren eskolako lana Euskal Herriarentzat baliagarria eta emankorra izango zen kultur ekintza bideratzeko asmoz, hileroko aldizkari gisako bat sortu zutela, *Aldizka* izenekoa, dena eskuz idatzia, eta bertan euskarazko lan batzuk euskaraz ematen zituztela. Orixeri hileroko pasatzen zioten gelara aita Arin erretorearen baimenarekin.

Talde hori osatzen zuten euskaltzaleen artean, besteak beste, Ori-xek Oiartzabal, Ostolaza, Zaldua, Larrea, Gartzia Goldaraz –hau Ro-tako kalonje eta geroago gotzaina izatera iritsiko dena–, eta Intxaurbe –santu-famarekin hila– aipatzen ditu. Norbaitek, ikasle horien izenak irakurtzean, galdetuko du ea nolatan ez dauden Aitzol eta Nemesio Etxaniz zerrenda horretan. Taldea osatzen zutenak teologoak zirelako. Horra erantzuna. Ez dago hor beste misteriorik. Aitzoli dagokionez, hau Filosofia ikasten ari zen orduan, Orixe Comillasa joan zen ikas-turte berean, alegia, eta, orduko gertakariak hurbiletik ezagutu zituen Pio Montoiak 1988ko maiatzaren 25ean berarekin izandako elkarriz-ketan kontatu zigunez, elkarrengandik oso banandurik aurkitzen omen ziren teologoak eta filosofoak, barne-arautegiak hala ezarrita. Nemesio Etxanizi dagokionez, berriz, esan behar da artean oso mutikoa zela, hamalau urteko gaztetxoa, Orixe ezagutu zuenean. Berak (1965, 26) kontatzen duenez, Latineko lehen urtea egiten hasi zen Orixe Co-millasa 1914an agertu zenean.

Seminarista hauek beren aldizkaritxoa ezkutuan ateratzen zuten, oso isilpean, batik bat, bi arrazoi hauengatik: batetik, hango gazte-lauen artean euskararen kontrako herra handia zegoelako –Orixek hori adierazteko “inquina” hitza darabil–, eta, bestetik, hango euskaldun batzuen jokabide politikoa ere antieuskalduna zelako. Orixek aldizka-ri horretan parte hartzea erabaki zuen eta, hortik kalterik etor zekio-keenik pentsatu ere egin gabe, artikulu inozente batzuk, guztiz ainge-ruak, idatzi zituen. Horietako batek, kontigente edo beharbadakoen gainean idatzitakoak zehazki, G. Goldaraz harrituta utzi omen zuen.

Ez dugu aldizkaria bera ezagutzeko modurik izan, baina hor, Orixek esatera, ez omen zen atera politika-kutsurik izan zezakeen ezer.

Erretoretza-karguan aita Bianchi donostiarrak aita Arinen ardura hartu zuenean, 1916an, aipaturiko gazteek aldizkariarekin aurrera segitu zuten, dirudienez, aita Erretore berriaren aurrean baimena berritu gabe. Puntu hauxe izango da, hain zuzen ere, “bizkaitarra” delakoaren salaketan, gehigarri gisa, aurpegira botako diotena: Nagusiaren bizkar, seminaristen aldetik zebilela, alegia. Itxura denez, gauzak horrela gertatu ziren. Halako batean, ez dakigu noiz, Bidagor seminaristak, lagunarteko sekretua hautsiz, aldizkariarena kontatu omen zion isilean anaia Nemesio Ariztimuñori, filosofoen Begiralea zenari, eta honek, zer egingo eta, guztiak batera salatu zituen.

Goian Nemesio Ariztimuñorena aipatu baita, argi ditzagun argitzekoak. Aitzolek, Jose Ariztimuño ezagunak, bi anaia zituen Jesusen Lagundian: bata Inazio, eta bestea Nemesio. Lehenengoa, gogoratuko denez, Orixe baino ikaskurte bat lehenago Xabierra joandako huraxe bera da, aita jesuita izandakoa, 1934an apaiz sekular bilakatuko den arte. Hau izan zen Santa Kruz apaizaren bizitza idatzi zuena, gero Xabier Azurmendik *El cura Santa Cruz* izenarekin argitaratua. Orixek salatzaile gisa aipatzen duen anaia Nemesio hau, ordea, ez zen apaiztu. Maisutzan, antza, urteak zeramatzan zigortuta. Orixek filosofoen Begirale gisa ezagutu zuen. Pio Montoiak, ordea, zuzen-zuzeneko harremanetan ezagutu zuen haren izaera, bere Begiralea –latinisten diziplina-burua, alegia–, izan baitzen. Alegiako apaiz garaiak, izan genuen elkarrizketa aberatsean, ez zuen gizon prestuaren famarekin aipatzen. Lehen pertsona jarriko dugu ondoko pasarte, berari ahotik irten bezala emana: “Nemesio hau ez zen batere euskaltzalea. Nik ez nuen etsai handiagorik ezagutu. Beti begitan hartuta eduki ninduen. Nerbiosoa nintzen eta beti AE nota ematen zidan. Portaerari buruzko notak honela kalifikatzen ziren: A = Oso ederki, E = Ondo, AE = Hainbeste, EI = Gaizki samar eta I = Oso gaizki. AE nota edukitzea gaizki ikusia zegoen. Nik ez bainuen behin ere ateratzen, ‘ba oraingoan A atera behar diat’, esan nuen. Hamabost egunez behin ematen ziren notak eta neri luze egiten zitzaidan. Eta azkeneko larunbatean, jangelara nindoala –eta ustez bidean inor ez zegoelakoan–, eskuak libre neramatzan. Eta hara nola ateratzen zaidan bidera anaia Nemesio eta esaten: ‘Hasta ahora eras A, en adelante serás AE’. Nik erantzun: ‘Pues yo nunca más sacaré A’. Gure artean beti erdaraz hitz egiten genuen”.

Bi anaiak, Jose eta Nemesio, sarritan egoten omen ziren ‘txu-txu-txu...’ berriketan, ikasorduetan eta kanpoan, horregatik inoiz salatuak izan gabe. Orixek dakarren salaketa horretaz zer diozu?, galdegin nio-
nean, erantzun hau jaso nuen: “Nik uste dut Nemesio Ariztimuñok gauza asko jakingo zituela abertzaleenak. Ni asko harritzen naiz Aitzolek euskal gauzetan konfiantza edukitzea bere anaiarekin. Orain ez naiz batere harritzen orduan traidore bezala jokatu izana, zeren hark nahi zuena zen dena bukatu eta jesuita izan. Horretarako, badakizu, zer egin behar izaten den: ‘ganar méritos’. Litekeena da. Dena den, ezin da ziur deus baieztatatu. Nemesio hau oso berekoia zen. Bere anaiarekin ez zen konpontzen”.

Anaia Nemesioren salaketa gertatu zen une hartan, nagusiek ez zioten Orixeri ezertxo esan, ezta honek haiei ere, ez baitzen ezertan errudun sentitzen. Gerora, ordea, gertakari horrek “separatista” etiketa ezar ziezaioten balioko zuen. Xabierren dagoela, aita Pietro Boetto Bisitariari egiten dion gutun luzean, salaketa honi buruzko pasadizoa berak honela ematen du gutun batean: “Después de mucho preguntar, el P. Echenique en Tudela me dijo de parte del P. Leza, que me acusaban de *bizkaitarra*, así llaman a los nacionalistas vascos. Pruebas, ninguna. El hecho que me refirieron otros, no los Superiores, fué que, según el P. Bianchi, yo contribuía secretamente a la redacción de un folleto nacionalista, haciendo campaña en pro de esas ideas. Veamos el fundamento. Dos Seminaristas teólogos (ya estaba yo bien olvidado de Comillas) que tenían permiso y me mostraban escritos en vascuence, pues sabían por uno de sus hermanos jesuitas que yo también era aficionado a componer en mi lengua natural. El P. Arin me dijo: ‘como ellos son aficionados al vascuence y V. también, le pueden (honen ondoren zerbait falta da eta, ulergarri gerta dadin, “traer” edo “dar” edo antzeko zerbait jar daiteke) algunas cosas que escriben para ejercitarse, y les puede enseñar las suyas’. Tuvimos pues durante los dos años primeros esa correspondencia de trabajos, que cesó de mi parte a principios del tercer año, antes de ir el P. Bianchi de Rector, nos enteramos de que se fundaba el *Mensajero Vasco*. Entonces, pidiendo los PP. de Bilbao mi colaboración al P. Provincial, les envié la pacotilla que había reunido: en los primeros años de la revista se pueden ver las ideas políticas que sustenté. Este es el hecho: la interpretación es muy distinta. La acusación se llevó en mi cuarto años de magisterio, estando yo en Carrión; el caso sucedió en el tiempo en que tuve de Rector al P. Arin, es decir, dos años antes. Al venir este curso a Oña le rogué al P. Bianchi

que me diera claramente la razón, pues tenía deseo de saber si era verdad lo que había corrido; me respondió que no era porque yo sustentase ideas políticas, sino porque sabiendo que esos chicos con otros varios trabajaban de esa manera en secreto sin contar con él, no se lo manifestó. Insistió mucho en que eso no estaba bien hecho, aunque la cosa en sí no tuviera nada de malo, *porque era hacer más confianza de los chicos que de los Superiores*. No me convenció. Por otra parte hay que recordar la razón que me dió oficialmente el P. Rector de Tudela. Esto es andar huyendo: a mí me acusaron de nacionalista y nada me probaron que mereciese un año de infamia. Ni la acusación es uniforme. Urgiendo yo al P. Carvajal, me respondió ‘esto dicen de Comillas’, pero nada de pruebas: ‘videtur amator regionis suae’. Según él, fué por regionalista; según el P. Leza por *bizkaitarra* (así se lo debieron decir los que le habían precedido en el Superiorato); según el P. Bianchi, por nada de eso. Luego no hay ni acusación en forma. Y contra esas vaguedades, nada vale el ser buen religioso”. Gutun honek ez datarik ez herri-izenik dakar, baina segururik asko 1919-1920ko ikasturtearen barruan egina izango da.

Beraz, testu honetan ikasten dugunez, Comillasko lehen bi urteetan zehar egon zen harremanetan *Aldizka*-ko seminarista-taldearekin eta hirugarren ikasturtean —*Jesus'en Biotzaren Deya* (1917) sortzean, hain zuzen—, bidaltzen ditu bere lanak Bilboko aldzikari berrira, jadanik *Aldizka*-rako eginda zeuzkanak. Comillasen zegoela, *Jesus'en Biotzaren Deya*-n ez ezik, *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en ere argitaratu zuen artikulu bat euskal azentuaz, aita Bianchiren baimenarekin bidalia eta Julio Urkixoren aurre-onarpenarekin argitaratua izan zena.

Gai filologikoak lantzen noiz eta nola hasi zen eta hain munta handiko aldzikari espezializatu batean argitaratu ahal izateko nolako zentsura-prozedura gainditu behar izan zuen zehaztasunez kontatzen digu pasarte jakingarri honetan: “Para empezar por los Superiores con cuyo permiso he ido publicando escritos de diverso índole, empecé en el filosofado a escribir a ratos libres, cuestiones particulares de filosofía que con permiso del entonces P. Provincial P. Bianchi y después del P. Carvajal he ido enviando a varias revistas señaladas por los mismos. Del *Mensajero Vasco*, bien saben los PP. de Deusto y el P. Carvajal que le incitaron a ruegos a que yo colaborara. He aquí como empezó mi colaboración en la *Revista Internacional de estudios vascos*. Había yo escrito un largo artículo ‘Del acento vasco’, que devuelto de la censura por el P. Ciarán socio que estaba en Comillas junto al P. Viceprovincial,

durante el viaje del P. Carvajal a América, me dijo el P. Bianchi, que si bien por los censores había pasado, eran éstos y aun otros de la Provincia, en sentir del P. Ciarán, incompetentes para juzgarlo. El mismo P. Bianchi, para proceder con más cautela a su publicación, me señaló un seglar, D. Julio Urquijo, para que viera amigablemente mi trabajo, con cuyo fallo y la censura de la Compañía en cuanto a la forma, pudiera publicarlo más tranquilamente”.

Aita Probintzialari 1919ko abuztuaren 21ean zuzentzen dion gutun horrek ez dakar haren izenik. Beste dokumentuetatik atera daitekeenez, ordea, badirudi aita Lezari egindakoa dela. Goian transkribatu dugun pasarte horretan gauza jakingarririk irakurtzen da: lehenik, Oñan filosofi ikasketak egin zituen epealdian (1911-1914) hasi zela idazten; bigarrenik, beti nagusien baimenarekin idazten zuela; hirugarrenik, nagusiek esaten ziotela lanak zein aldizkaritara bidali; laugarrenik, Probintziak horretarako jarria zeukan zentsuratik pasatzen zirela haren lanak; bosgarrenik, “Del acento vasco” lanaren kasuan, ez Probintziako zentsoreak ez besteak zeudela gaituta haren lanari buruz juzgurik emateko, beti ere aita Ciaranen ustez. Txundigarria gertatzen da ikustea nagusiek zein kontrol handia daukaten beren menpekoen pentsamendu-jabetza eta askatasun intelektualaren gainean. Are txundigarriagoa gertatzen da hau guztia, jakitean, haren lana juzgatzeko etxean inor gaiturik ez daukatelako kanpora (Julio Urkixorengana, alegia) jo beharrean aurkitu ondoren, zer eta, handik laister, artikulua horren egilea “ezgaitzat” hartua izango dela. Nor, eta Orixe. Salatzailak nor izango eta, arestian beren buruak euskal gauzetan “ezgaitutzat” zeuzkaten haiek. Harrigarria! Baina, geroago ikusiko dugunez, “ezgaitasunaren” salaketa ez diote egingo euskararen alorrean, pedagogiarenean baizik.

Orixek –bere errurik eza arintzearren, noski–, aita Probintzialari Comillasen euskararen kontrako giroa arnasten zela ematen dio aditzera gutun berean: “Se atenúa todavía mi falta porque fue protesta natural de ver perseguido el vascuence. A mi mismo me sucedió, que habiendo saludado con una sola frase a un seminarista, me recordó un simple gramático: ‘Padre: está prohibido hablar en vascuence’. Claro, que cuando se juntaba un terna de catalanes, no hablaban otra lengua que la suya; pero no se atrevían con ellos. Después, los inquietos y alborotadores, los vascos. Algunos superiores no nos defendían ni en lo más justo, sino que iban contra nosotros. El Superior siguiente al P. Bianchi llegó a prohibir que los vascos escribieran a sus casas en su pro-

pia lengua, siendo así que en el Seminario había padres conocedores de ella que podían hacer de censores. Lo que se impedía no era la política, sino el idioma, y todo lo vasco. Con estas cosas, como es patente, han conseguido ahuyentar vocaciones a la Compañía. El P. Bianchi es uno de quienes más se quejan los nuestros en este punto, y ojalá no sea con sobrada razón. A mí ahora me trata hasta con mimo, con ocasión de haberse fundado la Academia de vascuence, pero no estoy convencido de su sinceridad, ni satisfecho de la defensa que hizo de su proceder conmigo”.

Testu hori irakurrita, aita Pedro Bianchiren euskararekiko jokabideari buruz egin dezakegun baieztapenik bigunena da, aski ambiguo eta dela, nahasia, iluna eta, sakonean, maltzurra. Euskararen arazoan, ikas-tetxe-barruan, ez hura zaintzeko estrategia, baizik haren kontra egitekoa erabiltzen du, Orixek bere “ojalá no sea con sobrada razón” esaldi pikaro honetan dioen bezala. Izan ere, Orixek ez zeukan ahaztuta, orain “kutun” zeukan aita Bianchik, horrek berak, ez ziola abisatu Euskaltzaindiaren urgazle izendatu zutenean. Kanpora begira, berriz, fatxadarena egiteko bakarrik interesatzen zaio, iritzi publikoaren –kasu honetan Julio Urkixoren–, Euskaltzaindia sortu berriaren, eta honelakoan aurrean ongi geratzeko. Lagundiak irudi ona izan dezan. Patxi Altunak (1989, 70), aita Bianchik orexarra oso ondo ezagutzen zuela esan ondoren, bien arteko harremanez, honako hau dio: “Ezagutzeaz gainera haren aldeko zen eta haren alde kopeta erakusteko prest zegoen ala ez, horixe ez dakigu”. Orixeren zuzeneko iritzia jakin eta gero, zail da mota horretako zalantzari eustea. Aita Bianchik ez ezik, beste batzuek ere Orixek begitan hartua zeukatela? Bai. Beste batek kontatua dakar Patxi Altunak (1989, 70) beste hau: “Los dos Padres Mostaza, tío y sobrino, Miguel y José respectivamente, la emprendieron duramente con él, le enfilaron’, aitortu zidan beste behin garai eta gertari haien lekuko aukerakoa izan zen beste batek. Bi horietatik ilobak gainera lehendik ezagutzen zuen Orixek. Are ikasle izana zuen Oñan; ez dakidana da ea lehenago ere begitan hartua zuen. Osabak, berriz, teologia gaietan gorengo eta itzal handiko zelarrik, Lagundiko Agintarien aurrean eta are Erromakoen aurrean begiramen eta burupe izugarria. ‘Era además un exaltado españolista’, gaineratu zidan bi lekuko lehenak”. Bixia da, baina Orixek ez du bere dokumentuetan horien izenik aipatzen.

Laburtuz, zer esan dezakegu Comillasen garai hartan bizi zen euskal giroaz? Lagundiaren barrukoa guk baino hobeto ezagutzen duen Patxi Altunak (1989, 69) azalduko digu zertan zen garai hartako

Comillasko euskal giroa, Orixek bete-bete harrapatu zuena, batez ere 1916-1917ko ikasturteetik aurrera: “Baina aldakuntzarik handiena beste jokabide batean somatu zuen Orixek dudarik gabe; ikasturte hartan ere bai zerbait, baina hurrengoan batez ere. Hots, etxean gero eta urriago ziren jesuita irakasle euskaldunak eta gero eta gehiago erdaldunak. Irakasleak diot, anai laguntzaile euskaldunen kopurua gehituz joan baitzen, hurrengo urtean hamairu izatera iristeraino. Irakasle euskaldunen urritzeak bazuen, bestalde, zergatiko ezaguna eta nabaria, 1918ko gertari sonatu batek guztiz argituko diguna. Hori horrela delarik, ezin uka etxe hartako euskal giroa lehendik ere melarra eta urria baldin bazen, horrek are gehiago kutsatu zuela”. Ez baita espreski zehazten “1918ko gertari” hori zertan gauzatu zen, baliteke egilea garai-inguru horretan eman ziren zenbait irakasleren etxe-aldaketaz eta erretore-izendapenez aritzea, hain zuzen 1916-1917ko ikasturtean atera baitziren handik aita Bizente Alkorta, Ipiñazar eta Zurutuza, eta orduan, halaber, Erretorez aldatzen, aita Manuel Ariren lekua aita Pedro Bianchik hartuko duelarik.

Euskaltzaletasunaren kontua –“bizkaitarraren” sanbenittoa, alegia–, aparte utzita, jesuitetan apaizgoa ukatu zioteneko beste arrazoï batzuen artean, Comillasen egon zeneko garaian jazotako beste bitxikeria honen berri ematen digu. Aita Biktoriano Larrañagak 1934ko udan jakinarazi omen zion, honek aita Bianchiri entzunda zekien isilpekoa, hots: ero bihurtzeko zeukan arriskuagatik moztu ziotela Lagundian apaizgorako bidea. Nagusiak Orixek horrelako diagnosia egitera bultzarazi zituen datua, hala dio berak, bertako seminarista bati ezarri zion zigor batean oinarritzen omen zen. Bazen han Lagarejos izeneko seminarista bat, gero laster Seminarioa utzi zuena. Orixek dioen bezala, mutil jatorra, baina jostalaria, Begiraleak dantzan jartzen zituen horrietakoa. Goiz batean, jaiki bezain laster, mutil hori ohetik jaikiarazi eta, bi Seminarioak –zaharra eta berria– elkartzen ditueneko pasabidean itxita utzi omen zuen, beste seminaristak jaiki ziren arte. Orixek ez da akordatzen zein urtarotan izan zen, baina bai hotz egiten zuela. Horra hor Orixeren erokeria! Portaera hori gehienez ere antipedagogikoa izan zitekeen eta, behar bada, ez hain antipedagogikoa ere, ez bederen inor estonatzeko modukoa, egurraren diziplinak edonun normaltasun guztiz funtzionatzen zuen garai hartan. Lagarejos seminarista ohia ere ez zen, antza, asko aztoratu horregatik. Orixek espreski ohartarazten duen detaile hau dakar esanaren lekuko, hots: gero

Bilbon elkar-ikusten zutenean lagunkiro agurtzen omen zuen eta ez omen zion gorrotorik gorde.

Kontuak kontu, Orixe, Comillasko hiru urteak bukatzean, zigortu egiten dute. Eta berak artean ez daki zergatik.

Carrión de los Condesen (1917-1918)

Maisutzan laugarren urtea egitera behartuta, zigor hau Carrión de los Condesen, Palentziako lurralde idorrean, egingo du 1917-1918ko ikasturtea. Ez dakigu zein hilabetetan iritsi zen hara. Seguru asko, udabihotzean, eguzki-galgak hango bazterrak oro kiskalita uzten dituen garaian. Ez dakigu, ezta ere, Orixeren arima poetikoak zer sentituko zuen Kantabriako itsasertz berde eta frekotik atera, Gaztela zaharreko galsoro urreztatuak zeharkatu, Carrión de los Condes herritxora iritxi eta, izen bereko ibaiaz bestaldean, oraindik ere bakardaderik handienean zutik dirauen den monastegi hartan barneratu zenean. Zoritxarrez, hangorik ezer ez digu deskribaturik utzi. Egia da, monastagi zahar eta erraldoi batean bizitzen ikasia zen, hiru urte eginak baitzituen Oñan. Hemen goa ez bezala, Carrión de los Condesko hau landa zabalean eraikia baita, San Zoiloren izenean, hain zuzen, oraindik ere monastegi-kutsu handiegia hartzen zaio, dagoen bezala soroz, baratzez eta zuhaitziz inguratua egonda. Mundutik aparte, nobizioak espiritualitatean hezteko leku aproposa izango zen hura. Bakardadean bizitzeko ona, agian.

Nobiziadu-etxe honetan bost nobizioen gramatika-irakasle egin zuten Orixe. Horretaz gain, Erromarako albistek bildu eta etxeko gorabeheren historia idaztea ere bere gain utzi zuten. Lan gutxi, halere.

Orixek berak aitortzen duenez, oso urte ona pasa zuen eta komunitatean beste edozein bezain ondo edo hobeto portatu zen. Bere kontra inork ez omen zuen ezer. Halere, berriro, urtearen buruan ez zuten Teologia egitera bidali. Aita Antonio M. Arregi nafarra, etxeko Erretore eta nobizioen Zuzendari izateaz gain, moralista ospetsua zen, eta, Gaztelako probintziaren zatiketa arautzera zetorren Kodigo Kanoniko berria 1918ko maiatzaren 12an aldarrikatu zenean, berari eman zioten Lagundia Zuzenbide Kanoniko berrira moldatzeko ardura. Nagusiak hura kopiatzen jarri zuen Orixe. Aita Carvajal probintzialak ere kopiak ateratzen eduki zuen udako oporretan, gero Teologiara bidaliko zuela aginduz. Agindu bai, bete ez. Arrazoiak bere zakuan gorde zituen. Eta Orixek, mingaina moztuta baileukan, txintik esan gabe obeditu zuen.



“Carrión” ibaiaren ondoan, herri-gunetik kilometro bat inguru aurkitzen den beneditarren monastegi hau, San Zoiloren izenean erakia da, zaharra bezain ospetsua, X. mendetik hona Gaztela zaharrean historia luzea idatzita utzi duena, duela gutxi –2000. urtean–, berriztatua izan den eliza erromanikoan aurkitzen diren hilobiek adierazten duten bezala. Erdi Aroan zehar kontzilio garrantzitsuak egin ziren han, Gaztelako hainbat errege eta konderen egoitza eta erromesen egon-leku izan zen. XIX. mendeko hirugarren hamarkadan, Mendizabalen desamortizazioaren ondotik beneditarrak handik ohilduak izan eta gero, aita jesuitak izango dira bertan nobiziatu-ikas-tetxea ezarriko dutenak. Hauek hura 1959. urtean uztean, Palentziako elizbarrutiko Seminario Txiki izanez segituko du 1986. urtea arte. Egun, eraikin osoaren zati batean, eliza eta klaustroa zehazki monumentu historiko gisa gordetzen dira, eta komen-tua izandako beste zatian, berriz, Gaztelan ohi den apaindura gutxiko estilo sotilez berriztatuko hotela aurkitzen da, hiru izarrekoa. Sarreran izen hau irakurriko duzu, inoiz handik bisitaren bat egin nahiko bazenu: “Hotel Real Monasterio San Zoilo”.

Gu, Orixek egindako bideari jarraiki, Oñatik itzulia egin eta gero, 2003ko Aste Santuz izan ginen bertan eta txoriek gogoz egin ziguten ongietorria.

Aita Probintzialak Orixeri maisutzako bosgarren urtearen zigorra ezartzeko arrazoi indartsuak izango zituela pentsatuz, aita Arregi bera ere goitik zetorren agindura jarri zen: “El adagio ‘praesumptio stat pro Superiore’ –esango du noizbait Orixek–, es tan cómodo para los superiores como injusto para los inferiores”. Are gehiago oraindik, aita Arregi ere euskaldunekin gogor samarra zela irakurtzen diogunean Patxi Altunari.

Bitartean Orixeren purgatorioa luzatuz zihoan. Oraingoan ere ez zioten zigorraren inolako arrazoirik eman. Askotan galdetu ondoren, halako batean erantzun zioten, eta orduan legezko defentsarako esku-bidea kenduz. Maisutzako bosgarren urtea egin behar zuela esan ziotenean nolako espiritu-egoeran aurkitzen zen jakiteko, aski da jadanik aipatutako aita P. Boetto bisitariari egindako gutunean datorren pasarte hau irakurtzea: “La causa de mi quinto año de magisterio la supe de fuera; no por los Superiores, sino vagamente y a muchos ruegos míos. En efecto los superiores no dijeron nada más que una generalidad, y esa cinco meses después de haberme castigado, sin aducir para prueba ningún caso concreto. Dicho se está que no precedió aviso. La acusación no la esperaba, ni sé que por el caso que han referido a otros y no a mí se pueda merecer semejante castigo. Estaba yo tranquilo y contento esperando ir a teología acabado el cuarto año, y para ello me fundaba en la observancia que procuré de las reglas, y en testimonio de los superiores”.

Carrión de los Condesen komunitateko arautegia hain zintzo bete eta gero, egia esan, ez zuen espero berarekin horrelako erabakia hartuko zutenik. Halere, berak pentsatzen ez zuen lekutik etorriko zaio berriro salaketaren ziztada; Comillastik, alegia. Antza, lehen esan bezala, han egon zenean egotzi zioten euskal nazionalismoa zen erruduna. Bizkaitarrismoaren madarikazioak satanizatua dauka.

Horrela juzga zezaten motiborik eman ote zuen, bada? Zaila da erantzuten, euskalgintzan egiten zuen guztia legez egiten baitzuen. Bilbon *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria sortu zutenez geroztik, zuzendaritzakoek hala eskatuta eta Agintariak jakinaren gainean zeudela, maiztasun handiz igortzen zituen bere idazlanak, artikulua bezala olerkiak, itzulpenak nahiz berak sortuak. Palentzian egon zen garaian, hain lanpetua ez omen zegoela eta, inoiz baino idazlan gehiago argitaratu zituen aldizkarian, hilerio, otsailean izan ezik. Baina –eta hau datu berria da–, ondoko urteetan, 1919ko “Cor arca” eta “Adoro te devote” itzulpenak eta “Artzayak” letra musikatua kenduta, haren izenik ez da

agertzen 1920ko urtarriletik aurrera. Idazten segi zezan debekatu zioten seinalea da ziurrenik hori. Antza, nagusiek euskaltzaletasunari lotuegia atzematen zuten. Euskararentzat ordu gehiegi lapurtzen ote zitueneko susmoa zeukaten. Eta hau, hala dio Patxi Altunak (1989, 71), “ertsiki debekaturik zegoen ikastaldietako urteetan”. Orixek euskal lanetan orduak sartzen zituela? Bai, noski, berak aita Areitiori esana baitzion, behin batez, “que aún le quedaba tiempo para otras actividades marginales”. Norbait jadanik begitan hartua denean, horrelako aitzakiak aski izaten dira arrazoi bortitz bilaka daitezten. Litekeena da Orixerekin ere horrelako zerbait gertatu izana: batzuentzat euskarazko lanetan aritzea haizu izatea, baina Orixerentzat ez, alegia. Arauz zegozkionak erdipurdika betetzen zituelako, agian? Horrelakorik ere iradoki izan da, esatean filosofiako ikasketetan diztira moteleko notak atera zituela.

Tuteran (1918-1919)

Esan bezala, Gaztelako probintzia martxoan zatitu baitzen, handik euskaldunen artera, Tuterako ikastetxera, hain zuzen, bidaliko dute Orixe.

Une hartan Ikastetxe hartan zeuden berrogeita sei jesuitak, ia denak, euskaldunak omen ziren. Hala izanda, uste izatekoa da jipotuaren famarekin zetorren Orixek harrera ona izango zuela hango euskaldunen artean. Bai zera! Tuteran egindako 1918-1919ko ikasturtea ez du ahazteko modukoa izango. Oraingoan aita Joaquín Echenique erretorea izango da, bera batik bat, bizitza ezinezkoa egingo diona. Ikastetxe honetan gertatuez luze eta zehaztasun handiz mintzatzen baitzaigu bere “De mi vida externa” dokumentuan, han berak bizi izandakoak urratsez urrats emango ditugu, berak kontatuta bezala.

Lagundiak Tuteran kanpoko ikasleentzat eraikitako Ikastetxean Literaturaren Prezeptiba eta Literaturen Historia erakusten jarri zuten eta, horretaz gain, begirale-lanak egiten. Aita Echenique donostiarren obsesioetako bat omen zen besteen aurrean azaltzea –hala dio Orixek–, bera ez zela gai eskolak behar bezala emateko. Orain, Orixe pedagogoaren ezgaitasuna izango da, beraz, aitzakia nagusia. Aita grabeen eta maisukideen aurrean gaizki esaka jardun omen zuen urte guztian zehar, esanez haren eskolak kalamitate hutsa zirela eta ikasleek azterketan porrot egingo zutela. Orixeri berari ere halaxe aitortzen



Hauxe da Jesusen Lagundiak Tureran daukan Ikastetxe erraldoia, egun ere halaxe izanez segitzen duena. Lauki baten itxura du, harriz edo ladreiluz egina, eta neurritz ere ederki osatua. Sarrerako atetik aurrera eginda, aurrez aurre eskailera zabal bezain handikia aurkitzen da, dena egurrezkoa. Ezker-eskubide pasillo luze eta dotorea zabaltzen da barrunbearen ingurune osoan zehar, hormetan zintzilika daudela beren ikasketak bukatzen dituzten ikaskide guztien argazkiak, ikaskurtez ikasturte sailkatuak. Eta erdian, berriz, klaustroak, bedar finez eta zuhaitzez jantziak. Zer nolako Ikastetxea hura, kanpoko ikasleentzat bereziki prestatua.

Orixen han egon zen ikasturtean (1918-1919) berrogeita sei jesuita zeudela han eskolak ematen, dio. Eta zenbat ikasle ote zebiltzan ikasten?

Horrela hezten dira eliteak. Horrelako Ikastetxeetan!

bide zion xalo-xalo. Haren eskolara behin bakarrik joan zen ikustera eta orduan ikasleek ondo asko erakutsi omen zuten ikasgaia menderatzen zutela eta ikasgaiaz kanpo egindako galderei ere erantzuten bazekitela.

Irakaslearen gaitasun pedagogikoa ikasleek azterketetan lortzen dituzten emaitzetan neurtzen da. Ikasturtea bukatzeaz zegoen eta Orixeek gero eta ozenago entzuten zuen haren eskola izango zela Ikastetxearen lotsari. Ikasturtea bukatzean, azterketak hasiak zeuden Logroñoko Institutuan. Esan dezagun, bidenabar, Tuterako jesuiten Ikastetxeak hara joaten zirela azterketak egitera beren irakasleak lagun zituztela. Behin batean, maisu gazteak bazkal ondoren errekreoan zeu-dela, aita Muruzabal inguratu zitzairen, eta esan: “Azterketak ondo doaz. Baina aita Erretorea –gehitu zuen– Prezeptiba eta Literaturakoek porrot egingo dutenaren beldur da”. Zitekeena zen aita Muruzabalek ez jakitea nor zen gai hori ematen zuena, ez baitzen osasunaz ongi ibiltzen. Arazoa delikatu egia zen interesatuaren aurrean ahoa horrela zabaltzeko. Orixeek hala uste du bederen, zuhurgabezia hura ezjakintasunari atxekitzen diolarik. Bestalde, aipatutako Aita horrek ez zuen inolako kargurik Ikastetxean. Gauzak horrela, iritsi zen Orixeren txanda, azterketen zerrendan azkenekoa edo azkenetakoa. Bera joateko amorratzen bazegoen ere, ez zuten bidali bere mutilekin eta, beraz, ez zuen izan bere gaiko Irakaslea –aztertzailea, alegia– Logroñoko Institutuan agurtzeko aukerarik. Kronika hau idazterakoan, ez da gogoratzen bere eskolan zenbat ikasle zeuzkan, baina, bai, badaki bere ikasleek nolako notak atera zituzten: bederatzi bikain (*sobresaliente*), bi ohorezko matrikula, hamazortzi oso ongi (*notable*) eta beste guztiak nahikoa (*aprobado*). Aurreko urtean aita Martinek, gai berean eta Irakasle berarekin, Gómez Bringas jaunarekin, “oso ongi” bat bakarrik lortu zuen, “bikain” bat ere ez, eta beste guztiak nahikoa eta eskas (*suspenso*). Esamesak esamesa eta profeziak profezia, aita Erretorearenak izan ala beste batenak, Orixeren emaitzak hor zeuden kantari entzun nahi zituenarentzat.

Baina emaitza horiek, bistakoak izan ala ez, ezer gutxi balio zuten aita Erretorearen aurrean. Pobrearen arrazoiak balio izaten duena baino ez gehiago. Aita Erretoreak bere gelara deituta, urduritasunez dardar, hauxe bota zion tupustean: “Ez da zuregatik izan, Institutuko Irakasleak oso bihozti jokatu duelako baizik”. Orixeek erantzun: “Aita, hori esan ere, ez da esaten, besterik ez bada karitatez. Aski duzu, ordea, iazko emaitzak ikustea gai berean eta katedradun berarekin”. Aita Erretoreak

“bueno, bueno” batekin utzi zuen, ezgaitu baten aurrean jarri ohi den aurpegiarekin eta, jakina, bueltan arrazoirik eman gabe.

Ondorioak? Eguzkiaren argia ukatzeko adinakoak. Aita Echenique erretoreak gutun bat igortzen dio aita Leza probintzialari, esanez Orixek porrot egin duela irakaskuntzan. Balorazio negatibo horren aurrean, hark, pedagogo gisa bere gaitasuna ez zuela behar bezala azaldu eta, Xabierra joateko agindua ematen dio, hor frogatu berri bat egin eta behingoz balio duela erakus dezan. Zigor-urte bat gehiago.

Honaino Orixek bere buruaz dioena. Baina galdetzekoa da bestek nola ikusten zuten haren iraskale-lana. Patxi Altunak (1989, 72) haren ikasle izandako baten lekukotza dakar, aita Juanito Goikoetxeak emanda jaso, honela dioena: “Tutelan euki nuan irakasle urtebete. Literatura irakatsi zigun. Datoak eta datoak eman ordez, literatura bizia eman nai zigun, zuzenean jaso. Ala, adibidez, Homerokin. Homero-kin asten zanean, etzekien non zegoan. –Joana?, diot nik–. Joana, baina extasian joana. (‘Aquello no era absorto, aquello era éxtasis’). Gogoan dut lasterka-apustua irakurri zigun aldia, Ajax eta gainerako. Berrogei-bat ikasle izango giñan. Gutxi batzuk eskolan itxura egiteko geratuta, beste danak aldegiten genion. –Bera ez al zan konturatzen?– ‘Y él en la luna’. Ura Homerorekin asten zanean, arentzako ez zegoan beste ezer: mundu guziak aldegiten zion (Hau erderaz esaten dit...). Nosotros le veíamos en éxtasis y nos marchábamos de clase: volvíamos un poco antes de terminar la clase”.

Pasarte horretakoa adierazgarria, ezta? Bai, nola ez! Ez dugu zailtasun jarzaten, Orixek zen bezalakoa izanda, eskolak ematen ere berezia izango zela. Eskola hustu egiten zitzaizola eta bera ez zela ohartzen? Hau ere harrigarria, eta zuzendariarentzat, eskandalagarria ez ezik, onartezina ere bai. Baina Orixek, goian esan bezala, eskolan bizitasuna eta azterketetan emaitzak bere alde.

Nolanahi ere, eskolak ematen zen bezalakoa izanda ere, aita Erretoreak bazitukene beste arrazoi batzuk, agian sakonagoak, Orixeri bide jesuitikoan oztupoak jar ziezaizkion. Hala ematen dute aditzera bera garai hartan ezagutu zutenen testigantzek, hauek ere Patxi Altunak (1989, 72-73) aita Goikoetxeari hartuak. Orixerekin bizi izandako anaia laguntzaile batena da, honako pasarte hau: “Este destaca sus aficiones literarias euskéricas y lo mal visto que era por ese motivo por muchos: ‘amorrú aundia zeukakioten Tudelan bere euskaltasunagatik, baiña ura etzan bildurtzen”. Beste batek Orixek aita Echenique-ekin izandako ika-mika baten berri ematen du, baina eztabaida zertaz

izan zuten zehaztu gabe: “Etxenike le tenía enfilado’. Echenique delako ori erretorea zen. Honekin ez zen, dirudienez, ongi konpontzen. Behin mokokaldi zakarren at izana izan behar zuten, eta Orixek ez zen, ongi dakizuenez, isilik egotekoa: zerbaitegatik aitortu ohi zuen bere buruaz ‘zitala’ eta are ‘basurde’ xamarra zela (‘me quoque vince ferum’). Ez dakigu nork nori egin zion mokoka gehiago eta handiago, baina Orixek sutan atera zen nonbait eztabaida hartatik. Gero lagun batekin topo egin eta –‘relata refero’– ‘cuentan que Orixek le comentó: Yo a ése le sacaría las entrañas y me las comería’. Berrero diot: ez dut fede ematen, baina hala kontatu omen ziotenak kontatu zidan neri, eta hau bai esan dezaket: horrek biziki maite zuen eta maite du Orixek. ‘Y tú sabes’, gaineratu zidan gero, ‘que decir eso de un Superior era cosa muy grave en aquel entonces’.

Eta testigantza horiek azaldu ondoren, Patxi Altunak trenkatu gabe uzten du Orixerekiko arazoa, galdera hau eginuz: “euskaltzale eta euskal idazle zelako *bakarrik* luzatu al zioten maisu txiki aldia?”. Azken erantzuna emateko asmorik gabe baina, goazen, argi bila, galdera horren ingurumari zehaztasunetan harago.

Kontua da, berrero, ezarriak zeuzkan eta eman zizkieten esperantza guztien kontra, ez duela Oñara joaterik izango Teologia egitera. Horren berri ikasturtea bukatu eta gero, 1919ko abuztuan heldu zitzaion, jarraiko testu honetan datorrenaren arabera: “En la visita que hizo el P. Provincial a Tudela no solo no me avisó nada (sino es lo de la mala vista que no había remediado antes) sino que de los cinco jóvenes que esperábamos venir a Teología, yo fui el único a quien dijo: ‘Desde luego, este año irá Vd. a Oña’. Más aún: a fines de Julio como me dijo el mismo P. Rector, tenía orden de enviarme a las vacaciones menores a Oña, en caso de que retardaran los de Tudela la ida a la costa. Yo no podía ir con ellos por el reuma, y así me enviaron a los baños termales de Fitero. Entre tanto debieron mediar unos informes estupendos, pues pocos días después, el 14 de Agosto por la noche al terminar los ejercicios, recibo la tremenda carta siguiente”. Ikasturtea bukatuta, udako partean, hezueriak hogeit hamar eguneha eduki zuen eta gaixoardian hogeit hamar kilo galdu zituen. Egunekeo bat. Ohetik jaikitzekeo gauza izan zenean bidali zuten Fiterora, eta handik pixka bat suspertu zenean itzuli zen. Berak aipatzen dituen txosten horiek, ziurtasuneha ez badaki ere, aita Erretoreak bidalitakoak izango zirela pentsatzen du.

Ez dugu Iruñeko aita Vicente Leza probintzialak egin zion gutunik, ez lehenengo hori ez besterik, baina bai Orixek berari Tuteratik

zuzendu ziona 1919ko abuztuaren 21ean eta, halaber, aita Pedro Boetto bisitariari egindakoa ere. Ez dakigu noiz egina zuen gutun hau, baina ziurrenik aita Probintzialaren gutuna hartu eta berehala. Honi zuzentzen dion lehen erantzun-gutunean irakur daitekeenez, oraingoan salatzen diote “judizio praktikoko gutxi” duela eta, gaitz hori berezkoa omen duenez, egoera ezohiko horrek etengabea segü dezakeela aditzera ematen: “Examinando yo el asunto como me lo manda V. R. y rogando a Dios intensamente como dice, que me ayude a salir de este paso, y a conocer y practicar su santa voluntad veo que si los informes son verdaderos, y que si el poco juicio práctico que notan en mi proceder radica en la naturaleza, y que si V. R. teme que por lo mismo ese estado de cosas se prolongue indefinidamente, veo que no soy para los ministerios más altos de la Compañía. ¿Qué quiere decir esto, Padre? —¿Que pida las dimisorias?— Jamás. Dios me conserve esta firme voluntad por siempre jamás P., de mi parte. Mañana mismo iré contento al noviciado para ser H. Coadjutor. Yo no entré en la Compañía para otra cosa que para servir a Dios. El me conserve esta santa decisión. Todos los días de mi vida. Creo P. que con esto se solucionará mi asunto. Si no quisieran tenerme en la Compañía, ¿pobre de mí? La solución sería para mí la declaración de la voluntad de Dios”.

Lehen aldiz iradokitzen dio nonbait aita Probintzialak —edo horixe iradoki nahi zaiola ulertzen du berak—, sendaezinezko gaitza daukala eta, beraz, Lagundia utzi egin beharko duela. Oraingoan, esan bezala, judizio praktikoko gutxi erakutsi du. Zertan zehazten ote da “judizio praktikoko gutxi” izate hori? Orixek hotzikara sentitzen du, negu-bihotzean itsas bainu batek gorputzean sor dezakeenaren aldean handia, eta, bat-batean, ondoko proposamen hau luzatuz erreakzionatzen du: lehenago anaia laguntzaile edo lego izan, Lagundia utzi baino.

Aita Probintzialari 1919ko abuztuaren 21ean zuzentzen dion gutunean, berari buruzko txostenetan egiten diren baieztapen zein balorazioak zalantzan jartzen ditu eta, bide batez, puntuu puntu erantzuten die egozten dizkieten salaketa-mota guztiei. Dena den, idazten duenaz seguruago sentitzeko asmoz edo, Lizarragako aita Ongay gogozuzendariari ematen dio irakur dezan.

Lehen salaketa izan bide daiteke larriena, hots: “gizon ezgauza” dela. Orixek, defentsan, beraren balioak nabarmendu izan dituzten Lagundiaz barruko nahiz kanpoko adituen testigantzak ekartzen ditu. Idazle eta ikertzaile gisa, adibidez, Julio Urkixok *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en argitaratutako “Del acento vasco” artikulua Oñatiko

Batzarrean gorai patu zuen; Manuel Lekuonak, euskal metrikaz egin-dako bere liburuxka argitaratzean, “al que es maestro en esta materia” deituz eskaintzen dio; aita Lardizabalek, hainbat gutun egiten dizkio, bere lanek euskaltzale adituen artean izugarritzko arrakasta dutela esanez; aita Vilariñok ere asko aupatzen du Orixek *Mensajero*-ra bidalitako espainierazko poesia bat; B. Eguzkitzak euskaraz haren “Artzai Ona” bezalako lanik ez zela argitaratu jakinarazten dio lagun baten bitartez; hieraldikan espezialista den Karlos Gerrak Santa Inesen herri-koplen gainean kontsultak egiten dizkio. Laudoriozko aipamen hauek bide ematen diote ondorio hau ateratzeko: “Estos testimonios dicen que he llamado la atención: 1) en filología vasca, 2) en el estilo literario vasco, 3) en poesía y prosa castellana. Además por profesores y condiscípulos que bien me conocen, lo puedo hacer muy bien en otras cosas como explicar latín y griego, etc.”. Pedagogo gisa ere, ez da atzera geratzen, Tuteran lortu baitzuen arraskarik handiena. Noiz eta, atzetian esan bezala, lehen esan bezala, aita Erretoreak lau haizetara haren porrota aldarrikatzen zuen unean: “¿Que para estos Colegios no valgo? ‘Non omnia possumus omnes’. Pero, ¿ni para haber las clases? A pesar de los vaticinios y murmuraciones de todo el curso de que ‘iría a un estruendoso fracaso con mi clase de Literatura’, es la clase que más notas y matrículas ha tenido del Colegio; mas esa misma clase de 5º no ha tenido una sola matrícula en las demás asignaturas. ¿Que porque el catedrático es un bonachón? El mismo que el año pasado y aunque no dió suspensos a esa clase como ni este año, no dió sino un sobresaliente a ruegos del P. Martin, como consta. Yo ni he estado a hablar con él habiendo ido a Logroño los demás jóvenes; sin embargo, me ha dado 9 sobresalientes, 10 notables y 4 matrículas, que sumados a las tres de Preceptiva hacen la tercera parte de las matrículas de todo el Colegio, menos una. A mi me han tenido por tonto e inútil varios P. P. graves que no me conocen, y me han perjudicado mucho con las habladurías de todo el año. Créame, Padre, como me dijo el P. Espiritual Ongay, he sido mártir durante el curso y en las notas Dios me ha coronado. Volviendo a la consecuencia, creo que no seré inútil aún en los Colegios, si puedo, como lo siento con la ayuda de Dios, seguir haciendo de mártir oculto en la Compañía”.

Beraz, txosten ofizialak omen dioenaren kontra, arras bestelako ondorioa ateratzen du berak lehen salakatarri dagokionez: “Resumiendo, en cuanto al primer punto ‘que soy enteramente inútil’, yo veo lo contrario por lo expuesto: que he sido yo más util que el vulgo de los

Jesuitas de mi edad, y que aún en este Colegio he contribuido a la brillantez de las notas”. Onartzen du, halere, beharbada ez duela aski nor-tasun izan ikasleekin behar zen eskua erakusteko. Diziplina ezartzeko eskastasun hori bere osasun hautsiari egozten dio.

Bigarren salaketa da, laburtuz, “marmarka aritzeko ohitura” daukala eta “mingaina behar bezala ez duela zaintzen”. Oro har, salaketa horrekin ere ez dago ados, nahiz onartzen duen aita Erretorearen kontra orruren bat edo beste irten omen zitziola jolas-orduan: “De lo que me acuerdo y acuso es que he dado varias veces algunos bujidos en el recreo a raíz de haber estado en el cuarto del P. Rector y eran cosas que acababa de decírselas en su cuarto. Considérese que en el tiempo de curso no recuerdo haber ido al P. Rector que saliera casi siempre amargado y poco animado por no hallar trato personal”. Aita Erretoreari buruzkoetan mingainarekin kontuz ibiltzeko abisua hartu zuenean, hala dio Orixek, bere bat-bateko oldarrak eztitu omen zituen eta harrezkero ez omen zuen inoiz haren kontrako umore txarrik agertu. Nonbait, ondoren irakurtzen denez, aita Erretoreak berak ez zeukan hain fama ona komunitatean: “... en toda la casa se habla de que ‘es muy mal pensado’, de ‘que habla con uno de defectos de otros súbditos (de esto puedo dar fe que lo ha hecho al hablar conmigo), de qué se yo cuántas cosas”.

Orixeren jesuitekiko arazoa, pasarte horietan azaltzen denez, gehien-gehienbat aita Echenique erretorearen inguruan pertsonalizatzen da. Puntu hau dudarik gabe garrantzitsua eta, geroago emango ditugun beste datu zehatz batzuen arrimoan, erabakigarria ere badela esango genuke. Oraingoaz, ordea, aski bekigu salaketak nondik datozen eta nolakoak diren jakitearekin.

“Ikasleekin harremanak izateko orduan judizio praktikoa gutxi” erakusten duela, hauxe da egiten zaion hirugarren salaketa, lehen ere zerbait aipatu duguna. Berak honela interpretatzen du balorazio hori: “Esta frase significa que no valgo para Inspector general, o que me han notado imprudencias señaladas con ellos en cuanto a la moralidad o en cuanto a las ideas. Si lo primero, hay muchos sujetos de valer en actuales superiores que fracasaron. De lo segundo he preguntado instantemente a los P.P. Rector y Prefecto, quienes me han respondido que no tienen absolutamente nada. No me explican lo del juicio: veo poca fijeza, vacilaciones y contradicciones en el P. Rector y conjeturas en el P. Prefecto. Tres veces recuerdo haberme hablado el P. Rector sobre esto: 1) del criterio acerca del Instituto, 2) del acierto práctico en

gobernar los niños, 3) de la docilidad de juicio. Me dijo una vez que no tenía el criterio formado a lo jesuita. Urgiéndole yo repetidas veces en qué lo había observado, pues quería formarme, al fin me sacó una carta del P. General de 1917 en que se lamentaba del espíritu de independencia actual que los jóvenes traen del mundo. ¿Qué tengo que ver yo con una carta escrita para jóvenes de aquí, si yo estaba en Comillas? –‘No digo que es falta peculiar de V. sino que está metida en los jóvenes actuales’. Total que me quedé con la misma mala formación supuesta de antes. Del poco acierto práctico en el gobierno de los chicos, tampoco me dijo sino esta vagüedad. ‘Se le manda a V. que proceda así: parece que empieza a cumplirlo, y a poco salta por otra parte’. Como si no fuera averiguado que a los novatos como lo era yo en esta clase de vida, con toda la buena voluntad y queriendo cumplir exactamente las órdenes en el caso práctico les sale a veces todo lo contrario. De la docilidad de juicio me declaro expresamente: ya le dije al P. Provincial que a la menor indicación se cebaba en tierra. Luego tampoco hay falta en esto”.

Pasarte horretan moralitatearen kontua aipatzen du Orixek. Zer-gatik ote? Izenburuan soilki “Tudela” dakarren eta Tuterako Ikastetxearen anagrama daraman gutunean, baina datarik gabekoan, “se me ha acusado de que en mi concertación de Literatura aparecieron asuntos verdes, luego dicen se los he leído yo”, esaten du Orixek. Egiazta-tzeko datu zehatzik ez badugu ere, iruditzen zaigu “moralidad” hitz horren atzean Orixek gutun honetako salaketa daukala gogoan. Baina honi buruz ere badu bere defentsa: “No se me condene 1) sin haber leído el texto, especialmente los argumentos que pone del *Libro del buen amor* del Arcipreste de Hita, y de la *Celestina*; 2) sin saber que casi (?) nada he leído que no nos leyeran en Burgos de retóricos, y aún de ello omitiendo mucho por peligroso; 3) sin preguntarse con quién he consultado por las lecturas. He usado además, los mismos libros que el P. Ubillos, con las mismas tachaduras de lápiz que él u otro dejó. He consultado con los P.P. Albéniz y Ubillos que me parecen los más enterados en eso. Finalmente la lista de mis lecturas pasó por el P. Rector, con dos o tres cosas que incluí, pero no las he leído desde que se me hizo la advertencia”.

Hiru salaketa eta hiru defentsa. Gehienetan “ad hominem” argumentua darabil Orixek luman. Salaketa horietan baliozko arrazoirik batere ez du aurkitzen. Lehen esan bezala, besterik sinetsi nahiko lukeen arren, konbentzitu dago aita Echenique erretoreak bidalitako

txostenean oinarriturik hartu duela bere erabakia aita Probintzialak. Lehen, duela gutxi, Oñara bidaliko zuela agindu eta gero derrepente hitza jateko, norbaitek egon behar zuen atzean indar eginez. Eta hori, ondorio honetara iristen da Orixek bere gutun honetan, aita Echenique erretorea da: “Se lo voy a decir con franqueza, Padre, la clave de todo creo que se reduce a cuestiones personales del P. Rector conmigo”. Orobat, aita Bisitariari ere aita Probintziala Tuterako aita Erretorearen esanetara makurtzen dela esaten dionean, iltze berean jotzen du Orixeren mailuak: “Para que se vea que no estaba muy preocupado de mi enmienda o del éxito de mis pruebas, sino de satisfacer a las iras de un Rector, con justicia o injusticia, a costa del silencio y aguante del subdito”. Orixek zuzenean aita Erretorearekin eta zeharka aita Probintzialarekin sartzen da. Baina kontua zera da: salaketen eta zigorreren Eriniak lehenagoko beste zerbaiti jazartzen zitzaizkiola. Defenditu nahita, baina zertatik defenditu inoiz ongi ikusi ezinda, Orixek ez du bere burua gero eta ataka zailagoan jartzea besterik lortzen.

Orixeren bigarren gutun luze hau, antza, ez zitzaion asko gustatu aita Probintzialari. Eta goi-agintaritzaren aurrean horrela oldartzeko ausardia izan zuen hari, lotsagabe, harro, bihurri edo antzeko zerbait ez deitzeagatik, “borroka-oilar” deituko dio. Aita Probintzialaren gutun hau ere ez dugu, baina bai Orixek, buruz jasota, kakoartean dakarren gutun hartako pasarte bat, zeinetan “esa actitud de defensa de gallo de pelea, no le puede a Vd. favorecer nada” esaten baitio.

Aita Probintzialaren jokabidean, oro har, aitarena ez, epaile bate-na ikusten du. Eta aitarena egiten ez dakienak, epailearena ere oso gaizki egiten du. Bestalde, lehen eta bigarren gutunen artean kontraesan batzuk daudela uste du: lehenengoan “Lagundikoa izateko erabat ezgai” dela esaten dio; bigarrean, aldiz, “beste frogar berri bat” egin beharko duela, Xabierren edo. Areago oraindik: purgatorioko seigarren urtea ezarri eta gero, beste hilabete bat baino gehiago edukiko dute destinoaren zain. Aita Prefektuak, ez ofizialki baina bai fermuki, Tuteran geratuko dela ziurtatzen dio eta horren frogatzat Katalogoa ematen, kopia diezaion. Orixek, inozoa ez izaki, badaki lan horretan jarduteak atarramenturik ez dakarkiola, eta halaxe jakinarazten dio: “Y ¿qué experiencia hubiera sido de si valía o no valía para enseñar y para inspeccionar, el ocuparme de amanuense? Esto no se puede defender”. Halere, goikoek agindutakoak betetzeko izaten baitira, Orixek emandakoa kopiaetzen jardungo du, isil-isilik, baina Tuteran geratu ordez, Xabierra bidaliko dute. Izan ere, nola utziko zuten, bada, Tuteran, ira-

kaskuntzan porrot egin zuela ofizialki aldarrikatu ondoren? Orixek kontraesan berri bat ikusten du.

Maisutzako seigarren urtea zen egin behar zuena, hirugarren urtea purgatorioan. Horrelako zigorrik ez zen jesuitetan ezagutzen. Tuterako Ikastetxeko guztiek eta Probintziako askok bazekiten Orixeren ikasleek lortutako noten berri, aditzera ematen zutenak irakasteko trebetasunik aski bazuela. Zergatik orduan aurrera egiteko hainbat traba? Ez zuen ulertzen. Pentsatzen jarrita, burura etorri zitzaion aita Probintzialak, agian, berari azaldu nahi ez zizkion arrazoiren batzuk izango zituela, aurpegira esatea komeni ez ziren horietakoren batzuk. Baina jakin, ez daki, edo, bederen, berarekin horrelako jokatzeko motiborik ez du ikusten.

Bitartean, nagusiak berarekin horrela zergatik portatzen ziren asmatu ezinik zebilela, buruan milaka pentsamendu zebilzkion jira-bueltaka. Horietako bat, harentzat kezagarria, Probintziako jendearen esamesa zen, besteen aurrean galtzen ari zen famarena. Bazekien Orixek erlijioso zintzoaren sona zeukala; baina, zigorra zigorraren gainean zetorkiola ikustean, Lagundiko erlijiosokideen ahotan galdera hau jartzen zuen: “Zer egin ote du Ormaetxeak purgatorioko seigarren urtea eman diezaioten?”. Galdera honek, kasurako, erantzun bakarra zuen: nagusiek, hartzen duten erabakia zuzena denetz zalantzan jartzeke, beti arrazoi dutela. Zergatik? Nagusiak direlako. Berarekien egiten ari zirena horixe izan zitekeela pentsatzen hasi zen. Honen argigarritzat hona hemen Orixek “De mi vida externa”n eskaintzen duen azalpen hau: “En cierta ocasión expuse al P. Carvajal que me parecía excesiva la penitencia grave que dió a un compañero y le daba datos exactos de él y de otros dos, privados suyos, que faltaban mucho más que el castigado. Me respondió bruscamente: ‘Cuando los superiores obran así usted debe suponer que sus razones tienen, y no discutir sus disposiciones’. Los superiores tendrían también sus razones indiscutibles contra mí”.

Nagusiengan arrazoien bila zebilen hura ohartu zen, azkenean, haiengandik zer espero zezakeen. Arrazoien argia ez, aginduen mailukada baizik. Edota, testuko hitzekin esateko, jabetu zen ematen zituzten arrazoiak diskutiezinak zirela. Ibilian-ibilian iritsiko gara “Orixeren arazoaren” gakoak dirudien horren muinera. “Bizkaitarrismoaren” arazo bezala hasitako historia, gurpilaren jira-buelta bihurrietan, jesui-

tagai prestuak agintaritzari zor dion obedientzia “itsuaz” zerikusi zuzena duen arazo erlijioso bihurtzen da. Arazoak ez dirudi jadanik bizkaitarrismoarena denik. Azkenaldian bigarren maila batera pasatzen bada ere, orandik tatxa horrek lehengoan segitzen duela gogoraziko digu geroxeago aipatuko dugun Orixeren ikasle abertzale baten kasuak. Orixeren arazoa, alderdi erlijiosotik begiratuta, funtsean “obedientzia-arena” izan zela onartu ahal izango balitz ere, alderdi humanotik begiratuta, erremedio zaileko arazoa, edo drama, hor geratzen da: obeditu egin nahi duela, baina ez dakidela nola obeditu. Orixe, asko uste gabe, irteerarik gabeko sarean harrapatuta sentitzen da. Historia humanoa da gizonok egin genezakeena. Eta humanoa, humanoegia da, Orixeren eta aita Echenique erretorearen arteko liskarrak ematen duena, beste protagonistak ahaztu gabe. Orixe ez zen ohartzen horrelako eztabaida pertsonalizatu batean menpekoak galtzeko guztiak zituela.

Orixek Tuterako egonaldian bertako aita Erretorearekin izandako tirabiren berri zehaztasunez emateak, uste dugunez, asko lagunduko du haren “Getsemani” poemako mezua ulertzen. Orixeren espiritu-bizitza erdiz erdi zeharkatzen duen norbait da, zalantzarik gabe, aita Echenique. Batean “fiskala”, bestean “polizia”, zer ez dio deitzen. Zergatik ote? Haren kontra egiteko arrazoiak zeuzkalako? Orixek giru bederen aipatzen ditu.

Lehenik, “betiko polizia bat” izan zela, dio, eta honen froga gisa kontatzen du nola, goiz askotan –egunero ez esateagatik–, bere gela inguruan ibiltzen omen zela goizeko bostetan garaiz jeikitzen zenetz ikusteko. Zelatan harrapatzen zuenean, nola edo hala disimulatzeke, Orixeren gelaren alboan zegoen Liburutegiko atean zintzilikatutako epakta irakurtzen hasten omen zen. Plantak egiten ez zekien, ordea, Erretore guztiak baitzeukaten beren alea lan-mahaiaren gainean. Eta hark ere bai, noski.

Bigarrenik, lehen esan bezala, Aita Erretorearen kontra marmarka aritzen zela akusatu zuten. Egia da kexatu zela, baina orduan berari aurpegira bota zion. Hona hemen gertatua: Sariketarako idazketa orokor batean, Pedro Navascués ikasleari Orixe irakasleak justizia guztiarekin emandako lehen saria kendu zion Ikastetxe guztiaren aurrean. Literaturan ez ezik, Fisika eta Psikologian ere lehen sariak irabazita zeuzkan; baina aita Erretoreak, inori deus esan gabe, diplomak kendu zizkion epaimahaietan bertan. Arrazoiak? Psikologiako irakasleak behin

batean ikasle hori kopiatzen harrapatu omen zuelako. Baina argitu behar dena da, ez zuela harrapatu hilean behin sariketetarako egiten ziren idazketa-saioretan, notak jartzeko astero egin ohi ziren idazketa-probetan baizik. Noski, batak bestearekin zerikusirik ez dauka. Oraindik okerrago dena, sariak kentzeaz gain, zigorra erantsi ziola: “Pero no quedo ahí, sino que se le aumentó el castigo con las degradantes notas *i, o*, y se le tuvo sin recreo varios días hasta que copiara entre otras cosas 15 veces una de las reglas más largas del reglamento”. Hitzaldi-aretotik atera orduko, “zer gertatu da saririk ez emateko?”, esaten diote Orixeri bere bi edo hiru ikaslek. Berak erantzun: “Nik eman dut, baina ez dute irakurri. Benetan harritura nago: ez didate ezertxo ere esan. Horrela izatekotan ez dut nik gehiago sariketarako idazketarik eman-
go”. Ostiral Santua zen. Orduerdi bat baino lehen jakinaren gainean zegoen aita Erretorea berak esandakoaz. Eguerdiko kontzientzi azterketa egiten ari zela deitu zion bere gelara. Erretolika-eraso galanta gainera etorri zitzaiona! Egun berean idatzitako gutun batean, “le he echado la mayor reprensión que jamás había echado a nadie”, idatziko dio aita Erretoreak kanpoan zegoen aita operario bati. Hala deitzen zitzaion botu txikiak eginak zituenari. Horrek laguna baitzuen Orixek, Ikastetxera itzultzean, berari kontatuko dio idatzi ziona. Orixek ere ez baitzeukan ahantzia gertakizun hura, garbi adierazia utziko du “De mi vida externa”n: “Me echó una bronca estrepitosa y tuve que callar”.

Esan bazuen esan, ederkí damutu zen gero. Dena den, konbentzítuta ala gabe, bere burua errudun aitortu zuen aita Erretorearen aurrean: “Esta fué la frase que confieso y confesé entonces ser imprudentísima. Pedí cualquier satisfacción: culpa, reprensión pública, lo que el P. Rector quisiera. Me perdonó, y me dijo que no lo tendría en cuenta”.

Pedro Navascués nazionalista zen eta, hala zelako, aita Erretoreak hura baino deabrua ikusi nahiago zuen. Hauteskunde-eguna izaki, Iruñean borroka handia egongo zela pentsatzen zen. Mutikoa bere dibisiotik atera eta anaia Atezainagana joan zen emaitzak galdetzerá. Pozez saltoka etorri zen Praderaren hauteskunde-porrota jakin ondoren. Haren pozak ez zuen luzaroan iraun, jipoitu ere halaxe jipoitu baitzuten. Bazkaldu gabe utzi zuten, belauniko jarrita jangelako atearen ondoan; jolasaldí guztiak kendu zizkíoten agindu berria jaso arte. Aita Begiraleak, aita Erretorea bezala hura ere diputatu karlista galtzailearen laguna baitzen, zaplasteko batez gorritu zion masaila maháikide guztien aurrean. Areago oraindik: igandeko ohiko bisitak debekatu

zizkion aita Erretoreak. Eman zitzaion tratua ikusita, bere gelako ikas-kideak erabat hasarretuta geratu ziren; hasarretuta, batetik, horretarako arrazoirik ez zegoelako eta, bestetik, “Pedrito”, nazionalista izanik ere, ez zirenek ere estimatzen zutelako.

Zeren mutil hori nazionalista zen eta, gainera, azkarra, irakurtze-ko izugarrizko zaletasuna omen zuena eta oroimen apartekoa. Hori ere ezin eraman. Berrito ere kalapitan ibili beharra aita Erretorearekin. Institutuko irakasleek Ikastetxean izandako probetxamenduaren arabera sailkatutako ikasle-zerrenda bidaltzeko eskatzen baitzuten, Orixek Logroñorako zerrenda-buruan bera zeukan jarria. Aita Erretoreak deitzen dio gelara eta esaten: “Ohartu naiz Navascués jarri duzula zerrenda-buru”. Orixek, zergatik deitua zuen igerriz, erantzuten dio: “Pentsatzen nuen horregatik deituko zenidala, baina nik ezin dut neure kontzientziaren kontra jokatu. Mutiko honek nik baino gehiago daki Espainiako literaturaz. Lope, Calderon, Alarcon, Moreto eta beste hainbaten eszena osoak eta komediak buruz dakizki, baita beste hainbat gauza ere, nik ez dakizkidanak. Eta Literatura orokorrean eza-gutza handiak ditu. Nahi baduzu –gaineratzen dio–, proba bat egingo dugu aita Xren aurrean, beste Ikastetxeetan Literatura esplikatu duen eta gaian aditua den horren aurrean, eta ikusiko dugu nork dakien gehiago”. Aita Erretoreak, nondik irten ez zekiela, “en fin” batekin moztu zion hitza eta gehiago txintik atera gabe utzi behar izan zuen gela. Emaitzak kantari eta Orixek arrazoi, Logroñoko azterketetan ohorezko matrikula atera zutenetako bat bera izan baitzen.

Zeren mutil hori nazionalista, azkarra eta, gainera, elizkoia eta ona zen. Gauza gehiegi aita Erretore harentzat. Beste nazionalistak bezala, hura ere horixe zen: ero bat. Eta hau ez da txiste bat: “... el apellido ordinario que el P. Rector le daba, era el de loco”. Eta azkenean, hurrengo ikasturtean, “judizio praktiko gutxiko” mutil ero hau kanpora botako dute, ez indiziplinagatik, aita Erretoreak zion ezinikusia-gatik baizik. Tuteran batxilergoan bost urte egin ondoren, Bergarako domingotarretan sartu zen eta hor, gai batean izan ezik, beste guztietan “bikain” atera zuen.

Hirugarrenik, eta Orixek puntu honi larria deritzo, isilpean gordetzekoa zen kontzientziako azalpen batez baliatu zen beste batzuen aurrean. Aita Erretoreak berarengana lehen bezain sarri ez zela joaten eta, kargu hartu zion behin batean. “Joaten ez bazen, berarekin konfiantzarik ez zeukalako zela”, erantzun zion. Hark berriro: “Nagusien-gandik aldentzea ez zela komeni, deabrua hortik hasten zela lanean

eta”. Orixek, aita Erretorearen kargu-hartze horretan, bere barruko gauzen berri ematea edo, horrelako zerbait, eskatzen ziola uste izan zuen, eta bera ez zegoen horretarako prest. Izan ere, Zuzenbide Kanonikoko 530. kanonaren arabera, aita Erretoreak, kanpo-diziplinari buruzkoetan kontuak eska ziezazkiokeen, baina barrukoei buruzkoetan ez. Hala dator adierazia Ipolito Larrakoetxearen itzulpenean: “Jaunzale nagusi guztiai euren menpeko iñor barrua agertzen ez beartzeko agindu larria emoten yake”. Eta kanpoko gauzetan, Orixek ohartarazten duenez, deabruak nekez engainatzen du nagusia.

Haren gelan elkarrizketa hori izan eta handik hiru egunera, berriro harengana joan beharrean aurkitu zen. Baina hain nazka handia –“infinita repugnancia” dator bere hiztegian– ematen zion, ez zen atrebitzen. Aurrez aurre ezin eta, arautegiak horretarako bide ematen zionez, gutunazal batean itxita bidalitako idazki baten bidez zuzendu zitzaion, deskonfiantzaren zergatikoak azalduz. Besteak beste, zera esaten zion: gaizki hitz egiten zuela batzuekin beste menpekoengatik. Eta, bide batez, zertaz ari zitzaion baitara zedin, Ostiral Santuan aita operario hari idatzitakoa ekarri zion gogora. Baina alferrik. Isilik gordeko zuelakoan egindako gutuna, hau ere, ez zen jadanik ez pribatua eta ez pertsonala izango. Bi aita grabek kontsultore bati entzun zioten jolas-tokian esaten Orixek aita Erretoreari gutun bat idatzi omen ziola eta horrek komunitateko kontsultan irakurri zuela. Aipaturiko bi aita horiek bata bestearen segidan joan zitzaizkion entzundakoaren berri ematera. Nonbait, gutunetik berak nahi zuena irakurriz, etxeko kontsultoreen aurrean errespetorik ez ziola gordetzen frogatu nahi izan zuen. Pasadizo honi buruzko zehaztasunak izen eta guzti ematen ditu “De mi vida externa”n: “El P. Egaña, consultor doméstico, me vino al día siguiente de una consulta y me preguntó: ‘¿Qué carta es la que ha escrito Vd. al Rector?’. Le respondí que ninguna. ‘Porque en la consulta ha hecho uso de una carta que dice VD. le ha escrito faltando al respeto’. Era una cuenta de conciencia. Lo mismo vino a decirme independientemente el P. Guevara. Estos dos consultores y todos los demás de la casa eran más amigos míos que del Rector, salvo uno que le iba con cuentos”.

Halere, oraingoan, ez zuen bere gelara deitu, Orixeren ustez, “porque mi argumento de violar los secretos hubiera sido aplastante”. Bestalde, eta argumentu hau aita Probintzialaren aurrean defentsarako erabiltzen du, kontsultoreak akusatuaren alde atera ziren: “Esto es gravísimo. Aunque en el escrito no constara la fórmula de que aquello era

cuenta de conciencia se ve por la materia y por la forma del escrito que lo era. Precisamente le argüía en él de la falta de secreto, y para corregirse me lo descubre en la consulta. Supe además por los mismos Padres, porque se lo dijo el consultor faltando a su secreto de oficio, que en la consulta todos los consultores me favorecieron, diciendo que era religioso ejemplar. Luego los informes exagerados y apasionados eran del P. Rector que me tenía entre ceja y ceja”.

Orixek, aita Erretorearen jokabide horri “txit larria” eritziz, gogor salatzen du, une hartako ekaitza ondo pasa eta gero ere, 1943ko dokumentu ezagunean hauxe uzten baitu idatzia: “No la juzgo subjetivamente, porque eso toca a Dios, y mi juicio es que aquel Rector estaba neurasténico, y no se le podrá atribuir toda la culpabilidad que el hecho objetivo haría creer”.

Polizia, fiskala eta, azkenik, neurastenikoa. Orixe ez da atzera geratzen adjektibo kalifikatzaileekin. Nagusiaren kontra kopeta altxatzea, arau eta kanon guztiak bere alde izanda ere, sano arriskugarria zen. Joku honetan galtzekoa gehiago zuen irabaztekoa baino. Ez zituen kalkuluak ondo egin.

Kausa galdu eta, Tuteratik Xabierri abiatzerakoan agur egitera joan zitzaionean, aita Erretoreak hitz hauek zuzendu zizkion: “Xabierren ondo izan zaitezela, eta Jainkoak zu anaia Laguntzaile izatea nahi baleza, halaxe izan dadila. Saia zaitez hemen baino aholku hobek hartzen”. Eta Orixeren ihardespena: “Aita gogo-zuzendariak ni oso ondo aholkatu nau, berarengana ia egunero joan izan naiz eta. Nik badakit zu nori buruz ari zaren. Mintzatzera gelara etorri zitzaidan aita Grabe hura duzu gogoan zuk. Baina jakizu, nik ez dudala horretan errurik, bera etorri baitzen nigana”. Aita Erretoreak, artega, azken hitz hauekin agurtu zuen: “Agur, agur, Jainkoak lagun zaitzala. Eta Orixek segidan: “Agur”.

Maisutzan seigarren urtea egitera zihoan hark bazuen aski lan erabakiak buru-makur hartzen, ikusi baitzuen, eta berrikusi, aburu faboragarriak azaltzen zizkiotenen atzeko pantailan esperantza falsuak ezkututzen zirela. Berak esana da aita Bisitariari: “El P. Arin que es ahora nuestro P. Espiritual, Rector mío en los dos primeros años en Comillas, me dijo al terminar el segundo que estaba satisfecho de mi comportamiento. El P. Bianchi, Rector en mi tercer año, al salir yo de allí para Carrión, me dijo de despedida en su cuarto estas textuales palabras: ‘que siga Vd. siendo tan bueno como hasta ahora’. El P. Arregui, rector mío en Carrión ahora P. Espiritual de los Filósofos, nada me avisó en todo el año, y cuando recibí el destino a Tudela, me

respondió que él nada sabía ni tenía contra mí. Aquel mismo año el P. Carvajal me leyó parte de los informes donde constaba que ‘optimum religiosum se praebuilt’, si bien dió oídos a lo que luego diré (nacionalismoaren akusazioaz ari da hor), condenándome sin previo aviso y sin oírme”. Tuteran, ordean, iritzi kontraerriak entzun zituen. Aita Erreterak: “Nik zure portaeraren kontra ez daukat ezer. Ez duzula balio, horixe bakarrik”. Eta Prefektuak: “Zure portaeraren kontra ez daukat ezer. Eredugarri izan zara”.

Orixe erlijioso ona omen da, oso ona, eredugarria. Baina, irakasle gisa, txosten ofizialetan ezgaitua dela juzgatzen denez gero, froga berri batzuk egitera behartzen dute, gaitasun-seinale batzuk eman ditzan.

Xabierren berriro (1919-1920)

Orixe ezgaitua Xabierren etorri eta haren atzetik, ohi zenez, hemengo aita Erreterek hartzaileari hangoaren txostena etorriko zitzaion eta, agian, baita aita Probintzialarena ere. Aita Modesto Armisen izango zuen erreterek berria, Oñan Etikako irakasle izan zuena. Ezagutu zutenek esana da Kasedako nafar honek ez zuela inolako interesik agertu izan euskararen alde.

Orixe, berriz, hango guztien aurrean irakasle eta zigortu bat zen. Mutikoei Gramatika (Latina) eta Greziera irakasten jarri zuten. Irakasle-lanez gain, Erromarako berriak biltzeko eta etxeko historia idazteko ardura ere eman zioten.

Lehen ere Latina irakasten aritua zen Comillas eta Carriónen, baina, bere irakasle-gaitasuna zela eta, Tuteran entzun zituenak entzunda, Xabierren irakaskuntza nola joango ote zitzaion beldur zen. Urte hartan, gainera, latineko testuliburua aldatu zuten, lehengo latinezko portugaldar Alvarezaren lekuan gaztelaniazko aita Errandonearena jarri. Kontua da, aldaketa hori zelako edo, Latina bigarren mailan irakasten zuenak ez zuela eman nahi izan eta aita Erreterek berari egin ziola emateko proposamena. Berak, baietz, testu bat izan ala bestea, hari berdin zitzaiola eta pozikarren emango zuela. Irakasle guztiek onartzen zuten Orixek sekulako arrakasta lortzen zuela idazketa publikoetan. Ikasurtea bukatu eta berak irakatsi zuen gai bera irakatsi behar zuena heldu zenean, aita Erreterek eskatu zion azal zitzaiola zehaztasun guztiz sintaxia esplikatzeko zeukan bere sistema pertsonala. Ibilian-ibilian zortzi egunetan aritu zitzaion azaltzen. Ikasgai

horiek irakasten zituztenentzat Xabierren egin zen udako hurrengo ikastaroan, Orixe pedagogoen eredutzat jarri zuten.

Halere, Orixe uste duenez, oraindik asko pisatzen zuen Tuterako aita Erretorearen aburuak eta, agian, baita Bianchi eta Carvajalenak ere. Aita Leza probintziala zalantzan bezala ikusten zuen berarekin. Noiz ez dakigu baina, seguru asko, 1919-1920ko ikasturtearen erdialdera edo, aita Leza probintzialarekin elkarrizketa bat izan zuen. Berak dioenez, ia hitzez hitz hartua eskaintzen digu: "¿Qué tal está Vd. de salud? –Bien, Padre. (Buen rato de silencio). Y, ¿qué vamos a hacer de Vd. el año que viene? –V. R. verá. (Pausa). Ya tengo ganas de que se acabe ese negocio de sexto año magisterio, pero ¿qué voy a hacer yo si me vienen con cuentos? –Me callé, aunque me ocurrió responderle que si son cuentos, no creerlos. Prosiguió: Veremos qué informes dan al fin del año. (Buena pausa). Parece que se porta usted bien. –Como siempre he procurado. Dicen que es usted demasiado benigno con los chicos. –Yo qué le voy a hacer si en eso no puedo enmendarme! ¿Cuántos años tiene V? –Treinta y uno'. Ya es hora de que entre Vd. en juicio. Dicen que tiene Vd. un juicio raro en literatura. –Me suelo atener en general a los juicios de mi profesor'. (Pausa). Bueno, adios. –Adios".

Elkarrizketa idor horrek erabat jota utzi zuen kuraiaren iturri freskotik edan gogoz zegoen Orixeren bihotza. Nondik zertan hasi ez zekiela geratu zen denbora puska batean. "Ni ahora tengo dominio suficiente para analizar ese dialogo", idatziko du aita Boettori egindako gutunean. Elkarrizketa hotza. Polizi bulegoetan egin ohi diren horietakoa. Sekantea.

Orixe ohartu zen aita Probintzialak ez zeukala gogo handirik bera Oñara bidaltzeko. Osasuna aitzakiatzat hartuta, aurrera segitzeko baldintza gisa, berarentzat benetan umiliagarria gertatuko den kontsulta mediko baten froga gainditu beharra ezartzen diote. Orain arte ez eta, zergatik orain justu? Oñara joan aurretik, Loiolara deitu eta handik Bilbora bidali zuen López Albó mediku alienistarengana, bere diagnostia egin ziezazion. Elkarrizketak ez baitu deus galtzekorik, hona hemen osorik pasarte, hau ere aita Boettori egindako gutunetik hartua: "Voy a Loyola temblando como un azogado. Entro en su cuarto y me dice: 'le he llamado para que vaya Vd. a Bilbao a verse con un especialista. A ver si esos nervios tienen arreglo. Aunque la cosa no es ir a Teología para no poder estudiar' ('Otra! Ahora otro capítulo, el de la enfermedad). Expóngale bien el estado de la cuestión, cómo va Vd. a empren-

der cuatro años de estudios serios: si le dice que sí, vaya Vd. a Oña, sino... (aquí toco un pito señalando la puerta con la mano). Horror! No quiero interpretar mal esa acción como lo hice entonces porque todo era para mí tétrico. Le dije que nada en el mundo era capaz de arrancarme la vocación. Y le añadí: también tengo que exponerle mi estado moral de estos años (al médico) para que no falle contra mí. –Está bien. Pero espéreme Vd. que yo iré dentro de dos días. –Adios. –Adios”.

Froga bitxia benetan. Noiz eta, osasunaren aldetik sekula baino hobeto zebilen unean behartzen dute psikiatrarengana joatea. Berak eskatu gabe. Agindu bezala, joan zen Bilbora, baina alferrik, López Albó jauna ez baitzegoen etxean. Onetik libratu zen Orixen. Gogo txarrez bazen ere, bidali zuten azkenean Teologia egitera. Purgatorioak bukatua zirudien.

Oñan (1920-1922)

Orixek 1920ko abuztuaren 31n jarri zituen oiñak Oñako Filosofia eta Teologiako Ikastetxean. Hasiera hartan Comillasen bezala, berriro aita Bianchi erretoreakin egingo du topo hor. Ikasturtea hastean, aita Erretorearen gelara joan eta, galdera hau zuzentzen dio Orixek: “¿A cual de los cursos voy? –Al breve. El P. socio escribe...”. Jesuitek, beren goi-mailako eliz ikasketetan, bi ibilbide bereizi izan dituzte, bata laburra eta bestea luzea, hurrenez hurren, “cursus minor” eta “cursus major” deitzen zitzaizkien. Bien arteko diferentzia honetan zegoen: alegia, ibilbide laburrekoan –eta hauxe zen Orixeri egitea agindu ziotena–, ikasgai gutxiago ematen zirela eta, gainera, ez beste ibilbidean bezainbateko sakontasunez. Ibilbide luzea egiten zutenek, aldiz, ikasketen bukaeran Lizentziatura lortzen zuten eta, gainera, botu nagusiak egiten zituzten. Hauetako deitzen zitzaizkien, apaizgora iristean, aita grabiak. Normalean, buruz argienak eta notarik onenak lortzen zituztenak izaten ziren ibilbide hori egiten zutenak. Orixen, beraz, “pro minor” ibilbidetik joatera behartzean, ezgaituen edo, bederen, ez hain gaituen taldean sartu zuten.

Baina nolatan liteke hori –esango du Orixek nahigabe handiz–, H. G.-ren eritziz eskolako ikaslerik onenetako bat izanda? Seguru asko, Patxi Altunak azaldu bazala, Filosofian aterarako nota eskasak egongo ziren horren guztiaren atzean.

Orixe gutxietsia sentitu zen. Halere, jarri zuten mailan, inoiz ez bezala segitu zituen eskolak. Irakasle gehienak euskaldunak ziren, hauen artean, Zameza, Zapelena, Ogara eta Zaburu. Gogo-zuzendaria ere bai, aita Manuel Arin, Comillasen bi urtez Erretore izan zuena. Bigarren urte-bukaeran “ad audiendas confessiones”erako azterketa egin zuen, eta, aita Bianchik aita Larrañagari esan zionez, baita aise gainditu ere. Halere, haren osasuna ez zen ona eta Morala bera bezalako beste batekin baratzan zehar ibiliz ikasteko baimena eman zioten nagusiek. Txandaka irakurtzen zuten. Ikasketak ondo zeramatzan eta, portaera aldetik, ez zuen inork haren kontrako kezarik agertzen. Eta norbaitek baldin bazeukan ere, bera jakin gabe zegoen. Aita Boetto, gero Kardenal eta Genevako Artzapezpiku izatera iritsiko zena, 1921ko abenduaren 7an heldu zen Oñara, bere bisitari-lanak egitera, eta bi hilabete eta erdi egin zituen bertako erlijiosoekin hizketan. Orrixerri haren galera joateko txanda iritsi zitzaionean, ahoan bilorik ez eta, Oñako aita Bianchi erretorearen kontra zeukan guztia hustu zuen haren aurrean konfiantza guztiarekin. Beste teologoek ere, gaizki ikusia zelako, beragatik izugarriak esan omen zizkioten. Esatekoak esan zizkionean, hitz hauek gurutzatu zituzten: “Ahora me dirá V.R. –le dije– lo que él dice de mí, que me habrá puesto bueno. –Pues no –me respondió–, no hay absolutamente ninguna queja contra Vd. Al contrario, dice que es Vd. observante”.

Oñako egonaldian, Orixek susmoa daukanez, Erromatik sua piztuta hasi ziren gauzak bihurtzen. Horretarako bide eman dezakeen aiantzezinezko datua da, ordurako aita Carvajal probintzial ohia une honetan Erroman aurkitzen dela aita Jeneralaren ondoan, eta honek bazekiela, hark esanda, Orixe Oñan aurkitzen zela Teologia egiten. Aita Jeneralak gutun bat bidali zion aita Bianchiri, esanez maisutzan ez zuela aski froga eman eta ea zergatik zegoen Orixe teologi ikasketak egiten. Handik berehala, aita Jeneralak eta aita Probintzialak, gutunenez bidez, Lagundia uzteko aholkua emango diote. Zer gertatu ote da?

Teologiako bigarren ikasturtea bukatu aurretik, 1922ko Ostiral Santuan, Bidegurutzea egin eta gero, ilunabarrean gelara joaten denean, 1922ko apirilaren 13ko data zekarren aita Leza probintzialaren gutun batekin aurkitzen da, zeinetan apaiz sekularra izateko proposamena egiten baitzaio. Aita Leza probintzialak gutun gehiago ere egin zizkion, beste bi bederen bai, Orixek aipatzen dituenak: bata apirilaren 21ean, eta bestea irailaren 8an. Bestalde, Orixek aita Probintzialordeari egingdako gutunak, eskura dauzkagun bakarrak, 1922ko irailekoak dira,

hirugarren ikasturtea hasi ondokoak. Zergatik gurutzatu zituen gutun horiek Probintzialordearekin? Arrazoa erabat koiunturala da. Bigarren ikasturtea bukatu baino lehenago, ekainaren 4an probintzial-izendapena hartu berria zuen aita Villalonga operatu egin baitzuten, Orixek 1922ko iraileko bere gutun-harremanak aita Probintzialordearekin, hots, lehengo aita Lezarekin izango ditu ezinbestez.

Baina apiriletik iraila bitartean gauza asko gertatuko da Orixeren inguruan. Aita Probintzialordeari 1922ko irailaren 10ean zuzentzen dion gutunean badira bederen hiru puntu azpimarratu beharrekoak: lehenik, aita Gabriel Vilallonga probintzialak berak aitortzen dionez, eskuak aita Ledóchowski jeneralak lotuta dauzkala eta komeni dela Orixek berak aita Jeneralari zuzenean idaztea; bigarrenik, aita Jeneralaren borondatea betez, aita Asistentek beste Ikastetxe batera (Xabierra) bidali nahi izan zuela bigarren ikasturtea bukatu baino lehen, baina aita Vilallonga aurka atera zitzaiola; hirugarrenik, aita Leza eta aita Vilallonga ez datozela ados Orixeri buruzko iritzietan; laugarrenik, aita Vilallonga probintzialak aitortu bezala, ezgaitasunaren arrazoa gezurra zela eta arazoa besterik zela, zein esan gabe. Aita Probintzialordeari erantzunez egiten duen 1922ko irailaren 21eko gutunean, beste bi puntu gehiago ere argitzen dira, hots: Orixeren aterabidea ez dagoe-la Probintziako nagusien eskuetan, aita Jeneralarenean baizik, eta honnek Orixe Lagunditik kanpo uzteko erabakia hartua daukala. Apaiz-ikasketak bukatzekotan, buka ditzala kanpoan. Orixek ezezko biribil batekin erantzuten die aita Probintzialordearen proposamen guztiei 1911ko urriaren 30ean: “En mi última le daba a entender claramente que no escogía ir a los Colegios, y lo mismo vuelvo a decir ahora. No he tomado la resolución que dice V. R. ni pienso tomarla. Le decía también, que tuviera la bondad de esperarme a que me entendiera con el P. General. Escribí a este diciéndole que ninguna de las cosas que me propone elijo, pues no veo razón para ello. Aun no ha contestado, pero mucho no puede tardar. Si todavía me quiere obligar sin más razón a cosa tan ardua y extraña, creo que negándome no falto a la obediencia. Obro aconsejado por gente conocedora de mi asunto, santa y sabia de esta casa, y quedo completamente tranquilo. El mismo P. Rector que se calla como un muerto, me ha dicho hoy al salir yo de su cuarto: ‘usted defienda su vocacion’”.

Azken gutun honetan agertzen dena da, Orixek bere ezezkoa hain tinko emateko, atzetik bertako aita jesuita batzuen sostengua zuela eta hauek indar morala ematen ziotela bere bokazioa defendatuz segi

zezan. Aita Beraza irakaslearekin konfiantza handia zuen, inorekin baino handiagoa orduan, eta apaltasun handiko gizon hark haxe esan zion bizi-bizi: “Carísimo, lo que hacen con Vd. no se puede hacer en la Compañía con ninguno, porque supone que ha cometido un pecado grave que ha trascendido al público”. Eta Xabierko aita Gogozuzendariak Lagundiaren historia guztian zehar ez zuela horrelako kasu beltzik ezagutu aitortu zion. Aita Bianchi erretorea bera ere bere bokazioa defenda zezala esanez zeukan.

Gutun honetan bertan aita Ledóchowski jeneralak noiz erantzungo dion zain dagoela esaten du. Baina Orixen dezenteko lehenagotik ere harremanetan zegoen aita Jeneralarekin. Izan ere, aita Vilallonga probintzialak jakinarazten dihonean eskuak lotuta dauzkala, bere itsuan, 1922ko uztailaren 19an gutun bat idazten dio esanez, besteak beste, ez duela ulertzen zergatik proposatzen dioten Lagundia uztea. Eta segidan, Lagundian segitzeko gaitua dagoela frogatzeko, bere nagusiak izandakoen lekukotzak dakartza. Nolahani ere, gaizki egindakoez damutu eta Lagundian segitzeko asmo zindoa agertzen dio, jatorrizko pasarte honetan datorren bezala: “Quidquid sit animum applicabo ad emendationem, quia statui imprimis manere in Soc. Jesu”. Aita Jeneralaren erantzuna 1922ko abuztuaren 1ean iristen zaio eta bertan esaten dio aita Probintzial berria bere arazoari buruzko zehaztasun guztiak eman dizkiola, banan-banan (*de singulis*) eman ere, eta haren esanera umiltasun guztiz jartzeko: “Cum Pater Provincialis nuper munus suum exercendum suscepit, mirum non est illum de tuo negotio omnino edoctum non fuisse. Nunc autem de singulis certiore feci. Quare auctor tibi sum ut de illo cum Patre Provinciali agas, et eius consilia qua par est animi docilitate et humilitate exsequaris”. Aita Probintzialak, Erromako aita Jeneralaren borondatea betearazteko, hiru “aut” edota, bestela esanda, aukeran hiru aterabide aurreratzen dizkio: “aut exi e Societate aut amplectere gradum F. Coadiutoris temporalis, aut intermitte studia nisi alterutrum eligas”.

Laburki esanda: Lagundian apaizgintzarako bidea ixten zaio. Geratzen zaion irtenbide bakarra, haxe da: Lagundia utzi, ala, barruan geratzekotan, anaia lego edo laguntzailer izan. Horrelako erabakia hartzeko arrazoirik ez baitu ikusten, Orixek 1922ko irailaren 21ean bigarren gutuna zuzentzen dio, eta hor, aita Vilallonga probintzialaren ahoan jartzen duen “Patris Provincialis non est argumentari sed exsequi praecepta superiora” eta “solus P. Generalis potest dare solutionem huic casui...” aburuetan oinarrituz, eman zaizkion aukeretatik ez bata

eta ez bestea ez dituela onartzen esaten dio: “Quae cum ita sint, neutrum audeo eligere ex his quae proponuntur”. Aita Jeneralak oraingoan, ordea, ez formula aukerazkoa baizik eta aginduzkoa erabiliz erantzuten dio 1922ko urriaren 6ko gutunean: “Postquam vero attente consideravi cum ea quae in his continentur, tum etiam informationes ex Provincia acceptis [sic], existimo coram Domino non posse te in Societate ad ordines sacros promoveri. Quare, si, ut in tuis litteris significare videris, firmum et absolutum propositum habes in Societate permanendi, gradum Coadiutoris temporalis [laici conversi] acceptis necesse est, in quo nulla ex mea parte est difficultas”. Agindua erabatekoa da: Lagundian apaiz ez; nahi baduzu, anaia laguntzaile. Orixe kanpora botatzeko aita Jeneralak hartzen duen taktika berria da. Hala ulertzen du berak. Egoera honetan aurkitzen da Orixe 1922ko urrian.

Baina aita Jeneralaren urriko azken gutun hori hartu baino lehenago, Erljiosoan Kongregazio Santuko Kardinalari Teologiako bigarren ikasturtea bukatzean apaiztu ahal izateko dispensa eskatu zion. Badirudi eskari hori 1922ko uda baino lehenago egin bide zuela eta horren berri aita Jeneralari berehala eman ziotela. Haren hasarrea etxeko zapiak kanpoan astintzen zirela jakitean! Hemen ixten zaio apaizgintzarazko bidea. Diplomaziaren indarra ez zuen behar adina neurtu. Geroztik beste hiru gutun ere idatziko dizkio Kongregazio Santuko Kardinalari, lehenengoa 1922ko irailaren 20an, bigarrena 1922ko urriaren 20an, eta hirugarrena 1922ko abenduaren 2an eginak, lehen biak latinez eta azkenekoa gaztelaniaz. Baina denak alferrik. Gutun hauetan, funtsean, gertakarien laburpen bat egiten du. Lehen bietan Lagundiko nagusiekin izandako gutun-harremanak dakartza, bereziki aita Jeneralarekin izandakoak. Azkenekoan, lehen egindako bi gutunen laburpen batekin batera, ikasturtea hasi eta handik 20 egunera etxez aldatzea behartua izan dela jakinarazten dio. Bi azken gutunak Xabiertik eginak dira.

Xabiertik etxera (1923)

Oñatik Xabierra noiz joan zen ez dakigu ziurki. Urriaren hasiera aldera joango zen, seguru asko.

Orixek uste zuen han Erroman, hango auzitegi neutroan, entzuna izango zela haren erregua: “Yo en mi inexperiencia suponía, sobre todo después de la promulgación del nuevo Código, que atenderían a

los individuos injustamente perseguidos”. Ametsak ustel, ordea. Edo, hobeto, erdi-ustel, zeren Zuzenbide Kanonikoko aita Llona irakasleak aurretik esana baitzion: “si usted fuese sacerdote le atenderían, porque esos son los que dan cuidado para encontrar Obispo benévolo; pero a casos así de jóvenes no suelen dar importancia”. Erljijsoen Kongregazio Santuak, aita Boetto prokuradorearen bidez, bere nagusiek emandako aholku berbera emanaz erantzun zion: Lagundia utzi ala anaia laguntzaile izan. Eta horretarako arrazoen artean, bat berria agertzen da: komunitate-bizitzarako ez dela egiten, lagunarterako gozagaizta dela, alegia. Esan nahi baita, hala interpretatzen du Orixek, ez dela erlijioso zintzoa.

Berari buruz horrelako balorazioa egiteari kalumnia hutsa deritzo. Bestalde, ez du batere ulertzen aita Boettoren portaera hori, zeren, Oñan egon zenean, berak esan baitzion aita Bianchik ez zeukala deus beraren kontra; alderantziz, erlijioso zintzoa zela. Beraz, nondik orain horrelako salaketa? Baina ikusita dago, alferrik dela kontuak garbitzen tematzea. Orixek, aita Boettok luzatutako Lagundia ala anaia laguntzaile bilakatu alternatibari, etsita, euskaraz idatzi eta lehen mailako ikasleei Latina irakatsi ahal izateko grazia eskatzen dio 1923ko apirilaren 6ko erantzun-gutunean: “Concedatur quaeso hic gratia docendi perpetuo infimum Grammaticam, et si fas sit, nonnulla scribendi lingua vernacula”. Burua makurtuta, Orixek amore ematen du. Etsi du apaizgoan. Ezinbestean, taktikaz aldatuz, bizitza guztian latin-irakasle eta euskal idazle izatearekin konformatzen dela jakinaraziko dio Probintziako buruari. Jakina, ez zen hori bere asmoa, baina, Lagundikoa izaten segitu nahi zuelako, burdina gorituari heldu zion bihotza erretzeraino. Horregatik jo zuen, ondoko pasarte honetan irakurtzen den bezala, sentimenduen aldaban: “El buen sentido del lector de mi correspondencia verá que nada hubiera adelantado yo poniendo otra vez más como razón para no salir de la Compañía el que yo no lo vea. Puse otra en esta carta, muy fuerte y verdadera para mí, pero objetivamente no tiene valor, al menos para un puro juez. Yo creí que uno que se llama Padre, debía atender también a los argumentos de corazón”.

Baina bere autoumiliatze horrek ere ez dio ezertarako balio izango. Hierarkia jesuitikoak ez ditu entzuten haren bihotz-deiak. Proposamen hori egin eta handik hamalau egunera, 1923ko apirilaren 20an zehazki, gutun berri bat hartzen du, ez dakigu norengandik, esanez Jainkoaren borondateari, otoi, ez diezaiola kontra egin eta dimisoriak eska ditzala. Aita Jeneralaren erabakiz, aita Vilallonga probintzialak

behartu egiten du Orixek dimisoriak sina ditzan ala, praktikan gauza bera zena, anaia laguntzaile izatera pasa dadin: “Tén como cierto que resistes a la voluntad de Dios si aferrado a tu juicio no acatas las decisiones de los Superiores: es mejor que pidas las dimisorias”. Orixek 1923ko maiatzaren 1eko gutunarekin erantzuten dio, esanez ez dagoe-la konbentzituta nagusiek agintzen diotena Jainkoaren borondatea denik, eta, beraz, aginduak ez, baizik arrazoiak behar dituela berak: “No me convenzo de la voluntad de Dios, y en esto no me guio únicamente por mi juicio, sino por el de otros que a mi proceder llaman constancia. No sé lo que he hecho para merecer castigo grave y público. Creí tener derecho a que se me manifestaría en concreto la causa tantas veces preguntada: de qué defectos, dónde y cuándo avisados y no enmendados se trata. Es lo que he estado preguntando inutilmente, y sin saber lo cual no me resigno a salir”. Entzuteko eta erantzuteko daukan eskubideari eutsiz, hilabete bereko 7ko gutunean, arrazoiak jakin gabe ez dituela dimisoriak izenpetuko, ezta graduz aldatuko ere, jakinarazten dio.

Errekurtsoak errekurtsio, bat-batean ofizio apaletan aritzeko eta zortzi egun barru Logroñora joateko manu zorrotza iristen zaio. Honen aurrean, azkenean, aita Vilallongari 1923ko uztailaren 12an zuzentzen dion gutunean datorren bezala, dimisoriak izenpetzera markurtzen da, eta arren eskatzen dio, irteera mingarria prestatzen duen bitartean, utz diezaiola leku berean egoten: “Puesto que el P. General no quiere dar razones de su proceder conmigo, como es debido, y extrema la violencia, déjeme si resignándome yo a firmar las dimisorias me permite quedar en este Colegio mientras preparo la dolorosa salida”.

Orixek behin eta berriro bere bokazioari heroe izateraino eutsiko badio ere, arautegiaren arabera eskura zeuzkan errekurtsio guztiak ahi-teraino borrokatuko bada ere, ezinbestean eta erabat etsita –berak “bortxatuta” esango du–, aurrerantzean jesuita “ohiaren” etiketari aurpegi eman beharrean aurkituko da, honek harentzat suposatzen duen karga moral guztiarekin. Gogorrek dira, bihotz minduari darizkionak, Lagundiko agintariei zuzentzen dizkien hitzak aita Probintzialari 1923ko uztailaren 12an egindako gutunean: “Mi aguante ha llegado al límite. Un acto heroico más no me costará hacer aún sin tener obligación, pero me esperan una serie continua de ellos sin que vea motivo alguno, que de no sufrirlos con entera tranquilidad y resignación, antes con la inquietud y amargura del que no ha sentido en la religión

el espíritu paternal ni la rectitud del juez, y ha visto siempre despreciadas las voces de hijo y de reo, no me aprovecharán y aún me desaprovecharán. El P. General sabrá lo que se dice cuando cerrando los oídos a todo, afirma que a los Superiores compete el derecho pleno de hacer eso. No lo creía: él mismo me dijo que en la Compañía no existía el grado de escolar perpetuo, y ahora sin dejar precisamente de serlo, no sé por qué constitución puede obligarme en ese estado raro a obediencias ‘supra regulam’, a esos actos heroicos no contenidos en el fin peculiar de la religión. Si fuera castigo transitorio, bien, aunque debieran también en ese caso decir la falta o faltas que han motivado tan enorme penitencia. El P. General ha triunfado por fin de mi debilidad: yo callo, no pudiendo hacer más; pero algo quedará inacabable que por última vez quiero hacer constar en carta. Quedaré siempre muy agradecido, claro está, a lo que debo a la Compañía y a los muchos Hermanos caritativos que he tenido; pero no podré olvidar el trato de esclavo más que de súbdito que me han dado algunos Superiores entre los cuales ciertamente no entra V. R.”.

Lagundiak, Orixe kanpora botatzearekin, balioko gizon bat galduko du, agian, erlijioso zintzo bat. Baina zer da harea ezdeus bat itsasbazter handian?

Baina errua ez da Lagundiarena berarena, zeren honen barruan oso garbi bereizten baititu “muchos hermanos caritativos” eta “algunos Superiores”. Eta hauen artean epaile gisa jokatzeko duena, ez aita bezala, nagusien nagusia izendatzen du: “El P. General ha triunfado por fin de mi debilidad”. W. Ledóchowski, *Quito'n arrebarekin*-en aita Beltza deitzen diona, infernu-zuloan sartzen du. Testuinguru honen argitan oso ondo ikusten da zergatik sartzen duen. Baina aita Vilallonga probintzialarekin salbuespen bat egingo du, nahiz irteteko azken agindua beragandik jasoko duen. Zergatik? Geroago ikusiko dugun bezala, berarekin, ez epaile, baizik aita gisa jokatu zuelako.

Lagundia utzi aurretik, irteera ahalik eta ondoen antolatzen joan dadin, 1923ko uztailaren 14ko gutunean lau eskabide hauek egiten dizkio aita Vilallongari: lehenik, Lagundian sartzen lagundu zion eta Iruñean bizi den konfiantza handiko bere laguna –nor den ez dakiguna– jakinaren gainean jar dezala; bigarrenik, bere aitarentzat edo herriko Erretorearentzat, orobat, gutun bat egin dezala bere erabakia onez har dezaten; hirugarrenik, lagun diezaiola lanpostu egoki bat bilatzen,

R. M. Azkueri bere portaerari buruzko txosten bat, *de moribus* deitzen zitzaiona, eginez edo, jesuiten artean, aita Julian Egiarekin euskal gaie-tan jardunez, edo eskolak ematen, edo antzeko beste zer baitetan; lau-garrenik, Donostian irten dadila.

Irteera prestatzeari begira egindako gutun horren ondoren, aita Probintziala Erromara doala eta, beste gutun bat egiten dio 1923ko abuztuaren 30ean, honako proposamen honekin: “Yo no quisiera, y es otro sueño, no quisiera más que ir con V. R. y hablar cara a cara con él. Si le habla, haga la caridad de decirle por última vez que me promueva; si no quiere, me ocurre todavía poderme negar a firmar las dimisorias, como efectivamente puedo (Acta S. Sedis, año 1922, n° 14, pag. 501). Con esto revivirá la orden de trasladarme a Logroño en término de ocho días, a lo cual me puedo también negar, porque no consta que el Superior me pueda mandar cosa tan heroica y que según eso yo falte al voto ni a la perfección de la obediencia”. Etsipenaren gau beltzean esperantzaren azken argia pizten zaio. Lagundiko moralista ospetsu batek ematen dio horretarako bide, errekurtsio berri batzuk azaltzen dizkiolarik: “En mi posible alucinación, he obtenido el dictamen de un eminente moralista”. Ametsa da, haluzinazioa, berpizten zaiona edo, hobeto esanda, biziarazten diotena. Lehen aipatutako irteeraz, hala jakinarazten dio aita Probintzialari gutun-oineko oharrean, bere aitak bakarrik daki. Ustegabeen bisitatzera etorri zitzaion batean esan zion hitzez.

Erroman aita Jeneralaren aurrean mintza zedila eskatuz egindako proposamenak ez zuen segidarik izan. Orixek, aita Probintzialari egiten dion 1923ko irailaren 23ko azken gutunean, beroni eskerrak ematen dizkio haren alde egindako gestioarengatik. Irten aurretik, aita Jeneralaren aurrean bitartekariarena egin dezala eskatzen dio, apalki eta arrenka eskatzen ere, hauxe proposatuz: “... desearía obtener del P. General, que condescendiendo él a pesar de aquella negativa que sabe, me dejase aquí con alguna ocupación de los que otras veces he tenido. A ver si se lo propone V. R., que Dios se lo pagará. Dígale que se lo pido por lo más santo que existe, y en especial por S. F. Javier en cuya casa, aunque indigno, vivo; por tantos HH. amadísimos de la Provincia, por mi familia, por mi hermana religiosa, por tantos amigos de fuera que lo sentirán en el alma; en fin por mi amor a la vocación. No puedo proseguir”.

Orixek hemen argudio sentimentalak erabiltzen ditu lortu nahi duena lortzeko. Hautsita dago, bere nortasunean erabat desegina.

Ordurako eukaltzaleen artean aski ezaguna zen, “De mi vida externa” dokumentuan aitortzen duen bezala, zoritxarrez ezagunegia, eta honek are mingarriagoa egiten zion irteera: “Digo desgraciadamente, porque si yo hubiese pasado inadvertido no me hubiera dolido tanto. Ya había recibido, a raíz del primer artículo escrito en la *Revista Internacional*, una carta de don Julio Urquijo en que me trasmitía el juicio favorable de A. Meillet en la *Revue Linguistique* acerca de mi trabajo. Don Juan Carlos Guerra me había consultado a Carrión –él me creía en el País– un punto de nuestro Folklore que yo había dejado caer en el *Jesusen Biotzaren Deya*. De Oña me permitieron ir a los días vascos de Durango, señalándome la Academia Vasca dos trabajos en el programa. Me habían nombrado Correspondiente de ella, nombramiento que el P. Bianchi no me notificó, y no pude agradecer a la corporación. Se agravaba, pues, la causa de mi vergüenza”.

Ez dakigu zehaztasunez Orixek noiz –zein egunetan, alegia–, utzi zuen Lagundia, baina bai noiz sinatu zituen irteteko agiriak Xabierren: 1923ko irailaren 29an. Orixeren jesuitekiko arazoa bukatua da. Nagusiak “obediencia santuaren” formulara joko du kanpora botatzeko, bortxa morala erabiliz: “Me obligaron a intercalar de propia mano en la doble copia de la fórmula de las dimisorias, la frase *sua sponte*, por su espontánea voluntad. El lector juzgará de la verdad de esto, y del valor de una firma arrancada *vi et metu*. Ni fui expulsado ni salí por mi voluntad”. Hala dio “De mi vida externa” dokumentuan.

Orixek, batetik, ez baitzuen arrazoirik ikusten kanpora bota zezaten eta, bestetik, bortxa moralaz baliatuz kanporatu baitzuten, bere barruko izatean, beste edozein jesuita bezain jesuita sentituko du bere burua jesuita izateari utzi eta gero ere. Saubiongo dokumentu horretan sentimendu hori azaltzen du: “Hoy más valor doy a ser en fuero interno tan de la Compañía de Jesús como antes, que a ser jesuita como algunos; como aquel que los seminaristas de Comillas caracterizaron diciendo que el P. X. había entrado en la Compañía, pero que la Compañía no había entrado en él”. Esan zezakeen, bai, aita Santi Onaindiari gutunean bidali zion hura: “... fue despedido como San Luis Gonzaga y San Francisco Regis”. Esan nahi baita, Lagundiko nagusiek errugabe bat, erlijioso zintzo bat, mistiko bat, kanporatu zutela.

Mila bider galdetu zuen arren, zergatik kanporatu zuten jakin gabe kausituko da kale gorrian orexarra. Estimuz handitan daukan aita

Vilallongaren ahoan jartzen dituen hitzak aurkitzen dira pasarte honetan: “Voy a repetir las palabras que me dijo el último Provincial, santo varón y perfecto caballero, P. Gabriel Vilallonga: ‘No sé yo la causa porque nuestro M. R. P. General no le promueve a Vd. a las sagradas Ordenes. Usted es observante y... (me da rubor transcribir el otro adjetivo elogioso). Lo que tengo orden de decirle de su parte, que su decisión no obedece a la causa vasca’”. Ez dakigu zertara datorren aita Probintzialaren lekuz kanpoko “excusatio” antzeko hau, zeren berak, bere aurreko nagusien antzera, oso ondo baitzekien zergatik kanporatu zuten; Orixek, ordea, ez. Eta mundu honetatik ere halaxe joan zen, jakin gabe, azken judizioan enteratuko zen esperantzarekin. Halere, bazekien, eta honetan nahikoa ziur zegoen, erabakia aita Jeneralaren, aita Bianchi eta Carvajalen artean gauzatu zela, zeren, berak oso dotore esaten duen bezala, “de Roma viene lo que a Roma va”.

Orixe eta Jesusen Lagundia

Orixe ohilduak zer pentsatzen ote zuen Jesusen Lagundiaz? Garrantzitsua da galdera hau egitea, zeren, sarritan, pertsonarteko edo lagunarteko harremanak zakarki eteten direnean, maitasuna gorroto bihurtzen baita, adiskidetasuna erreminean. Zazpi urte beltzak pasa eta gero, orain bizitza laikoan aurkitzean, zer-nolako sentimenduak egosten ote ziren Orixeren barruan?

Alderdi subjektiboari hain irekia den ataltxo delikatu honetan sartzean, Orixek bere aburuak bi zatitan banatuta azaltzen ditu “De mi vida externa” aipatuan. Jesuita batzuek bera nola ikusi izan duten esan ondoren, berak haietako batzuek zer pentsatzen duen zehaztera pasatuko da.

Lagundian nagusi batzuek Orixek nola epaitu izan duten azaltzen arituak gara orain arte. Baina Orixek bazituen jesuiten artean lagunak ere eta hauek esanda jakin zuen, jadanik kanpoan zegoela, nola nagusiei protesta-gutun bat egin zitzaizen bidegabeki erabilia izan zelako salatuz. Bartzelonatik, Txinara zihoan eta hango ateetan hil zen Ramon Urarteren gutun bat hartu zuen, eta hor, besteak beste, hauxe esaten zion: “Con gran pesadumbre me he enterado de su caso. *Perdone Vd. como hacen los santos, que tendrá mucho que perdonar*”. Falangistek zakuratu zizkioten hainbat dokumenturen artean, jesuitengandik har-

tutako gutun anitz zituen Orixek, eta horietan, berak dioenez, estimu handian omen zeukaten eta literaturari buruzko gaien hainbat kontsulta egiten omen zizkioten. Kontsultak nori egingo eta, ezgaitua izateagatik kanporatua izan zen bati! Horrelakorik! Eta, azkenik, nazionalismoaren arazoa aitzakia hutsa zela aditzera emateko, gaztelau batzuek begi onez ikusten zutela ere esaten du. Komunitatean bizitzeko gozagaitza zen hark, bada, bazituen bere adiskideak ere Jesusen Lagundian. Izenak? Patxi Altunaren zerrendan, hauek aipatzen dira: Estefania, Areitio, Olabide, Leturia, Belderrain eta Argarate.

Eta Orixek bere garaiko jesuitak nola juzgatzen dituen? Ez Lagundia bera, baizik Lagundiko batzuk epaitzen ditu. Aski zorrotz, gainera. Bere izen eta guzti. Goikoen artean, aitaren irudia baino gehiago politikariarena nagusitu izan dela irmoki baieztatuko du. Eta politikariengan buru, aita Jenerala. Orixek oso zorrotz hartzen du haren izena Saubiongo bere testamentuan: “En mi caso no se portó leal y honradamente. Había que defender a todo trance a los Superiores tuviesen o no razón. De eso conocí muchísimo conmigo y con otros. En la serie de cartas que nos cruzamos hice ver claramente su mala fé, transcribiéndole textos literales suyos en que se contradecía entre unas cartas y otras. En uno de los textos de la contradicción concurría una falta garrafal de latín que se la hice notar con (sic). El P. Loinaz, echado de mala manera de su cátedra de la Gregoriana y encerrado de Profesor en Oña, me dijo que el P. Ledóchowski era un político maquiavélico a quien temía toda la Curia Pontificia. Estuvo a punto de ser creado Cardenal por si le quitaban del puesto, pero no pudieron conseguirlo. Todos los vascos saben que cuando el alzamiento dió orden a todas sus publicaciones de hacer campaña franquista”. Makiavelikoa, arribista, frankista..., zer ez zen izan hura Orixeren begitan! Eta besteak? Hainbeste izen dira aipatzen dituenak, hara hor pasarte bere osoan, galtzekorik ezer ez da eta: “E. P. Carvajal era muy buen religioso hasta que le hicieron Provincial, pero el cargo le hizo receloso y político. Para mi juicio directo o indirecto de los Superiores que he conocido, el P. Luis Martin y el P. Vernz dejaron buena memoria de gobierno paternal. Pasando a los Provinciales, el P. Bianchi político, el P. Carvajal político, el P. Leza amo, el P. Vilallonga Padre. Rectores míos: el P. Cesareo Ibero Padre, el P. Cid Padre, el P. Garmendia Padre, el P. Zameza Padre, el P. Arin Padre, el P. Arregui Padre, el P. Echenique fiscal, el P. Armisén Padre. Entre los súbditos los hay muy virtuosos, y muchos”. Bi Probintzialak eta aita Echenique salbu, beste nagusiak ondo jartzen

ditu eta horiei buruzko iritzia positiboa da. Eta, azkenik, bukaeran dakarrena benetan adierazgarria da, Lagundiaren pabilioia oso goran uzten baitu: “Por lo que he observado –y conozco muchos religiosos de otras Órdenes– al menos en comportamiento fuera de casa, los jesuitas me merecen mucho mejor concepto en virtud. Dentro de casa dudo yo mucho que la virtud media de ninguna Orden supere o lleve a la de los jesuitas”.

Jesuitetan jasanak munduan inoiz jasan ez bezalakoak izanik ere, guraso batek bere haurra zapuzten ez duen bezala, Orixek bere burua Jesusen Lagundiaren semekotzat sentitu zuen. Agian laikotu eta gero gehiago barruan egon zenean baino.

Bizitzako itzal handia: apaizgorik eza

Amarik eza bere bizi guztiko hutsaldia den bezala, Lagunditik bota eta apaiz ez izatea bere bizi guztiko itzal handia izango da. Gertakari honek inoiz pentsatu izan den baino ondorio latzagoak ekarriko dizkio. Ondorio latzak, esan dugu. Eta biziki grabeak, gehituko genduke, bizitza mistiko sakona bizi zuen harentzat. Zeren, kanpora botatzearekin betiko kondenatua bezala sentitzeaz aparte, apaizgoari datzekion “ex opere operato” izeneko graziaz gabetua egoteak, espiritu-bizitzari dagokionez, grazi iturri aberats batez gabetua egotea suposatzen baitzuen. Mundu laikoan bizi dela ere, beti eramango du berekin apaizgoaren irrika. Horregatik, hil aurreko urtean edo, Jose Mari Arnaldek esan zigunez, apaiz egiteko eskaria zuzendu omen zion Donostiako Font Andreu apezpikuari. Apaizgoa amestuz bizi izan zen bere espiritu-bizitza koroatu eta sagartzeko, baina Lagundiak ukatu zion grazia hori ez zuen lortu hil aurreko eskari horretan ere. Euskaltzale gisa, zahartzaroan bederen, iritsiko da euskaltzain osoa eta idazle saritua izatea; erlijioso gisa, ordea, nahiz eta horretarako borondatea espreski agertu, ez bide du lortuko berak mistikako idazlan guztiak baino zerbait gehiago estimatzen zuen hori. Zer? Apaizgoa. Azkenean, “Getsemani” poemari idatzi zuena kunplutuko da:

“Etsi garaia eldu zanean
biotz osoz nizun esan:
‘Nik ez, Zuk naia gerta dedilla
zeruan eta lurrean’”.

Mindua zegoen. Baina min hori Jaunak bidalia baitzen, onez hartuko du, garizumako penitentzi espirituak eskatzen duenaren arabera:

“Urteroko Garizuma au dut nere xokoa,
zazpi urtez ain samina, zazpi laukoz goxoa.
Zuretzat izan zan miña, niretzat miñ-ondo.
Zernai gaitz gerta dakidan, Getsemani’n gogoa”.

Hain etsia den “miñ” hori terapia mistikoaren bidez gozatzen du. Gorrotorik gabe. Jarrera positiboa hartuz. Bi azken bertso hauek 1952an idatzi zituen, bizitza laikoan 29 urteko parentesi luzea egin ondoren, eta Amerikako barne-giro barean.

Minak min, Orixek asko zor dio Jesusen Lagundiari. Bertan lortuko du bere prestakuntza intelektuala, bertan landuko bere euskal lumina. Aita Lardizabal segurarrak sartu omen zion euskaltzaletasuna barruan, idazteko dohain bereziak ikusten zizkiolako. “Orixeri berari entzuna besterik ez tut emen esaten”, dio Andima Ibinagabeitiak (1989, 97). Aipaturiko aita Lardizabalek sortua da, beste jesuita batzuekin batera, *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria 1917an, 10 urteko bizitza izan zuena, 1937an desagertu baitzen. Orixek baditu 28ren bat lan aldizkari horretan argitaratuak 1917-1922ko epealdian, gehienak olerkiak. Lankidetzeta serioa eta kalitatezkoa eskaini zion Orixek epealdi horretako aldizkari horri eta, Andimak aitortzen duenez, “inoiz gero ez zuen, lenengo bost urteetako mailarik iritxi al-izan aldizkari orrek (1917-1922), Ormaetxea trebetasunari eskerrak”.

Baina Orixek *Jesusen Biotzaren Deya*-n argitaratzen hasi baino lehen ere, emanik zituen zenbait lan. Guztira, 1915-1917ko epealdian 16ren bat baditu burutuak, horietako batzuk *Jesusen Biotzaren Deya*-n argitara emanak, eta beste batzuk, berriz, geroagoko bilduman, *Euskaldunak poema eta Olerki guziak* liburuan datozenak, hain zuzen. Jesuita izan zeneko garai honetan egindako poesietan kanta zaharrak eta klasiko grekolatindarrak dauzka eredutzat. *Jesusen Biotza Deya*-n argitaratutako poesiak ez dira pertsonalak eta bai erlijiosoak; *Euskaldunak poema eta Olerki guziak* lanean datozen orduko poesiak, berriz, hauek bai, hauek pertsonalagoak dira eta hauetan Uitzu eta Oresa askotan agertzen dira. Aipaturiko jesuiten aldizkari honetan argitaratutako lanen artean bereziki aipatzekoa da aita Eusebio Nierembergen *Jainkorazko biziera ta ongienera eldutzeko lasterbide bikaña* izeneko aszetika-liburuaren itzulpena. Itzultzeko zergatik hautatu zuen liburu hori?

Dirudienez, egile horren libururik onenetakoa izateaz gain, zaileneta-
koa ere bera zelako. Hala dio Andimak: “Zailtasunak eraginda nunbait
ere iarri zan lan ortara ‘Orixe’, euskeraren gaitasunak bulartzeko duda-
rik gabe, orobat arima zintzoen bazkatzeko ere”. Beste itzulpenik ere
egin zuen: “Joanes’en Berri Ona”, grezieratik zuzenean itzulia eta argi-
taratutako bakarra, baina, dirudienez, beste hiru ebanjelioak ere itzuli
zituen; “Zaldia”, Virgilioren “Georgikon”etik itzulia, eta Horazioren
“Beatus ille”, euskeraz “Nekazaritza” deitua, biak latinetik itzuliak eta
Jesusen Biotzaren Deya-n argitaratuak; Homeroren “Lasterkariena” eta
“Burrukalariena”; Jorge Manriqueren “Copla” sonatuak eta Mara-
gallen “La Vaca cega”, euskaraz “Bei itsua”. Guztiok Jesusen Lagun-
dikoa izan zen garaikoak dira. Orixe ez zen esku-hutsik irten Jesusen
Lagunditik. Andima Ibinagabeitiaren hitzekin esateko, “listor-kabi ar-
tatik” irten zenean, Orixek 35 urte zeuzkan eta, nahigabeak nahigabe,
euskara aberatsaren zama gozoa zekarren bizkarrean mundura.

SEIGARREN ATALA

JESUSEN LAGUNDITIK OHILDUA

Aurreko atalean Orixeren curriculumaz aritu gara, Orixe ikasleaz eta maisu txikiak. Edozein kongregazio edo ordena erlijiosotan, garrantzitsua izanik ere, garrantzitsuena ez da erlijiosoaren prestakuntza intelektuala, haren portaera morala baizik. Ordenak erlijiosogaia partaidetzat har dezan, honek hari dagokion espiritualitate espezifikoaz hornitua behar du egon. Jakintsu izateak ez du deus balio erlijioso ona ez bada, umila, garbia, xaloa eta, batez ere, esanekoa ez bada. Laburki esanda, komunitate-bizitza gidatzen duen arau-betetzaille leiala behar du izan.

Lagundian batzuk haren ikasketarako gaitasuna formalki ukatzen ahaleginduko badira ere, gaur, utzi duen lana ikusi eta gero, ezin esango da buruz argia eta indartsua izan ez zenik. Garai hartan, Lagundian bertan ere norbait zen, euskal letretan gerizpe handia eginez zetorren norbait. Hala izaki, zer gertatzen da Lagunditik bota dezaten? Jesuitek talentuak sobera ote zeuzkaten, Orixe bezalako euskal luma trebatu bat bazter utz zezaten?

Galdera horren ingurukoak osatuko du gure oraingo jarduna. Atal honi ezarri diogun zereginari ekin baino lehen, ordea, aurre-ohar osagarri bat edo beste egin beharrean gaude. Lehen esan bezala, aita Patxi Altunak haren mendeurrenean (1988) Uitzin egindako hitzaldian, zergatikoen bila abiatuta, bi ondorio aterako ditu. Lehenengoa da –hurbilekoa eta, agian, erabakigarriena–, Orixe inozoak Vatikanoko Erlijiosoan Kongregazio Sakratura gutun bat igorri zuela, 1922ko Eguberritan edo, Teologiako bigarren urte-bukaeran apaiz egi-

teko dispensa eskatuz, Zuzenbide Kanonikoko 976. kanonak 2. atalean dakarrenaren arabera. Esan behar da, artean, laugarren urtea bukatzean apaizten zirela jesuitak. Geroxeago etorri zen hirugarren urtebukaeran apaizteko ahalmena. Baina Lagundiko nagusiak asaldarazi zituen, batik bat, hau izan zen, hots: Orixek, etxeko trapuak astinduz, zuzenean Vatikanora idazteko ausardia izan zuela, eta aita Jenerala, hori jakitean, sutan jarri zela. Bigarrena –urrutikoa eta, agian, sakonena–, beste hau da, hots: “buru-eritzat” zeukatela. Hauek lirateke, haren ustez, egiazko arrazoiak.

Azken orduko zertzelada horiek egin eta gero, gatozen gaira. Pentsatzen dugu, abiapuntu gisa *a priori* arrazonatuz, Orixe ohiltzeko erabakia hartu zuten nagusiek izango zituztela beren egiazko arrazoiak, nahiz eta, batzuetan, horrelako deliberamendu drastikoak hartzerakoan, ezkutukoak agerikoak baino egiazkoagoak izaten diren. Arrazoi horiek arakutzen saiatu nahi genuke hemen. Beraz, gertakarien azalpena bukatutzat emanik, berorien zergatikoak argitzen jarriko dugu geure arreta. Badakigu, oso ondo jakin ere, errazago dela gertakarien azalpen soilki kronologikoa egitea, beroriek interpretatzea baino. Aukera honek, batetik, errakuntzarako arrisku handiagoa suposatzen du eta, bestetik, baita maila pertsonalean gehiago konprometitzea ere. Halere, arriskuak arrisku, aberatsa ez ezik, beharrezkoa ere baderitzogu jokabide horri, ikerketaren alderdi hau baita, hain zuzen, gogoeta soziologi-koari espezifikoki dagokiona.

Bitan banatuko dugu geure ikergaia. Lehen ekinaldian, prozedura negatiboa erabiliz, azalduko da zein arrazoi ez zaizkigun iruditzen baliozkoak, eta zergatik. Bigarren ekinaldian, ildo positibotik joanki, Orixe Lagunditik ohiltzeko erabakian egon zitezkeen arrazoi funtsezkoenak aipatuko ditugu.

Arrazoi hutsalak

Dokumentuetan ikusi ahal izan denez, Orixeri aurpegiratzen zaizkion akusazioen artean, oinarrizkoenak hauexek dira: “bizkaitarra” zela, adimen-lanetarako gaitasunik ez zuela, nagusien kontra marmarka aritzen zela, judizio praktikoa gutxi zuela eta, azkenik, ero bihurtzeko arriskua zeukala.

Bost arrazoi. Eta nolakoak! Nolanahi ere, potzoloegiak ziren, Orixe, aho-mutu eta luma-kamuts, itsu-itsuan onar zitzan. Horregatik,

akusazioak beregana etorri ahala, beroriek berehala gezurtatuko ditu agintarien aurrean. Berehala eta aspertzeke. Izango da, alajaina!, bere bokazioari lehenago etsiko zionen bat.

Lehen akusazioari buruzkoa bigarren ekinaldirako utzita, errepara ditzagun besteak, funtsik badutenetz ikusteko.

Bat. Adimen-lanetarako gaitasunik ez zuela, hots, “gizon ez-gauza” zela? Sinestezina benetan! Ezin da ulertu, azpikeriaz eta gezurrezko argudioz ez bada, nola jar dezaketen Orixeren bizkar tamaina horretako akusazioa, gertakarien errealitateak oso besterik kantatzen baitzuen. Oso goratik kantatzen, gainera, orexarraren alde.

Ikasle izan zen garaian, osasunaren aldetik zailtasun larriak ezagutu arren, duintasunez gainditu zituen bere ikasketak. Irakasle gisa ere bere mailari eutsi zion, zeren, Tuteran Prezeptiba eta Literatura erakusten egindako urtean, aurreko ikasturteko irakaslearekin ez bezalako notak atera baitzituzten bere ikasleek Logroñoeko Institutuan: bederatzik bikain, bi ohorezko matrikula, hamazortzi oso ongi eta beste guztiak nahikoa. Xabierren, latin-sintasia esplikatzen zeukan sistema pertsonala goraiapatuz, hango gai horietako irakasleentzat egindako hurrengo ikastaroan Orixe pedagogoen eredutzat jarri zuten. Bestalde, gauza jakina zen irakasleen artean Orixeren ikasleek arrakastaren ohera irabazten zutela idazketa publikoetan. Honek guztiak zer adierazten duen? Orixe irakaslearen trebetasuna, edozein lekutatik begiratuta ere, dudaezinezkoa zela. Emaitzak mintzo. Halere, baten Orixe irakaslearen porrota kantatzeko baino haren begi-bistako arrakasta ukatzeko prontoago zegoenik. Adibidez, Tuterako aita nagusia.

Euskal ikertzaile eta idazle gisa, seguru asko, Orixek parekorik ez zuen bere adineko jesuiten artean. Etxe-barrutik eta kanpotik zetozkion goralpenak, literaturan nahiz filologian egindako lanengatik. Gehiago hemendik handik baino. Julio Urkixo, Juan Karlos Gerra, Manuel Lekuona eta B. Eguzkitza baten bermea berekin zuen euskal kulturaren ate zabaletik sartzeko. Andima Ibinagabetiaren aburuz, *Jesus'en Biotzaren Deya*-k Orixeren lumarekin ezagutu zuen bere urrealdia. Beraz, intelektual eta idazle gisa, gizon publikoa genuen, bere itzala egiten zuen txapela zeraman euskal munduan. Ezagunegia bere gogorako, komentua uzteko ordua etorri zitzaionean, benetako beldurra baitzion, gorpuzta dardara bizian jarrerazteko moduko beldur izugarria, jende euskaltzalearen esamesari.

Zentzuzkoa ote da, Orixeren *curriculum* intelektual honi gainbegiratu labur hau eman ondoren, “gizon ez-gauza” zela sostengatuz

segitzea? Akusazio honek ez baitauka ez hanka eta ez buru, ez du non sostengaturik.

Bi. Nagusien kontra marmarka aritzen zela? Bai, egia da, Orixek berak aitortua baita, inoiz mingaina maxioka erabili zuela aita Eche-niqueren kontra. Nagusi honen kontra eta ez, akusazioak aditzera eman dezakeenez, nornairen kontra. “Fiskala” deitzen dion Tuterako nagusi hark begitan hartu zuen, hain begitan, ezen bizitza ezinezkoa egiten baitzion. Beraz, ez da harritzekoa harekin arazo pertsonala izatea. Horregatik, ez dirudi zilegi denik kasu singular batetik ondorio orokorrak ateratzea.

Zergatik, orduan, akusazio hori? Nagusia nagusi da eta, geroxeago ikusiko denez, hari obediencia zor zaio. Begiko ez duen menpeko-
ren bat deskalifikatu nahi izanez gero, aski du argudiatzea ez dela esane-
koa edota marmarka aritzeko ohitura duela. Etsaia armarik gabe
uzteko taktika abil bat besterik ez da hori. Abila eta oso praktikoa.
Jesuiten espiritualitatean, aita Alonso Rodríguez jesuitaren *Ejercicio de
perfección y virtudes cristianas* liburuan (1954, 1525) datorrenez, mur-
murazioa obediencia-aren atalean sartzen da eta, inoren kontra mar-
marka aritzean, Jainkoa eta nagusia iraintzen direla eta bestearekiko
iritzi ona gutxien dela eta, azken batean, norberaren kaltetan doala
esaten zaigu: “Añádese a lo dicho que no solamente hace uno en esto
injuria a Dios y al superior, sino hace también mucho daño al súbdito
a quien dice la tal afirmación, porque desacredita con eso al supe-
rior, y disminuye la causa que cobre alguna manera de aversión o desa-
mor con él. Con lo cual se menoscaba mucho la autoridad y fuerza de
la obediencia, y suele ser causa que el otro no se aproveche de cuanto
el superior le dijere o hiciere con él, que es cerrarle la puerta para su
aprovechamiento, que ha de ser por medio del superior”.

Testu horretan ikus daitekeenez, murmurazioa menpekoari egoz-
ten zaio, honi batik bat, eta ez nagusiari. Diskurtso honetan azpima-
rratu nahi duguna adierazteko, balio dezake ekuazio honek: obediencia =
nagusia, murmurazioa = menpekoa. Hau hala bada, obediencia-
ren giltzadunari nork eskatzen dizkio kontuak? Jainkoak, erantzungo
da. Ederki. Baina nola Jainkoak, baldin, geroago ikusiko den bezala,
Haren ahotsa nagusiarena bada? Azkenean, bueltaka-bueltaka, murmurazio-
arenak obediencia arazoaren sare-barrura garamatza. Beharturik gaude,
bada, murmurazioarekin hasitako hariari obediencia-arenean segida ematera.

Hiru. Ikasleen begirale izateko, judizio praktiko gutxi omen due-lako, ez duela balio? Jesuitetan erlijioso gaitu asko dira, inspektore edo begirale gisa porrot eginik ere, orain nagusi direnak, erantzungo du Orixek. Erlijioso ona izateko, ez da derrigorrezkoa begirale ona izatea. Onartzen du, aldez aurretik, bere izaera ez dela diziplina betetzeko eta eskastasun hori osasun makalari egozten dio. Aita Leza probintzialak ikasleekin bigunegi jokatzeko zuela jakinarazi zion. Bigunegi? Ez beti, pazientziak gaina jotzen zionean, eskuak dantzatzeko eta zigortzen zekiena baitzen. Kasuren bat edo beste ezagunak dira. Astelehen batean, Pio Montoia latineko bigarren urtea egiten ari zela, ikasle erdal-dun batek zerbait izan zuen Orixerekin, eta honek, bi aldiz pentsatu gabe, berebiziko ukabildura erantsi omen zion belarrarian, baina hain suerte txarrarekin, tinpanoa ukitu baitzion. “Horrelako jenioa gutxitan ateratzen zitzaion” esanez bukatu zuen bere kontakizuna Pio Montoia. Beste behin, Lagarejos seminarista goizeko freskuran Ikastetxeko pasabidean zigortuta utzi zuelako, jokabide horretan nagusiek pertsona psikologikoki desokeratu baten egintza bat ikusi bide zuten, erotzat hartzeraino. Eta diziplina ezartzeko gizon fisikoaz baliatzea autoritate moral nahikoa ez izatearen seinale izaki, Orixek, nagusien aurrean, alde bietatik egiten zuen erren: bigunegi izatetik adina gogorregi izatetik. Portaera-gidaritzat “in medio est virtus” araua baitzegoen ezarria, Orixeri, izaera onak nahiz txarrak lagundu, begirale txarra izan beste biderik ez zegokion.

Lau. Ero bihurtzeko arriskua zeukala? Hala jakinaraziko dio aita Biktoriano Larrañagak 1934an, honek aita Bianchiri entzunda. Geroztik, Patxi Altunak ere hala egiaztatu du. Zergatik eta, arestian esan bezala, Lagarejos seminarista modu horretan zigortu zuelako. Horregatik bakarrik? Datu berezirik ez da ematen. Dena den, akusazio honetan larriena da, egintza horrek ondorio mingarria ekarri ziola Orixeri, Teologia ikastera Oñara joan aurretik aita Leza probintzialak Bilboko López Albó alienistarengana joateko agindua eman baitzion, nerbioak mia ziezazkion. Noiz eta, osasunez sekula baino hobeto zebilenean.

Honi eta hari entzun izan diogu, bere sorterrian bertan eta handik kanpora, gizon berezia izan zela: bitxia, arraroa, txotxolo samarra, inuzentea. Eroa ez, baina ezta erabat kabala ere. Hortxe mugan. Patxi Altunak ere, ez gutxi, Orixeren basurde-izaera azpimarratzen du bere lanean. Baina bestelakorik ere entzun dugu, noski.

Gu ez gara nor psikiatriaren eremuan ezer esateko. Baina gizon berezia izatetik erotzat hartzera jauzi handiegia dagoela iruditzen

zaigu. Bestalde, aburuak aburu, Michel Foucaulten *Histoire de la folie à l'âge classique* liburua irakurri duenak badaki “normalaren” eta “patologikoaren” arteko mugaketa hori arreta handiz begiratu beharrekoa dela, zeren gizarteak eta, ondorioz, herri soilak normalizat daukana ez baita beti normalena izaten.

Banan-banan iruzkindu ditugun akusazio horiek guztiak ez zaigu iruditzen funtsezkoenak izan zirenik Orixe Lagunditik ohiltzeko orduan. Nahiz dokumentuetan hala etorri, axalekoak edo bigarren mailakoak direlakoan gaude, agintaritzaren diplomaziari aipatzea komeni zitzaizkionak, alegia. Funtsezkoagoak –egiazkoagoak, alegia–, besteok dauzkagu, hots: euskal nazionalismoa eta autoritarismoa. Hauetara gatzoz segidan.

Euskal nazionalismoaren harra

Nazionalismoa, politika-bizitzara burgesiaren garaipenarekin batera sortzen den unetik beretik, egiazko gizarte-arazo bihurtzen da. Iraultza burgesak, Mendebaldeko Europan, jakobindar eiteko Estatu-nazioen zentralismoa ezartzen du, kasurik gehienetan nazionalitate eta gutxiengo etnikoen bizkar eta berorien nortasun politikoa deuseztuz. Gaur eguneko Estatu gehienak, izan, nazioaskodunak dira. Iraultza sozialistak, nazio-arazoa bere gordintasun osoan planteatzen zen Ekialdeko Europan nahiz Txina eta Viet Namgo koloni herrialdeetan, Estatu burgesen zentralismoa zenbait kasutan eztitu bazuen ere, praxi politikoa, Leninek aldarrikatutako langile-internazionalismoaren printzipioa nagusitu izan da nazionalitate zapalduen gain. Aintzakoztat hartzekoak diren diferentziak diferentzia, herrialde burgesetan bezala sozialistetan ere, Estaturik gabeko hainbat nazio historiko bada, eta horietako batzuk nazio-askapenaren aldeko borrokan gogor dihardutenak ditugu. Irlanda eta Euskal Herria kasurako, guri etxekoenak zaizkigun batzuk aipatzearren.

Nazionalitateen printzipioa ez al zuen, bada, iraultza burgesak aldarrikatu, eta autodeterminatzeko eskubidearena, aldiz, iraultza sozialistak? Zertan gara, beraz? Printzipioen mailan ez da eztabaidarako lekurik. Gertatzen dena da, nazioarteko erakunde politikoen legeriak, ONUkoak adibidez, bertako Estatu partaideek une jakinetan dauzkaten interesen arabera funtzionatzen duela eta, ondorioz, jadanik ezarritako Estatu-nazioen subirotasuna ez dela auzitan jartzen. Eta auto-

determinazioa aplikatu, deskolonizazioaren kasuan bakarrik aplikatu izan da, eta orduan odol asko isuri ondoren.

Marxismoak bere zailtasunak dituen bezala internazionalismoa eta nazionalismoa era harmoniosuan ezkontzeko, Vatikanoko diplomaziak ere, nahiz eta maila teorikoan herri-eskubideak defendatu izan, gutxiengo etnikoei dagozkienak barne, praktikan ez bide du jakin izan katolizitatearen printzipioa eta Eliza partikularren errealitatea barne-gaztazkarik gabe gainditzen. Unibertsalismoaren izenean lekuko Elizak kokaturik daudeneko gutxiengo etniko eta nazionalitateen zapalketan parte hartzen du. Zergatik? Funtsean, eliz hierarkiaren banaketa geografikoa botere politikoak finkatutako lurralde-batasunaren arabera egituratua dagoelako. Lekuko Elizak, beraz, ezarritako patroli politikoak agintzen duenaren administrazio-eredura makurtuak aurkitzen dira. Horregatik, nazio-arazoa erabaki gabe dagoen herrialdeetan, nazionalismoa oztipo bihurtzen zaio Elizari. Eta ez Estatuari baino oztipo txikiagoa.

Askapen nazionalaren aldeko mugimendua ematen den lekuetan, Erromako Aulki Santuaren jarduera diplomatikoak, ohiki, jarraiko irizpide hirukoitz honi segitzen dio: lehenik, ezarritako boterearekiko atxikimendua aldarrikatzen du eta, maila honetan, ez ditu ezagutzen legez lortutako legezketasunik ez duten herri-indarrak; bigarrenik, bortxa-bidezko iraultza kondenatzen du eta, maila honetan, gizarteko aldaketa politikoak poliki-poliki ezarritako ordenaren barruan egitea proposatzen; hirugarrenik, Elizak politika-mota orotik aske izan behar duela argudiatuz, egoera gatazkatsuen aurrean, neutraltasunaren mezua luzatzen du, unean uneko egoera politikoaren arabera.

Nazio-arazoari buruzko literatura asko laburtuz egin dugun azalpen horrek, zinez uste dugunez, beste ezerk baino gehiago lagunduko digu euskal nazionalismoak Orixeren kasuan izan zezakeen egiazko zeregina argitzeko ahaleginean. Azken batean, testuinguru orokor horren zelaian gauzatzen da Espainiako Estatu multinazionalaren errealitate politikoa eta, ondorioz, baita Euskal Herriko Elizaren nahiz komunitate erlijioso guztien portaera politikoa ere.

Euskal nazionalismoa, bere bertsio modernoan, XIX. mende-bu-kaerako fenomeno bat da. Eta nahiz eta sorrerako sabindar nazionalismo hura errotik katolikoa izan, Elizarekin talka egin zuen, bi ahari borrokalarien antzera. Egoera gatazkatsu hau zehatzago aztertzeak asko argituko baitu geure ikerbidea, lehenik, eliz hierarkiaren jokabidea ikusiko da, segidan, testuinguru zabalago horren anparoan, Jesusen Lagundira pasatzeko.

XIX. mendeko eliz gertaerarik nabariena, Euskal Herriari dago-kionez, Gasteizko elizbarrutiaren sorrera izan zen, 1862ko apirilaren 28an burutua. Elizbarruti berri honen barruan, ordurarte Kalagorri, Iruñea, Santander eta Burgoskoetan barreiatuta zeuden Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko parrokia guztiak sartu ziren. Aita Santu Pio IX.ak eraiki zuen, 1851ko konkordatuaren ondorioz eraiki ere, orduan berantolatu baitzen Espainiako Eliza.

Eukal Elizaren berrantolaketa honek kezkarik sortu zuen –batez ere, Kalagorri–, Errioxako elizbarrutitik 553 parrokia banantzeak euskal partikularismoari edo, gertakari horri buruzko irakurkerta politikoan, euskal nazionalismoari leku gehiegi ematea suposatzen zuela pentsatzen baitzen. Santo Domingo Galtzadako Justo Barbagero abatak, asmoa burutu aurretik, txosten bat idazten dio Grazia eta Justiziako Fernández Negrete ministroari 1861eko abuztuaren 5ean eta bertan, bigarren mailako beste gogoeten artean, hiru probintzia horiek bateratzeak lekarzkeen ondorio politiko negatiboaz mintzatzen zaio: “Teniendo los vascongados Obispo de su habla, Cabildo y párrocos de su habla, pastorales, sermones, libros de su habla se aferrarán más y más en ella. Tratarán de extenderla por los límites de las tres provincias, ganando el terreno perdido, y haciendo de ella una lengua nacional; y si a ello se agrega la mayor afición que cobrarán sus costumbres, tradiciones, fueros, que en cierto modo se autorizan y sancionan, se habrá contribuido a formar en España una nacionalidad distinta, y una base de separación política para los que más adelante quisieran invocar el principio de las nacionalidades”.

Abatak agertutako kezka hori areagotu zezakeen beste daturik ere bazen: alegia, elizbarrutia eraikitzeko Bulak bi klausula zekartzala, eta horietako batek eliz agintariaren izendapena Euskal Herriko semeen artean egitera behartzen zuela. Nolanahi ere, bidezkoa zenaren kontra, hezka horiek oro hutsalak gertatuko dira, zeren, José Cadena y Eleta nafarra (1906-1913) salbu, beste gotzain guztiak, Idiazabalgo Mateo Mujika 1928an izendatu zuten arte, arrotzak izan baitziren, hala nola Diego Mariano Alguacil y Rodríguez (1862-1905), Melo y Alcalde (1914-1917), Eijo y Garay (1917-1922) eta Zacarías Martínez (1923-1926). Gerora, 1950ean Bilbo eta Donostiako elizbarrutiak eraikiko direnean, gauza bera errepikatuko da: Gasteiza Bueno Monreal joango da, Aragoikoa; Bilbora, Morcillo González, Madrilgoa; Donostiara Font Andreu, Kataluniakoa. Vatikanoko II. kontzilioaren ondotik bakarrik ezagutuko ditu Euskal Herriak lekuko lehen gotzain euskaldunak.

Eliz hierarkia hori, gogoz eta moldez monarkia espainolari atxikia zegoenez gero, euskal nortasuna zertzen duten ezaugarrien etsai bilakatzen da. Ezingo ditu irentsi, adibidez, euskal gizartean goraka doazen nazionalismoa eta euskaltzaletasuna. Datuak? Adierazgarrienak apaiztzeke, hona hemen batzuk: Pitillasko José Cadena y Eletak, 1910ean, bataiokoa euskal izenak jartzea eta Angel Zabala-Ozamizen *Historia de Vizcaya* irakurtzea debekatzen du; Eijo y Garayk *Euzkadi* egunkari-ko zuzendaria eskomunikatzen du 1923an; Zacarías Martínezek Primo de Riveraren Diktadura aldeztu du 1923an eta politika nazionalista kondenatzen 1925ean. Eliza hierarkiko honek, beraz, unibertsalismoaren –kasu honetan, zehatzago esanda, espainolismoaren– ize-nean euskal berezitasunak zapuzten ditu, hauen artean, batik bat, bertako hizkuntza, euskal kultura, ohiturak, edozein herriri zor zaizkion eskubide politikoak, eta abar. Eta hau ez da guk bakarrik asmatua, eliz historiografian jasorik dagoen datua baizik: “Es claro que esos obispos eran designados de entre los clérigos más afines con el sistema canovista: y, consiguientemente entusiastas de la monarquía alfoncina. Hasta los tiempos de Don Mateo Múgica, obispo de Vitoria desde 1928, no hubo sensibilidad por parte de los obispos de Vitoria ante el hecho diferencial vasco”.

Eliz hierarkiarekin gertatzen denaren alderantziz, ordea, behe-mailako kleroa nazionalismoaren aldeko agertu izan da: “Ha sido generalizado el atribuir al clero el protagonismo de la predicación nacionalista”. Eta honen arrazoia da klero hori –batez ere, sekularra–, gehienbat euskalduna dela eta, herri xumetik hurbil bizi zean, herri-ara-zaok errezago ulertzen dituela. Gotzon Garateren testu-pare batean pentsatuz diogu honako hau, zeren irakasle jesuita honek, espreski klero sekularra, herriko apaizak eta erlijiosoak bereiztean, esaten baitu erlijiosoak euskal kulturarako oso txarrak izan direla. Eta hala izan dira, bere ustez, internazionalistak izan direlako, hots, kausa unibertsalaren aldekoak: “Erlijiosoak mundu guztian gaude. Nolabait guk internazionalismo faltsu bat egin dugu batzutan. Bestetan ez”. Eta geroxeago, frantziskotarren salbuespena egiten du: “Egia da ere frantziskotarrak lotuago ibili direla herriarekin eta euskal kulturarekin”.

Guk salbuespenaren katea dezente gehiago luzatuko genuke, beste ordena batzuk ere euskara bizirik gorde duten herrietan aspalditik errotuak egon baitira: kaputxinoak, karmeldarrak, pasionistak, beneditarrak, eta abar. Jesuiten kasua, beharbada, diferentea da. Erlijioso-etxe batzuk (Colegio de las Adoratrices, Asilo de la Sagrada Familia,

Instituto de los Ángeles Custodios, Sociedad de San Vicente Paúl, Hermanos de la Salle, eta abar), eta hauen artean jesuitak, kapitalismoaren garapenarekin batera, hiri industrializatueta kokatu ziren, batik bat, irakaskuntza eta beste gizarte-zerbitzuak euskara ezezaguna bezain arrotza zitzaion burgesia berriaren esanetara jarriz. Bilboko kasuan, José Villalonga industrialariak parte hartu zuen Deustuko Unibertsitatearen finantzaketan. Gotzon Garateren ondoko pasarte honetan argiago agertzen da jesuiten eta beste erlijiosoen artean ezartzen dugun desberdintasuna: “Bestalde, jesuita gehienak kolejiotik etorri gara, eta hauek ez ziren herri txikietan egoten, Bilbo, Tuter, Durango, Donostia eta holakoetan baizik. Euskaraz gutxi egiten zen lekuetan. Nik aitortu behar dut –eta beti esaten dut horrela, horregatik dut fama txarra–, jesuita bakar batzuk egin dutela euskararen alde. Instituzioak berak ez du benetan egin euskeraren alde egin behar zukeena”. Zentzu honetan, erlijiosoen eta apaizen arteko bereizketa ukatu gabe, gehiago azpimarratu beharko litzateke, agian, jesuiten eta beste erlijiosoen artekoa, Jesusen Lagundia baita, inor izatekotan, nekazal gizartetik baino hiri-gizartetik askoz hurbilago egon den ordena aristokratikoa: “Giro horretan, jesuitek beti hizkuntza ‘del Imperio’ erabili dute, konturatu gabe euskara bazegoela”.

Gotzon Garateren pasarte horiek eskura datozkigu Orixeren kasura itzultzeko. Orixe Jesusen Lagunditik ohildua izatearen arrazoia –ez bakarria, baina bai garrantzitsuenetakoa bat–, euskaltzaleetasuna da. Bizkaitarrismoaren etiketa ezarri zioten Comillasen, jadanik ezaguna zaiguna. Ezaguna da, halaber, hango nagusitza aita Bianchik hartu zuenean, euskaltzaleentzat gauza asko aldatu zirela. Comillasen euskarari buruz nolako giroa zegoen ikusteko, utziezina da Orixeren leku-kotza, jadanik aurreko atalean aipatua, aita Bianchiren eta honen ondorengoaren jokabide antieuskalduna salatzen dueneko hura.

Salaketa honetan ez da Orixe bakarria. Badira lekuko gehiago ere. Apaiz-ikasketak pontifize-unibertsitate berean egin zituen Pio Montoiak, orobat, han euskara erabat baztertua zegoela errepikatzen digu. Eta baztertua, berak bere elkarrizketan espreski azpimarratu nahi izan zigunez, bertan zeuden ikasle gehienak euskaldunak izanda. Jangeletan egin ohi ziren hitzaldietan ezin zuten euskara erabili. Euskararen baztertzea gehien sentitzen zutenak, hain zuzen, teologoak ziren, ohartzen baitziren, handik irten eta herriratu orduko, txoriak eguratsa bezain beharrezkoa zutela euskara beren apostolutzarako. Horregatik sortu

zuten, arrazoi nagusi horregatixe, hain zuzen, *Aldizka* aldizkaria. Ez politikagatik, Orixek dioen bezala, premia apostolikoari erantzutearren baizik.

Zapalketa, beraz, erabatekoa zen: gutunak euskaraz egiterik ez, albotik mesprezua, nagusiengandik defentsarik ez, ezin landu ez luma eta ez mingana. Euskaldunekin, nahiz gehiengoan izan, bereizkeri politika praktikatzen da.

Euskara sistemaz zapaldua zegoen Comillasko giro gaiztotu hartan norbaitek nozitu behar zuen besteen ikasbiderako zigor eredu-garria. Nor horretarako Orixe baino errudun egokiakorik? Patxi Altunak esana da euskararen eta, zehazki, Orixeren kontrako amorratuak zirela aita Mostaza osaba-ilobak.

Tuteran, Navascués ikaslearen azalean dastatu zuen Orixek, bere azalean bezain ondo, hango nagusiek euskal nazionalismoari zioten herra. Haren egintzak, berez, ez zeukan inolako gaiztakeriarik. Esana daukagunez, 1918ko otsailaren 24an Diputatu-Gortearako egindako hauteskundeetan, Víctor Pradera karlista eta antinazionalista porrokatua galtzaile atera zelako biziki poztu izana izan zen haren bekatu bakarra. Baina hura beltza, haren ondorioa bezala. Sekulako zigorra, fisikoa eta morala, etorri zitzaion gainera: zaplastekoa, bazkarik ez, belau-niko jangelan, errekreo guztiak kendu, igandeko bisita ohikorik gabe utzi, eta abar. Zergatik eta, funtsean, nazionalista zelako. Eta, gainera, azkarra. Mutiko hori estudioetan aurrenetakoa zebilen horietakoa baitzen, aita nagusiak ez zion aitortu nahi izan, ezta ageriko emaitzen aurrean ere, dohain hori. Azkenean, erotzat hartuta, atean jarri zuten. Jesuitetan “erotzat” kondenatutako hark, gero domingotarren artean, argi dirdaitsua eginez segitu zuen. Horra nola idazten den historia.

Orixerekin ere, *mutandis mutatis*, antzeko zerbait gertatu zela esan dezakegu. Biak nazionalistak, biak azkarrak. Ondorio berbera: biak kanpora. Eta oraindik kasualitate bat gehiago: bizkaitarismoaren akusazioa, lehen aldiz, aita Echeniqueren ahotik entzun zuela Tuteran, honi, antza, aita Lezak esanda. Ezin bitxiagoa da kointzidentzia hau, Tuterako aita nagusi hori izan baitzuen, Orixek berak esatera, erlijioso-bizitzan oztoporik gehien jarri zizkiona.

Baina ez al zen jesuitena *Jesu's'en Biotzaren Deya*? Ez al zuen, bada, hor idatzi Orixek? Nolatan esan dezakegu, bada, antinazionalismoan datzala Orixe ohildua izatearen funtsezko kausa? Argudio hau erabiltzen dutenez ere bada erantzuna. Hori guztia egia da, ezin daiteke uka aldizkari horrek ekarpen aberatsa suposatu zuela bere garaian euskal

kulturarentzat, bereziki kultura erlijiosoaren sailean. Haren ekarpena ezertan gutxietsi gabe, ordea, zehaztasun hau egin gabe ezin buka deza-kegu arazo honi buruzkoa, eta da *Razón y Fe* eta *Mensajero del Corazón de Jesús* aldizkariak helburu jakin bati erantzuteko sortu zirela, libera- lismoaren kontra integritismo katolikoari eragiteko, alegia. *Jesúsen Biotzaren Deya*-ren sorreran, orobat, asmo berberak edo antzekoak zeudelakoan gaude. Diferentzia honekin, halere, hots: haiek gaztela- niaz idatziak zirela eta hau, aldiz, euskaraz. Mezu berbera; bezeria bakarrik desberdina.

Honela, euskal nazionalismoaren akusazioarekin hasi zen Orixe- ren kasuari, segidan ikusiko denez, obedientzia itsuaren azken arra- zoiak emango dio errematea.

Espiritu kritikoa, autoritarismoaren biktima

Bere hurbileko nagusiekin gurutzatutako gutunetan ikusi dugu- nez, Orixeri agindu guztiak obedientziaren izenean etortzen zaizkio, agindutakoa Jainkoaren borondatea dela esanez. Orixe, hau ere gutu- netan dator, behin eta berriz kexatzen da, adieraziz obedientziaren ize- nean egintza heroikoak egitera bortxatzen dutela. Nagusien agindua, azken finean, bortxa bihurtzen da, hertsapena, eta Orixeek jesuita iza- teari uzten dio.

Jesuiten espiritualitatean, aita Alonso Rodríguezek (1954, 1455- 56) dakarrenez, obedientziaren botua da guztietan garrantzitsuena. Ondoko hiru arrazoi hauengatik da horrela: “La primera, porque por el voto de la obediencia da y ofrece uno más a Dios que por los demás votos... La segunda razón es, porque el voto de la obediencia incluye y encierra debajo de sí los demás votos de la Religión, y él no se incluye ni contiene ellos... La tercera razón es, porque cuanto una cosa se acer- ca y llega más a su fin, y nos junta más con él, tanto es mejor y más perfecta. Pues la obediencia es la que junta más a los religiosos con el fin de su Religión”.

Obedientzia, testuan aipaturiko arrazoi horien bidez bertute-soi- nekoz jantzita, justifikaturik geratzen da nagusiak menpekoa bere esa- nera eduki dezan. Esanekoaren iritzi kritikoak, ezta arrazoituena izan- da ere, ezer gutxi balioko du, baldin nagusiak besterik pentsa baleza. Guztien gainetik, zergatik galdetu gabe, menpekoak obedientzia zor- dio nagusiarri.

Inazio Loiolakoaren espiritualitatean, hiru obedientzi maila bederen berezi ohi dira:

Lehen mailakoa, agindutakoa materialki betetzean datza, zintzo eta berehala betetzean, alegia, “dejando, al oír la campanilla, por acabar cualquiera letra o cosa nuestra comenzada”. Menpekoak kanpaihotsa edo nagusiaren ahotsa entzuten duenean, pentsatu behar du Jainkoaren ahotsa entzuten ari dela.

Bigarren mailakoa, menpekoaren borondatea nagusiarenera osoki moldatzean datza, hain osoki moldatzean, ezen hark honek nahi duena bakarrik egingo baitu. Baita zernahi agintzen badio ere: “Y añade nuestro Padre que habemos de estar dispuestos para esto, aunque se nos manden cosas difíciles, y según la sensualidad repugnantes”. Beraz, nagusiaren esana bete behar da, baita, askotan esan izan denez, porruak buruz behera aldatzeko agintzen badu ere.

Hirugarren mailakoa, menpekoaren adimena eta judizioa nagusiaren judiziora moldatzean datza. Honek esan nahi du nagusiak zer nahi eta zer sentitu, menpekoak huraxe nahi eta sentitu behar duela. Menpekoak pentsatu behar du nagusiak agintzen duena ongi agindua dagoela: “... pareciéndonos que lo que él manda está bien mandado, sujetando nuestro juicio al suyo y tomándole por regla del propio”. Hirugarren maila honi obedientzia itsua deitzen dio. Orixeri azken obedientzi mota hau eskatu zitzaion. Orixek nagusiei arrazoien galdea egin zienean, hauek, argudio bakartzat, “nagusiak bere arrazoiak izango ditu” esanez erantzun zioten. Harentzat gehiegi eskatzea zen, heroi-zitatea ez baita erlijioso guztientzat egiten dena.

Zertan datza, ordea, obedientziaren teologi sustraia, erlijio-bizitzan horrelako konbentzimendu-indarra izan dezan? Nagusiaren eta Kristoren borondatea bateratzean. Menpekoari sinestarazi nahi zaio nagusiak agindutakoa Kristok agindutakoa dela: “Que este medio de obedecer al superior como a Cristo es necesario para alcanzar la virtud de la obediencia”. Orobat, beste pasarte honetan ere: “Este medio de no considerar la persona del superior como hombre, sino mirar a quien en el hombre obedecemos, que es Cristo nuestro Señor, no solamente es para obedecer mejor y con más perfección, sino es absoluta y precisamente necesario para alcanzar la virtud de la obediencia”. Nagusiak norbait karguz aldatu nahi duenean edota destino berria eman dionean, honela mintzatuko zaio: “Dios quiere que Ud. asuma tal cargo...”. Agindu-mota honek orduan orain baino askoz indar handiagoa bazuen ere, Orixek ez zuen amore eman. Nahiz eta hamaika

bider errepikatu nagusiek agintzen ziotena Jainkoaren borondatea zela, hark ez zuen onartu. Ezin zezakeen onar, zeuden kontraesanak argiegia baitziren nagusien agindu arrazoigabeoetan Jainkoaren borondatea ikus zezan. Bazekien bereizten, eta oso ondo gainera, nagusien interes eta arazo pertsonalak eta Jainkoaren borondatea.

Ondorioa? Agintaritzaren autoritarismoari oldartzen zitzaion oilarriek ez zitzaiola interesatzen obedientziaren erresuma harresitua hain fermuki zaintzen zuen Jesusen Lagundiari. Orixe, izaera aldetik, autonomoegia zen bere iritzi eta jokabideetan inoren morroi izateko. Jesuitetan nagusien obedientzia itsua onartu ez zuen bezala, munduan ere politikarien eta gainerako beste jauntxoan uztarpean erortzetik iheska ibili zen. Bere buruarekin zorrotza zen, kritikoa, zintzoa. Ez gutxiago besteekin. Zer pentsatu eta bizi, huraxe adieraziko zuen. Behin batean, Amerikatik etorrira Orexan zegoela, Joan Inazio Otaegi apaizak egin zion ikustaldi batean, hauxe esan zion Orixe: “Ni basurdea naiz. Basurdea naiz eta haginkada egiten dut berehala”. Horregatik esplikatzen da, hein batean, zergatik dagoen haren luma polemika-giroz hain kutsatua. Horregatik ulertzen da, orobat, zergatik onartzen zen jesuitetan Orixe legoa, bai, baina ez Orixe apaiza. Orixe zeregin materialetara makurtuz, lor zezaketen haren adimen ahaltso bezain autonomoa itzaltzea. Baina, apaizgora igoz gero, nola kontrolatu haren ahalmen intelektuala? Jesuitek orexarra menderaezina ikusten zuteneko susmoa daukagu, autoritarismoarentzat arriskugarriegia, alegia, bere familiar onar zezaten. Egotzi zizkioten “falta de docilidad”, “espíritu de independencia”, “juicio raro en literatura” eta horrelako esaldiak ez ote ziren haren nortasun bortitza, menderaezina, auzitan jartzera zuzenduta zeuden akusazioak? Gu baiezkoan gaude. Azalpen honen argitan ulergarri gertatzen da, nagusiek, autoritarismoa bera arriskuan jarri baino lehen, mendeko erlijiosoa obedientziaren aldarean opari gisa eskaintzea, nahiz gizabanako hori biziki aberatsa izan, errugabea izan.

Gogoeta hauek, ez frogak, argigarriak iruditzen zaizkigu Orixe jesuitagaiaren ohiltzea zergatik gertatu zen azaltzeko orduan. Orixe euskaltzaleak eta Orixe pentsalari kritikoak min gehiegi egin zezakeen beldur baitziren, neurriak aldeztu aurretik zurhurki hartuz, autoritarismoaren makinak eman zion azkena haren jesuita-bokazioari.

HIRUGARREN ZATIA
ORIXE LAIKOA GERRAURREKO
ZURRUNBILOAN (1923-1936)

ZAZPIGARREN ATALA

ORIXE BILBON (1923-1931)

Jesusen Lagundia utzi eta berehala, R. M. Azkuek bereganatu zuen sortu berria zen Euskaltzaindiko bulego-lanetan lagun ziezaion. Elkarreak bere egoitza Bilboko Erribera kalean zeukan eta hantxe bil-tzen ziren Azkue, Urkixo, Kanpion, Eleizalde, Intza, Altube, Olabide eta beste batzuk. Euskararentzat mesede izugarria, noski, haiek guztiak han bildu eta lanean batera aritzea. Iritzi hau dauka bederen Andima Ibinagabeitiak (1989,103): “Onez ez datorkigun gaitzik ez omen; euskararentzat beintzat onik aski ekarri zuen Orixé'ren Lagundia utzi bearrak”. Euskaltzaindian lanean hasi eta berehala, Bizkaian herriz herri “Erizkizundi Irukoitza” bideratzen ikusten dugu.

Bilboko egonaldian bi itzulpen-lan, *Tormesko itsu-mutilla* (1929) eta *Mireo* (1930), eta beste hirugarren bat, *Santa Kruz apaiza* (1929), burutu zituen, azken hau berak sortua. Aski bedi aipatzearekin soilki, ez baita gure xedea lehendik besteek esana iruzkintzen aritzea. Garai honetan apenas bertsoarik ondu zuen, edo oso gutxi. Bertsoen etsai izan zela ere, badio.

Orixeren Bilboko egonaldiari dagokionez, bi puntu ukituko genituzke, guri ohargarriak iruditzen zaizkigunak eta gure lan honekin zerikusi zuzena dutenak. Bata da Orixek Lizardirekin izandako harremana, eta bestea, Orixek Bilbo eta bere inguruarekin izandako lotura.

Orixek euskaltzale asko ezagutu zituen. Ezagutu eta maitatu ere bai. *Quito'n arrebarekin* lanean bi bederen izendatzen ditu: Jokin Zaitegi, orduan Guatemalan bizi zena, eta Lizardi, jadanik hila. Komeni zaigu haren horiekiko harremanak aztertzea. Zaitegirekikoa Amerikako egonaldirako utziz, orain Lizardirekikoari helduko diogu.

Quiton arrebarekin-en (IG, I, 1991, 715) Amerikarako bidaia kon-
tatzean dakar Lizardiren izena, han Santa Rosa Limakoaren etxea ikus-
ten duenean, hain zuzen: “Santa Arrosa’ren etxea ta lore-baratza, orduan
bezalaxe zeuden. Lizardi zanaren etxea ta lorebaratza gogora zidanan”.

Orixeren oroimenean ez dago itzalia Lizardiren izena. Modu as-
kotako aztarnak, eta biziki sakonak, utzi zizkion, antza, haren gizata-
sunak. Badirudi 1928ko azaroaren 25ean elkar ezagutu zutela, Euskal
Esnalea elkarteak eskatuta, Orixe Bilbotik Donostiara “Orain arteko
euskal neurtitzak” gaiaz hitzaldi bat ematera joan zenean, hain zuzen.
Entzuleen artean aurkitzen zen Lizardi, hark zer esan adi. Hitzaldi
hura zela eta, une hartatik egin ziren adiskide min eta fin. Eta harrez-
kero, elkarri asko zor izango diote, bereziki poesiagintzan. Antonio
Maria Labaienek (1989, 19) idatzia da pasarte hau: “Bein eta berriz
esan bearra dago Orixek bultza zuala Lizardi *Biotz-Begietan* argitara-
tzera; baiñan era berean Orixek ez zuan *Euskaldunak* poema ederra
idatzi ta bururatu izango, ez balu Lizardik artara beartu”.

Lizardi ezagutu zuenean, lanbide berri batean ari zen, *Euzkadi*
egunkarian, hain zuzen, horko “Euskal Atala”ren arduradun gisa.
Eginkizun honetan hiru idazle ospetsu ikusten ditugu elkarri txanda
hartzen. Lehen zuzendaria Kirikiñño izan zen, egunkari hori sortu zen
urtetik (1913) hasita, harik eta 1928. urtearen azkenaldira bere sorte-
rrira, Mañarira, erretiratu zen arte. Hamabost urte luzez eusten dio
ardura horri eta bera izango da egunkari horretako euskal orriaren
“alma mater” edo erreferentzia nagusia. Kirikiññoren lekua Orixek har-
tzen du, baina hiru urte egin baino lehen utziko du kargu hori, 1931.
urte-bukaeran Orexera joaten baita bere poema lantzer. Orain Laua-
xeta izango da haren ordezkoak egingo dituen. Nolanahi ere, orrialde
asko dira hiru idazle horiek idatzita utzi zituztenak egunkari horretan.

Euzkadi egunkarian, Orixeri ez zitzaizkion gauzak berak nahi be-
zain leun joan. Sabindar joerako euskaltzaleekin, antza, ez zetorren ados
eta haiekin tirabirak izan zituen. Zertaz? Aita Onaindiaren (1989,
131-132) pasarte irakurrita, kontura gaitezke, zertxobait bederen,
eztabaidaren muinaz: “Izan ere, Bizkai’ko izkelgiko ‘bere’, ‘aren’ eta ‘a’
zirala-ta, sekulako zaparrada izan zan 1929’garrenean batez ere,
Azkuere’n, Orixe’re’n ta Arana Goiri’re’n eskolakoen artean. Azkenik
ere, ogeita amar urte ondoren, Orixe’k daramala dirudi auzi artako ga-
rai-zuzia”. Eztabaida honetan, seguru asko, arazo linguistikoak eta
politikoak nahasten ziren. Ordukoa gogoratuz, agian, Orixek honako
hau idatziko du geroago “De mi vida externa” dokumentuan: “Era yo

kiputx, no pertenecía al Partido Nacionalista, y resultaba además ‘contradictorcillo del maestro’. Yo tenía mis ideas gramaticales adquiridas por propio estudio y no me fijaba si el que sostenía lo contrario era Azkue o Sabino Arana”.

Lizardiri 1929ko urtarrilaren 14an egindako eskutitzean, beste zenbait gauzaren artean, *Euzkadi* egunkariko nagusiekin zailtasunak dituela jakinarazten dio: “Tormesko Laxaro’rekin asarretu egin nintzan, edo zuzenago esateko, emengo aundiki oien *batzarrarekin*. Azke-nean eztugu gauz onik aterako. Ez dute eskubiderik aski uzten zorioneko Euskal-atal ortarako kirten arrayook. Or konpon! Oraindik ere kaikukeri pranko esateko gaude euskera gaxoaren lepotik”. Eskutitz honetan “eskubiderik aski” ez omen duelako kezaxten bada, 1929ko apirilaren 17an zuzentzen dion beste honetan euskal atalean lagunik gabe uzten dutela salatzen du: “Lengoan aztu egin zitzaidan euskal-atalean lagunik gabe utzi nindutela. Bapo mutillak! Zorioneko ekonomi oiekin *Euzkadi* larrugorrian uzten ari dira aurreneko orrialdetik asi ta. Jende oni ez ditioke ezer adierazi. Alper alperrik da”.

Orixe, oztupo horiek direla bide, nekatuxe zegoen bere lanbide honetan eta, nahiz eta Bilbon gustura bizi den, egunkariko ardura uzteko asmoa agertu zuen. Eta utzi ere utziko omen zuen, baldin, orduan *Euzkadi*-ko kontseilu-partaide zen Jesus Maria Leizaolak adierazi zigunez, aurrera segitzeko kuraia eman izan ez balio.

Orixe kazetari-lanetan murgildua dabilen bitartean, Lizardi Euskaltzaleak elkartean ari da lan eta lan, euskalgintzan aintzindari. Bera da elkarte horretako lehendakaria. Donostiako *Argia* astekarían ere idazten du. Garai honetan, bada, Orixe Bilbotik *Euzkadi*-rako lanak eskatzen dizkion bezala, Lizardik Donostiako *Argia*-rako eskaera bera egiten dio. Odolkiak ordainetan. Elkarrekin eskutitz asko trukutzen dituzte, eta gehienak lankidetzaharremanez dihardutenak dira.

Euskararen sailean ibilbide nekeza egiten bazaio, euskal politikari ez dio aterabide hobea ikusten. “Aberri” taldekoek, berak “De mi vida externa”n dakarrenez, ez zioten barkatzen, ezta ezertxo ere: “La fracción nacionalista que llamaban de la Comuni3n, me estimaba y animaba, pero la que se llamaba El Partido Nacionalista Vasco, me hacía guerra a muerte. Los de Juventud Vasca sobre todo, aquellos a quienes Kirikiño llamaba ‘terribles’, me dijeron desde sus publicaciones en castellano y en vasco cosas que no se dicen a nadie. Confieso que yo también me excedí un tanto”. Nazionalisten arteko batasunik ez omen zutela nahi, esango du. Arrazoi hori baliozkoa izan ala ez, gertatzen

zaion. Dena den, Sariketan “Yainkoagan bat” eta “Itzai zekena” izene-koak aurkeztu zituen, Aitzolek argitaratutako *Eusko Olerkiak* bildu-
man (1930) datozenak. Lizardiri ez ezik, Lauaxetari ere uzten dizkio
irakur ditzan. Honengandik jasotako iritzi onak esperantzakor bihur-
tzen du Orixeren animoa. Hala agertzen da bederen Lizardiri 1930eko
maiatzaren 24an egindako gutunean: “Atzo irakurri nion Lauaxetari
Irutasuna, ta mundu ontan zuzentasunik balin ba da, ez omen ni beza-
lako mutikorik. Izugarri atsegin zion. Beaz, ortxe ibiliko gara arbaxta
jasotzeko”.

Poeta asko eta onak azaldu ziren Luis Jauregiren omenez eginda-
ko Erreterriako Lehiaketara: Alexandro Tapia, Txomin Jaka-Kortaja-
rena, Loidi, Zugasti, Manuel Enbeita, eta gehiago. Lizardik ere bidali
zuen bere lana, Orixeri 1930eko maiatzaren 26ko gutunean esaten
dion bezala, “ugaritasunaren ederrez”. Azkenean, ordea, Lauaxetaren
“Maitale kutuna” poesiak lehen saria eraman zuelarik, Orixeren espe-
rantza haiek –Lauaxeta bere lankide ohiarengandik jasotakoak, hain
zuzen–, ustel bihurtu ziren. Lizardik honela ematen dio epaiaren berri
1930eko maiatzaren 27ko gutunean: “Onezkeru eztezu ‘proetxurik’
zillarrezko aritz-arbaxta orrekin. Lauaxetari eman diote. Epaia ezta ira-
kurriko iganderarte, bear bezala. Lauaxetaren ‘Maite kutuna’ delako
ori irakurri det. Olerki ederra da, egia, baño nere gustorako ederrago
zurea. Neurtitz-biguntasunez, edo nik al-dakit, ark ez nau betetzen
zearo. Izketa luzea ta zalantza larria izan zutela badakit, zureari ala bes-
teari, zeñi eman. Eta azkenik, beren ustez gaia Lauaxetarenak olerki-
batzaldi baterako egokiago dula, zurea bezin ulerkaitza eztala (uler-
kaitz-askia dalarik ere), ‘rima’ osoagokoa dala ta abar’engatik esan
bezela epaitu dute. Auek nik berai lagun artean atzo entzundakoak
dira, ixilean esaten dizkizut beraz (...) Ohorezko aipu dalako edo ‘acce-
sit’ bat eman nai dizute zuri, baño zalantzan dira, ez ote-dezun zuk
naiago agian zurerik ez aitatzea saria eman eztioten-ezkeru. Ontaz itz
bat esango ba’zenida zure gogaraz egingo dute. Agur, olerkari eder,
larri bainaiz lanekin. Jardungo dugu datorren igandez, Errederi’n”.

Hurrengo egunean ematen dio erantzuna Orixek: “Ni bakarra ba
naiz aipatu-bearra, naiago det eder-aipu ori ez artzea. Besteri kalte
egingo ba nio, or konpon. Baño, ‘primer accesit’ bakarra baldin ba da,
ta ori neretzat, ez eman ezer”. Bistan da Orixek ez zuela gogo onez
hartu epaimahaikoen erabakia. Eta errudunen artean Jose Ariztimuño
eta Luis Jauregi izendatzen ditu Lizardiri 1930eko ekainaren 4an egin-
dako gutunean: “Erreteriko egun artan nerekin kontu gutxi izan

zuten Aristimuñok eta Jauregik. Ozta ozta agurrari erantzuna. Or konpon. Erabaki orrek nere adiskideetan batxo ere ez du konbentzitu. Gerroak esango du. Zuri esanaz gañera Aristimuñori berari idatzi nion, aipamenik ez emateko nere bertsoei”. Ezezkoa eman zuen arren, agertu egin zen haren izena.

Kasu honetan Ariztimuño al zen erruduna? Orixek honi botatzen zio kulpa. Aitzolek, inolako zalantzarik gabe, bazekien Lehiaketara aurkeztutako lanen berri. Nahiz eta bera ez izan epaimahaikoa, oso normala zen, zegoen lekuan egonda eta zeuzkan literatur irizpideak edukita, atzetik dagoen itzal handiaren antzera, Lauaxetaren poesiak zekarren modernotasunaren alde egotea (Lizardik gaia “egokiagoa” eta “rima osatuagoa” esaten du) eta joera hori bultzatu nahi izatea. Aitzolek ofizialki ez zuen deus erabaki; praktikan, ordea, asko. Horregatik, Orixek Aitzoli zion ezinikusia, bien laguna izandako Antonio Maria Labaienek aitortu bezala, ez bazen ere beti bidezkoa, ezingo da esan bien artean egiazko arazorik ez zegoenik, zeren, literatur irizpide desberdinak izateaz gain, bestelakoak ere bazeuzkaten eta. Arazo hauek, aski zehaztasunez, gure *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)* liburuan azaltzen baitira, ez goaz hangoak hona ekartzera.

Orixek frakasatua sentitu zela lehen saria eman ez ziotelako? Dударik gabe, baietz! Lizardiri ere ez zioten eman. Hor bazukeen kontsolamendu pixka bat. Baina honek bigarrenean irabazi zuen; Orixek, ordea, sekula ez, zahartzarora iritsi arte. Santi Onaindiari (1975, 227) jaso diogu honako hau: “Orixek ba-zituen arantza gogortxo bi bere izatearen muiñean naikoa barru josiak: euskaltzain oso ez izatea, ta olerti-batzaldietan, berandu arte, saririk ez jasotzea. Biotzez samurbera zan, eta bi arantza oiek ekarriko zioten larri-miña etzan txikia noski”. Eta lehen porrot honek bizitza guztirako markatu zuen haren nortasuna. Izan ere, bere burua oso goran jarria baitzeukan, guztien gaintetik esango genuke, jaso zuen kolpea ez zen makala izango. Askida horretarako Santi Onaindiaren (1989, 137) beste pasarte hau irakurtzea: “Gaztañña ta esne zuriz ornituriko apari ostean, berriz, ekin genion itz eta itz, euskal olertiari ta euskal olerkariei buruz batez ere. Autu-mautuan, arilduz arilduz, berez bezela zetorrelarik, niretzat beintzat Lizardi zela eusko-lirikurik onena ta bera epiku saillean gorengoia, esan nion. Eta ark, atza bular gainean jarririk: ‘Ez, Aita Onaindia, lirikan be neu nozu oberena’. Aitorkizun arrigarria! Apaltasunik eza? Baiña, Teresa donearen aburuz, apaltasuna, egitan ibiltea dugu. Ta Orixek’ren iritzia auxe”. Hil baino hiruzpalau hilabete aurretik

zioen hori. Oso barruan zeraman aburua zuen, beraz. Apaltasunik eza? Hipokresiarik eza? Batek daki. Dakiguna da ez zeukala bere burua beste inorenaren truke saltzekotan. Beharbada ez zegokion bere buruaz horrelakorik esatea, baina ez zaigu iruditzen hain desbideratua zebile-
nik ere bere aburuetan.

Gizonkeriak gizontxoari eragiten dizkion konparazio horiek aparte utzita, esan behar dena da Orixek oso estimu handian eduki zuela beti Lizardi. Har ezazu “Lizardi gurean” poema eta konturako zara zein samurra, zein ezitia, zein leiala, zein gardena den! Etxean daukan guztia gutxi du berari eskaintzeko: mahaina, mendiko ibilaldia, herriaren edertasuna, ohea, dena. Uneoro daukazu bisitariaren aiduru. Bera Bilbon zela heldu zitzaion Lizardi hiltzeaz zegoeneko albistea 1933an. Halakoxe minondoa eman zion albiste triste horrek, ez zuela kuraiarik izan hilotz ikusteko. Hala dakar Nemesio Etxanizek (1989, 31): “Arek lagunei: –Zoazte, ta ni (n)ere aldetik joango naiz. Lagun artu ura gorputz ikusteko kemenik ez”. Tolosara joan, joan zen, ez kotxea eskaini zioten lagunekin, bakarrik eta trenez baizik. Horregatik esaten die lagunei: “Zoazte”. Gau osoa gorputzaren aurrean egin zuen. Gero, goizgoiz meza entzunda, hileta-meza baino lehen aldegin zuen.

Bere heriotzaren urtemugan, oroigarri xume gisa, “Gure zizak” poema (1934) opatu zion, eta hauxe esaten:

“Intz, aize, eguzki, biotz-begien
igurtzi esan-eziña!
Gezur-munduan nekez arkitzen
dan adiskidego miña!
Ez luzaroko! Jo zian usai
ark zeruaren urdiña.
Geroztik noizbein mizkatzen diat
udazkenaren samina”.

Gero Tolosan Lizardiri egindako omenaldian berdin: nigarrez bukatu zuen bere hitzaldia. Lizardirekiko oroitzapenak, hain mami-tsuak, urtu egiten zion bihotza. Ez da harritzekoa, bada, hain adiskide hartua izanda, *Quito'n arrebarekin*-en haren izena aipatzea.

Bestalde, eta orain gatoz bigarren puntura, txunditzekoa da ikus-tea nola Bilbo bezalako hiriburua batek ez duen eraginik Orixeren pensamolde-eraketan. Bilbon zazpi urte (1923-1931) egina zen eta izan zuen aski denbora hiri handi hartan gertatzen ari ziren gizarte-aldaketez

ohartzeko. Uitziko nekazari-gizartetik Bilboko eta bere inguruko gizarte industrializatu eta hiritartura nabarituko zuen, noski, alde galanta. Industrigintza Bizkaian XIX. mendearen azkenaldira (1887-1897) hasi zen eta mende honen hasieran sendotu, Bilboko ezker aldean, zehazki Trianoko arroan eta Nerbioiko ibai-ertzean. Mota guztietako merkataritzatik, ohiko industrietatik eta nekazal errentetatik etorritako kapitalaren metaketa izan zen hango industria handiaren iturria. Bizkaian, 1886tik 1899ra bitartean, 636 elkarte anonimo sortu ziren. Horien kapital nominala 422 milioi pezetakoa zen, honela banatua: Banketxeek 30 milioi, trenbideek 74 milioi, meatzaritzakoek 44,5 milioi, gainerako elkarteek 200,9 milioi.

Industrigintzarekin batera, demografian ere gorakada nabarmena ematen da. Gorakada hau bigarren gerrate karlista bukatu ondoko urteetan hasten da, 1877tik aurrera. Honela, 1877-1897ko epealdian, Bizkaiko biztanleria % 2,10 gehitzen da. Eta gehikuntza hau etengabekoa izango da: lehen aipaturiko epealdian 290.665 bizilagun ditu, 1900. urte inguruan 311.361, 1920an 409.550 eta 1940an 507.894. Bilbo, 1887-1897ko epealdian, 37.866 bizilagunetatik 74.076ra pasatzen da. Hazkunde honen euskarria, batez ere, inmigrazio-saldoen gehikuntza ohigabekoa aurkitzen da. Inmigranteen kontzentrazioerik handiena Trianoko arroan ematen da, hots: Arboleda, Gallarta, Ortuella, Abanto eta Zierbanan. Eta etorri, berriz, kanpo-inmigratioari dagokionez, Burgos, Logroño, Soria, Leon, Galiziatik eta, barne-inmigratioari dagokionez, Araba eta Nafarroatik etorritakoak dira. Inmigratioaren bigarren bulkada handia 1910-1930eko epealdian emango da. Batetik Espaniako Estatuak lehen mundu-gerran parterik hartu ez zuelako eta, bestetik, Primo de Riveraren garaian politika protekzionistari eutsi ziolako, epe laburrean sekulako mozkinak lortu ahal izan ziren, eta honek lanerako eskua gehitzea ekarri zuen. Honela, 1930ean, Orixek Bilbo utzi aurreko urtean, Bizkaiko bizilagunetatik % 25,14 inmigranteak ziren.

Arkitektura eta hirigintzaren aldetik, orobat, Bilbo garapen lora-tsuan zegoen. XX. mende-hasieran, 1920ra arteko epealdian, Bilboren zabaldura gauzatu zen. Ordukoak dira Barroquezen “Campos Elíseos” antzokia (1902), Bilboko “Gran Vía” eta “Alhondiga” (1909), Deustu-ko Unibertsitatea, Bizkaiko Bankua Bilbon, eta abar. Bigarren ekinaldian, 1920tik aurrera, beste hainbat eraikin altxatuko dira, hala nola “Club Deportivo Bilbao” (1927), Brinasko Eskolak, Merkatua Erribera kalean, Bilboko Postak eta Telegrafoak (1927), Bilboko “Unión y

el Fénix” (1927), “Equitativa” (1932), eta abar. Orixek hirugarren hamarkada horretako hirigintzaren prozesua hurbiletik ezagutu zuen. Hiri handi bat zer zen bazekien.

Horrekin guztiarekin esan nahi duguna da gizarte teknologiko eta hiritartu baten joanaira hurbiletik ezagutu zuela. Bere begiez ikusi zuen industriak kokatzen eta hazten, kaleak eta eraikinak egiten, hiria jendeztatzen, komunikabideak ugaritzen, ohiturak mudatzen, korronte berriak agertzen, bertako komunitatearen eta inmigratuaren arteko kultur desberdintasunak nabarmentzen, klasearteko interesak gauzatzeko. Gizarte teknologikoak dakartzan gizarte-fenomeno guzti horien pantaila izan genuen Bilbo, eta Orixeri, hain zuzen, bizkor aldatuz zihoan gizarte horren lekuko zuzena izatea tokatu zitzaion. Uitzitik Bilbora, nekazal gizartetik gizarte teknologikora dagoen tarte berbera zegoen. Bi gizarte-mota arras kontrajarriak ziren. Eta biak zeuden Euskal Herrian kokatuak, biak ziren, eta dira, Euskal Herri. Baina Orixek begien aurrean zeukan Bilbo hura, ikusi ere ez zuela egin ematen du. Orixek bere barruko begiez ikusten zuen. Eta Orixerentzat, berriz ere, egiazko Euskal Herri garbia, bere haurtzaroko Uitziz zen, guztiz euskalduna, eta ez kanpoko jendez nahasturiko Bilbo hura, funtsean erdalduna zena. Hiri honi ez dio poesiari kantatuko. Ikazkinak, laiariak eta horien antzeko ofizioak aiputan izango ditu, baina ez Labe Garaietako langileak. Kontrasteen bila hasiz gero, anitz bila daitezke. Baina bego.

Bilbon bizi delarik ere, lanbidez hiritarra izanik ere, Orixek Uitziko baserritar petoa izanez segituko du. Osoki, nola gogoz hala estetikaz. Inguruan daukan bizi-giroak ez du kutsatzen, edo, zuzenago esanda, ez da kutsatzen uzten. Gizarte modernoak dakarkion mezu beti eraberrituaren aurrean ukazio dialektikoaren bidez erreakzionatzen du. Balioen hierarkian antzinatasuna kontrajartzen dio modernotasunari. Eta etengabeko ukazio dialektiko horretan, Orixek bere kontserbadorismoa betiketzen du. Eta jarrera hori bere bizitzako maila guztietan islatuko da. Horregatik, Orixeren mundu sinbolikoa bere osotasunean ulertu ahal izateko, Uitziz funtsezko erreferentzia den bezala, Bilbo hiriarri buruzko ausentzia berarizkoa ere ezinbestekoa gertatzen da. Uitziren aurpegia hobeto ikusten da –kontrastez, noski–, Bilboren ispiluan begiratura. Positiboa negatiboan bezala.

ZORTZIGARREN ATALA
OREXAN: KARTZELA ETA IHESA
(1931-1938)

Orixe bere herrian aurkitzen da 1931ko azaroan. Iriartetik jaioberritan aldendu zen Nikolas hura gizondua ikusiko dute herritarrek etxerako bueltan. Gogortzaneko bere baserrira dator, senitartera. Gertakari gogoangarria Orixeren herriratzea, 32 urte asko baitira bere herriatik kanpora bizitzeko. Baina ez zetorren alperkerian egotera. Hitz hori zer zen ere ez zekien. Egiteko garrantzitsua emana zioten, antza, eta hura betetzera zetorren bere sorterriko bakardadera. “Orixe” poeman (IG, I, 1991, 617) zehazten du zer dakarren eskuartean:

“Orixe’ko malkor lekarora nintzan
bestek agindurik, neurtitzak ontzera.
Zuk aginduz, orde, –ta laguntza billa–
gogoz artu nintzan otoitz egitera”.

Besteek agindurik eta neurtitzak ontzera. “Beste” horien izenik ez dakigu. Baina, bai, badakigu Euskaltzaleak elkarteak eskatu ziola euskal poema bat egin zezan eta, bukatu zuenean, hari entregatu ziola. Lizardi izan baitzen elkarre horretako lehendakaria, baliteke bera izatea lan horretara gehien bultzatu zuena. Aitzolen eta onespenearekin, jakina. Gerraurre joritsu hartan bazen luma modernorik eta zorrotzik, baina euskaltzaleek Orixe klasikoa aukeratu zuten Euskal Herriaren nortasuna sinbolizatuko zuen poema nazionala mamitzeko. Erantzunkizun astuna Orixeri leporatu ziotena. Eta Orixek, jakina, bere ohiko

baliabidez erantzun zuen. *Euskaldunak* poema, laburki esanda, Orexako malkarretik deskribatutako Uitzu besterik ez da. Deskribapen etnografiko txit aberatsean oinarritutako literatur emaitza da. Lan epiko biribila. Hain dira biziak egiten dituen paraje-deskribapenak, esan bailableke poemako estampa bakoitza, *in situ* jaso eta pintzelatua dela. Berak esanda dakigu “Letari” poema idaztera, adibidez, Aralarko San Migelera joan zela: “Berreun bat bertso Artxueta egiñik, buruak uko egin zidan” (QA; IG, I, 1991, 722).

Haren lana, halere, ez zen *Euskaldunak* poema idaztera bakarrik mugatu. Orexan mistikari emana egon zen eta bertako egonaldian *Barne-Muiñetan* poesi liburu barnekoia eman zigun argitara 1934an. *Euskaldunak* poema egiten ari zela, bururatu zitzaion *Quito'n arrebarekin* egitea ere. Hala aitortzen dio Denuxiri: “Nolanai ere, etxetik aldegiterrako egin nenunan sail ederra” (QA; IG, I, 1991, 721). Ordurako gogoz sortua zuen, hezur-mamitzen hasia ere bai. Iduri du bere sorterrian giro egokia aurkitu zuela otoitzerako. Hala ematen du aditzera poema bereko ahapaldi honek:

“Laister naiz biurtu lêngo lo berera,
unatu bainintzan egunez mendian.
Ni lo nengon, baiña biotza Zurera.
Ze bost urte aiek: itonai, egaldi,
itz-eten... ainbeste pozaldi aukera!”.

Beste ahapaldi batean, berriz, otoitzari emana bizi dela esango digu. Lehen Santa Rosako basoan bezala, geroago Bilboko Euskaltzaindiko bulegoan bezala, orain Espurun biziko ditu estasi antzekoak, berak “gaiñezkaldiak” deitzen dienak:

“Arrezkero, beti horrela sartzen naiz
belarria zугur, Jainko-otoitzera.
Espuru'n urrena, itzal antzean, bai,
AITA, ‘Santa Rosa’ basoan bezela.
Zenbat gaiñezkaldi egunen buruan,
lekuko Zu ta ni besterik etzela!”.

Guztiak baserritarrak ziren herrian, Orixe bezalako langile intelektual batek ez zuen itxura onik emango baserritarren artean. Jendea, udako partean batez ere, soroan eta belazean gogotik lanean eta bera, berriz, handik eta hemendik paseatzen. Nire herrian udatiarrak ibiltzen ziren horrela. Esku leuneko jendea zen hura baserritarrentzat.

Orixek ere ez zen salbuespen bat izango bere ingurukoaren artean. Herritar batzuei entzuna diegu trataturako zakar samarra omen zela, bakarti antzean ibiltzea gustatzen zitzaion horietakoa. Gertu-gertutik ezagutu zuen Antonio Maria Labaienekin hizketan ari ginela, “berezi samarra, ez aski zentzuduna” atera zitzaion ahotik. Familietan izan ohi diren arazotxoak izan zituen berenean ere. Gogortzanean arrega Eusebia zegoen ezkontdua Inazio Iturralderekin. Bere kuinadoa garai hartan herriko alkatea zen, gizon estimatua eta harremanetarako jatorra. Dirudienek, anai arrebak ez ziren hain ongi konpontzen eta, seguru asko, hortik etorriko ziren kasketaldiak. Arrazoietako bat izan bide zitekeen Orixek ez zuela kolpe zorrik jotzen baserri-lanetan, zeren baserriarrentzat lanik ez egitea, etxeko beste gainerakoak bezala, aitzurreen, segan, artajorran, belarretan, basoan eta horrelakoetan ez jardutea baitzen. Eta egia zen, Orixek aspaldi utziak baitzituen baserriko lanak.

Orexan eguna zertan ematen zuen jakiteko asmatzen ibili beharrik ez dago. Goiz jaiki, meza entzun, gosalduta eta gero mendira, ohiki herriaren gainaldean dagoen Espuruko kaskora. Berak Tabor menditzat zeukan mendi-gain hori dotore asko deskribatua utzi digu *Quito'n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 721-722), bere arrega Denuxi han izandako “ikuskariaz” hika mintzatzen zaionean: “Ni ondo ezagutzen nator, egunero ikusiz. Egun artan, zenbatit aldiz bezala, etzeukenan magalean ardirik, buruz gora etzanik, muturra galdorrera zutela. Goizago asi zitxinan argi billa, ta lañotik aterarik, gorago aldegiñak izaki. Oraindio Espururi lurriñ-apurra zerionan. Banenbillen arat onat, eguzkiak intza yan arte, buruari betiko gogoetak eragiñez. Alako batean, eseri natxin añar txuku batean, ipurpean zakurik gabe, egoa aldean begira. Orexan erreka zuloa laño zegoan, yakiña, ta aruzko aldean basoa erdi-argi gure gaztañadi aldean. Laño argal aren artetik an emenka ke-adar zenbait agertzen, ots, txondarrak sutan, eta ke-mordo bat bizkorragoa, Basajaunen pipa piztu-berria bailitza. Txondarrak etzixinan ageri. Eguzkiak zearka yotzen baitzitun, ke zuri zeritenan. Atsaldean, eguzkia etziñaldera iraultzean, urdin urdin biurtuko”. Eguerdiko Angelusak askotan harrapatzen zuen han sorgor: “Nik, behintzat, ezin aztuzkoak ditut Espuru-mendiko iru ezkil-ots aiek bate-tuan: Azkarate'koa, Lizartza'koa, ta Oresa'koa” (JB, IG, I, 1991, 943).

Egunero meza entzuteaz gain, herriko maisua falta izaten zenean, eskolak ere ematen zituen. Orixeri, antza, korrikarako zaletasuna gaztetatik zetorkion eta aldarteak ematen zionean bere korrika-saioa egin

gabe ez zen geratuko. Leku jakinetan egin ohi zuen, ohiki mendian, garo-leku edo bezale ordeka batean, biribil baten inguruan itzuliak emanez. Uitzin, Errekaldeko bordatik ez urrun, Orexan Espuruko belaze batean. Baina ez zen mendian bakarrik ibiltzen korrika. Garai hartan Lizartzako praktikante zen Pedro Mujika Urdangarin jaunak kontatua da sarri-sarri ikusten zuela Lizartzatik barna korrika txikian pasatzen Tolosarako bidean. Lizardirengana hainbestetan joaten bazen, pentsatzekoa da behin baino gehiagotan joango zela zangoen indarrez, ez beti autobusez.



Matxineko belaze horretan egiten zuen korrika, batzuetan, antza, beste norbait lagun zuela: “Maien giñala Erriko erretore jauna ere agertu zitzaigun. Gizon atsegin eta zurra bera. Arratsalde guzian lagundu zigun eta elkarrekin ibilalditxo bat ere egin genuen ‘Espuru’ zure menditik barrena. Txori batek esan zigunez toki maite artan ‘korrika’ irabazi zizuna izan zan...” (Labaienek Tolosatik Orixerri idatzia 1950eko urriaren 6an).

Bakartzale izanik ere, bazuen bere lagunartea Orexatik landa ere. Noizbehinka, inguruko euskaltzaleak –batez ere, Tolosakoak– ikustera joaten zen, herri-kirolak ere gustatzen zitzaizkion, Ordiziako zein Tolosako azokara ere sarritan joaten zen egunpasa. Berrikitan ikasia dugu, Txomin Jakakortaxarenaren *Bi goi-asmu* irakurriz, hain zuzen, Berastegira ere noiz edo noiz joaten omen zitzaiola eta, bere etxean kontu-kontari egon eta mokadu bat hartu ondoren, mendian gora laguntzen omen zion Goiutik aurrera Orexa bistaratu arte.

Baina Orixek, batez ere, idatzi egin zuen, latz idatzi ere. Bi poema-liburu zein baino zein garaia goak, estetikari buruzko saiakeraren hasikinak, kritika literarioari buruz egunkarietan argitaratutako hainbat artikulu, saskira bota zizkietenak barne, eta, gainera, poema solteak. Hango egonaldi laburrean egindakoak batera ekarriz gero, lan-sorta ederra burutu zuela esan behar da. Eta hori ez da egiten lo egonda, alferra izanda. Euskal letrak inoiz ez bezalako aupada bizia ezagutzen ari ziren gerraurre hartan, Orixe, bere herriko bakardadean, zorionsu bizi izan zela esateko arrazoi guztiak ditugu, berak behin baino gehiagotan aitortu izan zuen bezala erbesteko idazkietan.

Orixe eta bere mundua, Orixe eta bere izadia, Orixe eta bere Jainkoa. Orixeren sentimenak oro, belarri nahiz begi, barrutik barrura ari ziren, egonean bezala ibilian. Han-hemen ibilki ikusten zuten auzo-koak ez ziren ohartzen zer-nolako buru-lanetan murgildua zebilen.

Osoki bere munduan sartuta bizi zen. Erbestean Wilham Viennot adiskide itsuari idatzitako gutunei esker badakigu, Orixeko bakardadean urte zorionsuak bizi izan zituela, hiriko zalapartatik aparte, non zer gertatzen zen asko enteratu gabe. “Ederki bizi nintzan munduaren ipurdian, bakar bakarrik, ezertxoi yakin gabe”, idatziko du “Lizardi Amerikan” artikuluan. Bere etxean bi aldizkari sartzen ziren: Zornotzako *Ekin* eta Baionako *Eskualduna*. Bilbotik *Euzkadi* egunkaria ere bialtzen zioten, baina bidean norbaitek bahitu egiten zion.

San Kristobalگو kartzelan

Zorionsu bizi zen, bare eta bake-giroan, lumari eta bizitza mistikoari osoki emana. “Me pasé los cinco años más deliciosos de mi vida”, dio Saubiongo dokumentuan. Baina halako batean, sortu zen ekaitza, Orixek berak *Quito'n arrebarekin*-en (1991, 728) infernua deskribatzerakoan dioen bezala, inoiz ikusi izan duen “itsutsiena bañon itsuatsi goa”, inguru guztia hodei beltzez ilundua geratzeraino. Igandean lapur-meza entzunda, Tolosara Aiako txikiaren korrika-apustua ikustera zihoala eman zioten altxamenduaren berri, 1936ko uztailaren 2an, hain zuzen.

Erreketek Tolosan 1936ko abuztuaren 11n sartu baitziren Nafarroan barna, Orixe Lizartzatik pasatzerakoan atxilotuko zuten hila-bete bereko aurreko egunetan. Lehen aipaturako Pedro Mujika leku-koak kontatua da, abuztuan ekarri zutela atxilotuta Orixe Lizartzako

Pepita maistraren etxera eta hor bi egun egin zituela. Esan behar da praktikante eta maistraren etxebizitzak orduan Udaletxean zeudela: harena goikoan eta honena behekoan. Abuztuan maistra oporretan zegoelako hutsik baitzegoen harena, hor eduki zuten Orixe. Pedro Mujikaren emazteak eman omen zion lo egiteko koltxoia. Luis Mari Mujika idazlearen gurasoak dituzu horiek. Salatzailea, gaur ondo daki-gunez eta Orixe berak esanda, Lizartzako medikuaren emaztea izan zen, Ignacia Muñagorri anderea.

Lizartzatik San Kristobalerako bidean zeramatela, kamioiko kartolan botata eta esku biak burdinez estu-estu estekatuta, ekaitzaren lehen jasa pairatzen hasia zen bere gorputz minberan. Orduan sufrituak 1952an oroitzen ditu “Getsemani nere miñ-ondo” poema hunkigarrian (IG, I, 1991, 553):

“Miñ-aurrearen ikara! Miñaren larripena!
Miñ-ondo andiak ba du atsegin bat ostena.
Min-lekua legunkatuz artzen dan atsedena
esateko bakar da gai miñ aundiz egon dena.

Giltzapean nindôla esku lotuak burniz,
arren, lasaxegotzeko esatear egon niz.
Makurrago gerta-bildur, ixil jasan dut anitz.
Etziramon goxoa nun, ukaraiak igurtziz.

Ez dakit noiz arte, baiña jun ziran nere miñak;
Baratzan Jaunaren aien aldean ez samiñak;
baiñan Arenak sumatuz esan ditezke ziñak,
miñ-ondoaren goxoa jastatzeko egiñak”.

Antzematen da hamasei urte igaro direla, denborak bere lana egin duela, eta, erbesteratua bizi arren, paradisuari bizi dela El Salvadorko “Miramar” basetxean. Kristoren nekaldian sublimatzen du bere min-ondoa. Ahaztu ez, gorrotorik ere ez.

Kamioian zeramatela, bidean garbitu egingo zutela erabat kontentzia egonki, zalantzarik gogoa arantzatsua zulaka hasi zitzaizkion, fedea balantzaka jausten. Huts bihurtzera zihoala: hau zuen kezka nagusi, Dabid Humerekin eztabaidan. “Bukaera. Betiraunde” poema (IG, I, 1991, 592-593) barruraino sartzen den horietakoa da, pieza osoki existentzialista, Orixe kontserbadoreak egiazki bizi izandako fedea alderdi hori ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia dena, nahiz, zoritxarrez, gutxiegi aipatzen den. Hain da erraia, hain si-

nesgarria, hain gardena, haren kontakizunari ezin zaiola gain hartu.
Mintza bedi beretik, besterik ezean ahapaldi hautatu hauen bidez:

“Baïña mundu onek,
besterik ez ba’litz,
bukatzerik al du?

Ibiliz,
ibiliz,
urteen igurtziz,
ikusten ditugu diranak oro
igatzen ari,
belarra ximeltzen,
ostoa erortzen,
arkaitzak itzazten.
(...)

Eta gizona?
Gezurra diozu,
David Hume zoro!
‘Pakean al ago’
galdegin zioten iltzeko bezperan lagunak,
eta arek:
‘Ez diat kezkarik:
Azken-zigarroa biltzen ari nauk,
eta berela uts biurtuko nauk’.

Ba-ninderamaten
-nik ez iakin nora-
bost txapelokerrek ilun gorotzean uritik aldera.
Ioko naute tiroz;
nere bizi au lipar batean
oiñazerik gabe bukatuko da.
Ez dut min-bildurrik.
Eta gero, zer?
Uts biurtuko?

Nâsi zait barrena,
ez dezaket etsi?
Zein da nere kezka?
Utsera-bearra?

Iñork aiña larri ba-daukat nik ere nere bizialdi nolabaitekoaz.

Zerk ikareatzen nau?
Ipernuak?
–Etzait bururatzen ere.
Izan, behintzat,
izan;
bizi, behintzat,
bizi.
Ipernuan ere?
Utsera, beiñipein,
ez nadin etorri.
Nik iraun dezadan.

Ezpañez bederen goraintzi diot nere bizi au Iaungoikoari.

Ba-naramate
Iruñ-inguruan igo eta igo.
Gaztelu aldera?
Asi naiz lasaitzen
ez ote nauten tiroz kalituko.
Argitasuna!
Oraindik bizi,
oraindik iraun”.

Iruñeko Artikan kamioa Ezkaba mendian gora abiatu zela konturatu zenean, zer lasaitua harena! Bizi-esperantzak kuraia berriak sortu zizkion. Baina kartzela-barruan ere gorriak ikustekoa zegoen. Hango bizipenak idatzita zeuzkan Orixek, grekozko izenburu batekin, gainera. Beste zenbait dokumenturekin batera, hori ere galdua da, edo desagertua, benetan penagarria dena. Dena den, labur bada ere, *Quito'n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 737) ematen digu hango berri, bere arreba Denuxirekin hizketan ari dela:


“N.- San Cristobalen nengonan, Iruñan. Meza emailea, pistola gerrian, Meza emateko yantzi zinan. Meza bukatu ondoan, ‘un Padre nuestro por los mártires de España’, asi zinan. Gorriak ez baitziran martiri, beraz, berenentzat egin zutenan otoi. Yainkoaren alde odola emanak otoi. Etxun bear, iraiñ egiten baitzaio gañera. Bai ordea zenbat gorrik erantzun ere: ‘Nosotros hemos aplicado por los nuestros’. Ez al da lotsagarri?

D.- Ta erreztatu zuten?

N.- Garbi alare. Bazitxinan Meza laguntzen zekitenak ere. Geroz okertu, gizagaxoak. Zergatik illarazi, Yaingoagana ekarri zitezken gizonak? Eta auzirik garbitu gabe geienak.

D.- Ik ere senper ikusiko uan?

N.- Nereak etxun asko balio. Ogeita sei kilo galdu nitunan sei illabetea, baña bestela ederki egon nintxinan, lenengo zortzi egunetan ezik. Aietan bai, ipernu gorria! Erriberako koxkor aien artean sarrerazi nindutenan. Ago bakoitza ipernu, gau ta egun biraoka. Ta aldioro gaiztoz asmatuak: Yesukristo, aldareko Meza-ontzi guziak bana-ka, Ama Birjina, izen guzietakoa. Zer zan ua! Etzunaten lorik ere egi-ten (...) Euskaldunen artera pasatzeko baimena eskatu nenunan, eta oiartzuarrekin egon nintxinan andik ara. Ua bai zerua, ipernuan!”.



San Kristobalgora gortokuaaren sarrera 2003ko ekainaren 14an, arratsaldeko zazpiretan, 900 metroko altituda daukan Ezkabako mendi-kaskoan, gerrate zibilekoan Orixeren presondegi izana.

Biraoak bihurtzen zion leku hura infernu gorri. Hogeita sei kilo galtzea, ez al da askotxo galtzea? Lehenengo zortzi egunetan Erriberako nafarren artean eduki zuten biraoen erdian larri asko, Daniel lehoi-zuloan bezelatsu. Baina gero euskaldunekin egoteko parada izan zue-
nean, orduan bai ederki, infenua bera zero bihurtuta.

Zergatik kartzelaratu zuten? Euskaltzalea zelako. Horra arrazoa. Berak *Quito'n arrebarekin*-en aitortua da, ahaide zuen Arantzabe Ormaetxea (Araxes) apaiz jaunari esker ez zuten fusilatu, argudiatuz Orixe ez zela politikaria, folklorezalea baizik. Haren hitzak indarra zeukan, *La Constancia* egunkarian idazten zuen karlista sonatua baitzen.

Heriotzatik txiripaz libratu bazen ere, kartzelak ez zion barkatu eta han egon behar izan zuen lau hilabetez, hots, abuztutik urte-bu-
kaera arte. Kartzelatik nola atera zuten, ordea, ez da hain ezaguna. Ondoko xehetasunak Justo Maria Mokoroari zor dizkiogu, 1988ko abuztuaren 2an berak kontatu bezala dakartzagunak. Ormaetxea fami-
liak, antza, bazekien Justo Maria Mokoroa eta Nikolas lagun minak zirela eta, dirudienez, horregatik jo zuten Tolosako aita eskolapioaren-
gana. Hau, une hartan, Iruñean aurkitzen zen. Ordurako aita eskola-
pioen komentua erreketek “internatu” bilakaturik zuten. Justo Maria Mokoroak, egin zioten eskeari ahalik ondoen erantzun nahirik, lehen lana Mariano Santesteban jaunarekin hitz egitea izan zen. Mugimen-
duan eragin handiko gizona zen, bizibidez jostuna, apaiz-jantziak egi-
ten zituen, hain zuzen. Honekin komentuko sakristian egin zuen topo. Baita galdegin ere Nikolas Ormaetxeaz. Soinean zeramatzan pre-
soen zerrendaz osatutako lau roiloak begiratu eta gero, “ez dator he-
men horren izenik”, erantzun zion. Lehen saioaldian zuri eginda, hurrengoan Beorlegi koronelaren emaztearengana jo zuen, honen bi
semeak eskolapioetan baitzebiltzan ikasten. Horietako bat, gainera, aita Mokoroak berak ikasle zuen. Une hartan senarra Oiartzunen ze-
goenez gero, emazteak ezin zezakeela gauza handirik egin eta, honek Solchagarengana bidali zuen. Jaun honekin 1936ko abuztuan bertan
hizketatu zen. Aita Mokoroak, militar horrengana joan zenean, Orixe-
ren *Santa Kruz Apaiza* liburuko azken atala, “Euskalduna ta Eus-
kalerria” deitua, itzulita eraman zuen, hor karlistak begirunez aipatzen
baititu. Solchagak irakurri zuen eta erantzun: “Esos que piensan así se
nos han ido por otro lado”. Dena den, buruzagi militarrek telefonoa
hartu eta zuzenean San Kristobalgo kartzelara deitu zuen. Hizketan ari
zela, aita Justo Maria Mokoroa ohartu zen Solchagari begitartea alaitu

zitzaioa. Telefonoa utzi eta, esan zion: “No le pasará nada”. Segidan, atxilotzera joan zitzaizkionean kendu zioten idatz-makina eta idazten hasia zen artikulua erakutsi zizkion, izenburu hau zeramana: “Historia de la famosa hazaña del Frente Popular y nacionalistas vascos contra las aguerridas huestes del Requeté y Falange”. Azkenean, zer nahi zuen galdegin zionean, hark erantzun: hura ikustea. Baina noiz, gaur bertan? Hark berriro: ahal bada, bai. Hala, kotxe militar batean sartu eta kartzelara eraman zuten. Aurpegia bizar handi batez estalia aurkitu zuen Orixe, zazpiren bat metrora edo, burdin sare batzuen atzean. Hotzez zegoela eta, arropa ekartzeko eskatu zion. Eskatu bezala, arropa eta dirua bidali zizkion, garai hartako 300 edo 400 pezeta inguru. Eta horrekin batera, bi liburuok: *Evangelia* eta *Apostolicum*, hots, Testamentu Berria grezieraz eta latinez idatziak. Orixe, hartutakoengatik eskerrak emanez, lapitzez idatzia erantzuten dio 1936ko irailaren 1ean: “Le escribo para agradecerle la abundante ropa que me ha enviado. Dios se lo pague. Al salir haremos las cuentas. Recibí también el dinero. Ruegue por mí”. Seguru asko gutun horrekin batera gutunazal berean bidaltzen dion beste paper batean –hau ere lapitzez idatzita, baina datarik gabe–, Uitziko Fidel jaunari handik libratzeko egiten dion eskearen berri dator: “El mismo Fidel pudo ya haber gestionado con su amigo y mío, natural, además de Huici, D. Juan Pedro Arraiza. Dios no querrá. Yo conforme”. Beste bandokoak izaki, herriko bi jauntxo horiengandik ez zuen deus lortu.

San Kristobal utzi ondoren, Orixe Petra bere arrebaren etxean ezkutatu zen Tolosan, “Eguerdi. Urte zuria” poeman (1937) poemako lehen bertsoan esaten duen bezala:

“Bego San Cristobal, otadia bego.
Arrebak Tolosan izkutatu nindun”.

“Izkutatu nindun”, dio. Esan nahi baita, ez zela seguru sentitzen eta satorren bizitza hartu behar izan zuela. Eta ez arrazoirik gabe. Arreba Petra bera baino bi urte zaharragoa zen, J. M. Aranarekin ezkondata zegoena eta orduan Tolosako Aurrezki Kutxa Munizipala zegoen eraikin berean bizi zena. Arreba honen etxera biltzen zen Joan Joxe bere anaia ere. Familia honetako alaba Maritxu da, hain zuzen, Orixe Argentinako Avellanedan bisitatzen duen bere iloba kutuna. Bere arrebarenean urte t’erdi egin zuen ezkutatuta, gutxi-gorabehera 1937ko urtarriletik 1938ko udaberria arte.

Orexatik ihesi

Oraingoan eraman ez, ihesi egingo du. Eta ihesi ez Tolosatik, ezkutatua zegoen lekutik, alegia, Orexatik baizik, bertaratu eta handik hamazortzi egunera, hain zuzen. Errepublikaren aldeko indarrak nagusituko zirelakoan, berriro baserrira itzultzea otu zitzaion. Bertaratu orduko, kalkulu txarrak egiteaz gain, beste okerrago zerbait gertatuko zaio. Arratsaldez ate-joka agertu zen eskeko fraite bati etxean aterpea eman zioten eta afaltzerakoan, antza, Orixek lizentzia guztiak hartu zituen matxinatuen kontra jesukristorenak eta bi esateko. Jesuitetan lumarekin bezala, oraingoan ere mingainarekin huts egingo du, zuhurtziak erakusten duenetik haratago joanez. Fraile legoak, hurrengo egunean, Tolosako Komandantzian zitatu zuen, eskrupulu handirik gabe zitatu ere, hangoei esanez ea zer egiten zuen horrelako gizon batek han Orexan. Ez baitzuen horrelakorik espero, gutxiago erlijiosoan zen batengandik, Orixek idatzirik utzi zuen pasadizo horri buruzkoa “De mi vida externa”n, salatzailearen izena eta guzti emanaz, historiak jakin dezan giza itsukeria noraino iristen den: “Sin meterme a establecer tesis ni siquiera a relatar hechos ciertos presenciados, lo único que me quiero limitar a asegurar es que San Ignacio de Loyola no me hubiera denunciado, como lo hizo un religioso de cierta orden –su nombre en el siglo Manuel Artola– a quien colmé de obsequios en mi casa el día anterior, y quien comulgó el día que me denunció en la Comandancia de Tolosa”.

Manuel Artola hori, Lekunberriko semea, kaputxinoa zen. Orixek, fisonomista ona izaki, aurpegi ezaguna egin zitzaion bere etxeko atarian agertu zenean eta, zalantzak uxatzeko, zuzenean galdetu zion: “Zuk bizarraren azpian ebaki bat duzu, ezta?”. Orixek pentsatu bezala izan ere, Jose Mari Aranaldek kontatu zigunez. Nonbait bizar-labana-rekin egina zuen. Bestalde, harritzekoa ere ez zen Orixek hura gazte-denboran ezagutzea, Uitzitik Lekunberrira bi pauso baitaude.

Salaketa egin eta berehala agertu ziren handik guardia zibilak. Errepide ondoko soroan aurkitzen zen bere arreba Eusebia eta honi galdegin zioten non bizi zen Orixe. Eta hark usu erantzun: “... ba halako baserri hartan”. Sorokoak utzi eta, bere arrebak, etxerako bidea hartu orde, zuzenean eskolara jo zuen zein jentilaje etorri zitzaion bila bere anaiari gaztigatzera. Egun hartan, ez dakigu zuzen zein egunetan, herriko maisua falta zen eta, horrelakoetan ohi zenez, Orixe bera ari zen eskola ematen. Eskola-umeek zer gertatzen zen ez zekitela, Orixe

istantean desagertu zen handik eta, norabait jo behar eta, abertzalea zen Legasa baserrira zuzendu zituen oinak, ahal bezain arinen, babeseske, guardia zibilak bere etxetik zebiltzan bitartean. Baserri hau Oreatatik Lizartzara goazela, biderdian ezker, erdi-bistan, dagoena da. Une hartan, baserriko nagusiaren anaia zegoen bertan, Patxi Atxega, mikeltea bera eta Zarautzen bizi zena. Hura tokatu etxera etorrita han egotea. Ez bat eta ez bi, iheslariari esan omen zion: “Mutil, mutil, hoa hemendik eta ezkuta hadi Araneko baso horretan nonbait”. Esan bezala egin zuen. Basabe izeneko erreka-zulotik aurreraxeago joanda, aipatutako baso horretan badira borda batzuk eta inguru horretan egon zen gordeta, gau t’egun, Orixe gurea. Legasako Patxik ematen zion jana gauez ezkutuan. Araneko erreka-zulo horretan sei egun zeramatzala, halako batean Lizartzako batek ikusi omen zuela jakin zuten Legasakoek. Berri hau zahaldu baino lehenago, handik atera eta Utitzira eramatea erabaki zuten. Honaino Jose Maria Malkorrek kontatua, Orixe eskolatik desagertu zenean, bertan aurkitzen zen lekuko zuzena. Erbestean Orixe berak Antonio Maria Labaieni kontatua da, halaber, nola, bere ezkutalekutik atera eta, bere etxera joan omen zela non zegoen abisatzera.



Benta Berritik begiratuta, Urkietako gaina aurrean eta behean Araneko baso itxia, Orixe ezkutatuta egon zenekoa.

Uitzirako ihesaldi honetan ez zuen seguru asko umetan egin ohi zuen ibilbide bera egingo, Ulin barna, alegia. Aranetik ere bada bide bat hara joateko, baina oinez ibiltzeko, Ulikoaren aldean askoz ere zarragoa eta arriskutsuagoa. Baita basagoa ere. Akuilutegi eta Ohonbetik barna gora jo, eta basurdeak nasaiki bazkatzen direneko lekuak zeharkatuz, Aresoko pistara ateratzen den mendi-lepora heltzen da eta Ulikoarekin hor bat egiten da Gorritirako bide nagusiari heltzeko. Biderakoan gogoratuko zitzaion, noski, amona Axuntxirekin egiten zuen bide hura, orduan festa-usaian, orain ihes-beharraren izuan.

Uitzin ezkutatuta

Orixe, gorputza erabat desegina, goizeko hirurak inguruan iritsi zen Uitziko Errekaldera. Gau hartako lehen mugimenduak nolakoak izan ziren Pedro Ariztimuño Ansorenak kontatu zizkigun Andoaingo bere etxebizitzan, 1989ko urtarrilaren 17an eta, bide batez, zuzenketa batzuk egin eta xehetasun berri batzuk emateko aukera eskaini zigun. Lekuko hau, lehen esan bezala, Errekaldekoa da, amona Maria Inaziaren biloba eta honen alaba Zelestinaren semea.



Errekaldeko borda, Entzelaitik hurbil, txoko batean lizarrez inguratua. Gero bere gordeleku bilakatuko zen borda-inguru honetan ibiltzen zen Orixe artzain gaztetan.

Orixek gauez hara iristean ez omen zuen atea jo, baizik eta, base-
rri hartako berri ondo zekielako, zuzenean aitonak eta lo egiten zuten
gelara joan omen zen oin-puntan. Han, Pedroren, hots, lekukoaren
anaia zaharrenari zuzenduz, hauxe esan omen zion: “Joan Mari, Joan
Mari, esan iezaiezu aita eta osabari jaikitze”. Sasi artean ibilita, odo-
letan eta egarri, hiru baso ur edan omen zituen. Gero, atzetik segika
etorriko zitzaizkionaren beldur, Errekaldeko bordara eraman zuten,
toki seguruago bat prestatu arte. Borda hau, Leitzatik goazela Uitziko
mendi-portura aristean, ezker hartu, jo aurrera zuzen Entzelain barna
eta zazpi-hamarren bat minutura edo, eskuinetara dagoen txoko batean
aurkitzen da, lizar zoragarri batzuen erdian eta deskantsu ederrean.

Borda ederra da, luzea. Sarrerara begira gaudela, ezkerreko albo-
tik bi leiho dauzka eta atzeko partean, beti ezkerreko alboan, sarrera-
rako ate txiki bat, ganaduentzat egina; gainaldeko alboan, berriz, sarre-
ra handi bat dauka, bertatik ganbaran belarra, lizarra eta, sartzeko.
Teilatua lauza luzez estalia du eta horren gainean teila; baina une ba-
tzuetan, bereziki ezkerreko alboan, teila-zatiak falta dira. Ez dago era-
bat abandonatuta, baina bai asko zaindu gabe, gainaldetik sasiak pixka
bat hartua baitauka. Nahiz eta borda hau zokogune batean kokatua
egon, bertatik Uitz aldera pauso batzuk ematea aski da, kasko polit
batera iritsi eta handik Utzi eta Gorriti alde ederki asko bistaratzeko.
Eguneko nahiz gaueko ordu santu guztiak non egiten zituen, bordan
bertan, edo inguruneke zokoren batean, edo lekuz aldatzen zen, ez
dakigu gehiegi. Esaten dena da jana egunez ekartzen ziotela bordara,
eta berak gauez hartzen zuela. Dirudienez, borda hori buzoi bat beza-
la zen. Han mendian hiru-lau bat egun egin ondoren, Ariztimuño eta
Balda familiak elkar hartuta, Martinpereneko jauregian egin zioten
gordelekua. Habia ezin aproposago! Arraiza nagusia udako partean
bakarrik bizi izaten zen han bere familiarekin. Balda familiak, berriz,
jauregi horretako ikuilua erabiltzen zuen. Udaberrian edo, agertu bai-
tzen handik Orixe, sasoin hartan jauregia hutsik zegoenez, itxita ego-
ten zen ganbarako atea ireki eta han egin zioten bere gordelekua.
Bertan, hala dio berak “De mi vida externa” dokumentuan, hiru hila-
bete egin zituen. Ez zekien asko Juan Pedro Arraiza jaunak nor zegoen
ezkutatuta bere etxean! Balda, abertzalea bera, pilota-korredore gisa
ibiltzen zena zen, eta honen ilobak, serora zenak, pasatzen zion jana.
Korputzi egunean prozesioa nola egiten zen leihotik begira egon omen
zen, inor enteratu gabe. Banaka batzuk besterik ez ziren non zegoen
zekitenak, Errekaldekoak, Joxe Olaetxea eta, agian, beste norbait.

Hanketatik galtzen ari zela eta, bestetik, jendea konturako zen beldurrez ere bai, Aresoko Esteban Arraiago tratantearekin hizketatu ziren handik hura atera eta mugan jartzeko. Esan behar da aresoarrak sartu-atera handia zuela bai Ariztimuño bai Balda familiekin eta elkarrekin bazutela konfiantza. Iturri desberdinetatik jakin izan dugunez —eta horien artean Joxe Maria Arraiagok, Estebanen semeak, esanda—, aresoarrak antolatu zuen mugarainoko burubidea. Bi mutil zahar izan ziren Uitzitik Berueteko Orkingo mendi-puntara eraman zutenak, Errekaldeko Pedro Jose, Zelestinaren anaia, eta Baldaren anaia. Han Fermin Iñarrea kontrabandistak hartu zuen, Belatetik barna, bestaldera pasatzeko. Bidean, ordea, geldirik hainbeste denbora egonda, ezin joanez geratu zitzaion Nikolas. Kontrabandistak hango zokoak eta bazterrak ondo ezagutzen baitzituen, hutsik zegoen borda batera eraman zuen eta bertan egun bateko edo biko deskantsua eman zion. Indarberrituta, gauetz bestaldean zen, seguru asko Arnegiko partean. Egia da, bai, Joxe Mari Aranaldek esan bezala, muga hanketako azazkalak erortzeraino egosita zeuzkala zeharkatu zuela, baina ez, esan izan den bezala, haraino behor gainean joanda. Zutik egoteko gauza ez zela pasatu omen zuen muga. Hainbeste denbora lau hormaren artean geldirik egonda, indarririk gabe geratu zen gizona.

LAUGARREN ZATIA

ORIXE ERBESTEAN
(1938-1954)

BEDERATZIGARREN ATALA

IPARRALDEAN ZAKUR GALDU BATEN MODURA (1938-1950)

Orixeren erbestaldia Euskadik jasan zuenaren barruan kokatu behar da. Fenomeno orokor bat izan genuen eta horren barruan du bakarrik bere zentzu osoa. Gainerako euskal errefuxiatuek bezela, Orixek ere bere zailtasunak pairatu behar izan zituen. Gerraosteko erbestaldi hau ez da behar adina ezaguna eta komeni zaigu orduan errefuxiatuek mugaz bestaldean aurkitu zuten gizarte-giroaren berri ematea. Azalpen orokor baten testuingutuan ulerterrezago egingo da Orixeren erbestaldiko bizimodua ere.

Orixek bere sorterritik udaberrian ihesi egin bazuen eta oraindik Korpuzti egunean Uitzin baldin bazegoen leihatila-zirrikitutik prozesioa ikusten, pentsatzekoa da 1938ko udan, abuztuan edo, zeharkatu-ko zuela muga. Baina ordurako euskaldunen ihesaldia aspalditxo hasia zen. Hegoaldean leku batetik besterako ihesaldia 1936ko irailean hasi zen, Gipuzkoa inbaditzeko Mola jeneralak bidalitako indarrek Irun okupatu zutenean, zehazki. Jose Miguel Barandiaran, adibidez, beste iheslariekin batera, 1936ko irailean joan zen itsasoz, Mutrikitik Zokoara, “El angel de la guarda” itsasuntzian. Bizkaiaren kontrako eraso hasi zenean, berriz, 1937an hain zuzen, ihesaldia areagotzen joan zen. Eta emigrazio bortxatu honek bere puntu gorena Bilbo erortzean jo zuen, jendea samaldan abiatu baitzen Santander aldera, hemendik eta Asturiastik, itsasoz, Frantziako portuetara joateko.

Errefuxiatuen aldeko laguntzak eta erakundeak atzerrian

Ihesaldi masiboak mota askotako estualdiak sortu zituen eta Eusko Jaurlaritzak izan zuen zertan ahalegindu gainezka egiten zien premia guztiei erantzun ezinez. Kolpetik, goizetik gauera, 200.000 gizon-emakume inguru zeruaren eta luraren erdian galduta aurkitzea, non eta atzerrian, aterpekorik eta jatekorik gabe eta, okerrago oraindik, hainbatek gorputzak zaurituta, zerbait serioa zen.

Premiak asko eta aldiberekoak ziren, baina ez maila berekoak. Presarik handiena zutenak, bistakoa zenez, gerran zaurituak eta gaixoak ziren. Eusko Jaurlaritzak gerrako ehundaka elbarri, Santander eta Asturiastik itsasoz Frantziara ebakuatzea lortu zuen eta horientzat behin-behineko egoitzak antolatu zituen herri hartzailean. Laster, ordea, elbarrituen kopuru handi bat Frantziatik Kataluniara eramán zuten, han Eusko Jaurlaritzak ezarririk zeuzkan aterpe atsegin batzuetan ospitalizatuak izan zitezten. Baina Frantzian oraindik elbarri dezente geratzen ziren eta hauentzat antolatu zen, hain zuzen, “La Roseraie”ko egoitza 1937ko abuztuan. Gaixotegi hau Miarritze ondoan aurkitzen da, paraje ezin ederrago batean, lurra, itsasoa eta zeruaren erdian kokatua. Eraikin dotore hau, Stavisky bankariak sustaturik, aberatsentzat egina izan zen, hotel eta kasino gisa, aisi atsegin-leku izan zedin. Tresneriaz ongi hornituriko gaixotegi moderno honen zuzendaria Gonzalo Aranguren izan zen eta berarekin batera aritu ziren lanean Agirretxe, Garigorta, Astorki, Peeriro eta Otxandiano doktoreak, erizainak eta gainerako pertsonala. Bertan artatutako populazioa, elbarriak eta enplegatuak kontatuta, hirurehunekoak zen 1938an. Ehundik gora haur jaio ziren. Gerratekoan gorputz-atal garrantzitsuren bat galdu zuten elbarrientzat, berrezitzeko eskola ireki zen 1938ko urtarrilean. Tailer horretan hainbat ofizio ikasi ahal izan zituzten, hala nola zapatagintza, espartingintza, ortopedia, zurgintza, berunkaritzza, elektrizitatea, saskigintza, taila eta zurgindegia, grabatua eta erlojugintza, mekanika, zerbitzu osagarriak, bulegoa eta biltegiak. Guztira, 142 langile aritzen ziren tailer horietan.

Beste milaka iheseginekin zer egin? Euskal emigratu bortxatuen artean oso gutxi ziren, banaka batzuk besterik ez, ekonomiairen aldetik atzerriko egoera desegonkor hari eusteko moduan zeudenak. Jende gehiena herriko jende xumea zen. Bizitzeko ozta-ozta zeukana. Ez gehiago. Hasieran, Eusko Jaurlaritzak, Baionako bere Delegaritzan, hileroko halako kopuru txiki batzuk esleitzen zizkien Euskadiko Aurrezki-Kutxetako libreta-jabeei. Baina sorospen hau desagertu egin zen Eusko Jaurlaritzaren Hazienda Bartzelonara aldatu zenean. Denbora joan ahala,

familien eta euskal emigratuen egoera okerragotuz baitzihoan, zegoen larriak eraginda, “Comité Basque de Secours aux Réfugiés” delako erakunde humanitarioa eratu zen 1937ko abuztuan. Batzorde honi laguntza, batik bat, munduan zehar barreiatuak zeuden euskaldunengandik etorri zitzaion. Euskaldunak ez izanik ere, euskal arazoa ulertzen zuten beste hainbatek beren laguntza eman zioten erakunde horri.

Honela, Eusko Jaurlaritzak aterpe batzuk eratu zituen eta, bide batez, diru-laguntza finko bat ezarri ere bai lege baten bitartez, hots: eguneko 5 frankoko laguntza ematen zuen lagun bakoitzeko. Zerbait zen jasotzen zutenentzat, baina okerrena zen laguntza hori ez zela guztiengana heltzen eta, ondorioz, milaka lagunek ez zutela hartzen Eusko Jaurlaritzak luzatutako laguntza sozial hori. Zehatzago esanda, 18tik 45 urte bitarteko gizakume guztiak sartzen ziren hor. Hauek pinu-lan gogorrera joan behar izan zuten, bertako inortxok egin nahi ez zuen lanera. Orain bezala, orduan ere hango lan-legeak frantsesentzat eginak zeudenez gero, lan-balditzak aski zailak ziren Prantzian. Lanerako Agiria (*Carte de Travail*) beharrezkoa zen lanerako, baina hori atzerriko langile gutxiak lortzen zuen, bertan lanean denboraldi aski luzean jardun eta gero lortu ere. Baina bazen lan-mota bat, gogorra bezain krudela, inorentzat gustukoa ez zena. Basoko pinu-lana zen hori, eta lan horretako, bai, baimenduak zeuden atzeritarrak. Gironde eta Landetan 5.000 euskal errefuxiatu inguru ibili ziren pinu-lanetan, lan-baldintza guztiz penagarrietan. Pinudian bertan egindako etxetxo batzuetan bizi ziren, ez manta, ez izara, ez buruko, egualdiaren makurraldiak jasanez, eta inolako garbitasunik gabe. Jurnalak koxkorrak ziren eta lanordua, berriz, luzea. Hamar ordu baino gutxiago sekula ez. Baso-langile hauen artean inoiz eskulanetan ibili gabekoak ere aurkitzen ziren, hala nola bizibide liberaletakoak, arkitektoak, medikuak, abokatuak, perito merkantilak, fakultatiboak, enplegatuak, eta bestelakoak.

Orixek erbesteratu zenean 50 urte baitzitu, Eusko Jaurlaritzaren legeak agindutako adin-muga horretatik at geratuko da. Nolanahi ere, pinu-lanetik libratu bazen ere, erbestean bizi beharrak hamaikaxo txango eginaraziko dio hara eta hona, bere ogibidea eta bere gustuko euskal lanak ahalik eta ondoen uztartzen ahaleginduz.

Batetik bestera

Orixe leku askotan egon zen bere erbestaldian, txori ipurtarin baten antzera. Lehenengo bi urteak (1938-1940) Donibane Lohizunen

egingo ditu, hiru (1940-43) Landetako Saubionen, beste hiru (1943-46) Betharramango Mixel Garikoitzen Ikastetxean, Bidarrain gero beste bat, agian, 1946an, eta, berriro, Donibane Lohizunen azkenekoak (1947-49). Hemendik Amerikarako intsasontzia hartu aurretik, ordea, Biarnon oporrak martxoan hartu ondoren, udazkena Bidarrain pasatuko du. Bete zituenetz ez dakigu, baina horrelako asmoak agertzen dizkio Ibar adiskideari Txilera 1949ko martxoaren 11n egindako gutunean: “Oporraldia artzeko asmoetan naiz datorren astetik. Biarno’ra noa. Udazkena Bidarra inguruan pasako dut, eta neguan... Ameriketara. Misal’ak eman dizkidan sosekin (eskubide guziak utzirik), joan etorria egiteko aña ba dut”. Misala bukatzean, atsedean hartzera edo, kostaldetik mendi aldera urrundu zen. Udazken honetan egingo ditu, Euskaltzandiaren berritzea dela eta, *Gernika*-n argitaratutako “La primera Academia Vasca” (1949) eta “Errores de vascológos nuestros” (1950) izeneko artikulua sonatuak, euskaltzaleen artean itsas uhinek Kantauriko arroketan baino bitsa gehiago atera zutenak.

Nolanahi ere, oso zaila da non noiztik nora egon zen zehaztasunez datatzea, arrasto bakanegiak utzi baititu ezer garbirik atera ahal izateko eta badira gure lanean behar bezala bete gabe utzitako hutsu-neak. Ezinbestez, jakina. Dakiguna, gehienetan, berak egindako zeharko aipamenen bidez dakigu, edota bere garaiko lagunek berari buruz egindakoetan. Jose Mari Aranaldek (1965, 14) eskainitako biografian, agian Orixeri berari entzunda, Air-sur-L’Adourren egonaldi bat egin zuela ere esaten da, 1943an edo. Guk, ordea, datu hori ez dugu ziurtatu ahal izan.

Donibane Lohizunen (1938-1939)

Orixek Donibane Lohizunen egindako lehen egonaldiaz ezer gutxi dakigu. Aita Justo Maria Mokoroari Landetako Aire-sur-l’Adourreko Seminario Txikira igortzen dion posta-txartela da lehen eta azken arrasto bakarra, 1938ko irailaren 16an egina. Gogoeta teologikotan murgilduta dagoela sumatzen dugu hor, Maritain, Lagrange eta Sertillangesen liburuak irakurtzen ari dela baitio. Irakurri bakarrik ez, idatzi ere egin zuen. *Euzko-Enda* aldizkarian bederatzi artikulua argitaratu zituen euskal gramatikaz 1939an, gaztelaniaz “Hacia una gramática nuestra” izenburuarekin, 6. zenbakitik 14.a arte, batean bakarrik ere huts egin gabe. Hamasei orrialde trinkoko saio burutsu eta mamitsua

da, *Idazlan Guztiak* bildumako III. tomoan argitaratuta datorrena. Euskarak, bere barne-egituraren aldetik begiratuta, gogoeta filosofikoetarako duen gaitasunaz mintzatzen da, tajuz eta zentzuz mintzatzen ere. Beste artikulu bat ere idatzi zuen aldizkari berean, “Las dos banderas de San Ignacio y la guerra de España” izenekoa, hau Espainiako gerrari buruz idatzia. Seguru asko, zerbait gehiago ere idatziko zuen, nahiz geroago beste nonbait argitaratuak izan. Euskaraz ere, agian, bai, baina haren garai honetako euskarazko argitalpenik ez da ezagutzen.

Erbesteko lehen urteak ez baitira batere lasaiak izaten, egoera berriera moldatzen asmatzeak bere lanak eman ohi ditu, eta Orixek ere, beste gehienen antzera, bere buruari hamaikatxo buelta emango zizkion.

Gurseko zelaian (1940)

Donibane Lohizunen dagoela, asko uste gabe, beste lagun batzuekin batera, atxilotu eta itxitura batean sartzen dute. Bizileku berri honek, berak *Quito'n arrebarekin* lanean (IG, I, 1991, 745-746), garbitokiaz ari dela, espreski dakarren bezala, Gurs du izena.

Gursekoa lehen baino ezagunagoa bada ere, oraindik ere jende gutxi du horren berri oraingo eta ez hain oraingo belaunaldikoen artean. Telesforo Monzonek 1947an argitaratutako *Gudarien eginak* liburuan “Zigor zelaietan” izeneko poema jakingarri bezain hunkigarria dator, kronika moduan naro-naro landua dagoena eta ukitu liriko koloreztatua. Monzonek hor bere lekukotza zuzena eskaintzen du, bera izan baitzen euskal errefuxiatuak ordezkatzeko zituena Frantziako gobernariaren aurrean. Eginkizun delikatu horretarako gaituena bera zen, frantsesez ederki moldatzeaz gain, frantsesekin harremanak erraz egiten omen zituelako. Hori da Jesus Maria Leizaolak adierazi ziguna berarekin izandako elkarriketan.

Euskaldunak eta beste hainbat jende bildurik egon zireneko Gurseko leku hari modu askotara deitu izan zaio. Orixek “atari itxitu edo mirandategi” deitzen dio; Monzonek, bere poeman, “zigor zela”; Ikuslek (1939) *Euzko enda* aldizkarian, “campo de concentración”. Claude Lahariak (1985, 400) inolako kalifikaziorik gabe darabil bere ikerketa-lan monografikoan. Guk ere, aipaturiko autore honek bezala, “Gurseko zelaia” deituko diogu. Izan ere, zer besterik izan zen hura? Gurseko lautadaren bukaeran, justu Gurseko herritik eskuin, Maulerako bidea hartzen den izkinean, zigortutako errefuxiatuak bertan

artatzeko xedearekin halabeharrez eraikitako egoitza behin-behineko bat besterik ez zen izan, barraka-multzo baten antzeko zerbait. Egun, ordurorik deus ez baita han ageri, historiaren lekuko gisa, hauxe dago idatzia ohol baten gainean: “Ici se trouva le camps de concentration française de Gurs”. Ofizialki, beraz, kontzentrazio-zelaia deitzen zaio, nahiz, hitzaren zentzu hertsian, egiazko kontzentrazio-zelai bat ez izan.

Gerraondoko emigrazio luzean euskaldunak, Gurseko zelaian baino lehenago, Ekialdeko Pirinioetako departamentuan kokatua aurkitzen den Argelès-sur-Mer herrian egon ziren. Euskaldunen zortea Penintsulako beste emigratuen antzekoa izan zen. Ez hobe eta ez txar-rragoa. Tropa nazionalak Bartzelonan sartu zirenean 1939ko urtarrilaren 27an, Frantziako Gobernuak bere mugak ireki zituen eta handik hasiko dira atzerriratzen jende zibila eta gerran zaurituak. Azaña lehen-dakaria bera otsailaren 7an pasatzen da mugaz bestaldera. Jendea uholdeka doa, maletak eta fardelak herrestaka daramatzatela. Monzonek honela deskribatzen du irteera bere poema horretan:

“Bartzelona galdu zala,
mugatik bide barrena,
gudari ta ume, andra ta gurdi, abere ta abarra
zetorren –ura naspilla!–
Prantziruntz aterpe billa...
Ostikoka bai azkar eraman zigor zelaietara”.

Jende-uholde honetan denak doaz nahas-mahas: han gudariak eta haurrak, hemen emazteak eta gurdiak, harago ganadua eta gainerakoak. Hasieran, frantses agintarien harrera aski abegikorra izan zen, baina Biarnoko prentsa berehala jaiki zen errefuxiatu horien kontra, “repris de justice, assassins et bourreaux” eta gisako hitz salatzaileak haizatuz. Kanpaina honen ondorioz, 1939ko otsailaren 9an, Frantziako Gobernuak muga itxiko du, oraingoan erabat. Jadanik bazen milioi t’erdiren bat errefuxiatu atzerrian barreiatuta zebilena. Geroago ere beste hainbat jende pasatuko da, baina isilpean eta, gainera, ez asko: lehen ihesaldi hartatik hamarreko bat edo.

Jendetza handi hori non sartu, ordea? Hau zen arazo gorria. Otsailaren lehen astean hiru leku izendatu ziren, errefuxiatu hautatzat behin-behineko bizileku izan zitezten: Perpignan inguruko hondartzak (Collioure, Argelès-sur-Mer, Saint-Cyprien eta Le Barcarès), Haut-Vallespir izenekoa (Arles-sur-Tech, Amélie-les-Bains) eta Cerdagne izenekoa (Latour-de-Carol, Mont-Louis). Baina negu gogorrean han

egiten zuen hotza hain zen latza eta hain zulagarria hango haizea, otsailaren erdialdera edo, leku garaietan ezarriarik zeuden egon-lekuak hustu eta Roussillongo hondartzetan pilatu zituzten gizon-emakumezkoak, eta haurrak, berriz, barrualdeko aterpeetan. Sekulako miseriak eta kalamitateak ezagutu zituzten errefuxiatu haiek, bereziki Argelèsen eta Saint-Cyprienen zeudenek. Euskaldunak Argelèseko hondartzan egon ziren eta hor eraiki zen “Gernika Berri” izeneko oholezko herria. Monzonek honela deskribatzen du bizileku hura, bere begiak jaso bezala:

“Aterpe bakar ozkarbi...
Ondartza zabal oñazpi...
Otz eta nekearen laguntzat gose ta egarri.
Il-erdi aien zaindari,
morrozko beltz zaldi txuri.
Itxas-aizeak arrotzen zitun aien yantzi gorri”.

Zaintzen zeuzkatenak Maroko eta Senegaleko beltzak baitziren, horregatik deitzen die poetak “morrozko beltz”. Egoera horretan zeuden euskaldunen kopurua, iturriak batera ez badatoz ere, sei mila ingurukoa dela kalkulatzen da. Euskaldun hauek, Monzonen beste ahapaldi honetan datorren bezala, beste errefuxiatuekin batera sakabana-tuta zeuden:

“Sei milla euskaldun ba ziran
erdaldunekin batean
zorigaitz antza, neke ta gose zutela agirian,
begi larri, egonean,
arantza-burni atzean...
Andra ta seme galdu zituzten geienak bidean”.

Otsailaren 23an, Ministroen Kontseiluak Ménard jeneralari, orduan Tolosan 17. erregioko komandantea izandakoari, eman zion Penintsulako errefuxiatu guztiei zegozkien arazoez arduratzeko betekizuna. Honek, bide batez, Fagalde jeneralari pasatu zion zeregin hori. Militar hau Montpellierren 16. erregioko buruzagia zen, jatorriz euskalduna. Monzonen ondoko ahapaldian irakurtzen denez, Argelèsko hondartzan agertu zen euskaldunengandik galdezka. Frantsesez, jakina:

“Où sont les basques, allez, allez
oroi ziardula galde
egun batean ageri zaigu Buru zan Fagalde!

bera bai zan ango yabe,
danak arrituta daude...
Biotzak dar-dar,
entzun genion arnasarik gabe”.

Ohargarri da, halaber, Espainian Solchaga euskalduna, Nafarroako Muniainen jaioa, zela Katalunian agintzen zuena une hartan. Fagaldek eta Solchagak elkar ikusi zutenean, hark honi honela esan omen zion: “Pero si tú y yo somos vascos”.

Fagaldek asko lagundu omen zien euskaldunei. Ez dakigu arrazoi horregatik izango zen baina, Monzonek bederen leunki erabiltzen du Fagalderen izena. Buruzagi militar honek, Ekialdeko Pirinioetako Didkowski prefektu jaunarekin batera, estrategia hirukoitza eramatea erabakitzen du. Lehenik, errefuxiatuen artean berebiziko propaganda egiten du, bozgorailuak kamioi gainean jarrita, esanez joan daitezela beren etxeetara bestaldera. Eta joan, 70.000 lagun inguru joan ziren. Bigarrenik, frantsesen beldurrak eta susmo txarrak biguntzeko eta, bidenabar, “gorriak” deituak –bereziki, buruzagiak– ondo lotuta edukitzeko, Fort-Collioure, Le Vernet eta Rieucroseko kartzeletan sartzen dituzte. Hirugarrenik, lehen aipatutako zelaia hobetu egiten dituzte eta beste sei berri irekitzen, 100.000 errefuxiatu hartzeko modukoak. Banaketa honela egiten da: langile espezializatuak Septfondsen gertzen dira, Frantziako ekonomiarentzat lan egin dezaten; zaharrak, Bremen; katalanak, Adgen; euskaldunak, Gursen, Oloroe ondoan.

Mènard jeneralak aukera zezakeen euskaldunen bizileku gisa Baiona, edo Maule, edo Donapaleu; baina ez zuen horrela egin. Zergatik hautatu zuen Gurseko zelaia? Arrazoa, Ipar Euskal Herriari dagokionez, politikoa zen, zehazki hauteskunde-koiunturari zegokiona. Izan ere, 1939an, Ipar Euskal Herriko zirkunskripzioetako diputatuak eskuinekoak ziren. Horien artean Jean Ybarregaray zegoen, Mauleko deputatua, Espainiako gerrate zibilekoan tropa nazionalen alde agertu zena eta geroztik ere halaxe izanez segitu zuena.

Orixek Gurseko zigor-leku hartan bizitakoa halako kera berezi batez aipatzen baitu, geure begiez ikusteko gogoia piztu zitzaigun, are eta irrika gehiagorekin Claude Laharieren liburua irakurri eta gero. Udazken koloretsu batean izan ginen bertan, 1986ko azaroaren 28an. Goizeko hamaiketan izotzez zuri-zuri zegoen zelaia. Navarrenxetik bost kilometrora aurkitzen da, iparraldean, eta Oloroetik zazpita, hegoaldean. Hegoaldean, han Zubero aldean, Pirinioetako mendi

garaien aurpegi lerdena agertzen da, jaun eta gabe, Auñamendiko gailurra handitasunez aurrean dela. Errepidez ongi hornitua dago, baina ez du trenbiderik. Hurbilena Oloroekoa. Klima aski bustia da bertakoa. Neguan, hotzarekin eta euriarekin, lokatz bihurtzen da Gurseko zelaia. Lehen maliobra militarrek egiteko erabilia izan zen. Luzeran bi kilometro eta zabaleran larehun metro inguru ditu.



Gurseko hilerri hau da ordukotik geratzen den ageriko aztarna bakarra.

Hurbiltzen gindoazela, Claude Laharieren (1985, 22-23) jarraiko pasarte hau generaman gogoan: “La lande de Gurs est inculte. Sa végétation spontanée est faite de fougères, de bruyères, de ronces et de broussailles. Les paysans de la région ont renoncé depuis longtemps à la cultiver et ne l’utilisent que pour y envoyer paître leurs troupeaux. Le paysage est sauvage, surtout quand le temps est à l’orage”. Bertara iristean, ordea, guk irudikatuak antz gutxi zuen gure begiek ikusitakoarekin. Aurrean geneukan Gurseko zelai hura gehienbat zuhaizti zen, eta zati bat bakarrik artasoro. Zuhaiztia pinuz, txopoz, amerikar haritzez eta horrelakoz osatua zegoen, eta lurzorua sasiak aski hartua. Han ez genuen ikusi ez artalderik, ez garorik, ez txilarririk eta ez elorriarik.

Monzonek bere poeman honela ikusi zuen Gurseko bizileku berria:

“Argelès’etik Gurs’era
Prantzi baratza barrena,
sei milla euskaldun, bultzi zarretan, doazte lanera.
Eldu ta aien eskaera:
‘Langille baldin ba’gera
lan egiteko bear genuke yana ta lo-gela’.
Lo egiteko, lur busti...
yateko, ondakiñak urri...
Askatasunak igesi...
Malkoz bete geure begi,
aurre-aurrean ager zaizkigu Euskadi’ko mendi!”.

Lehen txandako euskal errefuxiatuak Argelèsko “Gernika Berri”tik zetozenak ziren, 980 lagun guztira, eta 1939ko apirilaren 5ean eraman zituzten bertara, Oloroeraino trenaz eta handik Gurseko kamioiz. Gainerako beste 2.745 euskaldunak, oraingoan 2.745 lagun, ondoko hiru egunetan iritsi ziren, San Martin Soler-Zangitoren zuzendaritzapean. A irlan jarri zituzten.

Frantziako Administrazioak zelai hura alanbrez hesitu zuen eta indar militarrez inguratu. Alanbretatik zintzilika edukitzen zituzten mantak eta kapusaiak; gorputzak, berriz, erdi-biluzik. Noski, Argelèsen baino askoz hobeto zeuden. Gurseko zelaia Argelèskoa ez bezalako barrakoa zen, txukunagoa. Han, hondarraren gainean etzaten ziren eta goizean hotzak hiltzen esnatzen, alde guztietatik ezinduta, gorputzak erdi-estalita eta haizeak zekartzan paperak, hautsak eta zaborrak gainean zituztela. Han, arkakuso eta arratoiaren artean, ez zen ia higienirik. Epidemia bai ugari. Janaria miserablea eta beti berdina zen eta honek kolikoa eta enteriti-gaixotasunak sortzen zituen. Medikuek, ez tresna eta ez botika, ezin zituzten sendatu. Argelèsko hondartza haien aldean, Gurseko bizitokia beste mundu bat zen. Gizataragoa ez bazen ere, bai bederen txaratsu eta atoskorragoa. Lo barraketan egiten zuten, teilatu baten azpian. Erizaindegiak ere bazeuden. Lababoetan ere bazen urik, poliki-poliki zeriona, hori bai, eta ordu jakinetan; halere, nahikoa gorputzak eta arropak garbitzeko. Gursen beharrezkoenak bazituzten: aterpea, ura, higiene-ahalbideak eta gizarte-antolaketa.

Gehienak gazteak baziren ere, han guztietatik zeuden: nekezka eta baldarti zebiltzan zaharrak, pausoa balantzaka ematen zuten gaixoak,

gerrako elbarrituak, gorputz ahulekoak eta aurpegi sufrituak. Euskaldunen batezbesteko adina, 26 urtekoa zen. Horietako gehienak, eskuarki, gudariak ziren, lehenik beren herrian eta gero, 1938az geroztik, Bartzelonan borrokatu zirenak. Eusko Jaurlaritzak handik atera egin zituen gaixoak eta elbarriak. Beste barneratuek ez bezala, euskaldunek kanpoko munduarekin harreman-sare konplexuak eratzen zituzten. Talde bakoitzak zuen bere administrazioa eta euskaldunak sarriagotan irteten ziren kanpora, normalean lanera. Frantziako Gobernuak euskaldunen irlan froga-tailer bat eraiki zuen eta ehundaka euskaldun irten ziren kanpora Frantziako gerrarako industrian eta nekazaritzan lan egitera eta, bidenabar, famili bizitza berrastera. Honela, han zeuden 5.000 lagunetatik 2.000ren bat euskal erakundeetan hartuak edota beste herrialdeetan kolokatuak izan ziren.

Baina nolatan euskaldunenganako tratu berezi hori?, galdetuko da. Kontua da –eta hemen Jose Antonio Duradoñak esanari lotzen gatzazkio–, Frantziako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak, “Des amis de la République Française” ren bidez, borondatezko hitzarmena –berak *engagement* deitzen ziona– izenpetu zutela, zeinaren arabera, gerrak zirauno, euskal errefuxiatuak oro aliatuen zerbitzura jartzen baitziren. Frantsesek ez zuten soldaduen beharrik, beren kolonia guztietatik frantses portuetara egunero nahi hainbat baitzetozen: tuneziarrak, argeliarrak, eta abar. Hori baino arazo beharragoa, gerrarako fabrikak martxan edukitzea zen. Eta horretarako langileak behar ziren. Honela, Armamenduko Ministerioarekin akordio bat izenpetu zuten Parisen Pinatel kapitainak eta Juan Manuel Epalzak eta, horren arabera, euskal laneskua Frantziako Hegoaldeko industrietan enplegatuko zen. Langileen zerrenda bat egin zen eta egunero, autobusez, 50 edo 60ren bat gizon joaten ziren Tarbesera. Koiuntura politiko honetan frantses eta euskal interesak batera zetozen: frantsesek gerra-industriarako laneskua behar zuten eta euskaldunei, berriz, ondo zetorkien Frantziarekin parte hartzea eta ekonomizatzea, dirurik gabe baitzeuden. Egunean 5 franko irabazten zituzten.

Gurseko euskaldunen lan-kontratazioaz deskribapen hau dator Monzonen poeman:

“Beiak erosten diren lez
–au nai diat, beste ura ez–
nagusi batzuk ageri ziren langille on eskez.

Gazteak bear ziranez,
zarrak antxen utzi miñez.
Alkar agurtuz abestu zuten langileak garrez:
Yaiki ta goaz lanera,
deika da guda-beldurra.
Prantzi'k ortzia txoriz yazteko du gure bearra.
Ator Burni lagun zarra,
atzera gure eskutara.
Orain ludiak ezautuko du langille euskotarra”.

Burdina aipatzen du hor poetak, gerra-industriarako lanean ari diren euskal langileez ari baita. Beste ahapaldi honetan, ordea, abelazkuntzan ari direnak ditu aiputan:

“Alako batean ageri,
aurretik beia ta txerri,
atzetik mandu zar bat artuta, yauntxo bizardun bi.
Txerpolariak iduri
–zioten danak elkarri–
Bai zera! Nonbait nekazarien azterketalari:
Bati beia yetzi azi,
'Mandoa perra zak' –ari
Txerria noizko izan ume-berri, ia arek igarri?
Zer zimaaur bota lurrari?
Noiz erain arto ta gari?
Jornal konturik entzun ez baiña... galderak ugari!”.

Abelazkuntzarako langileen azterketei dagokionez, hain zuzen, Jesus Maria Leizaolak gogoan zeukan nola Atzerriko Eskulanaren Bulegoko injineru dibisionarioari Gursen zeuden euskaldunen zentsua eman zion 1939ko Ostegun Santuz, bakoitzari zegokion lanbidearekin batera. Soldata, Frantziako konbentzio kolektibo nazionaletan ezarria zegoenaren arabera izatekoa zenez gero, beharrezkoa zen langileak lanbideen arabera sailkatu eta kalifikatzea. Aipatutako injinerua azterketak egin eta gero, bazko-astean etorri zitzaionean, gauza bitxiak konstatu omen zizkion. Bat barregarri samarra ere bai: alegia, abelzainen azterketak egiterakoan, animalien ostikadak zirela eta, sekulako beldurra pasatu omen zuela. Beste hau erabat poztekoa: alegia, azterketak bukatu eta Parisera itzultzerakoan, euskaldunek, alanbre-sareetan jarrita, “Agur Jaunak” kantatuz agurtu zutela eta hunkituta geratu zela.

Lan-arazoak bideratzen Monzonek lanik asko egin zuen, bera baitzen Gurseko euskaldunekin harremanetan zegoena. Eta berarekin batera, Azpiazu apaizaren izena ere ez da ahaztekoa, Donibane Lohizuneko egoitza goxoa utzirik, bere kabuz joan baitzen bertara kaperau gisa. Gurseko lautadan, igandetan, aldare oies bat jarri eta, meza ematen zuen. Monzonek ohorezko eta maitagarritzko hitzak zuzentzen dizkio berari:

“Euskaldunak arantzetan,
Zaindarik inguruetan.
Aldaretxo bat xuriz yantzita Gurs’eko zelaietan...
Goi-argia begietan,
euskal apaiz bat izketan...
Aurki Yainkoa, ogi yantzirik, aren eskuetan!

Apaiz gazte ura, maitena
erabat zan guziena,
ta alaitasuna bere ezpaifietan beti zekarrena.
Itza Yaungoikoarena,
zekarkin zelai barrena...
Biotz erdian biziko zaigu aren oroimena!”

Eta Orixe? Orixe ez zen pasatu Argelèsko hondartzatik, ez zituen ezagutu Kataluniatik barna etorritako gudariek haragi bizitan jasandako sofrikarioak. Berak beste bide bat ekarri zuen, Nafarroatik barma, mendiz mendi, ihesi. Orixek ere bereak eta bi ikusi zituen. Baina izan ziren berak baino mila bider latzagoak ikusi zituztenak, hala nola gosea, egarria, aterperik eza, hotza eta haizea. Zohargiaren begiradapean, izadiaren erdian bakarrik, egon ziren haien ihesaldi kupidaga-beak ez zuen berdinek. Euskal ihesaldiaren pasarte historiko hori oso gutxi ezagutua baita, nahiz luzeskoa izan, beharrezkoa iruditu zaigu hemen azaltzea. Orixeren erbesteko bizimodua, beste herrikideek eraman zutenarekin batera azaltzean, hobeto nabarmentzen da. Egoera desberdinen kontrastean argiago islatzen dira ñabardurak.

Baina Orixeri ere tokatu zitzaion Gurseko zelaitik pasatzea, baina geroxeago eta, beharbada, beste egoera eztiago batean. Frantziako Gobernuak manu bat luzatu zuen 1940ko maiatzean, zeinaren indarrez 20tik 48 urte bitarteko euskal errefuxiatuak oro atxilotu eta Gurseko zelaira eraman beharrekoak baitziren. Frantziako Gobernuak, hala dio Jose Antonio Duradoñak, Baionako Pierre Daguerre prefektuordearen

esku utzi zuen agindu hori betereztea. Esan behar da Frantziak Alemaniari gerra 1939ko irailaren 3an deklaratu ziola eta harrezkero euskal errefuxiatuek ezin zutela utzi beren udalerriko egoitza. Prefektuordeak ez ditu euskaldunak Gurseko zelaian sartu nahi, baina Paristik behartu egiten dute. Zer egin? Baionan Eusko Jaurlaritzaren ordezkari den Javier Gortazar jaunari deitzen dio eta hauxe proposatzen: “Egin iezadazu pertsona nagusi guztien –apaizen, pertsonalitateen, eta abarren– zerrenda bat, eta hauek, Gursera orde, Loireko Iparraldera bidaliko ditut. Eta gainerakoak, 20-45 urte bitartekoak, Gursera”. Agindu hori, berez, Behe-Pirinioetan zeuden euskal apaizentzat ere berdin balio zuena zen. Hauek, orde, Gursera eraman orde, Normandiara bidali zituzten arestian apatutako Pierre Daguerrek erabilitako taktikaren ondorioz. Apezpiku jaunak departamentu horretako Prefektuarekin egindako gestioei esker, parroki karguak zeuzkatenak apaiz-zerrenda horretatik kentzea lortu zuen. Miarritzen errefuxiatuak zeuden apaizen artean, Pedro Mentxaka eta Jose Migel Barandiaran bakarrik ziren Normandiara joan behar zutenak, baina Baionako geltokian elkartu, 24 apaiz elkartu ziren. Hango Komisarioak Alençonera (Ohre) joateko agindua eman zien. Baionatik 1940ko maiatzaren 31n atera ziren, Sésko Seminario Handira joateko. Bertako Octavio Pasquet apezpikuak harrera hotza egin zien; ez horrela Alkate jaunak. Honek, bere kontura, guztiei baimen kolektiboa eman zien, Akitzera itzul zitezkeen. Eta halaxe egin zuten.

Manu hori betearazteko makineria berehala jarri zen martxan. Gendarmeriak eta Komisari-zerbitzuak 800 euskaldun atxilotu zituzten astebate baten buruan, hots, 1940ko maiatzaren 18tik 25a bitartean, hainbat herritan (Donibane Lohizunen, Angelun, Hendaian, Oloroen, Tarbesen, Ilbarritzeko “La Roseraie”n, Bidarteko auzoan, eta abar), batzuk beren etxeetan hartuta, beste batzuk lanlekuetan. Atxilotu eta Gurseko C irlan sartu zituzten. Horietako batzuk urtebete baino gehiago zeramaten Ipar Euskal Herrian eta Biarnon bizitzen. Batzuk familiarekin bizi ziren.

Frantses agintarientzat 800 euskaldun hauek gizatxar batzuk ziren; beraien hitzez esanda, “indésirables” batzuk, inork ikusi nahi ez zituen horietakoak, alegia, ia gehienak, EAJkoak, ELAkoak eta ANVkoak. Horien artean zeuden Manuel Egileor, PNVko idazkari nagusia; Luis Ariedondo, Luis Arregi, Andres Bereziartua eta Elias Etxeberria, EBBko partaideak; Juan Duradoña, Itsas Armadako idazkari ohia; Teodoro Agirre, Lehendakariaren anaia; Juan Careaga, diputatu ohia;

Jose Lekaroz, *El Día*-ko zuzendaria; Isidoro Fagoaga, tenore famatua; Antonio Maria Labaien, eta abar. Orixe ere tartean zen besteekin batera, baina bera C irlan sartu zuten, 9. zenbakiko barrakan. Bertan sei lagun egon ziren: Julio eta Jose Uruñuela anaiak, bata musikaria eta bestea Botanikako irakaslea Madrilen; Ambrosio Saseta; Jesus Agirregoitia, BBBko partaidea; Frantzisko Ubillos eta Nikolas Ormaetxea.

Zergatik eraman zituzten? Hasteko, hitza Orixeri berari ematea dugu biderik laburrena. Hala dakar *Quito'n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 746): “Prantses gizagaxo aiek burua galdu zunaten, alemana sartu zitzaizaien. Guregana iruditxarren batek artu zitunan. Ori barkatze-koa din”.

Nolanahi ere, atxiloketaren arrazoiak ez daude garbi, ezta euskaldunen artean ere. Hiru hipotesi egin izan dira. Batzuen ustez, atxiloketa horretan zerikusi zuzena izan zuen Francoren Atzerri-Arazoetarako Jordana ministroaren eta Léon Béraderen arteko harremanak, azken honek negoziatu baitzuen 1939ko otsailan, Frantziako Gobernuaren ordezkari gisa, Espainiako Gobernu berronartua izatea. Okasio honetan, bada, haientzat ustez arriskugarriak ziren euskal errefuxiatuen zerrenda eman zien Frantziako agintariei eta hauek, ezein frogarik gabe, atxilotu egin zituzten. Besteentzat, Ybarnegarayren maliobra bat izan zen, honek ez baitzituen begi onez ikusten Ipar Euskal Herriaren finkatutako euskaldunak. Hauek harentzat “gorriak” ziren, ez zurriak bera bezala. Orixe ere, “Idorreria” poemari ikusi bezala, behenafar hori dauka etsai nagusitzat afera honetan. Beste batzuentzat –eta, agian gehientzat–, Pétain izan zen erabaki horri hasiera eman eta bideratu zuena. Frantziako Gobernuak, hirugarren fronte baten beldur izaki, Francoren neutraltasuna irabazi nahi zuen, honela edo hala, eta horretarako bide diplomatikoak erabiliko ditu. Pétain, garai hartan, enbaxadore gisa zegoen Madrilen. Esan behar da lehen Francoren irakasle izana zela, hau ikastaro bat egitera Frantziara joan zenean, hain zuzen. Lehendik ezagutzen ziren, beraz. Horregatik, nahiz eta L. Bérader enbaxadore botereguztiduna izan, honek fatxadarena besterik ez zuen egiten, aurpegia eman, alegia, zeren, egiazki agindu, Pétainek agintzen baitzuen. Francok frantses diplomaziari bere laguntza ematearen truke ezartzen dion baldintzetako bat, hain zuzen, errepublikarrek Frantziara eramandako gerrarako materiala itzultzea izango da. Eta halaxe egin zen. Orobat, Pétain mariskalak, Madril utzi baino lehen, Parisko Gobernuari Frantziako Hegoaldean dauden errefuxiatu politikoak atxilotu eta zelai batean sartzeko eskabidea egiten dio, politikari errepu-

blikarrak gerran sar ez daitezzen. Jokabide honekin, Pétainek, ordena publikoa inkasean nahas zezaketela pentsa zitezkeen atzerriko “gizartzar” batzuk –horien artean euskal politikariak eta errepublikar espainolak– Gurseko zelaian sartuz, Francoren aurrean Frantziako Gobernuak jarrera kontziliagarria zeukala erakusten zuen. Ez da ahaztu behar, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Baionako Delegaritza itxi egin zutela.

Euskaldun hauek hilabete bat egin zuten C irlan. Orixeren egonaldia luzeagoa izan zen: hiru hilabete t'erdikoa. Nolanahi ere, batzuk besteak baino lehen irten ziren Iñaki Azpiazu apaiz jaunak egindako kudeaketa-lan bati esker. Honek Gurseko zelaiko arduradunen aurrean itzal handia baitzuen, frantses ofizial batek agindu zion libre utziko zituela berak aurkezten zion zerrendakoak. Baita hitza bete ere. Honela, Gurseko zelaitik abiatzeko autobusa lortu ondoren, zerrendako lehen taldea Baionan zegoen 1940ko ekainaren 23an, arratsaldeko 4tan. Alemanak Lapurdiko hiriburura ekainaren 27an sartu baitziren, Gurseko zelaitik irtendako lehen taldekoek denbora eskas izan zuten Donibane Lohizunera joan eta hemen, poloniar dibisiokoekin batera, arrantza-ontzi batean Ingalaterrara ihes egiteko. Dena den, alemanak Biarno eta Euskal Herrian sartu aurre hartan, nahastea eta noraeza ia erabatekoak izan ziren euskaldunen artean. Batzuk Baionara joango dira beren famulietara; beste hainbatek Hego Amerika eta Ingalaterrarako bidea hartuko du; beste batzuk, azkenik, klandestinitatean murgilduko dira.

Gurseko zelaia ez bide zion Orixeri oroitzapen hain gaiztorik utzi. Han barruan egona izateak, azken finean, poza zekarkion. Hala esaten omen zuen umorez eta harro: “Jende onenak eta gehien balio dugunak garelako gaude gu hemen barruan”. Joxe Mari Aranaldek (1965, 37-38) ere, Orixeri berari entzunda, antzeko lekukotza dakar: “Berak esaten zunez, an egon zanean aifia lan ez zun ifiun egin. Arriturik egoten omen ziran zaitzailleak ‘Orixe’k lo nola egiten zun ikusita”. Orixek berak, “eta Gurs-en nola?” arreba Denuxiren galderari honela erantzuten dio *Quito'n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 746): “Ez ain gaizki. Zazpi kilo galdu nitunan, baña ba-nenunan adiskide bat musikaria ta arekin nengonan egun guzian kanta ta dantza ikasten. Esaten zunan yendeak: ‘bi oiek bai doatsu dirala! Ez baitira konturatzten itxituan daudenik’. Egia; lo berriz, yakina. Bein bazkalondan etzanik nengonan, begiak itxirik, eta, ‘ez al da doatsu Orixe, orrela lo egiten duna?’, esan zunan batek”.

Adiskide musikari hori, agidanez, Uruñuela zen, elkarrekin baitzeuden barraka berean. Horrekin jardungo zuen “egun guzian kanta

ta dantza ikasten” biziki saiatuz. Bestalde, Joxe Mari Aranaldek dioen bezala, han egon zenean adina lan inon egin ez bazuen, ez zen esku hutsik irtengo Gurseko zelaitik. Zertan aritu zen eta zehazki zer egin zuen, ordea, ez dakigu.

Dena den, kanpotik begiratuta pentsa litekeenaren kontra, esan behar da Gursen, oro har, bazela kultur girorik. Zenbait kultur jarduera jadanik bidean jarriak zeuden 1939ko udan. Ondoko lau hauek, bederen, bai: 1) jarduera artistikoak edo eskulanak, batzuk erabiltze-koak (garrafoiak, exerlekuak, sandaliak, espartinak eta zapatak, pipak, egurrezko kutxarak, eta besterik), eta beste batzuk, berriz, apaintze-koak (bitxiak, egurrean egindako irudiak, eta honelakoak); 2) jardue-
ra intelektualak ere bizi-bizian zeuden, eta, sektore honetan, norma-lean “internazionalak” omen ziren adimen-lanari atxikimendurik ge-
hien ziotenak eta, orobat, baita diziplinatuenak ere; 3) kirol-jarduerak frantses administrazioaren ardurapean egiten zituzten, beste arrazoi ar-
tean, gehienbat bertako jendea helburu politikoetatik urrunduta edu-
kitzearren; 4) musikako jarduerak ere bere garrantzia zuen, eta handia gainera, bertan hiru orkesta sortu baitziren. Euskaldunek ere bazuten berea, dozena bat lagunez osatua eta Madrileko Udal-Orfeoiko zuzen-
dari izandako Regino Sorozabalek zuzendua. Horregatik, nahiz eta alanbrezko itxitura-barruan bizi, hango kultur giro hura izan bide zite-
keen osasungarri Orixek bezelako intelektual batentzat. Eta gertatu, ha-
laxe gertatu zen, zortearen handirako adiskide musikari bat tokatu baitzitzaion aldamenean.

Orixek lan asko eta lo ziplo egiten zuela esan berriak bagara ere, ez dezakegu esan jan bapo egin zuenik: “Guda bukatutakoan ere, gose apur bat ikusi genunan; ez ordea Petiri-Santz, esateko. Ondoan neukan Oñati’ko Jausoro. Gizagaxoak ango eltzaririk ezin yan, eta neri ematen zidenan. Nere zakuan biena errex kokatzen zinan. Zazpi kilo besterik ez nunan galdu iru illabete terditan” (QA; IG, I, 1991, 746).

Orixeren tripazale-fama ezaguna izaki, ez da harritzekoa Gursen gosearekin kexu samar ibiltzea. Nahiz eta biena jan, haren sabela ezin ase. Nemesio Etxanizek (1965, 31) idatzia da, Orixeren zakuan hiru lagun jatekoak aise kabitzen omen zirela: “Azken-aldi ontan ere, Prantzialdeko Euskalerrian zala, norbaitek bazkaltzera deitua zuan gure ‘Orixek’. Onak lagun bati esan dio ‘Orixek’ nola egun artan jatera etortzekoa duan, eta lagunak berari: –Motell! Kontu egizak, iru deitu ditukala bazkaritara”.

Pasadizo bromosoa da, baina oso plastikoa, hor ikusten baita loa bezain ona zuela apetitua ere. Asko jan beharreko gizona genuela. Bestela ez zituen hain erraz galduko zazpi kilo hiru hilabete t'erditan. Eta errepikatu ere, bi aldiz errepikatzen du "zazpi kilo" horren kontua testu berean. Loarekin ondo Gursen, janariarekin ez hainbeste, nahiz Jausororenak ere beretzat hartu.

Gursetik Saubionera (1940-1943)

Zehazki ez jakinarren, ziurrenik Donibane Lohizunetik eraman zuten Gursera. Ziurtasun osoz dakiguna da Gurseko euskaldunen artean, alemanak zetoze eta, norakorik ezaren ero-dantza hasi zenean, Orixek bazekiela norengana jo. Saubionen bizi zen Martin Oiartzabal adiskide handiarengana joango da, eta honek bere aterpean hartuko du. Etxean



Saubiongo eliza honetan egin zituen bere apaiz-lanak Martin Oiartzabalek eta honengana bildu zen denboraldi batez Orixek Gursetik itzulian. Orixek hemen entzungo zuen bere eguneroko meza, espiritu-bizitzarako ogia bezain beharrezkoa zitzaiona.

agertu zitzaion arratsalde hartan, Gurseko irteera handikiro ospatzeko, lagun batek beste bati eskaini ziezaiokeen oparirik onena zeukan prestatua berarentzat: oilasko eder bat biharamunerako. Orixek orduan berdinduko zuen bere gosea aspaldiko partez eta, bide batez, aspaldiko kontu zaharrak berri eta azken ordukoak iruzkinduko zituzten.

Martin Oiartzabal azpeitiar apaiza, Nemesio Etxaniz eta Jose Ariztimuño bezala, Comillasen maisu txiki gisa egon zenean ezagutu zuen eta haren lagun min egin zen, erbestean lankide izateraino. Donostian 1963an argitaratutako *El lenguaje vasco* izeneko gramatika, hain zuzen, biek lankidetzan egindakoa da 1941-1942ko epealdian, Gurseko zelaia utzi eta gero, Saubiongo egonaldian. Han egindako lana da, halaber, “De mi vida externa” dokumentua, 1943ko otsailaren 24ko data daramana, geure lan honetan hainbeste bider aipatzen duguna. Izan ere, bera da, bere txikian, bere bizitzari buruz gauza asko jakiteko iturri emankorra izan zaiguna.

Betharramanen irakasle (1943-1945)

Betharramango egonaldiaz zerbait gehiago jakin ahal izan dugu, halere, Jesus Maria Leizaolari esker. Horko Mixel Garikoitzen Ikastetxean Gaztelania irakatsi zuen bi urtez (1943-1945) eta denboraldi horretan bertan bizi izan zen. Ikastetxe horretan euskal errefuxiatu askok jardun zuten Gaztelania irakasten. Lehen irakaslea Urriza jauna izan zen eta, hau hiltzean, beste bilbotar bat egon zen, gero beste bat ere bai –azken bi hauen izenez ez zen akordatzen Jesus Maria Leizaola solaskidea–, eta hurrena Antonio Irala. Honi Jose Antonio Agirrek Amerikatik beregana deitu zionean, Jesus Maria Leizaolak berak hartu zuen haren egitekoa, eta, denboraldi berean, Orixe ere irakasletzan aritu zen.

Zenbat ikasturte egin zituen bertan? Erantzuna berak zuzenean emana da “Ciencia y práctica de nuestro idioma” artikuluan (1952): “Dos cursos hice en Betharraman”. Jesus Maria Leizaolak ere gauza bera berresten du “Jainkoaren billa’ gutuna, ¿zer da?” artikuluan (1974), baina honek ere datarik eman gabe: “Alkarrekin Betharramam’en bi urte igaro ta gero, Paris’a ni ta Bidarraira bera juanak giñan...”. Bi urte horiek, ziurrenik, 1943-44 eta 1944-45eko ikasturteei dagozkienak izango dira. Baina zer irakatsi zuen ez du esaten.



San Mixel Garikoizen Ikastetxea. Beharriarmanen eraikia 1837'an, bere ur gartendak Lourdesetik behera dalarzian ibaiaren ertz-ertzean. Egun ere ikastetxe izanez segitzen du. Gertatostean auskal errefuxiatuak batzuzk, hauek artean Orixe, hor aritu ziren eskolak ematen.

Betharramango Ikastetxean eskolak emateaz gain, zer lan egin zuen ez dakigu. Horko egoitzan 1944ko abuztuaren 7ko datarekin sinatutako haren lan batzuk aurkitu ditugu Jesus Maria Leizaolaren *Obras Completas* bilduman: bata “Del mar y de su costa” da, J. M. Leizaolak egindako lan bati buruzko laburpena, eta bestea Armentiaiko San Prudentzioren *Kathemerinon* izeneko poemaren euskarazko itzulpena, hau Leizaolak berak eskatuta egina. Poema hauek “Ollaritean” eta “Goizeroko” daramate izenburuztat eta *Euzko-Deya*-n argitaratu ziren 1945eko otsailaren 15eko datarekin, nahiz berak 1944an egin zituen. Poema hauetan otoitzari buruzko gaia iraultzen du arabar santuak, Kalagurrin kristautasuna zabaltzen ibili zenak. Poema hauek ez baitira Orixeren idazlan guztietan agertzen, hona hemen zati bat, “Goizeroko” poematik hartua, garai hartako euskal kristau baten sentimendu erlijiosoaren adierazgarri gisa:

“Gau, illun, munduko buru-odei nasi. Alde! Egu-antza da,
argia sortu da, Kristo etorri da. Illuna suntsi da;
eguzki-begiak gauzeri margoa berrituz die.
Orla gure barren illunak artua, lañoak urtuta
argitzen du Jaunak. Ez da sori gure gogorapen beltzak
ixil gordetzea. Goizak argitara aterako ditu.
(...)

Eguzkiak dir dir egiten dunean, au dugu bizitza.
Artzarraren Jaun, esnatu zentzu ok, bizi argi iguzu
garbi-bear asko baitugu barnean. Zikiña kendurik
iduki gaitzazu bataioarekin giñan bezain garbi.
Geroztik guregan goibel dagon oro argitu ezazu
zure begitartez. Zuk biurtzen duzu pikearen beltza
esnea aña zuri, ebanoa garden. Gu ere garbitu!”.

Goiza gauari kontrajarritz, argiari egiten dion kanta bat da. Era berriko neurtitza erabiltzen du itzulpen honetan.

Betharramandik ez da urrun Lourdes. Orixe hara ere joan ohi zen, baina ez hain sarri. “Lourde’n” poeman (IG, I, 1991, 622) dioenez, bi urtetan, lau edo bost aldiz. Eta joaten zen bakoitzean, gorputz-sentipen bereziak bizitzen zituen, lehen ahalpaldi hauetan ikus daitekeen bezala:

“Gurutze bidean lénengo pausoan
anima soifietik atera-naiean
asi zait. Egon naiz aldi bat, laguna
nigandik urrutxo lekutu artean.

Bildur nintzan oiuz asiko. Arnaska
zapiko zuriar agoa betean,
nekez negon. Lênen, biren, irugarren,
utsik gabe pauso denen bitartean.

Bukatu ondoan lagunarengana
jabal noa. Biôk bakan mintzo giñan”.

Betharramanen egon zen garaian, erbesteko zenbait euskaltzarekin harremanik izan zuen. *Euskarazaintza* aldizkariak (1988, V), Orixeri bere mendeurrenekoan eskainitako zenbaki monografikoan, Anbrosio Zataraini Pabera 1944ko ekainean eta abuztuan egindako gutun batzuk argitaratu zituen. Gerraurrean harrotutako gai bera darabilte tartean, hots: bertsoen neurria eta errima. Garai honetan Orixe-ren harreman-sarea nolako zen jakiteko balio digu. Itxura guztien araber, gutun horietan ageri den bezala, Ikastetxe berean lagunkide izandako Jesus Maria Leizaolarekin hitzaspertu luzeak izaten zituen euskal literaturaren eta, bereziki, poesiaren gainean. Handik eta hemendik, berarekin guztietan ados ez etorri arren, gehienek maisutza aitortuko diote eta mirespena agertuko.

Bidarrain (1945-1946)

Betharramango Ikastetxea ziurrenik 1944-1945eko ikasturtea bukatzean utzi eta, Bidarraira aldatzen da, eta ez Baigorriara idatzi izan den bezala. Berak esaten digu “Erria, erria” artikuluan zenbat denbora egin zuen bertan: “Ikusi dugu behintzat Bidarra”n, urte terdi an bizi izanik, zenbatek erosten zuten *Herria*”. Beraz, 1946. urte osoa ere bai.

Nafarroa Behereko herritxo zoragarri honetan, denboraldi bat “Liseronea” baserrian egin zuen, bere lehengusu Domingo Ormaetxearekin, eta beste aldi bat “Noblia” hotelaren ondoko beste bizileku batean.

Baina bakoitzean zenbat denbora egin zuen ez dakigu. Ormaetxea lehengusu hauek hiru anaia ziren, hauek ere Hegoaldetik ihesi etorritakoak: Domingo, Armando eta Bautista. Domingo Mari Grazien Lagartorekin esposatu zen Liseronera eta Armando, Larraldenia baserriara; Bautistak, berriz, Amerikarako bidea hartu zuen. Mari Grazien Lagartok xehetasun hauek eman zizkigunean, 1986ko azaroaren 28an, 92 bi



“Noblia” hotela, Bidarraiko herri-sarreran, herrira igotzeko zeharkatzen den zubiaren ondoan. Orixe bertara biltzen zen otorduak egitera.

urteko amatxi izua zen, baserri handi hartan bakar-bakarrik bizi zena. Ondoko baserriko emaztekiak lagundu zigun harengana hurbiltzen.

Bi baserri hauek herritik aparte samar daude, gaintxo batean Liseronea, eta Larraldena oraindik aparteago, biek atzealdean Artzamendi dutela.



“Liseronea” baserria Bidarrain, ibaiari jarraiki, herriko sarreratik kilometro batera edo, Artzamendi mendiaren babesean, aurkitzen dena. Egun osoki berritua dago.

Herri honetan nahiko bertakotu omen zen. Denbora gehiena idazten ematen zuen, seguru asko filosofi saioak eta beste zenbait lan egiten. “Bidarraiko” izenordea erabiliz, poema batzuk ere landu zituen, hala nola “Merkatu beltza”, “Kontrabanda” eta “Idorreria”, argitaratu eta saldu, merkatuetan eta, bere kontu eginez. Satirikoak dira, pika-roak. “Idorreria” poeman, adibidez, Gurseko zelaira igorri zuen Donibane Garaziko alkate jaunaz trufatzen da:

“Bigarrenez noa kabinetara
chanza hobearen entseiatzera.
Ez banu sekula santan nik ezagutu
Uharteko jaun mera!
Donibanetik uda pasatzera
igorri nau igorri nau ‘Gursera’”.

Alkate jaun hori, azken ahapaldian dakarrenez, Jean Ibarnegaray da, euskal errefuxiatuak ingurutik uxatu eta Gursen bahituta eduki zituen:

“Etsaigoa behar ba dut ahantzi,
othoi, Jauna, enetzat induljentzi!
Ez beita sobera gogor jaun horrentzat nik
Gorde dudan sententzi.
Jana egin eta naizela jantzi
‘Ibarneri Ibarneri goraintzi’”.

Mendiarte hartan zer gehiago egiten ote zuen? Han edo hemen, nonahi, egiten zekien bakarra, hots: idatzi, eskolak eman, elizara joan, merkatura agertu. Eguneroko meza ez omen zuen inoiz galtzen eta elizan kantak irakasten ere aritzen omen zen. Liseronea auzoko umeei ere zenbait aldiz eskola ematen omen zien baserrian bertan. Gogoan dute oharkizun hori orduan haur zirenek. Mari Héléne Gastigard neskatoa, egun Elias Etxeberria eskultorearen emaztea dena, Kanbotik joaten zitzaion trenez latineko eskolak hartzera. Bazuen han ere bere ingurua. Ostatuan bertan, hala aitortu zigun Manex Larrate nagusiak, goxoki jarduten omen zuen jendearekin eleketan. Amerikako ibilaldian, Argentinako Berraondotik pasatzean, Bidarraiko Indart-Zuburu senar-emazteentzat puskak eramango ditu.

Baina nolatan otu ote zitzaion tankera honetako bertsoak egitea Bidarraiko erreka-zuloan? Diru-eskasiagatik, agian? “Merkatu beltza”

poemako lehen ahapaldia irakurrita, badirudi sosari buruzko aipuak horrelako zerbait adierazten duela:

“Bachanabarre Bidarrain nuzu nitaz ba zineza galde
Bertsu berrien gisaz hontzeko balia beki Otchalde.
Bai ere lagun hil berri dugun Luhosoako Larralde.
Hetarik sosik aлча ba neza ez nuke lan hau debalde”.

Bertso berriak saltzen azokaz azoka ibili ohi zela inoiz entzuna dugu, baina paperetan horren arrastorik ez da agertu izan. Orain ziurtasun gehiagorekin esan dezakegu, Hegoaldean bezala Iparraldean ere, maite zuela azoketako giroa eta, bertsoak saldu edo ez saldu, sarritan joan ohi zela.

Donibane Lohizunen berriro (1947-1949)

Bidarrai utzi eta, berriro Donibane Lohizunera aldatzen da Orixek. Ez dakigu noiz, baina bai badakigu 1947ko azaroan bederen han aurkitzen dela. Izan ere, Baionako elizbarrutiak antolatuta, hilabete horretan eboluzionismoari buruzko hitzaldi batzuk eman zituzten Donibane Lohizuneko “Gure Etchea”n. Orixek honela dio *Quiton arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 746): “Urte artan asi zinan Baionako Apezpikutegia moda berriko ipui oiek zabaltzen an emen iriz-iri mintzaldiak egíñeraziz. Etorri zitinan Donibanera bi Irakasle. Obe zunaten etxean gelditu balira”. Hizlari horiek, Jean Sorre eta Pierre Manterola ziren, biak Baionako Seminario Nagusiko teologi irakasleak. Hitzaldi horietan, gizakiaren jatorriaz zen galdera nagusia. Bi irakasle horiek gai honi buruzko ekarpen zientifikoen aurrean jarrera irekia agertzen baitzuten, Orixeri onartezina egiten zaio Bibliako pasarteak –berak hitzez hitz ulertzen zituenak– zalantzan jartzea. Horregatik, irakasle horien hitzaldietan entzundakoak etzunda, Gursen ez bezala, orain egiazko purgatorioa biziko du: “Au izan nenunan Burgatoriorik aundiena Prantzian” (QA; IG, I, 1991, 750).

Antolatzaileei hitzaldi bat egiteko eskabidea egin zien. Eman zioten aukera, baina ez antzoki berean, baizik haren gibelesko beste areto batean. Hitzaldia makinaz idatzia eraman zuen, arretaz prestatua, baina entzuleek huts egin zioten, hogeita hamarren bat lagun besterik ez baitziren agertu. Sekulako ostikoa Orixek hartu zuena! Izugarria sentitu zuen mina: “Bi aste aietan ez nenunan lo aundirik egin. Doze-

nerdi bat kilo galdu nitunan, kristau zintzoen artean egiten ari zan kaltea autemanez” (QA; IG, I, 1991, 749). Orixeren min moralak, fisiokoak bezainbat, kilotan ere neurtzen ziren. San Kristobalگو infernuan 26 kilo galdu bazituen, erbestean 13 galduko ditu guztira: Gurseko zelaian 7, eta Donibane Lohizuneko purgatorioan 6. Baina Gursen, Donibanen ez bezala, lo lasai egiten zuen. Horra min moraletik fisikora dagoen aldea.

Nahigabeak nahigabe, Orixek Iparraldean egindako hamabi urte-tan zehar, azkenekoak izango dira emankorrenak. Lanik biribilena, zalantzarik gabe, *Urte guziko Meza-Bezperak* itzulpen-lana da, Maritxu Barriolak telefonoz esandakoaren harira, 1948an bukatu zuena, 49 urte zituela, eta Toursen 1950ean argitaratu zutena. Geroago, Orixek Guatemalatik Martin Oiarzabali 1950eko abenduaren 10ean idazten dienez, Maritxu Barriolak berriz ere Iparraldean nahi omen luke, Misala bizkaieraz ezar dezan. Baina nahiago du lan hori beste baten eskuetan utzi: “Atsegin dago ara yoaten, batez ere guda piztu ba’ledi! Ibartgutik naiz Manterolak egin dezakela esan diot”. Orixek proposatu bezala, Misala Ibartgutxi apaizak bizkaieratu zuen, baina ez zen argitaratu.

Itzulpen honen enkargua Orixeri nola etorri zitzaion Jesus Maria Leizaolak kontatu zigun. Bera, Clément Mathieu apezpiku jaunak lekua bilatuta, Aire-sur-l’Adourren zegoen, Akitzeko Seminario Txikiaren ondoko etxe batean. Hantxe aurkitzen zen, halaber, Frantziako administrazio-gune nagusia, hala nola bulegoak, aduanak, militarrek, eta beste egoitza publikoak. Ipuinetako herria ematen du, ur gardenezko ibai zabal eta distiratsu batek erdi-erditik zeharkatzen duena eta lorategi ederrez jantzia dagoena. Herri zaharra, erromatarren garaikoa. Pitxi bat.

Behin batean –hala jarraitzen du hizketan–, Iñaki Azpiazu apaiza, Seminario Txikian bizi zena, eta Maritxu Barriola etxera etorri omen zitzaizkion, “zurekin hitz egin nahi dugu” esanez. Etxetik irten eta, aldemenean dagoen antzinako erromatar bidean gora eleketa bizian zihoazela, konturatzerako ibai ondoraino iritsi omen ziren. Eta han, galdera hau egin omen zioten: “Guk orain zer egin behar dugu?”. Eta Jesus Maria Leizaolak erantzun: “Hara: guk, gizonok, galdu dugu geure borroka. Zuek, emakumeok eta apaizok, jaso behar duzue herria. Aitortzak, mezak, haurrak, euskara, elizkizunak direla eta, zuen esku dago herria”. Eta hortik atera zen, antza, Orixeri misala latinetik euskara itzul zezan egindako proposamena. Itzulpenaren eskaintza egin ziotenean utzi omen zuen Orixek Betharramango irakasletza. Lan

honi, beraz, 1946an edo, helduko zion, Bidarraira joan zenean, eta bukatu, berriz, Donibane Lohizunen. Lana bukatu zuenean, Maritxu Barriolak 40.000 pezeta eman zizkion itzulpen-lanarengatik. Diru-laguntza horri esker egin ahal izango du Amerikarako bidaia. Anai arreben arteko elkarrizketan honela jasotzen dira *Quito'n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 712) liburu honi buruzko xehetasunak:

D.- Nola egin duk diru ori?

N.- Esana diñat naski *Urte guziko Meza-Bezperak*, deritzana euskerara biurtuazi didatela.

D.- Ta saldu da?

N.- Oraindik ez argitara eman ere. Oraintxe argitaratzeaz. Ba dakin? nik eskuz egiña oinbeste ordaindu zidatenan, nik betiko eskubi-deak utzirik.

D.- Ez al enzaken diru ori gorde zartzarorako?

N.-Yainkoa axolatuko dun ortaz. Etxera itzuli ba'nendi, yana ta etzana nere zetunak beñipein, eta emen Ameriketean, osasuna ta Yainkoa lagun, nere diña egingo al diñat”.

Aipatutako diru hori pezetatan ala frankotan kobratu, aukeran utzi zioten. Orixek pezetatan kobratzea aukeratu zuen; baina, patua aurka baitzeukan, pezetaren balio-gutxitzeak diru gutxiago jasotzearen aldebrekeria ekarri zion eta, honen ondorioz, diru-emailearenganako hasarrea ere bai. Azpijekoa egin ote ziotenaren harra berarekin eraman zuen Amerikara eta, El Salvadorren zegoela, Centro América-ko Seminario Nagusian Moraleko irakasle zen aita Ladislao Segurari kontsulta-gutun bat igorri zion 1954ko maiatzaren 8an. Gutun honetan “bankari”, “alزابjista” eta “estraperlisten” jokuan sartzera behartu zutela salatzen du. Gutunaren azkenaldera, arazo honetaz berak zer pentsatzen duen azaldu eta gero, bi galdera zuzentzen dizkio: “Aunque legalmente no puedo actuar contra ellos, pregunto. 1. ¿Es licito en moral cristiana esa conducta que se observó conmigo? 2. ¿Tiene obligación de conciencia la otra parte –excepto si yo se la condono– de abonarme el resto defraudado?”. Irakasleak, kasua Orixek azaltzen duen bezala irakurri ondoren, berari arrazoia ematen dio, hots: lehen galderari dagokionez, kristau-moralean ez da zilegizkoa jokabide hori, eta, bigarren galderari dagokionez, beste kontratugilea kontzientzian behartua dago kendutako zatia ordaintzera baldin bidegabeki konturatzan bada. Legez, jakina, ez dauka zer eginik. Baina Orixerentzat legeak adina balio zuen moralak, eta hori jakin arte ez zegoen lasai.

Erantzun hori jasota, seguru asko, bere betiko usteari sendoago eutsiko zion.

Erbestaldian zeretik bizi izan zen Orixe? Betharramanen, bai, irakasle izan zen garaian, mantenua eta loa ziurtatuak edukiko zituen Ikastetxean bertan. Baina bizi izan beste lekuetan, zer? Orixe izan ote zuen inoiz euskararako Jose Migel Barandiaranek, adibidez, bere antropologi lanerako ematen zioten diru-laguntzaren antzeko zerbait? Hau diogu, zeren, Arte eta Herri-Ohituretako Batzorde Nazioarteko-tik Iparraldean ikerketa etnografikoak egiteko zetozkion subentzio ofizialez gain, Ustaritzeko Manuel Intxausti abokatuak ere ematen baitzizkion bere lan-proiektuak bideratzeko behar zituen beste diru-laguntza gehigarri batzuk ere.

Lehen ikusi da Eusko Jaurlaritzak laguntza ekonomiko batzuk luzatzen zituela. Orixe lagunduen artean sartzen ote zen? Lehen begiratu batean, ezetz dirudi, Orixe bere ezadostasuna garbiki erakusten baitu Eusko Jaurlaritzak euskararekin eta, zeharka, berarekin daraman jokabidearekin. Telesforo Monzon jaunari Guatemalatik Donibane Lohizunera 1950eko urriaren 10ean zuzentzen dion gutunean samindurik aurkitzen dugu; samindurik, batetik, euskararentzat dirurik asko jartzen ez duelako eta, bestetik, berari saririk ematen ez diotelako. Eskutitz horretan, besteak beste, salaketa bikoitz hori egiten dio Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilariari: “Euskadi’ko Gobernuak ez al du dirurik euskararentzat? Lendakari jaunak Venezuela alde ontan zer diruketak bildu ditun yabeturik gaude. Ikaskuntza sail onek bai omen du sari bat, euskararen alde urteko lanik oberenarentzat. Lenengo urtean Patxo Belaustegi’ri eman omen zitzaion. Geroztik nori eman zaio? Aurtengo ontan, 1950’garrenean emango ote zaio noribait? Esate baterako, eta barkatu nere bekokia, prantsesez lioketenez, ez al ditut aski nere Poema ta Misal’a sari ori nereganzeko?”. Monzonek gutun honi erantzuna eman zion, hurrengo hilean egiten diona honela hasten baita: “Adiskide: nere lengoak espanturik aski atererazi dizu, giza-gaixo orri”. Baina, zoritxanez, artxiboetan ez da agertu.

Eusko Jaurlaritzaren aldetiko laguntzarik eza Jose Antonio Agirre lehendakari jaunari ere aurpegira botatzen dio, baina hurrengo urtean, 1951ko martxoaren 12ko gutunean, oraingoan ere Monzonen kontra: “A él (Lafitteri, alegia) le da dinero anual para *Herria*, por ejemplo treinta y seis mil francos el año 1948, según me lo conto el donante (Telesforo Monzon). ¿No me dará a mí el premio anual establecido de quinientos dólares por mi poema y Misal del año 1950? El primer año

se los dió a la benemérita familia Belaustegigoitia de México, euskaldun berri, bien acreedora a esa distinción. Después acá, no sé a quién se los habrá dado. Es vergonzoso que un hombre sin carrera, lampiño en Humanidades y en otras disciplinas sea Ministro de Instrucción Pública de ningún Gobierno. Ahí estaba Leizaola. En esta República vivo gracias a la generosidad de la familia Muyschondt Contreras”.

Orixeren gutun horri erantzuna 1951ko apirilaren 6an eman zion Jose Antonio Agirrek, laguntza-mota horiek zertarako diren jakinaraziz: “El año 1950, a mi juicio, marca una gran etapa en nuestras letras por la publicación de sus dos magníficas obras antes aludidas. Por esta razón reciba Vd. mi felicitación más entusiasta, y con ella mi profundo agradecimiento. El premio de 500 dólares, a que Vd. se que refiere, fué una idea que en un tiempo presentó Monzon, y que desgraciadamente por nuestra cortedad de medios quedó sin realización posible. Creo que era destinado a las familias que mantienen y desarrollan nuestra lengua en el hogar. En efecto, esa distinción se dió a la familia Belausteguigoitia, pero como Vd. comprenderá, sin los dólares consiguientes. No creo que ha vuelto a repetirse otra vez. Si algún premio habría que establecer, es evidente que el de 1950 correspondería a Vd. de pleno derecho”.

Lehendakari jaunak bi puntu zehazten dizkio eskutitz honetan: bata, 500 dolarreko sari hori euskara etxean lantzen duten familientzat izendatua zela, espreski horientzat; bestea, saria ezarrita egon arren, praktikan ez zela gauzatzen, dirurik ez zegoelako. Emandako azalpenak sinetsi ala ez, gutunezko elkarrizketa hau hor bukatu zen eta diru-laguntzari buruzko arazoak ez zuen segidarik izan.

Antonio Maria Labaieni galdegin genion zer zekien Orixeren diru-kontu horretaz, eta bere erantzuna laburra bezain zehatza izan zen: “Orixe lagunei, Eusko Jaurlaritzari eta barrutik etorritako laguntzei esker bizi zen. Gutxirekin bizitzen ohitutakoa zen”.

Egin dugun erbesteko hamabi urteko ibilaldian ikusi ahal izan dugu Orixek aski aztoratuta ibili zela bazterrik bazter, noiz Iparraldean noiz Landetan, burulan jarraitua egiteko bizileku finkorik aurkitu ezinik, anean uneko bizibeharrak eskatzen zionaren gatibu.

HAMARGARREN ATALA

AMERIKAN (1950-1954)

Orixeri, Ipar Euskal Herrian zegoela, Amerikara joatea otu zitzaion. Baina lehendik beste burutazio batzuk ere ibili zituen. Dirudienez, itsaso handia zeharkatu aitzin ere, ibilia genuen Bidasoa ibaiaz bestaldera pasatzeko amorru biziarekin. Pio Montoia apaizak esana da 1988ko maiatzaren 25ean izandako elkarrizketan nola ikusi zuen Orixe bere iloba batekin, Dantxarineako muga, 1946ko maiatzean, muga zeharkatu ala ez zalantzan, beldurrez kokilduta, muga oso ondo zaindua baitzeukaten. Ez zekien zangoa luzatzen ausartu zen ala ez, gero berrikerik ez baitzuen izan: “Nire neskamea eta biok pasatu ginen. Nik ez dakit zer egin zuen gero. Edota berriz etorri zen Frantziara, edo zer... Edota pasatzeko asmotan zebilen? Edo isilpean pasa zen? Nik muga-muga pasatzeko asmotan bezala ikusi nuen Frantziako partean. “Testigo presencial. Que pasó no pasó, igual se volvería otra vez...””.

Ondoko urteetan ez baita Hego Euskal Herrian agertzen, pentsatu beharko da mugaraino eraman zuen asmo hura ustel atera zitzaioela. Baina Pio Montoia apaizaren lekukotza honek oso garbi erakusten digu gure gizona erbestealdiari agur egiteko gogoz zegoela jadanik une hartan. Espreski inon esaten ez bazaigu ere, zeharka badakigu Bidarrain aurkitzen zela erabaki hori hartzeko une hartan, lehenago Pio Montoiaren Kanboko etxean bazkaltzen egona baitzen handik trenez etorrita: “Egun batean jakin genuen Orixe Bidarrain zegoela... Ni Kanbon bizi nintzen eta hara etorri zen trenez behin batean bazkaltzera. Baina ez zen etorri nigatik. Nire etxean zeuden Sekundino Rezola, Josebaren anaia, oraindik bizi dena, eta Doroteo Ziaurritz, BBBko

lehendakaria. Jose Antonio Agirre etorri zenean, nire etxera etorri zen eta handik egin zuen mitina. Nire etxea zen elkar-lekua”. Jadanik ordurako aski gogaitua zegoen, bada, hango egoera hain ezegonkorraz. Baina bertan segituko du.

Amerikara joateko erabakia hartzen duenean, orduan hango seni-teartekoak bisitatzeko asmoak azaltzen ditu. Eta egia da. Orixek ez du pentsatzen ez Jokin Zaitegiren *Euzko-Gogoa*-n ez horrelako ezertan. Aukera hori, bera ibili gabe, bidean etorriko zaio. Jesus Maria Leizaolak esan bezala, oso zalantzan omen zebilen, zer egin ez zekiela. Hartan, bere besoetako iloba Maritxu Arana Buenos Airesen eta bere arreba Denuxi moja Quitoan zeudela aitzakiatzat hartuz, ozeano atlantikoa zeharkatzeko kasketak eman zion. Bazuen Misala itzultzetatik jasotako diru freskoa eta, gehiago pentsatu gabe, itsasoko bideari ekin zion.

Txango luzea Amerikan zehar

Bidaiaren nondik norakoa Orixek berak deskribatzen digu, zehaztasun handiz, gainera, *Quito'n arrebarekin*-en. Iturri honetan oinarrituta, Joseba Intxaustik bidaiari horretako helmugak eta datak laburki azalduta dauzka. Bidaiarakoan, itsasoz nahiz lehorrez, nahiz airez doanean, badirudi kronika xehe-xehea idatziz doala, zer jaso hura idatziz, eskaintzen dituen denborazko zehaztasunak guztiz puntualak baitira. Edozein data jaulkitzen duenean, urteak bezala hilabeteak eta egunak, goizak bezala gauak, arratsaldeak eta orduak markatzen ditu bere deskribapenean.

Txangoaren lehen ekinaldia, itsasoz egina, Bordele-Dakar-Rio de Janeiro-Buenos Airesa izan zen. Hilabete osoa eman zuten Bordeletik Buenos Airesea. Noiz aterata? Data zehatzik ez da. Ziurrenik, 1950eko urtearen hasieran edo. Irteera ez zuten zorionekoa izan: “Bordeletik irtetea, ontziaren papar-egurak arkaitza igurtzi zunan. Ontzikoek, ai! egin zunaten. Ontziak ur egiten, gutxi bederen. Itsaso asarrea zinan, edo obeki esan itsas-adarra, oraindik ez baikiñan itsas zabalera sartu. Ura irakiña zegonan an ere. An egon bear egun terdi, aurrerako baimena ematen ote zuten. Buruenean, Dakar' año bederen yoan zitekela. Gure itsasoa gauzez igaro genunan. Eguna argitzeko Santander'koan genitunan. Bizkai-itsasgaltzarra igarotzean, an asi zitinan zorabioka ta goraka. Ain itsaso bizirik ez genunan sumatu arrezkero Buenos Aires' año” (QA; IG, I, 1991, 712). Halere, itsasontziaren matxura hori

gorabehera, bidaiariak onik joan ziren Dakarreraino. Hemen, matxura konpontzen egun t'erdi egin ondoren, inolako arazorik gabe iritsi ziren Argentinako Plata ibaira. Rio de Janeirok txunditurik utzi zuen gure gizona. Konparazioak egin gabe ezin egon eta, oraingoan ere, beste askotan egingo duen bezala, euskal geografiara begira egingo ditu: “Zer uri zoragarria Brasil’go Uriburu au! Ametsik ere etziteken ederragorik. Donosti, Donibane, Miarritze politak ditxin iñon politak ba’da. Orixe esan, politak. Rio de Janeiro eder garaia din. Munduan ez omen olakorik” (QA; IG, I, 1991, 713).

Argentinan, Bahía Blancatik 72 kilometrora dagoen Berraondo herrian, hilabete bat egin zuen Ipar Euskal Herriko adiskide baten etxean: “Baigorriarra senarra, Bidarraitarra emaztea. Onen amak puska zenbait eman zitidan goraintzi bezala eramateko, eta aiekin yoan nintxinan” (QA; IG, I, 1991, 713). Berraondotik zuzendu zion, hain zuzen, lehen eskutitza Jokin Zaitegiri Guatemalara. Eskuz idazten dio 1950eko otsailaren 17an: “*Euzko-Deya’rik* eta beste ezer ez det irakurtzen. Beste munduan bizi naiz. Zure kartarik, ez argitara eman dituzun iru banako oiek ez ditut jaso. Pozik bidaliko dizut zerbait argitaratzeko, eta oraingoz, asteko, bertso batzuk. Berraondo ontara ilabeteko etorri naiz, eta onen azken aldera, illobarenera berriz, ‘Chacabuco 331, Avellaneda Prov. de Buenos Aires’. Apirilaren lena aldera Quito’ra, arrebarengana ‘635, Ecuador’. Ez det makinarik ekarri Avellaneda’tik, eta oraingoz, zeurok aldatu barko dezute garbitara”. Eta eskutitza egiten dion paper berean, segidan, Indar-Zuburu senar-emazteei eskainitako “Berraondo’ko Meza” izeneko poema (IG, I, 1991, 519-522) bidaltzen dio, *Euzko-Gogoa*-n argitara dezan. Zer poema, ordea! Ederraz asetzeko, ezin egin aurrera ahapaldi batzuk bederen eskaini gabe:

“Berraondo’ko
Elizaren izaria,
ez luze zabal,
baiñan biribil andia,
erran nezake
itsasoaren erdia,
itsasoz urrun
Eldu denaren bidia.

(...)

“Ez da mendirik,
ez da zuhainik aldean;

txoriak ez du
txintarik ostu gainean,
Indart-Zuburu
lo ditut bete-betea;
Zeruak lurra
besarkatzen du bakean”.

Eliza hartako isiltasunaren handian, oroimenak hega egiten dio.
Nora? Berrito lehen bizi izandako lekuetara, Burgosko lurraldera,
Euskal Herrira:

“Eliz ixila
Kartusi’koa Burgos’en,
Orobat ixil
Azkoiti’n Santi-Kurutzen:
han gertatu niz
otoitz beitarik egiten.
Ez nuen uste
txoko oberik ba ziten”.

Berraondotik berrito ilobarengana otsailaren azken aldera itzuli behar duela, dio gutunean. Buenos Airestik hurbil dagoen Avellanadara, alegia. Otsailaren bukaerarako, beraz, bere ilobarekin egongo zen seguru asko. Avellanadan iloba Maritxu bere senarrarekin Patagonian barna hilabeteko txangoa egin berria zen, eta oso onik topatu zuen osabak. Familia izan eta, hautsita geratu omen zen, hautsita fisikoki eta moralki, haurra hilda jaio baitzitzaion. Ilobaren etxean egonaldi luze samarra egin zuen: “onerako paperak antolatzen ilabete terdi eman zetunat” (QA; IG, I, 1991, 713). Hilabete t’erdi ez ezik, ia bi hilabete ere egon zen, zeren Avellanadatik Jokin Zaitegiri bidali zion lehen eskutitza 1950eko martxoaren 6koa baita, eta azkenengoa, berriz, 1950eko maiatzaren 3koa. Epealdi honetan ez zen geldirik egon. *Euzko-Gogoa*-rako gogoz idazten segitzen du. Ikus bestela 1950eko apirilaren 29ko gutunean agintzen dion lan-zerrenda: “Berraondo’ko Meza” ezkerreko, beste lau lan bialdu ditizut, bat egan et legorrez ta itsasoz: 1) Zure Errebistaz eta iru liburueta; 2) Euskal-aditza (Sarrera); 3) Orainaldia; 4) Geroaldia. Onekin dijoa azkenekoa, legorrez. Oraindik beste batzuk igorriko ditizut gai ortaz beraz (asko ez, astunegi ez da-din). Emen ‘Laurak Bat’en mintzaldi bat eginarazi zidaten, eta esan nitunak dira”. Lankidetzeta irmoa eskaintzen dio, beraz, *Euzko-Gogoa*-ri.

Baina, paper-agiriak direla medio, ez du aurkitu ez girorik ez egokie-
rarik bertsoak egiteko. Orixe Avellanedan inolako sostengu bibliogra-
fik gabe aurkitzen da, eta idazten duena, harrigarri badirudi ere, beti
buruz idazten du, tabernariaren antzera, “lehen berriz esaten”. Izan
ere, gutun berean esaten dion bezala, bere lanak Euskal Herrian utzi-
rik etorri baitzen: “Estetika aspaldi argitara zitekena, an dagoke non-
bait etxean, beste paperen artean. Metafisika Ziburu’n utzi nun;
Gramatika ere bai, guzi guzia euskaraz”.

Bidaiaren bigarren zatia, osoki trenez egina, luzea bezain neketsua
izan zen; “protxu”koa, hala ere, lehorrez etortzean Andeetako mendi-
kate luze-zabalaren ingurumariko paisajeak eta herriak miresteko
aukera izan baitzuen. Trenbidez segidako ibilbide hau egin zuen: Bue-
nos Aires-Rosario-Santiago del Estero-San Miguel de Tucuman-San
Salvador de Jujuy-La Quiaca (honaino Argentinako lurraldean), eta,
segidan, Villazon-Oruro-La Paz (hauek Boliviako partean). Buenos
Airestik 1950eko maiatzaren 9an atera zen. Nekerik handiena Boli-
viako azken hiribururaino iritsi bitartekoak eman zion. Handik aurre-
ra, nonbait, hobeto sentitu zen. Ibilbidean zehar lurralde ederrik ikusi
zuen Orixeek, baina guztietan miresgarriena Boliviako goi-lautada iru-
ditu zitzaion, berak “zabaldia” deitzen diona. Bidean zehar entzun-iku-
sitakoa bitan banatzen du. Lehenik ikusia deskribatzen digu, eta gero
entzundakoa.

Eta halako batean, tren kalaka hartan joan eta joan, goi-lautada
koskan bukatzen den gunean, hain zuzen, bistaratzen du La Paz. Tren-
bideak ere hortxe jotzen du punturik garaiena, hots: 3.750 metrokoa.
Aizkorri halako bi zeruan gora. Hegazkina lurreratzeaz dagoela, gau-
argiz apaindua agertzen zaio hiriburua: “Bolibia’ko Uriburu dan La Paz
agertu zaigun. 3.200 metrora omen zegon, aski goian; baña goi artatik
oso beian ageri zaigun, gau-argiz beterik, arratseko beratziak inguruan.
Ez yun alderatzeko balio, baña Bilbao’ko Artxanda oroitarazi zidanen,
andik gauz ikusirik bainago Bizkaia’ko Uriburua” (QA; IG, I, 1991,
715). Hemen bi gau egin zituen. Egin zuen denbora labur horretan
harriturik geratu zen egun osoan zehar elizetan zenbat jende zebilen
ikusita. Halere, ez Quiton bezainbat. Fedea zen, ez besterik, kolonek
beltxaran koloreko indiar haiei ekarri zien gauza on bakarra, gainera-
ko gauza guztietan lehen bezain zigorpean jarraitzen baitute. Horrela
pentsatzen du Orixeek.

Hirugarren ibilaldia, eta ez beharbada itsusiena, hauxe izan zen:
La Paz (Bolivia)-Titikaka lakua (Bolivia eta Perurekin muga egiten

duena)-Puno-Arequipa (hauek Peruko lurraldean daudenak). La Pazetik noiz atera zen jakiterik ez dugu izan. Zein lokomozio-motaz baliatu izan zen, hori bai. Avellanedatik Jokin Zaitegiri 1950eko apirilaren 21ean egindako eskutitzean, hain zuzen, xehetasunak ematen ditu bidaia nondik nora eta nola egin asmo duen esanez: “Datorren ilabete orren 9’garrenean (1950-V-9an, alegia) aterako naiz. Jainkoa lagun, Boilivia’n barna, Peru’n gaindi, ez dakit noiz irixteko. Bidearen lenzazia trenez, bigarrena autobusez, irugarrena egazkinez. Tartean ontzia ere bai, Titicaca aintzira igarotzeko”.

La Pazetik Titikaka lakurainoko bidea nola egin ote zuen, trenez ala autobusez? Eskutitz horretan autobusarena ere aipatzen baitu, izan zitekeen ibilaldi horretarako autobusez baliatzea. Orixek, ordea, ez digu aztarnarik ematen hori jakiteko. Bera, Titikaka lakuaren zeharkatzea dela eta, hauxe esatera bakarrik mugatzen da: “Bazkalondoan andik yauzi ta Titikaka, aintzirara bostetarako. Badakin munduan dan aintzirarik aundiena ta ederrena dala. Ordubete ezik, gauez igaro genunan. Goizeko zortzietan atera. Nork esan, itxasotik iru milla metrotara oinbeste ur? Mendiak bear yufiate nonbait ere!” (QA; IG, I, 1991, 715).

Lakua itsasontziz zeharkatu zuen Punoraino. Andetako goi-lautadan, Bolivia eta Peruren artean, 3.812 metroko altitudetan kokatua dagoen laku honek angeluzuzen baten antza du, luzeran 200 kilometro dituena, zabaleran 70 eta, sakoneran, berriz, gehien: 280. Añamendi baino goragoko paraje batean itsaso baten pareko ur-putzu hura ikustea, zer gozamina! Pixka bat harritzekoa bada ere, Orixek ez dio eskaintzen Boliviako goi-lautadari eskaintzen dionaren antzeko atalik. Zergatik ote? Agian, gauez igaro zuelako? Baliteke halaxe izatea, zeren ez baitzuen laku-bazterrak ederresteko paradarik izan. Gauez begi guztiak arreak omen. Orixerenak ere bai, noski.

Punon itsasuntzia utzi eta handik zuzenean, lehenengo trenean, Arequipara abiatzen da. Hemen, hegazkinaren zain, bost egun egin zituen. Sukarrarekin zegoen eta ederki etorri zitzaion pausaldi hori.

Ibilaldiaren laugarren zatia, hots, Arequipa-Lima-Guayaquil-Quito bitartekoa, hegazkinez egin zuen; lehen biak Perun kokatuak, eta azken biak Ekuadorren.

Nahiz aurreko egunetan sukarrarekin egon, Arequipatik Limarako hegaldia oso ondo egin zuen. Hegazkinean sartu zenean, 96 bihotzpilpira zeuzkan eta Limara iristean, berriz, 53 minutuko. Egoera erabat normalean, beraz. Hemen, Liman, Santa Arrosaren etxeak eta lore-

baratzak Lizardi zenaren etxea eta lorategia gogorarazi zizkion. Ez du esaten zenbat denbora egin zuen Liman. Han egoteko asti gutxi izan zuela bakarrik. Limatik Guayaquilera gauzez heldu zen eta hurrengo egunean, goizean goiz, berriz ere hegazkina hartu zuen Quitora joateko. Hona 1950eko maiatzaren 25ean iritsi zen.

Orixe Quitora, bertan denbora asko samar egiteko asmoarekin joan zen. Jokin Zaitegiri Avellaneditik 1950eko martxoaren 6an egin-dako gutunean sei hilabeteko kontua aipatzen zion: “Quito’ra sartzen naizelarik, andik emango dizut neregana zuzenbide egiazkoa. Lengoa ere oker emana da. Casilla 631 eta ez 635. Nere arrebarenganakoa da. Zuzenbide osoa au da: Bolivar, 19. Quito. Uri ortan sei bat ilabete beintzat egongo naiz. Emengo konsulak irukoa besterik ez dit ematen, baña luzapena emango omen didate an beste iru ilabeteko”. Baina amets horiek ez dira kunplituko. Egonaldi askoz laburragoarekin konformatu beharko du. Arreba Denuxiri Kongregazioak egun mugatu batzuk jartzen dizkio bere anaiarekin egoteko. Zenbat egun? *Quito’n arrebarekin*-en bi erreferentzia dauzkagu “Berrogei egun” ataltxoan. Lehen testu batean dio, berez, zortzi egun baino ez diotela uzten, goiz eta arratsalde, elkarrekin egoteko. Beste pasarte batean, ordea, elkarrekin hilabete bat eta, beharbada, berrogei egun egiteko asmoa azaltzen dio Orixek bere arrebari. Zalantzak sortzen dira, ordea, Jokin Zaitegiri 1950eko maiatzaren 3an egindako gutunean hamabost egun besterik ez dituela egingo irakurtzen denean: “Pozik joango nazu, lenbailen, Quito’tik Guatemala’ra. Arrebarekin mintzatzeko amabost egun ematen ditidate dagokala, eta andik ara, astean bein besterik ez. Zertan egon bear det an? arrebak ere esaten didan bezala”. Zer pentsatu behar da honen aurrean? Mojak ez zeudela apopiloa luzaro edukitzeko prest? Jadanik Guatemalan dagoela, 1950eko abenduaren 10ean, handik Martin Oartzabali egiten dion gutunak argitzen digu nahastea, hor, *post factum*, berrogei eguneko kontua berritzen baitio: “Arrebari, goimifia egiten zaio noizean bein. Bestela ederki dago osasunez. Berrogei egunez bakarrik itzegiten utzi ziguten. Itz-aspertu ederrak egin genitun!”. Beraz, *Quito’n arrebarekin*-en datorren “berrogei egun” izenburua da zuzena.

Buenos Airestik Quitorainoko txango luze hau, Orixeren asmo eta desiren munduan bederen, oso-osoki hegazkinez egitekoa zen eta ez trenez, itsasontziz eta hegazkinez, praktikan gertatu zen bezala. Tartean diru-arazoa zegoen. Europatik ekarritako sosa eskastu egin zitzaizkion. Hala jakinarazten dio Jokin Zaitegiri Avellaneditik 1950eko

apirilaren 29an igorritako gutunean: “Nik xur xur ibili bearra daukat. Diru-galtze aundia izan dut emango *peso* errekarara joan delako. Nik erosi nitunean 39 *franco* balio zitun, eta 18’raño ere erori zan. Orain ez dakit nola dagon. Nola nai dala ere Argentinako diruari muzin egiten diote. Egaz joateko asmoetan nintzan, bañan Europa’tik etortzea alako iru eskatzen didate emendik Quito’ra. Legorrez, al dutan bezala joan bearke. Jainkoak osasun bizkorra ematen dit eta nere maleta iritxi ba’ledi, ni ere ez naiz urruti izango. Azken-aldera ba omen dut txori-gurdi oietako merkea”. Ez zen hala gertatu. Eta euskal literatura-ren zorionerako, izarren arteko parajetik ez baitzituen bistaratutako lurretik bezala, hain bertatik, Amerikako lurralde txundigarriak. Ez ikusi eta ez deskribatuko. Alde horretatik begiratuta, euskararen mesederako gertatuko da Orixeren patrika erdi-hutsik aurkitu izana!

Quitotik Guatemalara (1950)

Quitotik, bere arrebari esan bezala, Guatemalara joaten da. Arequipa-Lima-Guayaquil-Quito ibilaldia hegazkinez egiten duelako, zuhur bizi izanda ere, hilabete-pare bat egiteko adina diru baizik ez baitzaio geratzen, Guatemalarako bidaia ordaindu ahal izateko, aurreratua eskatzen dio Jokin Zaitegiri 1950eko maiatzaren 26ko gutunean. Hurrengo gutunean, ekainaren 1ekoan, seguru asko Jokin Zaitegik bidalitako diru-laguntza eskuratu eta gero, 1950eko ekainaren 15erako, beranduenik, Guatemalan agertuko dela iragartzen dio. Arrebarekin mintzatzeko baimena ekainaren 9a arte bakarrik du. Orixek bere borondate osoa erakusten dio lankidetzarako, bere aldetik behar bezala erantzuten ahaleginak egingo dituela adieraziz. Esan bezala, pentsatze-koa da ekainaren erdialderako Orixe Jokin Zaitegirekin batera egongo zela. Hara *Euzko-Gogoa* aldizkarian idazkari-lana egitera zihoan. Jokin Zaitegik OPEn irakurrita jakin zuen Nafarroa Beheretik Argentinara joana zela, eta, harreman batzuk tarteko eta Ander Mirena Irujo bitarteko, jadanik idazkaritzaren eskaintza egina zegoen jarraiko baldintza ekonomiko hauen truke: hileko 100 dolar, etxebizitza eta janaria. Eta badirudi eskaintza hori Argentinan bertan onartu ziola Zaitegiri, zeren haxe esaten baitio 1950eko apirilaren 29an: “Zuregana joate ortaz esan nizuna, au da, alde aldera: Pozik joan nintekela; dirua eskeintzea (artikuluengatik) eta etxea ere, gauza aundia da egunotan”.

Eskaintza polita zen Orixerentzat Guatemalako, baina ez, antza, erabat gustokoa. Inprimategiko akatsak zuzentzen, iristen ziren artikulak txukuntzen eta lankideak bilatzen, horrelako lanetan jardutea aspergarri egiten zitzaion. Horrelako zerbait adierazten dio bederen, han bizi izandako egoeraren balantze-modura, 1950eko abenduaren 10ean Martin Oiartzabali egiten dion eskutitzean: “Zureak jaso genitun. San Martin egunez ere oroitu nintzan. Egun batzutaz lenago ere bai karta egiteko, baña ez-gurari ederretsi nion. Izan ere ainbesteraño zorutzen nau Aldizkari onek! Irarkola onek! Irakorla dugu ezin-askatuzko korapilloa. Au genun asmo: urtearen azkenerako atzeraldia berdintzea iru zenbaki bikoitz atereaz. Itza ematen prantsesak baño areago dira emen, eta itza jaten ez diteke auek aiñakorik. Esan diot Zaitegiri multikopistaz argitaratu bear genukela illean illekoa. Azkenean ori egin bearke. Beraz lanez leporaño beteta dago, ‘Instituto América’ orrekin eta nik ezin dezaket zotzik egin arantz-onantza. Bizkor asi giñan, baña ‘arrancada de caballo andaluz, parada de burro manchego’. Irakorla’ra kilometro osoa daukagu: yoan-etorri bi. Egunean lau bider egiten ditut oñez zenbait aldiz, bi aldiz gutxienik, iru aldiz askotan. ‘Bus’ez asi giñan, baña diruz gaizki xamar gabiltza iru illabete auetan. Gizajoak ez du kemenik ukatzeko, eta eman dun dirua etzaio berriz etxeratzen. España batek (igeseña ura ere, gu bezala) txarkeri andi bat egin dio. Irten-bide polita daukagu. Ni Salvador’a yoan ba nendi (an egotea) argitara-gaiak poliki poliki kopiatu nezazke, ta emen multikopiaz atera ditezke. An sendi bat dugu oso adiskidea. Ara eraman nai naute, beraien landaetxe batera (Itsas-begi edo Miramar). Bakartasun artan asi ninteke nere lan andia egiten”.

Jokin Zaitegi lanpetua egoteaz gain, norbaitek azio itsusi bat egin ziolako, bera ere diru-eskasian zebilela? Baiki. Bere izen-abizenaz eza gutzen ez dugun “español” hori Guatemalan bizi zen errefuxiatu bat omen zen, Errepublikako koronela. Elkarrekin sekulako negozioren bat egingo zutelakoan, Zaitegik dirua aurreratu omen zion, eta militarrak, berriz, berme gisa, harri bitxiak eman, baina gezurrezkoak. Zaitegi aingerua zepoan erdiz-erdi harrapatu zuen. Eta, jakina, handik aurreragoko guztia, ezina!

Nahiz eta Jokin Zaitegirenganako borondate ona agertu, hasieran bezala gerora ere, beste lan-mota batek gehiago betetzen zuen Orixeren sormen-indarra. Bi asmo zeuzkan, batez ere, gogoan: bata San Agustinen *Aitorkizunak* itzultzea, Mathieu apezpikuak proposatu zionari

men eginez, eta bestea mistikako bere “bizi guziko lan aundia”, jadanik Orixatik hausnartua zekarren hura, hasi eta bururatzea.

Oso posible da Orixek eta Zaitegik inoiz “hasarraldiren bat” edo beste izatea, Joseba Intxaustik (1980, 12, 127) idatzi izan duen bezala. Izan ere, egia baten orexarra “genio bizikoa” zela, eta arrasatearra, berriz, “harro eta terko xamarra”, sua eta ura ezkontzen ezina den bezala, ez zen erraza izango bi izaera haiek noizbein muturka egin gabe elkarren ondoan izatea. Horrelakoetan, elkarrekin ongi konpontzeko, distantzia bat gordetzea hobe izaten dela esan ohi da. Bakoitza bere txokoan. Baina orokorrean esan dezakegu, harreman arras estu, eman-kor eta onak izan zituztela. Orixek, agindu bezala, etengabeko lankidetzak eskaini zion aldizkariari, batez ere, bere Amerikako egonaldian. Eta ez nolana hiko, gainera: sendoa eta kalitatezkoa nola prosan hala poesian. Orixeren lumatik ateratako onenetarikoa Amerikan egin da eta *Euzko-Gogoa*-n argitaratua. Zalantzarik gabe, Jokin Zaitegik bihotzez eskertu zion, aldizkariaren gorakadan harena izan baitzuen lumarriik beharrezkoena, irakurle zein idazle gehien erakarri zituena, lehen urteetan bederen.

Guatemalan sei hilabete besterik ez zituen egin, 1950eko ekainean heldu eta El Salvadorra urte-bukaeran joan baitzen. Eta bertan egingo ditu etxerako bidea hartu bitarteko azken lau urteak. Guatemalara bere betiko adiskideak agurtzera joango da.

El Salvadorko Zaragozan (1950-1954)

Orixek El Salvadortik bere lagun Oiartzabali idazten dionez, 1950eko abenduaren 12an heldu zen bertara: “Emen narabilte arontz-onontza baztarrak erakutsiz, eta ez daukat idazteko gogo aundirik”. Hiri horretara heldu bezain laster hortzak konpontzen ditu. Neurketak egin ondoren, hilaren 21ean jarri zizkioten berriak, guztira 175 colon ordainduta. Orixeren ustez, aski merke. Hortz-konponketa egin eta gero agertzen da Muyschondt-Contreras familiaren Zaragozako etxean.

Rogelio Muyschondt de Langhe eta Mercedes Contreras familia hau izan zen Jokin Zaitegiri 17.000 dolar aurreratu zizkiona, lehengo “Instituto América” utzi eta gero, “Landibar” izeneko bere lizeo berria eraiki zezan. Oso familia adiskidea zuen Jokin Zaitegik eta horien etxera bidali zuen Orixek. Familia honek “Miramar” izeneko basetxea ustiatzen zuen Zaragozako jurisdikziopeko lurraldean. Herritxo hau

“La Libertad” izeneko itsas portutik hamahiru kilometrora aurkitzen da, eta aipatutako finka horretatik, berriz, hiruren bat kilometrora. Erreka txiki bateko urak hartuz, Muysshondt-Contreras jabeek gaileta bat eraiki zuten azukrea eta kafea egiteko makineria mugitzeko. Finkako instalazioak zokogune batean aurkitzen ziren, Zaragozako herritik ekialdera.

Hango lurretan kafea eta azukrea egiten ziren garai gizen haietan, ez zen nolana hiko basetxea “Miramar”koa, Orixek “Itsasbegi” deitua. Gaur egun ordea, Jose Antonio Rivera aita salestarrak handik idatzi zigunez, basetxe horretako zati bat behortegi bihurtua dago, beste bat kafe-soro da eta beste bat, azkenik, zatitan banatua aurkitzen da. Oraindik ere zutik omen dirau Zaragozako herrian bertan kokatutako Muysshondt-Contreras familiaren basetxe hark, baina lehengo dotorezia hura erabat galdua omen du.

Orixek, egoitza berri honetan, bere gustoko lanari ekin ahal izango dio. Orexako baserrian bezalatsu, baserri-giroan, bakarrik, baina ez osotara, kabalez, kafe-soroz eta azukre-kanaberez inguratua baitzegoen basetxe hura.

Zaragozan, “primeraren primeran”, arras gustora, sentitzen dela idazten dio Jokini 1951ko otsailaren 19an. “Miramar”ko bakardade loratsu eta epelean barne-bizitza sakonean bizi da. Baina ondoena zaudenean ere, beti zerbait falta izaten baita, orain eguneroko mezaren beharra sentitzen du. Bilbon bezala Orexan, berdin ordurarteko erbestaldian, Orixek oso nekez huts egingo zuen eguneroko meza. Baina Zaragozako bakardadean, eguneroko mezak mira egiten zion. Halaxe jakinarazten dio Jokin Zaitegiri 1952ko apirilaren 4ko gutunean: “Zaragoza txiki ontan ez nago gaizki; bañan au ez da nere biziera, ez Meza ta ez Bezpera”. Handik hamazazpi egunera, apirilaren 21ean, beste hau esaten dio: “Ez nago asperturik emen, ez; baizik ere ez dela au nere biziera eredu, esan nizunez”. Gero ere, azkenaldian, 1954ko martxoaren 26an, musika bera entzuten zaio: “Ez daukat griña aundirik ioateko, baiñan an geiago egin nezakela. Emen eguneroko Mezarik ere ez”. *Quitó'n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 774) kontatzen duen bezala, eguneroko, goizeko lauretan, mezatara joateko kotxea baduela jakiteak berebiziko poza eman zion: “Orduko (lauetarako, alegia) naiko lo egiñik niagon, gaueko zortziretan etziten bainaiz. Zortzi ordu eder lotarako, ta bazkalondoan ere beste ordubete. Lau kilometro zeudin aldapa gora. Onontzakoan oiñez etorriko nintzala, bada, eguzkia iekitzen ikusiz; aldapa bera ikatz zakua ere ioan baititeke, gurean esan oi dana.

Bosko'tarren Ikastetxe bat zegon mendi galdor batean, zoragarri itsaso legorretara begi-bitarte zabalarekin. Espuru ez ezen, Zotzune baiño garaiago ageri yun bekokia; ni bizi naizaneko zokoa baiñon argiako. Zer Tabor mendi liluragarria!”.

Pasarte horretan datorren bezala, noizbehinka mezatarara joan ahal izango zuen, baina ez, berak nahi bezala, egunero. Hortik zetorkion, batik bat, Zaragozan ezin etsia. Eta mezatarako egokiera etortzen zaiorean, hura pozik. Berdin zaio itzultzeko oinez lau kilometro egin behar baditu ere. Salestarren Ikastetxe hori Ayagualoko herrian aurkitzen da, San Salvador hiriburutik 15 kilometro ertdira, eta guztira 1.500 bizilagun zituen 1985en. Gehienak nekazaritzan ari dira eta malkarrik gutxieneko alorretan artoa lantzen dute. Artoa, babarruna eta arroza egiteko soro txikiak daude. Lautadarik ez da. Lantzeko lurrik ez dute nek eta beren uztak jaso dituztenek, udako partean, kafea biltzen aritu ohi dira han-hemengo basetxeetan.

Orixek aipatzen duen boskotar edo salestarren eliza hori, berak deskribatzen duen bezala, kostaldera ematen duen muinoetako batean kokatzen da. Urrutitik begiratuta, kofre bat dirudi, berde kolorezko paisajeen flotatuz bailegoen. Gauaren isilean uhinen zurrumurrua entzuten da handik. Orixe, seguru asko, kotxean joan eta oinez itzuliko zen etxera. Ahal zuenean, noski. Joxe Mari Aranaldek (1965, 36), berari entzunda, “egunero Jaunartzeagatik bakanik etorri zela Ameriketatik” esaten badu, seinale da Zaragozan ez zuela izaten mezatarako egokierarik egunero eta itzultzeko arrazoi nagusinetako bat ere horixe zela.

Nolako etxe-giroa eduki ote zuen Muysshondt-Contrerasen familia? Abelazkuntzan diharduen familia dirudun baten etxean izan ohi dena. Orixek ez zuen bere lanetan jarduten eguneko ordu guztietan. Noizbehinka basetxeko lanetan ere aritzen zela garbi ageri da Mercedes Contreras andereari, berak “Mamen” deitzen dionari, Guatemalara zuzentzen dizkion eskutitzetan. Badirudi emazteki hau Jokin Zaitegirekin sarritan egoten zela Guatemalako “Landibar” lizeoan, 1951. eta 1952. urteetan bederen bai, epealdi horretan eskutitz bat baino gehiago egiten baitizkio bertara. Eta etxetik kanpo den epealdi horretan, etxeko joan-etorrien berri zehatz-mehatz ematen dio Orixek datarik gabeko gutun batean, esanez lorategia egunero –goiz eta arratsalde– ureztatzen duela, landareak hostoz beteta aurkitzen direla, lorategian ez duela aldaketarik egin nahi bere kontura, baina frutarbolei makila batzuk jarri dizkiela, hobeto ureztatzeko. Eta horrelako kontuak igortzen dizkio. Lantzean behin, antza, ukuiluko lanetan ere aritzen

zen. Martin Oiartzabali 1951ko urriaren 4an egindako gutunean kon-
tatzen dionez, egunik gehiena behiekin pasatzen du eta bere eskua
emaitzetan igerrri omen da: “Bi ietzialditan eta iriñak ematean eta abar,
ikullu aldean nabilla. Ni lardaskan asi nintzan ezker, iru alako esne
ematen digute”. Handik urtebetera, 1952ko azaroaren 7ko gutunean,
“emen beitegian eta lore-baratzen eta aurrekin, eguna errez igarotzen
zait”, esango dio lehengo adiskide berari. Handik bost egunera,
1952ko azaroaren 13ko gutunean, “patxaran bizitzeko asmoa duela”
esaten dio aita Mokoroari, aztarrika ibili gabe. Etxerako asmorik ez du.
Gure aspaldiko baserritarra gustura sentitzen da aspaldiko partez bere
lorategi, bere ukuilu, bere haur eta bere lumarekin.

Baina batzuetan, bere kontuak ez ezik, bestearenak ere pasatzen
dizkio etxeko andereari, hau kanpotik dabilenean, batez ere. Rogelio
eta Mercedes senar-emazteen berri zuzenik ez dugu. Orixeren gutune-
tan datorrena da, gizona belgiarra zela eta emaztea, berriz, emigratu es-
painolen jatorrikoa, eta zazpi seme-alaba zituztela. Senar-emazteak nola
konpontzen ziren beren artean? Beraiek jakingo zuten ondoen elkarren
artekoa. Orixek bederen ez zion debozio handirik etxeko nagusiarri.
Muyschondt jaunarengatik, besteak beste, haxe idazten dio une har-
tan Guatemalan den haren emazteari 1952ko azaroaren 23an: “El amo
dice que no tiene tiempo para contestar a sus cuatro cartas. Que anda
'danzando como un trompo hasta las diez de la noche'. Excepto –añ-
ado yo– las largas horas de lectura con que se está intoxicando noche y
día. ¿Eso es amor desinteresado? Menos que de novios. Yo tendría
escrúpulo”.

Hara hor Orixe inoren galtzetan sartuta, salariatariarena egiten.
Halaxe izanda ere, zer? Baina berari, ohargabea, hezkuntza jesuitiko-
tik hartutakoa ateratzen zaio kanpora, hots: lagun ustezko okerrak
nagusiei esatea.

Rogelio jauna, senar ona ez bada, ez dirudi ganaduzale hobe-
denik. Kontabilitatea gaizki eramaten du eta bere langileekiko harre-
manak eskasak dira. Langileek lanean hasi eta hilabete batzuren bu-
ruan, utzi egiten dute. Hortik dator anabasa: traktorea geldirik, behiak
zaindu gabe, eta abar. Administratzailea joatean, Orixek berak eram-
ten ditu esne-kontuak goizean eta arratsaldean. Baina horrela ezin da
aurrera egin, ganadua ondo gobernatzeko bi gauza baitira beharrez-
koenak, hots: esnebehiak eta larreak, biak onak izatea. Eta basetxe har-
tan biak falta omen. Eta okerrera, haren emazteari egiten dion 1952ko
azaroaren 18ko gutunean esaten dionez, ez omen duela inorena entzun

nahi: “Hoy le he hablado fuerte al amo diciéndole literalmente que las ‘vacas no son números abstractos, y que estamos estropeando’. Le habré entrado por un oído y salido por el otro”. Nagusiari “Don Listo” deitzen dio, horrela maiuskularekin.

Lehenago ere esanik zegoen Jokin Zaitegiri gizon hori diruzale amorratua zela. Berriro, 1951ko abenduaren 10eko gutunean, gauza bera esaten dio: “Mameme gaixoak ixtillu gorri ikusi du –zuk ere bai, antza– Ikastetxe berri ori antolatzeari buruz. Gure gizon au diruak oso zekendurik dauka. Besteren dirurik ere ez du eman nai gordetzeko daukanik. Luz Contreras koñatari zor diona eskatzeko ere ez du beko-kirik ukan aizpak. Mameme’k atera bear nondik edo andik. Zure dirua? Ikastetxea aipatu zion egunean bertan esan: ‘¿Ese señor se atreverá ahora a pedirnos su dinero?’”, zuregatik. Seme Freidy’ri ere ukatu egin dio bere esne-dirua, batean baitzeukaten diru-etxean: ‘No hay dinero’. Orain semeak berriz eskuratzen du bere irabazia. Edozer gauzetarako ‘No hay dinero’. Jainkoak daki zer ikusiaz dion emazteari. Guri ere ez digu aurrera egiten uzten beitegian. Berak nai bezala bear beti. Guzia dakila uste ioan-etorri guzietan”.

Orixek, arrazoi bategatik ez bazen besteagatik, izan zituen gorabeheratxoak Zaragozako egoitzan. Batean “primeraren primeran” dagoela esango du eta bestean, berriz, “au ez da nere biziera”. Beti bere buruarekin borrokan. Inoren etxean inoren esanera egon beharrak zekarkion ezinegona, dudarik gabe. Mameme anderearekin zorretan bezala sentitzen da, eskaintzen dion laguntzagatik lotuegia bezala. Puntu honetaz aipamen bat baino gehiago egiten ditu. Orixek Jokin Zaitegiri 1952ko irailaren 16an egiten dion gutunean, adibidez, hauxe esaten dio: “Poliki poliki etxe alderako asmoak nitun, baiñan emen luzatu bear ko oraindik ere. Etxeko andreak ez du entzun nai ere dagoeneko ni emendik ioaterik. Nik arengan baino ark neregan aginpide aundiaga dauka, or besterik uste ba’duzute ere”. Hiru hilabete geroago, abenduaren 9ko beste gutun batean, nora joango litzatekeen ere adierazten du: “Emen ez nago gaizki. Obeki nengokela Belloc’en, iakiña; baiña ‘danean dantxoa, nere gizontxoa’. Mamene’k ere merezi du laguntzea, gaixoak, aski naigabe baitauka senarrarekin eta etxeokokin, batez ere ‘Liceo Landibar’ dela bide”. Itzultzeko asmoak agertzen baditu ere, ez du aurrera egiten. Baina handik bi urtera, 1954ko martxoaren 26an, berriro antsi bera eta oztopo bera errepikatzen ditu, “Miramar” basetxean aspertzen hasia balego bezala, gaina aski jota: “Guatemala’ra

itzultzea ere ez litzake eder Mamene'rengatik. Beraz, itxaron egin bear oraindik. Amaikatzeko ba daude ni baiño okerrago”.

Batean Guatemalara begira eta bestean Belokera, Zaragozako herrixoa utziko lukeenean bezala sumatzen dugu Orixek, zalantzaren kaiteak preso hartua baleuka bezala. Leku berean baditu jadanik lau urte eginak, Orixerentzat ez gutxi, eta begi bat jarria dauka norabait begira. Zaitzegiri zuzentzen zaio behin eta berriz, berak zer erantzungo zain balego bezala.

Amerikan egindako lanak

Nolanahi ere, eguneroko bizimoduak eragiten zizkion kezka horiek gorabehera, Europako erbestaldian kausitu ez zuen giroa biziko du Zaragozako egoitzan, hots: giro baketsua, izaditik hurbil, jende xumearen ondoan. Idazteko ere ezin emankorragoa. Mahai aurrean goizeko seiretan jarri eta, parra-parra idazten du. Lanak? Asko eta onak. Poesiagintzan, sorta ederra osatzen du, 25etik gora, horietako gehienak 1951rako eginak. *Euzko-Gogoa*-ko lankiderik oparoenetako bat izan da nola prosan hala poesian. Itzulpenetan, isuria etengabekoa da. Dabiden *Salmuen* itzulpena 1952ko azaroaren 18an bukatua dauka, eta *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak*, berriz, 1954ko martxorako, nahiz azken bi hauek, bere osotasunean, orrazketa batzuk egin eta gero, Hego Euskal Herrian argitaratuko diren, lehena Lazkaoko beneditarren abadian, 1968an, *Salmutegia* izenburuarekin, eta bigarrena, 1956an, Zarautzko Itxaropenan. Prosan, *Quito'n arrebarekin* mistika-saioa du, zalantzarik gabe, bere lan handia.

Orixek Amerikako bere lan eskerga Muystond-Contreras familiari, honek bere etxean hartu zuelako, eta, bereziki, Jokin Zaitegirengandik jaso zuen etengabeko laguntzari zor dizkio. *Euzko-Gogoa*-ko lanengatik “zerbait eman al ba dezazu” eta “zuk ere zerbaitxo lagundu al ba zenida” erreguekin eskatzen bezala dio 1950eko marxoan eta apirilean egindako gutunetan, eta Jokin Zaitegik, bera zorretan leporaino sartua egon arren, bihotz-zabaltasunez luzatzen dio dezakeena. Quito-tik Guatemalara joateko dirua berak bidaltzen dio; *Euzko-Gogoa*-ko lankidetzara, lehen esan bezala, osoki ordaintzen dio; Zaragozara ere dirua igorritz segitzen du, Orixek 1952ko irailaren 16ko gutunean esker-rak ematen baitzikio diruagatik eta soineko ederragatik. Zaragoza utzi

ala ez utzi, trantze larria pasatzen ari baita, ume txiki baten antzera Jokin Zaitegirengana joko du. Adierazgarria da 1952ko abenduaren 9an zuzentzen dion gutuneko pasarte hau: “Zure telegramaren zai gaude. Ni emen geldieraztea iduri ba’zaizu, ongi da. Nik ez dezaket eskatu biderako dirurik, eta Praintzira iritxirik ere, ez nago ziur E’ko I’k lengo laguntza emango lidaken. Ezean, Orixe’ra igaro bearko nuke, ez bainuke nai zuk dirurik neri bialtzerik, len naiko zama daukazularik. Orain ere, laureun dolar oiek ordaintzen ba’dituzu, etzaidazula dirurik bialdu lau ilabetetan”.

Azken gutun horretan hiru gauza bederen garbi daude: lehenik, ez dakigu nolako maiztasunez, baina erregulartasunez dirua bidaltzen ziola Zaragozara; bigarrenik, bazituela languntzaileak eta horietako bat E.I. delako hori zela; hirugarrenik, etxeratzeko dirurik ez zuela. E.I. izen-laburdura horien bidez ezkututzen dena nor den jakitera ez gara iritsi. Baina itzulerako bidai txartela ordaintzeko sosa bere lagun batzuk bidali ziotela eta, laguntzaile horien artean, bat bederen, Jokin Zaitegi bera izan zela, hau, bai, badakigu. Tolosara iristean, hemendik 1954ko azaroaren 30ean egiten dion gutunean, hain zuzen, “aunitz esker diruarengatik eta Eguberrikari igorriko omen duzunarengatik” esaten dio. Hau bai dela ekonomi iturri autonomorik gabe nolabait bizi beharra!

Guatemalan etxerako bidean

Handia da adiskideek Orixeri eman dioten laguntza, baina handiagoa berak euskarari eman diona. Euskara aukeratu zuen emaztegai-tzat eta horren amoretan gauza askori uko egin zion. Diruari ere bai. Euskarak Orixe izan zuen bere lehen profesionala. Latz kostata gero! Irakur ezazu, ez baitu deus galtzekorik, “Agur, Guatemala’ri” atarikoan (1954) dakarren zati hau: “Emen nago Guatemala zoragarri ontan, Zaitegi ta Andima iauneri agur esatera etorrita. Etxealdera, beraz, itsasoetan barna. –‘Bainan, Orixe, dagoneko amerikanotu zera?’ –Bai zera! Bost urtetan ez da nornai aberasten. Zorrik ez deramat beñipein. Ioan-etorrietan eta emen egonean zearotu ditudan sosak pillean ba’neuzka, ba-nuke mordoskatxoa. –‘Ortarako ere bear da poliki. Nondik atera duzu guzi ori?’ –Zaitegi iaunari galde. Bera zorrak metatzen ari dala ere neretzat atera du lana latz eginda. ‘Euskerak diru asko eman dizu, Orixe’. Neri aiña idazleetan ifiori eman ez diola uste nuke. Baiña

kendu didana? Kontu orrenik iñork ez du ateratzen. Matxinadatik iges egiteko muga igaro nuncan berela egin zidaten eskutitz bat Bordeleko Unibersidadeko Irakasle diran Guillaumie senar-emazteak. Aiek naiko lezioa biribilgatuko zidaten eta ala, bai aberastu ere egingo nintzan. Baiña nere emaztegaririk kutunena euskera izan da, ta oni atsegin egi-tearren nere burua arloteago ikustea ederretsi dut. San Salvador'ko Unibersidadean ere, sarrera ba-neukan, polikitxo irabazteko bideare-kin; baiña nere emaztegariri txatxan egiten ari nintzala diru askok iges-egin dit. Orra egi garbia. Baiña nere emagazte polita, obeki esan, ede-rra, ondo iokatu zait, gaixoa. Diru asko ba'lu, guziak neretzat lituke, baiña dirua baiño gero balio dun zerbait eman dit”.



Ezkerretik eskuinera, Andima Ibinagabeitia, Jokin Zaitegi eta Orix, Guatemalako “Santa Mónica” egoitzako atarian, 1954ko urrian, Orixek etxerako bidea hartu bez-peran.

Eta hemen, bai, ez eskutitzetan bakarrik, ageri-agerian baizik, garbiki aitortzen du dirurik gehiena, politikoz gainera, Jokin Zaitegik eman diola bere euskarazko lanengatik. Dirua eta adiskidetasuna. Agur egiterakoan, aitortza publiko hori egiten dio. Merezia zuen, noski, Orixeren eskerrona. Eta hau ere harenganako kunplitua izan zen, hitzaurre horretan ikusten den bezala.

Orixe gizarajoak ez du ekarriko, ez, indiano aberatsen itxurarik etxeratuko denean.

Joxe Azurmendi (1977, 208-209) harritu egiten da El Salvadorko egonaldian Euskal Herriaren garai hartako (1950-54) egoeraz fitsik esaten ez duelako. Eta halaxe da. Baina ni kasik oraindik gehiago harritzen nau, bera El Salvadorren lau urtez bertan bizi izan eta, hango egoera soziopolitikoaz gordetzen duen erabateko mututasunak. Puntu hau ukitu gabe saio hau besamotz geratuko bailitzateke, ikus dezagun Guatemalako euskaltzaleak, Orixe bezala Zaitegi, zein gizarte-testuingurutan bizi ziren.

Esana daukagunez, Bilbon bizi izan zenean, ez zuen hiri horren gizarte-arrasto izpirik utzi bere orduko lanetan. Bere bizitzako epealdirik emankorrenetakotzat daukagun Amerikako bost urte horietan, zer aterako eta, gehienbat gai erlijiosoak atera zizkigun bere zakutik: poesia mistikoak, Biblia eta Elizako Gurasoen testu-itzulpenak, mistikari buruzko saiakera. Estetikari buruzko beste saio bat ere, biziki aipagarria, argitara eman bazuen ere *Euzko-Gogoa*-n, orokorrean mistikari buruzkoa ez zen beste gairik ez zuen harrotu nahi izan. Baina garai hartan El Salvadorko herriak bizi zuen gizarte konkretu hark ez ote zion ezer esaten? Ba ote zekien zer gertatzen ari zen bere inguruan? Horiek dira galdera eta horien inguruan ohar batzuk egin nahi ditugu. Gainbegiratuki bederen, El Salvadorko estatu-boterearen berri eman beharrean gaude, besterik ez bada zer isiltzen zuen jakin dezagun.

El Salvador 21.000 kilometro karratuko herrialde txiki bat da, he-
daduraren aldetik begiratura, Erdialdeko Amerikako estaturik txikiena, zabaleran 100 kilometro eta luzeran 250 dituena. Gutxi-gorabehera, Euskal Herriaren antzekoa. Herrialdea ertz batetik bestera hiru ordu r'erditan zeharka daiteke kotzez. Lurralde txikia bada ere, dentsitate handikoa da, batezbeste 31 bizilagun baititu kilometro karratuko. Bertako biztanleria, 1985ean, 4 milioitik 6 milioikoa izatera pasatu zela kalkulatu da (Martialay, 1983, 148-149).

Cuscatlan deitzen zen gaur egun El Salvador gisa ezagutzen duguna. Hiru mendez espainolen koloni herria izana da, XIX. mendearen

erdia arte. Lurralde honetan jatorri desberdinetako herriak bizi ziren: maiak, mahuak, toltekek, mexikak eta lenkak. Herri-lurrak ebatsi eta herriak sarraskitu ondoren, kolonialismo honek 300 urte iraun zuen, El Salvadorko Errepublikak 1941eko otsailaren 1ean aldarrikatu baitzen. Ez du ez ikatzik ez burdinarik. Urre-mineral ustiagarri arras gutxi. Industria astunik ez da. Daukan guztia, eta horixe da bertako urre bakarra, lurzorua da. Funtsean kafea, kotoia, azukrea eta oinarritzko aleak dira lantzen direnak. Jendea lurretik bizi baita, lurraren jabetza da arazorik larriena. Eta nekazaritzaren ezaugarri bereziena, jadanik espainolen konkista-garaitik hasita datorrena, zera da: lurreko ondasunak bertakoen mantenturako sortu ordez, eskudirutan kanpora saltzeko askoz ere errentagarriagoak diren beste uzta batzuk lantzen direla. Nazio-ekonomia, beraz, esportatzen diren produktuek mundu-merkatuan, garaian-garaian, egiten dituzten prezioen gorabeheran oinarritzen da osoki. Horregatik, produktu horietakoren bat konkurrentzia-gatik errentagarri gertatuko ez den garaian, krisi ekonomikoak sortuko dira. XIX. mendearen azken herenetik hasi eta, kafea izango da esportaziora bideratutako ekoizpen-jarduera nagusia.

Nazio-ekonomiari eman zaion norabide horretaz landa, El Salvadorrek badu beste arazorik ere. Zein? Handiena, oligarkiak kontrolatzen duela lurraren jabetza. Ezkontzen bidezko loturaz eta inbertsio-interessez elkartutako “hamalau familia” dira kafearen produktzio-gintza, esportazioa, finantzaketa, industrializazioa eta komertzializazioa gidatzen dutenak. Orixe bere etxean hartu zueneko Muyschondt-Contreras familia ez zen, egia esan, oligarken familiartekoa, baina bai bazen familia diruduna, bere langile eta guzti, nekazaritzan eta abelazkuntzan azkarki ari zena. Lehen esan bezala, tresnatua zegoen kafegintza eta azukregintzarako. Esan behar da jende xeheak, gehiengo batek, apenas duela lurrik lantzeko. Honetaz erraz jabetzeko aski da datuok gogoan hartzea: lurzorua % 20 ez da lantzeko modukoa; gainerako lurzorua % beste 60, populazioaren % 2ren jabetzakoa da, eta geratzen den beste % 20, % 90en artean banatzen da. Klasearteko desoreka ezin handiagoa da.

Politika-mailan nekazal erreformak egin nahi izan zirenean ere, oligarkia honek beti bilatu izan zituen neurri politiko horiek ezabatzeko bideak. Adibidez, Farabundo Martí komunistak zuzendutako 1932ko herri-errebolta xehatuan, Martinez jeneralaren gobernu burgesak lur-jabetza pribatu zabalak bereganatu zituen eta “nazio-basetxe” bihurtu. Nekazarien hasarrea ezititzeko egin zuen horrela. Baina teknika eta

finantzaketaren aldetik ez zen ongi bideratu izan erreforma hori. Horregatik, mailegu eta lukurreriaren menpe geratu ziren nekazariak eta, zorrak ezin ordainduz, lurrak berriz ere lehengo nagusiek eskuratu zituzten. Honela, 1950ean, Orixe Zaragozako herritxora joan zen urtean, hain zuzen, 1932an banatutako 72.000 akre haiek oligarkiaren jabetzara pasatuta zeuden jadanik. Lurraren birbanaketa txiki bat egin zen berriro 1950ean, baita beste bat ere 1960an. Baina beldurraren, torturaren, legezko teknizismoaren eta, batez ere, prentsako propagandaren bidez, oligarkiak beti eutsi ahal izan zion bere botereari.

El Salvadorko bizitza politikoa, 1931ko abenduaren 2ko eguna aipatzen da data ohargarritzat, oligarkiak orduan utzi baitzuen Armadaren eskuetan zuzeneko botere politikoa. Harrezkero, han nagusitu izan dena egiazko tirania militarra izan da, eta da oraino. El Salvador-ko estatua gobernatu dutenak, beraz, militarrek izan dira: aipaturiko Martínez jenerala (1931-1944), Osmin Aguirre jenerala (1944-1946), Castañeda Castro jenerala (1946-1950), eta abar. Orixe hara agertu zen urtean (1950), Oscar Osorio koronelak hartu zuen boterea eta sei urte egin zituen dirua ustelkeriaz eta zarrastelkeriaz xahutzen. Oligarkiaren esanera zegoen botere militar honek ez zuen jakin izan nazio-ekonomia aurrera ateratzen, hots, nekazaritza eta abelazkuntza modernotzen eta herritarrengana ekartzen. Bide batez, gobernatu ahal izateko, zapalkuntza basati eta sistematiko batez baliatu zen, herri-eskabi-deak isilarazteko.

Egia da, Orixe han egon zen garai hartan, borroka armatua sortzeaz zegoen artean, zeren, nahiz eta Alderdi Komunista klandestinitatean lanean ari, herri-borrokak orduan ez baitzeukan geroago hartuko duen indarra. Kubako iraultza garaitzean, 1960ko hamarkadan, FUAR (Frente Unido de Acción Revolucionaria) izeneko taldearen sorrerarekin, onartzen du Alderdi Komunistak borroka armatuaren taktika boterea lortzeko bide gisa. Hurrengo hamarkada-hasieran, 1970ean, ERP (Ejército Revolucionario del Pueblo) eratzen da, hau burgesia txikiko kristau errotiko elementuez osatua. Borroka armatua sendotu eta zabaltzen hasi, ordea, 1979an hasten da, iraultza hiri-gerrilatik landako lehen unitate armatu iraunkorretara pasatuko denean. Borroka armatuaren uholde honetan, 1970eko hamarkadan zehar, hain zuzen, hango iraultzan zuzenean parte hartu zuten euskal iraultzalerik izan zen. Hildakorik ere bai. Gogoan dugu Pakito Arriaran gaztea, Arrasateko semea. Baina hango borrokan inplikatu ziren euskaldun hauek 1960ko

belaunaldikoak genituen, internazionalismo proletarioan sinesten zutenak.

Baina Orixe han egon zen garaian, gerraurreko jelzaleek, orokorrean bederen, ez zuten horrelako sentirkortasun berezirik erakutsi kla-searteko arazo espezifikoen aurrean. Eta, beste gehienen antzera, Orixe ere ez. Bestalde, herri-erresistentzia indartuz doan heinean areagotuz joaten baitira gizarteko kontraesanak, itxuraz bakea zegoen garai hartan, 1950eko hamarkada-hasieran, ez zen ohartu Orixe El Salvador doko gizarteak jasaten zuen zapalkuntza ekonomikoaz. Edota ohartu bazen, ez zuen aintzakotzat hartu.

Orixeren bizitzan bada pasadizo bat asko ezagutzen ez dena, dihardugun kontu honekin zerikusia duena. “Miramar” basetxeko morroi beltzarekin gertatua da. Bizirik nola atera zen kontaktzen dio Martin Oartzabali 1953ko abenduaren 17an egindako gutunean: “Zurea aski garaiez iritxi zan, eta bizirik arkitu nindun. Sortze Garbi egunean goizeko bostetan ikullu-mutil batek marrauzaz io nindun, eta ez kali (akabatu). Alfange aundi oietakoa zun. Bearrik neukan alboan makilla kozkor bat ona. Burua atzeman nai zidan alegiñetan, baiña nik itzuri ixkintxoka, bein, berritan, geiagotan, berari eraso gabe. Esia ausi ezin zula ikustearekin, gerrira keñatu nindun. Alako batean eskuifneko erpurua ukitu zidan —ez bizkor— bigarren koskoan. Gogorrigo iotzeko asmoz besoa zabaldu zularik, gorputzera sartu nintzaion, eta, aren besoaurreari giltza emanik, marrauza utzierazi nion. Biok elkarri eldurik giñegola, indar geixko egin arengandik bereizteko, ta, lurrera erori nintzan, aren marrauzarekin. Arek iges bere burua iskillu gabe ikusi zunean. Nonbait zeru osoa nere alde neukan une artan. Ez du arek lanik egiten etxe ontan ‘El Negrito’ deritzoten orrek, baiñan erronkaz ari omen, nere betiko egurastokira agertu ba’nadi, konponduko naua. Onik aurrera, makilla ez-baiña, su-iskilloa eraman bearko lagun”.

Onetik libratu zen hirurogeita bost urteko Orixe. Abenduaren 8ko egun hura Ama Birjina sortzez garbiaren eguna baitzen, berak dioen bezala, zeru guztia alde izan zuen eta berak kontatu ahal izan digu, fikziozko literaturan bezain bizi eta zehatz, egiazki gertatu zitzaiona. Buru hotza? Tenplea? Borrokorako giltzak egiten ikasia? Galdera hauen erantzuna baino gehiago eraso hartatik bizirik irten izana axola zaigu. Hau hasteko, eta, honekin batera, nola erreakzionatu zuen jakitea ere bai.

Arestian aipatu berriak gara El Salvadorren jende gehiena pobrezian bizi zela, ez lur ez lan. Orixeren gutunetan pasadizo horrekin aurkitzean, bururatu zitzaigun lehen gauza izan zen, “El Negrito” hura

Muyshondt-Contreras familiaren basetxean hutsaren truke lan egiten zuen norbait izan zitekeela. Hango gazte gehienek antzera, ezer gutxiarekin bizi zen norbait, biziari eguneroko bizitza miserableak eskaintzen zionaren adinako estimua oparitutako zion norbait. Harentzat Orixe, izan, norbait arrotza izango zen, hara nonbaitetik etorria, ukuiluan nagusiaren ordezkari gisa hartuko zuen norbait. Beraz, haren ordezkariaren irudia betetzen zuen heinean, noski, hura bezain gorrotagarria. Bestalde, Orixeren gutunetan, ez behin, askotan agertzen da basetxe hartan administratzaileek zein morroiek denbora gutxi egiten omen zutela.

Orixek, bere aldetik, pasadizo hori kontatu eta hurrengo parrafoan, hango jendea nola ikusten duen deskribatzen du, tarteka bere balorazioak eginez: “Emengo iendea odolzale da. Laterri ontan bi milloek lagun baizik ez ditularik, urtean milla ta bosteun eriotze gertatzen dira kaliz. Lapurreta? Ortzak ostutzeko ere gai dira, ta ez gezur-ortzak gero. Lizunkeria? EUNETIK larogei sasikume. Zaragoza au erri ona da beste askoren aldean; iru urte auetan iñor ez dute kali; baiña seigarren ortan, besteak iduri. Illabeteko bataiatuen agiriak neronek iaso nitun bein eta amarretatik zortzi sasikume. Colon’ekin etorri ziran aiek oso izen txarra utzi zuten emen. Lope de Vega’k, Quevedo’k eta Cervantes’ek ziaготena berbera diagote emen”. Eta segidan Cervantesek *El celoso extremeño*-n dakarrena dator: “Las Indias son refugio y amparo de los desesperados de España, iglesia de los alzados, salvaconducto de los homicidas... Allí se van las mujeres libres”. Hango ustelekia, beraz, Espainiatik esportatua da. Bitxia! Orixek ezin argiago mintzatzeko da hango miseria moralaz, baina ez gutxiengo batek gehiengoaren baitan eragiten duen zapalkuntza soziopolitiko eta ekonomikoaz.

Orixeren ikuspegi moralista horrek zer adierazten duen? Ez gure baieztape merke eta borobiletan erori nahi, baina iritzi xume gisa esan genezake –halako zalantz aire poxin batekin beti ere–, gizarte-arazoek ezer gutxi esaten ziotela Orixeri, ez zuela aski sentiberatasunik erakusten herri batek –edozeinek, etxeokak nahiz kanpokoak–, bizi dituen mila modutako arazoak –bereziki, ez-linguistikoak– ulertu, bizi eta bere egiteko. Bere oinetan handituz zihoan Bilbo hiri industrializatua erabat aherentzia zuen. Eta Bilbo, Euskal Herrikoa izanik. El Salvadorren, aldiz, Muyshondt nagusiaren kudeaketa kaxkarra salatuko du, nekazal ustiapenetik aski mozkin ateratzen ez duelako; baina herriko jende arruntaren –gehienek– miseria gorria ez du ikusiko, gutxiago salatuko. Odolzalekeria bai, lizunkeria ere bai. Eta planto!

Gizarteko fenomenoak horrela ikusi eta juzgatzeko jarrera hori nondik ote zetorkion Orixeri? Ez, seguruki asko, indiferentismoren ondorioz, ezta asmo gaizto baten gainean oinarritutako aurreiritzi batek eraginda ere. Orixeri, erbestean zehar hainbat lekutatik barrena dabilenean ere, bera ohartzeke, haurtzaroko eskemak funtzionatzen dio, gaztetako kristau-heziketa zorrotzak, jesuiten pedagogiak. Bizitzaren erlojua Uitzin geratu zitzaion eta bere hartantxe segituko du hilko den arte. Dena den, bere ikuspegi ideologikoa gorabehera, Orixek maila ematen du gizatasunean bezala euskaltzaletasunean. Euskal Herriari eta bere hizkuntzari –euskara kutunari– zeukan guztia eskaini zionari ezingo zaio askoz gehiago eskatu. Euskararen inguruan zituen jarriak bere joranak. Norberto Tauerri 1951ko azaroaren 25eko gutunean aitortzen dion bezala, euskara galtzen bada, ez da galduko bere alferkeriaren erruz, beste arrazoi hauengatik baizik: “Gure lan guzia alperra izango ba da ere, gu ez gera atertuko geure lanetan. Ez dedilla esan, beintzat, gure zabarkeriz il dala euskera. Zuk biotz ematen diguzu, ta eskerrik asko. Gure izkuntza gaixoa iñoiz iltzekoa baldin ba’da, orain-txe ilgo da, edo beñere ez. Etsaiak ditugu nonai, ta makurrenak etxean”.

BOSGARREN ZATIA
ORIXE ETXERATUA (1954-1961)

HAMAIKAGARREN ATALA

BIZITZAREN ILUNABARREAN

Zaragozako paradisuan gozo bizi zen, bakartasunak ematen zion bakeari esker, barne-oreka ez-tian. Langile eta pobre, baina bere buruar-
ren jabe. Ez baitzen bere hezurak han uzteko asmoarekin joana, noiz-
bait behar eta, etxera-minak ziztatu zion barrua. Eder zitzaion paraje
hura, atsegin, zeru; baina Jaunarekin egunero hizketatzeko, bakartegi
hura bakartegi egiten zitzaion. Eta hark, guztien gainetik, egunero
jaunartu nahi eta, horretarako, zegoen lekuan egonda, ez bide zuen
egokierarik aurkitzen. Jaunaren deiak gogor tiratzen bazion etxerantza,
ama-lurra ere –berak hain goraki eta ederki kantatu zuen euskal paisa-
je huraxe bera–, hoska zeukan itzul zedin. Bere zahartzarorako geriza-
ren bila zetorren etxera.

Herriratzeko “Stromboli” itsasontzia hartu baino lehen, Zarago-
zatic 1954ko irailaren 20an egindako gutunean Jokin eta Andimari
iragarri bezala, El Salvadorko Zaragozatic Guatemalara joan zen, he-
mengo adiskide biak agurtzera. Urriaren 25ean itsasontziratzekoa bai-
tzen, egun batzuk lehenago elkartuko ziren bertan hiruak, hiruak je-
suita eta jesuitagai izandakoak, euskalgintzan hirutasun garaia osatu
zutenak. Zuzendaritzak handik emango die, lehen aipatua dugun “Agur,
Guatemala’ri” atarikoaren bidez, bere itzuleraren berri *Euzko-Gogo*a-ko
idazle eta irakurleei.

Amerikako lurak uzteko orduan, esperantza, ilusioa, melankonia
eta beste hainbat sentimendurekin nahasian, bi kezka, bi beldur, zera-
bilzkion barruan aztaka: batetik, Amerikatik amerikanotu gabe itzuli
beharra herritar eta etxekoen lotsarako eta, bestetik, berak nahi ez

bezalako herria aurkituko ote duen susmoa. Bi sentimenduok garbi agertzen dira bere atariko horretan. Justifikatzen ere saiatzen da.

Orixen Amerikan ez dela aberastu? Bai zera! Zorrak ez utzi izanarekin konformatzen da. Dirua egiteko izan zituen aukera guztiei uko eginik, zeukan gutzia, bihotz eta adimen, osoki euskararen zerbitzura jarri zuen. Bai Bordeleko Unibertsitatean bai San Salvadorkoan, bietan eman zioten irakasletzarako sarbidea, baina berak euskararen zerbitzari izatea lehenetsiko du. Egia da, euskarak ezin eskain ziezaiokeen ez dirurik ez gizarte-ohorerik, gutxiago orduan ezer gutxi zenean; halere, nahiago izango du emaztegai pobre baina ederrarekin geratu, beste hizkuntza aberats eta ohoretsuago batekin ezkondu baino. Izakeraz agian bai, baina bihotzez eta euskal minez, Orixen ez genuen Unamuno izan. Barka bekigu Iñurritzek, baina bilbotarrak euskaragatik ez zuen sekula esan orexarrak, Amerikatik itzultzean, esan zuen hau: “Diru asko ba’lu, guziak neretzat lituke, baiña dirua baiña geiago balio dun zerbaite eman dit”. Hauxe da, euskal lanaren truke –ez alferkeriaren truke– besteek emandakotik bizi izan den baten egiazko arrazoia. Etxeratzean bertakoek arlote, joan bezain pobre, aurkitzen badute, ez daukate zergatik eskandalizatu, ezta Orixek ere zergatik lotsatu.

Itzultzean eraldatutako Euskal Herri batekin topo egiteko beldur zela? Hau ere egia. Ez zekien asko bere etxea nola aurkituko zuen, bertan nola hartuko zuten. Jakiteko motiborik ere apenas zuen, aspalditxo urrutiratua baitzen. Erbestean egiteko urte asko dira hamasei urte. Hainbeste denbora da hori, ezen batek senti baitezake bere burua ez etxerako eta ez kanporako. Inongoa ez sentitzeko arriskua sortu ohi du horrelako egoerak. Beldurrak beldur, oraindik Guatemalan segitzen duten Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia adiskideak berotuta, etxera abiatzen da atzetik bultzaka datozen idazle gazte bulartsuen ondoan lanean segitzeko asmotan. Hauxe dio bere agurreko pasarte honetan: “Bildur pixka bat neukan gure txokoa nai nukenik ikusiko ez dudalako; baina bi adiskideok biotz eman didate oinbeste ta oinbeste idazle berri ta gazte gure atzetik datozelako. Olako, alako, bestelako, Urlia, Sandia, Berendia... irurogeita lau idazle omen ditu bere mende *Eusko-Gogoā*’k. Baiñan ez nolanaiko idazleak batzuk batzuk. Gure orpoz orpo omen datoz, guk arrotu-autsa zapaltzen. Pasako ote gaituzte? Euskerak obe luke”. Orixeren kezka hau nahiko laster berretsiko da. Geroago mamituko dugun bezala, belaunaldi berriak jo eta pasa egingo du Orixeren eskola, orobat *Euzko-Gogoa*-rena, beste bide batzuk hartuko baititu. Euskararen onerako? Irmoki esanda, bai.

Euskararen normalizazioaren aldeko oldeak ez baitu oraindik azkena jo, pentsatzen dugu –hala sinetsi nahi genuke–, Orixeren ekarpena ez dela erabat alferrikakoa gertatu izan batasun-bide horretan.

Guatemalan adiskideekin bost egun egiten ditu, musika entzunez eta kontu-kontari. Euskal Herritik aldizkarirako lanak igorriko dituela aginduz agurtzen ditu biak: “Olako lagunen gandik aldegin bearra mingarri da, baiña berekin naukate aurrera ere Aldizkarian beintzat”. Eta hitza beteko du. *Euzko-Gogoa* izango dute lokarri.

Orixe 1954ko azaroaren 24an lehorreratu zen Bilboko portuan. Hasieran iragarri bezala, handik urriaren azken aldera atera bazen, itsasoa zeharkatzen hilabete bat inguru egingo zuen. Badakigu harakoan ez zela lo joan, bidaia errealismo ikusgarritz deskribatua utzi baitzigu *Quito'n arrebarekin*-en. Aurrean mundu berri bat irekitzen zaion baten harriduraz, xehetasun osoz, kontaktzen ditu ikusiak eta entzunak. Honakoan, ordea, oraingoan barne-giro mistikoan osoki murgilduta, *Jainkoaren billa* liburuari emango dio hasiera, itsasoan idatzia baititu Sarrera eta Lehen atala. Gaiari ekiteko ere, bideko gertakari batek eman zion egokiera. Itsasontzia hartzeko autobusean zetorrela, herriko emazteki espiritista bat ari omen zen elejario bere erlijioaren berri ematen. Espiritistak, beste mundukoekin harremanetan jartzeko, *medium* batez baliatzen dira. Emazteki dohakabe hura ere, beste hainbat bezala, haraindikoa norbaiten bila zebilen, baina, zoritxarrez, desbideratuta, Aitarengana joateko, Jesukristo baita bitartekari bakarra: “Doakabea! Ez du, naski, Elizak azpian arrapatuko. Iainkoa ez dan beste mundukorik ez dugu bilatu bear, eta Aitagana bide ortan ez dugu bear, Zu, Iesukristo, beste bitartekorik”. Bere azken urteetako kemenak lan hau egiten urtuko dizkigu.

Santurtziko portura joanda, Antonio Maria Labaien, Alfontso Irigoien eta Gabriel Aresti haren zain egon ziren, baina alperrik, Alfontso (1976, 329) kontaktzen duenez, Atxuriko geltokira iritsi arte ez baitzuten elkartzetik izan. Badirudi Orixe, beste bidaiariak bezala, kaira agertu gabe, itsasontzitik txanel batean lehorreratu zela eta, horregatik, ezin izan zutela elkarrengana jo. Atxurin bertan bazkaldu eta Labaien aita-emeak, kotxez, Tolosara ekarri zuten. Hemen Petra arrebarenean egin zuen bere lehen egonaldia, akordatuko zarenez, San Kristobalگو kartzela uzterakoan ezkutatuturik egon zen leku berean. Azaroko euskal klimak ez du onez hartzen Orixeren gorputza, zangoak Tolosan jarri orduko oheratu beharrean aurkitzen baita. Itzuleraren berri ematera-koan, *Thiamina* indizioak hartzen ari dela eta ez duela inora agertzerik

izan idazten dio Jokin Zaitegiri 1954ko azaroaren 30ean: “Ondo iritxi ni. Emen nago, oge aldetik, *Thiamina* ziztakoak artzen. Enaiz agertu nere etxera, ez eta zure amarena, baiñan ez dut asko luzatuko”.

Orixeren itzulerak itxaropen handiak sortu zituen euskaltzaleen artean. Asko ziren harenik zer irakurriko, haren ahotik zer entzungo, zain irrikatzen zeudenak. Berak ere bazekien hori, Tolosatik Zaitegi/Ibinagabeitia bikoteari 1955eko urtarrilaren 1ean egindako gutunean irakurtzen den bezala: “Jendeak nerekin itzezin-gura omen dauka. Ni ostu-ostuka bezala nabila, bai adiskideekin, bai etsaiekin. Villasante’k ere ikusi nai omen nindun. Euskaltzaindiaren azkeneko batzarretara iende anitz ioan omen, ni an ikusi ustez”. Etorri berri hartan, gaixotasunak ezindua daukalako, batik bat, nahiko galduta aurkitzen da, hainbat deiri ezin erantzunez. Eguberri aurrean, Lazkaon bakarrik izana zen artean. Hala esaten dio Jokin Zaitegiri 1954ko arazoaren 14an: “Ni enaiz oraino bere tokian eseri ta ezin erantzun oinbeste galderari. Atzo Lazkau’n nintzan –oso bero artu ninduten– eta biar Arantzazu’ra bi eguneko. Ilaren 12’gn. Zaitegi Legazpikoak agertu bat egin zidan, eta ilaren 22’gn. Mundrau’ra ioatekotan gelditu giñan. Ni oraiñarte ogealdetik ibili naiz, zain-barruko ziztako oiek artuz”.

Gutun horretan agindu bezala, Arrasaten izan zen Zaitegiren ama ikusten, berri hori ematen baitio 1955eko urtarrilaren 10ean egindako gutunean: “Besoa maiera arrimatu orduko *calambre*’ak iotzen naute, ta artu-utzika iardun-bear. Noizbait ere –oiean egonik, eta *Thiamina* ziztakoak arturik– agertu bat egin nion zure amatxori, Zaitegi iauna”. Lehentxeago, Arantzazun bi egun egiteko desira agertzen zion; arestian, berriz, Aita Villasantek berarekin egoteko gogoia daukala. Izan ote zen Aloñamendin? Ziur-ziur, 1956ko urriaren lehen aldiaren bederen, artean ez, Ibarri Bilbora hauxe idazten baitio 1956ko urriaren 17an: “Arantzazu’ra ezin joan izan nintzan, egun aietan erorialdiak arrapatu nindulako. Orain polikixago nago”. Geroago ere ez, Aita Isidor Baztarririkari hauxe idazten baitio 1958ko irailaren 12an: “Arantzazu’ra ere eramatekoa ninduten lengo ilaren bigarren amabost-aldian, baiñan ez naute deitu, eta onezkero ez deituko ere, ilaren amazazpigarrenean asten baitute Cursoa edo ikasturtea. Guardian’a aukuratzea, beratzaurrena ta abar, oso lanpeturik egon omen dira. Bego, bada, aurtengoz ere. Len ere iru saio egiñak dauzkat joateko, eguna eman eta guzi, baiñan iruretan atakeak atzeman nindun”. Beraz, aipu honetan zehazki datorrenez, hiru txandatan huts egiten du. Arrazoi bakarra, osasun eskasa.

Bistan da, Orixek bere leialtasunak zeuzkan. Amerikatik ekarrita-ko eskemarekin funtzionatzen zuen, adiskideak eta etsaiak *Euzko-Gogoa* aldizkariaren ikuspegitik juzgatuz. Guatemalako adiskideak agur-tzerakoan agindu bezala, Jokin Zaitegi eta Ibinagabeitiari 1955eko ur-tarrilaren 10ean egindako gutunean, espreski esaten du ez dela alden-duko hartutako bidetik, asko baita hari zor diona: “Zuekin asi nintzan eta ondo asi, ta enaiz bestetara ioango. Batez ere ortik ematen baitida-zute ezkurra”. Eta adiskideen artean kontaktzen ditu Lazkaoko benedi-tarrak, Larreako *Karmel*, hasierako *Jakin* eta, oro har, komentuetako idazle gazteak. Euskaltzaindia eta *Egan*? Elkarte eta aldizkari hauekin izandako tirabirak oraindik historia hurbilegia egiten zitzaion horieki-ko bere zuhurtasun-neurriak har ez zitzaiz. Giro hau nabarmenki us-natzen da Koldo Mitxelenak (“Adiskide berri”k) Orixeri *Egan*-en (1954) egiten dion elkarrizketan. Seiren bat galdera edo, zuzentzen dizkio, bes-teak beste honako hauek: zein lan daukan eskuartearen, euskal irakur-leak zergatik diren hain urri, euskal liburuen irakurketa zail gertatzea noren errua den, eta abar. Orixek oso labur erantzuten du guztietan. Eta batasunari buruz egindakoa, berriz, deus ez: “Galdera geiago ere egin dizkiogu. Ea, esate baterako, batasun-billa, eguzki edo etzin-alde-ra, zaarretara edo berrietara jo bear dugun; ea XVII’gn. mendeko iz-kuntza berpizteari ditekian gauza aal derizkion, eta abar. Baiña Or-maetxea jaunak galdetzeko baimena esku-zabalki eman arren, erantzute-ko (edo ez erantzuteko) eskubidea beretzat gorde du, gizon zuurrari dagokionez”.

Lehen saio honetan zirikatzen jardun zuen arren, ezer gutxi atera zion haren mingainari. Hurrengo urteko apirilaren 26an beste gutun bat igorriko dio Koldo Mitxelenak Lazkaora, oraingoan euskal litera-turaren historia –euskaraz eta gaztelaniaz– egiteko proposamena luza-tuz: “Gure naia 150 bat orrialdeko liburua –izkuntza batean– litzake: bitara, beraz, 300 ingurukoa. Ortara eltzeke, oker ezbagaude, leengo lana apurren bat ornitu bearko litzake, zenbait idazle, besterik ezpada ere aipatuaz. Horrela ditugun utsuneak elirake agian diren bezain lo-tsagarri agertuko, eta ori gezurrik esan gabe. Gero, jakina, berriagoak erantsi bearko litzazkioke, zerorri artean zerala. Etzaizu noski atsegin izango zerorren buruaz mintzatzea, baiña naikoa zenduke egin dituzun lanak aipatzea, eta izan dituzun asmoak agertzea”. Mitxelenak bigarren aldiz luzatzen dio eskua, lanerako diru-eskaintzarekin eta guzti. Orixek, oraingoan ere, inoren eltzean burrunztalirik ez duela sartu nahi eta, beste baten izena emanaz egiten du atzera, maiatzaren 5ean bidalitako

gutunean datorren bezala: “Lan ori Aita Onaindia’k egin dezake laister eta ederki. Nor-nai dala lan ori bere gain artzen duna, iakin dezala, nere lanaz baliatzeko baimena ematen diodala, *nai dun eran* erabiltzeko, eta nik ez dudala *ezeren eskubiderik aipatuko*”. Ezezkoa jasotzean, azkenean Mitxelenak berak hartuko du lan hori burutzeko ardura, baina gaztelaniaz. Bitxia da, baina, aldi berean, argigarria bi idazle handi hauekin gertatua: ez Mitxelenak idatzi zuen *Euzko-Gogoa*-n, ez Orixek *Egan*-en.

Gutunen bidezko harreman horiek kortesia handiz bideratzen badira ere, lehen irakurketan sumatzen da bien artean badela lehendik datorren hari-etenik eta oraindik ere ahazteke daudela aldizkaritik aldizkarira izandako purrustada garratzak. Artean bete gabe zeuden, Umandik eta Koldo Mitxelenak izandako eztabaida zela eta, *Euzko-Gogoa* eta *Egan* aldizkarien tartean irekitako zangak, artean bateratu gabe bide autonomoa eginik zuten erbestekoen eta barrukoekoen ikuspegiak. Euskaltzaindia eta *Egan* bide beretsutik zihoazen; *Euzko-Gogoa* eta Orixetarrak, berriz, beste bide batetik. Bi eredu ziren, bi proiektu. Koldo Mitxelenak (1954, 4), susmoak susmo, Orixeren urrutiko adiskideen artean kokatzen du bere burua eta, bidenabar, aitortu ere aitortzen du zertan den hura euskaltzaleentzat jarraibide: “Urrutiko adiskideak Orixek’gandik bi gauza ikasi ditugulakoan nago, batez ere, biotz-biotzez maite ditugun gauza bi: bere idaz-lanen bidez Euskal-erriari eman dion poesi-izaera, urteen joanak desegin edo aldatuko ez tuen betiko izaera arrigarria, eta euskeraz antzuarazi digun musika berri garbia. Musika ori daukagu belarrietan sartua amaika ikasle koxkor eta kaxkarrek, eta doiñu ortara saiatu nai genduke gure mintzoa, nai ta ezin badugu ere”. Harekin ados etorri ala ez, Koldo Mitxelenak bazekien behar bezala estimatzen haren luma, agian beste inork ez bezala jakin ere.

Euskara zein egoeratan aurkitzen duen bere herrian? Hain txarrean ere ez. Tolosa eta Donostian lehen baino gehiago mintzatzen delakoan dago. Nolahani ere, euskararen etorkizuna, gizakiak haren alde egin dezakeenaren gainera, Jainkoak erabakiko du. Horregatik, Hargan jarri behar da esperantza. “Jo gora”, esaten die Zaitegi eta Ibi-nagabeitiari Lazkaoitik 1955eko urtarrilaren 1ean egindako gutunean: “Euskara galduko dala, ez dala galduko, or ari dira gutarrak eleketa. Zer gertatuko da? *Suspiciamus in excelsum*, andik etorri bear baitu gure erriaren osasuna. Bitartean, egia esan, Tolosan eta Donostian len baiñon euskera gehiago entzuten dala esan diteke. Neri ala iruditu zait,

eta iendeak ala diño”. Euskara eta Jainkoa. Badirudi, hala ematen du bederen lehen begirada batean, ikerketa soziolinguistikoeek ez ziotela fede handirik eskaintzen. Azken batean, herriaren osasuna, gizakiena bezala, Jainkoaren esku dago. Aburu honetan gogokide zituen Orixek beste hainbat euskaltzale ere, adibidez, Gotzon Urrutia, Ibar bera ere bai.

Jendea ez dabil asmoz makal. Nemesio Etxanizek jakinarazten dionez, euskarazko aldizkari berri bat plazaratu gogoz omen dabilta batzuk. Horretarako, noski, *Euzko-Gogoa*-rekin konpondu behar, elkar-lehiakide gerta ez daitezen. Aterabidea? Guatemalakoak izena gal-tzea edo aldatzea proposatzen da. Asmo hori, hala adierazten dio Orixek Zaitegiri 1954ko azaroaren 30ean egindako gutunean, “urrea kakaren neskame izatea” izango lizateke, baden zerbait ez-denaren mende jartzea, alegia. Orixek, bere aldetik, *Euzko-Gogoa* Lazkaon bertan argitaratzeko proposamena luzatzen dio 1955eko otsailaren 19ko gutunean: “Emen irarkola edo makiña bat ONU’koaren antzekoa erosteko dabilta. Orduan atera liteke Aldizkari ori ere emen, ez emen-dik bezela, baizik, esaterako ‘Imprimerie *Ezkila*, Belloc, B. P. France’n egiña bezela. Askoz merkeago ta errexago. Ikusiko dugu”. Etxanizen nahiz Orixeren asmo horiek, gerraondoko berpizkundearen lehen optimismo-kimua dira, garai honetan barruan loratzen diren hainbat ilusioaren adierazle, zerbait egin nahiaren ondare. Apenas ezer gehiago. Orixek lanera dator bere herrira eta hori da inportantea. Jon Garmendia “Zeletak” (1955), hain zuzen, Orixeren etorrera bertsoz agurtzen du, euskaltzaleak alaitzera gonbidatuz:

“Alaitu gaitu, guztiz,
euskal-idazleak
Orixeren osteran
onuntz etortzeak.
olakoan bearra
ba’du Euskereak:
ixeka ez-dagion
arrotz-izkuntzeak”.

Erleak loretara bezala, euskal idazleak haren inguruan dabilta, hala nola Aita Luis Villasante, Koldo Mitxelena, seminario eta komentuetako idazle gazteak... Ados egon ala ez, errespetoa diote. Eman-go ote du jendeak espero duena?

Orixeren azken urteak gogoratzen ditugun bakoitzean, ia etengabe etxer aldatuz, San Joanen hura datorkigu gogora: “Bereetara etorri

zen, eta beretarrek ez zuten ondo hartu”. Nonbait, mundu zabalean gertatzen den zerbait da. Jesusen kasuan bezala, berdin kristau-familia handian ere. Aldamenean ez dugu nahi izaten enbarazurik, gutxiago diruz ordaindua ez denean. Bizipen honetaz ohartzeko, zoritxarrez maizegi, gauden lekutik ez daukagu urruti joan beharrik.

Orixe Lazkaon (1955)

Amerikatik etorri ondoko lehen bi hilabeteak Tolosan arrebarenean egin ondoren, jeikita baino gehiago oheratuta, urte berriarekin, 1955eko urtarrilaren 8an, bildu zen Lazkaoko monastegira. Honen berri ematen die Zaitegi eta Ibinagabeitiari data horretako gutunean: “Erenegun-aintzi iritxi nintzan Alkartegi ontara. Ederki nagoke emen. Gelan berogarria ba-dut. Oso kuttun artu naute ta lanerako –euskal lanerako– bizkortuko omen...”. Egia esan, ez dakigu zein ekonomi baldintzatan egon zen Lazkaoko beneditarrekin. Oso posible da, San Benitoren erregelak itzuli truke, han mahaia eta ohea izatea. Horrelako zerbait esaten zion bederen Zaitegiri Zaragozako “Miramar” basetxetik 1954ko abuztuaren 16an egindako gutunean: “Gero ele-ederraren edesti diñozu. Oraingoz ez nago batere beroturik ortan jarduteko. Besteri egiñarazteko, bai. Lazkau’ko beneditar gazteeri eragingo diet izatekotan. Nere ondoan ikasiko omen dute, Aita Nagusiak diñostanez. Ba-ditut etxe ortan maia eta ogea ta Bibliotekako giltza. Guzia 20 pezeta eguneko. Eskola kaxkarren bat ematen ba’dut, merkeago aterako naiz. Neronez gutxi egiñik ere, besteren bidez ugaritu naiteke. Etxe artan guzi guziek dakite euskeraz”. Euskal literaturaren historiaz baita hor galdera, litekeena da horretarako proposamena Mitxelenak baino lehen Zaitegik egina izatea. Baiezkoan, Mitxelenari emandako ezezkoak bazuen aurrekaririk. Bestalde, beste inon ez baina hemen bai, 20 pezetaren kontua agertzen da komentuan bizitzearen alde. Dena den, puntu honetaz datu jakinik ez dugu, galdetzea ere ez zaigu bururatu. Egia esateko, garrantzirik ez diogu eman.

Lazkaon zenbat denbora egin zuen? Zehaztasunez erantzuterik ez badago ere, esan dezakegu urte t’erditik gora egon zela, 1955eko urtariletik 1956ko iraila pasatuxe arte. Monastegiko egonaldi luze eta pausatu honetan, osasunarekin borrokan, *Agustiñ Gurenaren Aitor-kizunak* (1956), *Salmutegia* (1968), *Benito Santua. Bizitza eta Erregela*, 1980an argitaratua, eta *Officium parvum* (1955) burutu zituen, azken

hau argitaratzeke Estibalitzeko Artxiboan gordetzen dena. Badu beste hitzaldi bat ere, “Egiaren bila nondik asi” izenekoa, bertan eman zuena San Tomas Aquinokoaren egunean, 1955ean.

Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak itzulpena, lehen esan bezala, Zaragozan bukatu zuen. Handik aita Onaindiari 1954ko urtarrilaren 26an esaten zioenez, bukatzeaz zeukan, azken atala egiten: “Lengo astean itz emona neukon neure burua, ez nebala eskutizik egingo S. Agustiñen *Aitorkizunak* amaitu arte. Azkenengo iardunean diñardut (XII garrenean) eta ointxe beste lau eguneko lana”. Handik bi hilabetera, martxoaren 26an, Jokin Zaitegiri egindako gutunean esaten da itzulpena bukatua duela eta Maritxu Barriolari Donostiara bidali omen diola, han argitara dezan. Liburuaren zabalkunderako, Donostiako seminarioko euskaltzaleekin eta dauzkan bi iloba apaizgairen laguntzarekin kontatzen du: “Nere S. Agustin Donosti’n, (X liburua), beste iruak aste banatan bota nitun. Lenik, ibilian ibilian ni ara joan bearco. Maritxu Barriolak esaten ditudanekin, kolokan iarri naiz. Mameme’ri galdegin diot zer iduri zaion. Ortaz an bertatik bertara zainduko nuke argitaratze ori. M.B’k bilatuko ditu. Nik bi iloba apaizgai badituz eta Donostiko Seminario’ko euskaltzaleak ba-dakizu nerekin dauzkadala”. Kontu hau, Zaragozako da, aurreko urtekoa. Lazkaon, ordea, testua berriro eskuratu eta osoki berrikusi beharrean aurkitzen da. Ibarren oharrak jaso ondoren, batez ere, ohartzen da Trabucoren eta BACen testuen artean aldaketa handiak daudela eta, horretaz gain, bere itzulpenean ere badela zabarkeriarik. Sei orrialde oharrez josiak bidaltzen dizkio, “Oarkabez utziak” izeneko txostenean eta, bidenabar, aditz-joko arrotzak kentzeko proposamena ere egiten dio. Orixek Ibarren oharrak eta proposamenak esker onez onartzen ditu, 1954ko urtarrilaren 14an egindako gutunean datorren bezala: “Arrazoi dezu. Gizagajoa! Zer penitentzi eragin dizudan! Ikusten zaituz zure gela-txokoan, eskuak buruan, ile-tiraka, neoflexismo oietako zenbaitekin oztupo egiten. Neroni ere lotsa ematen didanak (sic) ba-dira, ta pozik kenduko dituz”. Zuzenketa-lan hau 1955eko udarako prest eduki nahi luke, berehala eliz-baimenak eskatu ahal izateko. Ibarrek “sekulako lana”, erraldoia, dela esan omen diola eta, ez da astoa lokatzetan sentitzen. Zaitegiri kontatzen dio 1955eko otsailaren 19ko gutunean aita Mokoroak nolako piropoa bota dion: “Ni S. Agustiñekin ari naiz, batez ere. Opor-aldirako gertu nai nuke, berela Eliz-baimena eskatzeko. Zuei bialiko ditizuet Atal bereizi batzuk noizean bein. A. Mokoroak aukeratuak. *Trabajo gigantesco* dala esan du”.

Azkenean, hurrengo urtean, 1956an, kaleratuko da, baina ez, hasieran pentsatua zeukan bezala, Maritxu Barriolaren bidetik, Itxaropena argitaletxeak argitaratuta baizik, Antonio Maria Labaienen eskutik. Argitaratu eta gero, izan zuen nahigaberik. Mina, batik bat, jatorrizko testua, ustez, polikitxo aldatu ziotelako. Labaienek bi ale eman zizkion. Hartu, azala begiratu, ireki eta irakurtzen hasten denean, ohartzen da hura ez dela berak entregatu zuena bezalako, beste norbaitek bere lizentziak hartu zituela haren testua ukitzeko. Hala kontatzen dio Ibarri 1956ko irailaren 23ko gutunean: “Axalez poliki dago. Gaiñerakoan... eskua polikitxo sartu dutela, lenengo orrialdetik asita. Azkenean iztegia ere ipiñi dute. Zertzuk esanez! *Adargil: ganado cosquilloso* (guk lo arifia esaten duguna): *lo-zorro*. Ez dit batere irakurtzeko gogorik ematen”. Hurrengo astean, irailean 30ean, Jose Mari Arnalderekin alderantzizko iritzia azaltzen dio aita Mokoroari berari: “Gaztelu’ko iloba seminarista’k esan didanez, *Aitorkizun’*etan ez omen dute eskua asko sartu”. Asko ala gutxi orraztu, Orixe mindurik geratu omen zen, berarekin kontatu gabe egin zutelako. Orraztailea, antza, Manuel Lekuona izan zen. *Aitorkizunak* liburuaren gainean zer zekien galdetu nionean Joan Inazio Otaegi apaizari, nire solaskideari, hauxe erantzun zidan: “Liburu hau, uste dut, Manuel Lekuonak pixka bat orraztu egin zuela. Uste dut, uste dut... Berari entzunda dakit hori. Orixe min hori agertu zidan. Manuel Lekuonak guzti hori Orixerekin kontatu gabe egin zuen. Egun batean galdetu nion: ‘zer esaten didazu Lekuonaz?’. Eta esan zidan: ‘Un talento aprovechado’”.

Bigarren arantza delikatuagoa zen. Igoal egia izango da diru-hotsak txakurrari dantza eginarazi ziola. Uff! Itxaropena argitaletzeko Untzurruntzagari zenbateko tirada egin eta zenbat kostatu zen galdetu ziolako, Labaienek oso gogor hartu omen zuela kontatzen dio Ibarri 1956ko irailaren 23ko gutunean: “Pekatu aundi bat egin det, nonbait, Zarautz’ko Itxaropenari au galdegitea: zenbat ale tiratu ditun, eta zenbat kosta dan. Labaien’ek gogor eraso zidan atzo, ta nik au erantzun nion: ‘Ez al daukat nik sekulan ezer jakiteko eskubiderik nere liburuetaz? Ez al zenidan zerorrek esan orain ogei egun, M. Barriola’k Misal’aren lenengo argitaraldian 7.000 atera zitula? Eta nerekin bost milaren tratoa egin? Or bi mila ziplo. Eta len egindako trapukeria. Bizkor xamar itzegin genun biok, baiñan ez genun odolik ixuri. Mingarri dira gauza auek. Nik ba-dakit nere liburuekin negozio aundirik ez dagola; baiñan ikusten diran gauzak ikusita, ixilik gelditu bear al degu?”. Orixe hasarre zen Untzurruntzagarekin ere, datarik gabeko

gutun batean, horrelako kontuekin bazterrak nahastera Labaienengana joan zelako: “Zer adiskideren artean ote gabiltza? Eta Zarautzkoak, neri erantzun ez eta, zergatik esan bear zion ola ta ola karta egin niola?”. Bere lanagatik alde aurretik 5.000 pezeta hartua baitzen, isilik egotea besterik ez zegokion. Esan ziotenez, diru hori Pio Montoia apaizak emana zen, eta, hala uste izanda, eskerrak eman ere, hari eman zizkion. Baina badirudi egiazko emaileak, izan, aita Mokoroa bera eta Concha andrea izan zirela, bestela ez baitu zentzurik Ibarri 1956ko irailaren 23an egindako gutunean datorren pasarte honek: “Ni uste ortan nengon, zuregandik egia jakiñ arte. Eta ori jakin gabe, esker gaiztoko agertu nintzan zurekin eta Dña. Concha’rekin”. Hautsak gehiago harrotu gabe, lehendik ere nahikoa harrotuta zeudela eta, arazoa isilik pasatzea erabakitzen du. Zenbat misterio, zer saltsa dirua tartean dagoenean!

Hitzaurrean, artzain eta ikazkinen mintzaerak latin landuari ez ziola deus zor iritiz gero, gomendio honekin utzi zuen irakurlearen eskuetan. Hala dakar Sarreran: “Gaurkotik au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-libururik bikaiñena”. Ustez, Jon Garmendiari (1965, 54) Añorga auzoko Zabalegin aitortu zionez, liburu hauxe zuen garaiena euskararen aldetik begiratuta bederen: “Euskera’ri begiratuta, *Aitorkizunak*. Ori aztertuko dute, geienik, *euskera sakonago* ikasi nai dute-nak”. Bere erantzuna, puntu honetan, zalantzarik gabekoa izan zen.

Kritikak, oro har, mirespenez eta laudorioz jaso zuen itzulpen-lan hori. Umandik latinez eta gaztelaniaz baino mamitsuago aurkitzen du euskaraz San Agustinen pentsamendu-liburu hau. Andima Ibinagabeitiarentzat (1965, 113) itzulpen honekin, ordurarteko marka guztiak hausten ditu, “jo ta pasa” ere bai. Joxe Azurmendiren ustez (1977, 15), euskara zaila darabil, zailegia osorik irakurtzeko, baina adierazpen-ahalbide handiak irekitzen dizkio prosa modernoari. Baina kritika zehatza eta, nire ustez zuzena, Koldo Mitxelenak (1956, 5-6) *Eganen* egiten diona da. Mitxelenak lerro gutxi galtzen du losintxak botatzen. Beharrik ere! Zuzenean xehetasunetan sartzen da. Egokiera ere aukera-aukerakoa baitzuen, kritika honetan egiten du Orixeren euskarari buruzko diagnosirik argiena, eta geroztik etorritako azterlanek hor esanak froga berriez egiaztatu besterik ez dute egin. Funtsean, dioena ondoko hiru puntu hauetara muga dezakegu:

Lehen ezaugarria da, kultur hitzak itzultzerakoan, hitz berriak sortzera edota, baita ere, hitz zaharrak esanahi berriz hornitzera jotzen duela. Askotan eta askotan miragarriro eratzen ditu hitz-elkarketak,

baina beste batzuetan ez hain ederki. Zergatik? Hitz teknikoek duten zehaztasuna zaintzen ez duelako. Adibiderik ematen du: *tempus* itzul-
tzeko bost ordezeko erabiltzen ditu (*noiz, noizaldi, noizko, aldi, ordu-
ko*), baina inoiz ez *denbora; agintari* eta *enperadore* ez dira sinonimoak,
jakinzale eta *filosofo, ele-zati* eta *silaba* ez diren bezala. Joxe Azurmendik,
errenderiar filologoak irekitako ildo horretatik harago joanez, po-
lisemiaren muga gainditzen ez duten euskarazko ordezekoen zerrenda
askoz gehiago handitzen du. Ezin dira baliokidetzat hartu, adibidez,
honako bikoteak: *apostolul bidali; existentzialismolizaten-filosofia; se-
xolkuntze; agilfenómeno; heterodoxolizinauts; quietistal alper-egonzale;*
causal gertaburu; religiónliaurespide; zuzenbidel aclaración, explicación,
justicia; ritmoluntun, eta abar. Guk geuk ere, *Quitón arrebarekin* (1988,
66) aztertzean, horrelako adibide ugari ditugu jasoak, hala nola *zer,*
zergauza, zeinak, baliokide bailiran, *objeto, quidditativo, esencia, reali-
dad, cosa presente* eta *substancia* adierazteko erabiltzen baititu. Kon-
tzeptu bat azaltzeko, segun eta uneko argialdiak nondik ematen dion,
berdin-berdin asmatuko dizkizu euskaraz bat edo bi baliokide bezala
lau edo bost. Orixeren jokabide anarkiko honek bere mugak baititu,
ezin dira haren neologismoak onartu gaurko lexikogintza tekniko-
zientifikoan azterketa-lan sistematiko baten galbahetik pasatu gabe. Ez
dugu ezer berririk esango Orixeren luma zabarra dela badiogu nola
hitz berrien eraketa eta zehaztapenean hala ortografi kontuetan.

Euskal harrobirako ixuria badu ere, ez ditu horregatik ezezten
erdarazko hitzak. Koldo Mitxelenak (1956, 142) hainbat eta hainbat
aurkitzen dizkio: *animalia, arma, duda, elefante, engañatu, heresi, here-
tiku, grazi, kasu, komeni, komerilari, madarikazio, markatu, misterio, mu-
gimentu, musika, numero, seguru, serbitzu, señale, tentatu, umil, zirku,*
eta abar. Nahiz eta zahartzaroan garbizaleago agertu, jokabide hori ge-
hiago zegokion planteamendu teorikoari praktikoaari baino, zeren ino-
lako kupidarik eta lotsarik gabe erabiltzen baitzitu en erdal hitzak. Aski
da Joxe Azurmendik (1977, 138-139), *Santa Kruz Apaiza* eta *Jain-
koaren billa* liburuetatik hartuta, osatzen duen hiztegitxoa begiratzea.

Bigarrena, argitasun eta erraztasunari uko egiten diola laburtasu-
naren amoretan. Era askotara agertzen da esaldia laburtu behar hori,
bai jatorrizko testuan bai euskarazko hitzetan. Koldo Mitxelenaren
ustez (1956, 143), sobera laburtu behar hori mesedegarri baino gehia-
go kaltegarri izan liteke, batez ere, kasu honetan bezala, testuaren uler-
pena aski zaila denean: "Itzulpen laburra eta trinkoa da, latíña baiño
areago. Trinkoegia, ene ustez. Laburtasunak merezi ote du orrenbeste

opari? Argitasunak eta erraztasunak balio dute, gutxienez, laburtasunak adiña. Au bezalako liburu batean, batez ere. Inolako oarririk eztaukalaririk, arkituko du irakurleak franko eragozpen hizkuntzaren aldetik oztopo-biderik ezteela ere”.

Dena den, puntu hau askoz zehatzago aztertzen du Xabier Mendigurenek (1988, 40), adieraziz nola, batzuetan, itzuli gabe uzten dituen latinezko hitz batzuk eta nola, beste batzuetan, latinez esaldi berbera errepikatzen denean, itzulpena aldatzen duen inolako premiarik gabe. Orixeren betiko leloa da, sobera dauden hostoak kimatuta, hizkuntzak zuzenean enborrera jo behar duela, apainduriak utzi eta muina eman behar dela. Jokabide honek, noski, ahalbide handiak ematen dizkio, hitzez hitzezko itzulpenak duen morrontza alboratuz, zentzuzkoaren barruti askeagoan lasaiago ibiltzeko. Horregatik, haren itzulpenak irakurtzean, ez zaizu irudituko irakurtzen ari zarena itzulpena denik. Baina euskarazkoaren aldamenean jatorrizkoa hartzen duzunean, orduan ohartzen zara Orixeren esentzialismoak, euskaraz jatorrizkoan baino laburrago eman behar horrek, alegia, tranpa egin dizula. Irakurtzeko atsegina duzu, prosa biribila, baina egiazki itzulpena al da? Hemen sortzen dira zalantzak. Izan ere, irizpide horren arabera jokatzek berekin du arriskua: a) jatorrizko testuaren esanahia behar bezala ez jasotzearena, b) haren indar estilistikoa galtzearena, eta c) esaldiak itzuli gabe uztearena. Orixeren itzulpengintza libreari egotzen zaizkion akatsen artean, aipatutako hiru horiek bederen badituela aitortu beharko da. *ONUren Gizonaren eskubidegaien aitorkizuna* (1949) testuaren itzulpenari, halaber, asko falta zaio itzulpen zehatza izateko, horko hitz teknikoak zehaztasunez itzultzen baino ardura gehiago jartzen baitu testua birsortzen. Arrazoiz dio Joxe Azurmendik (1976, 145) honako hau: “Daukaguna Orixeren deklarazio bat da, ez ONUrenik”. Izan ere, zer besterik izan daiteke hogeit hamar dituen jatorrizko testua euskaraz hamabian ematen badu? Mirakulurik ezin egin. *Tormes'ko itsu-mutilla* (1929) itzulpenean, zenbait kasutan, zentzu bikoitza duten esamoldeak galdu egiten dira. Xabier Mendigurenek (1988, 38) pasarte hau dakar adibidetzat: “... *confesó y no negó y padesció persecución por justicia*”... eta zuzentasunagatik larrialdiak igaro ebazan”). Nabarmen dago gaztelaniazko ‘padescer persecución por’ esamoldearen oihartzun biblikoa galdu egin dela ‘larrialdiak igaro’ esatean eta ‘justizia’ hitzak dituen bi zentzuak (zintzotasuna eta ordenu-indarrak) eman zitezkeela ‘justizia’ hitzari eutsiz, baina ‘zuzentasuna’ hautatzean murriztu egin da jatorrizkoaren indarra”. *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak*-en ere, jatorrizko

testutik hitzak jatean, estilistikaren aldetik murriztuta geratzen da euskarazkoa. Atalaren bukaeran, “Invocat te, Domine, fides mea, quam dedisti mihi, quam inspirasti mihi per humanitatem Filii tui, per ministerium praedicatoris tui” esaldia, adibidez, Orixek honela itzultzen du: “Nere sinesteak deitzen zaitu, bai; adierazleen bidez Zure Seme Gizon egiñak piztuerazi didan sinesteak”. Itzulpen honetan, Xabier Mendigurenek (1988, 40) murriztapen estilistikoa kausitzen du: “Ikusten denez latinezko *quam dedisti mihi, quam inspirasti mihi* piztuerazi didan’ aditz bakarrak itzultzen du, era berean, *per humanitatem Filii tui, per ministerium praedicatoris tui*-ren itzulpena ere estilistikari dagokionean murrizt geratzen da latinezkoaren aldean. Halere, ideia zuzen emana dago, literaturtasunari galera sortu zaion arren”. *Urte guziko Meza-Bezperak*-en ere, Xabier Mendigurenek lan berean ohartarazten duenez, euskaratzeko inolako zailtasunik ez duten hainbat esaldizati eta hitz itzuli gabe uzten ditu.

Seguru gaude han-hemengo testu itzulien konparaketa eshaustiboa eginez gero, zerrenda asko ugarituko litzatekeela. Orixek genuen halakoxea, itzulpenean ere sortzailea, arraz trebea eta, esan bezala, itzulzaile zehatz eta zintzo izateko, zenbaitetan, sortzaileegia ere bai. Oihanean lehoia baino libreago ibiltzea gustatzen zitzaion horietakoa.

Aditzaren erabileran oso bere kontura ibiltzea da, Orixeren hirugarren ezaugarria. Haren adizkerak ondoko bereizgarri hauek ditu: a) aditz sintetikoa sarri darabil, zahartua edota inoiz erabili gabea den kontuan hartzeke, hala nola *legotzidaken, zigurikan, zitxeroken*; b) aditz laguntzailea maiz bakarrik erabiltzen du, berezko indarra balu bezala; c) ohiko bideetatik maiz urruntzen da, ondoko adizki hauetan bezala, batez ere: *gakion/gakizkion, nindezaten/nintzaten, zaidal/zait, etzekizkidan/etzitzaizkidan, gendin/gindezen, diagol/dio, nenkusan/nekusan, nenkarren/nekarren, nenzan/nezan, zakiol/zatzaizkio*, eta abar. Aditz-forma hauek, Mitxelenaren ustez, ez dira besterik gabe hobestekoak. Lehentxeago esana dugunez, Justo Maria Mokoroa ohartu zen Orixek aditzean darabilen anarkiaz, zuzendu ere mordo bat zuzendu zizkion, eskatu ere erreguka eskatu zion utz zitzala bitxikeriak. Koldo Mitxelenak (1956, 144), ordea, lizentzia gehiegi aurkitzen dizkio salatu gabe pasatzen uzteko: “Uskeriak dira, baiña ongi begiratu ezker, euskalgaitan ongi ikasiak begiratu ezker, eztira alderatzeko ere liburu eder onen bikaintasunaren ondoan. Baiña izkuntza-gauzetan eztira axaleko, itz eta esaerak izkuntza berbera baitira”. Kritika leialari zor zaionez, Koldo Mitxelena hasia da jadanik Orixetasuna eta Orixekeria bereizten.

Horregatik, ordea, Orixe handiak ez du asko galtzen bere handitasun egiazkoan.

Orixek Lazkaon burututako bigarren itzulpen-lan merezimendutsua, *Benito Santua. Bizitza eta erregela* da, aita Alberto Begiristainen eskabidez euskaratua. Hitzaurrean esaten zaigunez, askotan gaixorik ohean egon beharra izaten baitzuen, makinaz jotzeko aita Patxi Aizpurua izan omen zuen laguntzaile, berak “pinche” deitzen diona Tolosatik 1956ko irailaren 1ean egindako gutunean. Batek ohetik itzulpena egin eta besteak makimaz idatzi, horrela euskaratua du, osasun-egoera aski penosoan, liburu hori. Argitalpen honetan, oro har, Orixeren testu originala errespetatzen da, bere grafia eta guzti. Baina beneditarrak ere, Orixe oso beren deboziokoa duten arren, maisuari zuzenketa batzuk egin beharrean aurkitzen dira, “Orixeren textuari zenbait oar eta zuzenketa” izeneko sarreran adierazia datorren bezala: “Ortografia aldetik, aditz laguntzaile transitiboa *dut, dugu*, e. a. erabiltzen dugu beti, eta ez *det, degu...*, Orixek berak geienetan ala darabilelako”. Baina arrazoi nagusia, beste itzulpenetan ere salatua izan dena, beste hau da, hots: “Textu aldetik egin dugu zuzenketa geiago, baiña bakar bakarrik latinezko textuaren zentzua, askotan ez ain erreza, euskaraz bear bezain argi eta zeatz emana ez zegoela ikusi dugunean; edota zerbait itzuli gabe utzi duenean”. Izan ere, behar adinako zehaztasunik eza, pasarte batean zerbait itzuli gabe uztea, eta horrelakoak ohikoak dira Orixerean. Egindako testu-aldaketek bederatzi orrialde osatzen dira lerroak estu-estu emanda. Hark huskeriatzat zeuzkan akats horien alboan, ordea, badu harenak beste gutxik duten bertute miresgarri bat, eta da etxeko anaia atezaiak ere ulertzeko moduko euskara erraza egiten duela, esaldiak zuzen eta labur moldatuz.

Badu bertan beste hirugarren itzulpen bat ere egina, *Officium parvum* deitua, 1955ean, hain zuzen. Hurrengo urtean, 1956ko azaroaren 15ean, Orixetik egindako gutunean itzulpen hori igor diezaiola eskatzen dio aita Patxi Aizpurua kopiatzaileari: “Eske bat orain: Matxin Labaien or agertuko ba’litz Lazkaur’a, emango al zenioke, eskatuko ba’lizu, *Officium parvum* Zeraingo neskaxarentzat egina, libre baldin ba’daukazu? Ez baldin ba’daukazu, emango al zenioke alditxo baterako zure kopia? Bear ba’da Matxin’ek atera lezaioke kopia bat amari. Ikus nola moldatzen zeraten”. Nor ote da Zeraingo neskaxa hori? Testua berrikusi eta gero, *Jaunaren Deia*-n argitaratzeko asmoa agertu zigun aita Isidor Baztarrika zenak 1989ko otsailaren 17an egindako gutunean.

Hain denbora urrian –eta egon zen bezala askotan ohean egonda–, ez zion zuku gutxi atera beneditarren baratzako euskal sagastiari.

Orixe Tolosan berriro (1956)

Lazkaotik Tolosara itzuli zen berriro 1956ko abuztuan edo. Tolosatik aita Patxi Aizpuruari 1956ko irailaren 1ean egiten dion gutunean, hain zuzen, xehetasun honek ematen du horretarako bide, “jaso nun zurea orain zortzi egun” baitio. Honek esan nahi du abuzturako bederen monastegia utzia zuela. Arrebarenean apopilotza ordaintzeko zailtasunak izaki, berak nahi baino lehenago hasten da pentsaketan zangoak sorteri aldera mugitu beharko dituela bizileku baketsu eta egonkorrago baten bila. Desira hori agertzen dio aita Justo Maria Mokoroari 1956ko irailaren 23an: “Azkenean Orixe’ra joan bearko det, emen bizitzerik ez baitaukat. Bilbao’ko *Asociación de la Prensa*’k uts egin dit. Beste etorririk ez daukat oraiñaldian, eta pakean bizitzera baztertu bearko det: *huyendo del mundanal ruido et de falsis fratribus atque amicis*”. Hurrengo gutunean, hil bereko 30ean, agertzen dio zergatik hartzen duen Gogortzanera joateko erabakia: “Neri laguntza? Bilbao’ko *Asociación de la Prensa* laguntza (ileko mila pezeta) ukan ba’nu, poliki nintzan. Arrebari ori ematen asi nintzan ileko. San Iñazio eguneraiño pagatua diot, baiñan andik onerakoa zor. Etxera joan ba’nendi, an ba-dauzkat bizitarako jana ta etzana, etxea erosten eta eraberritzen diru askotxo sartu nulako. Orra garbi esan, eta eskerrik asko zure borondate onarengatik”. Beraz, “*huyendo del mundanal ruido et de falsis fratribus atque amicis*”, Orexara joaten da, hemen, urte bereko urriaren 17an esaten dion bezala, “la música callada/ la soledad sonora” entzunez bere bizitza eramangarriago egingo zaiolakoan.

Orixe baserrian (1956-1958)

Ez dakigu zuzen noiz aldatu zen kaletik mendira. Seguru asko, 1956ko azaroan. Dena den, Oreatik aita Justo Maria Mokoroari egiten dion lehen gutuna, abenduaren 17koa da. Hari hemen kontatzen dionez, Tolosatik ekarritako barne-min mikatza asko goxatu zion baserriko giro eztiak: “Prisa aundirik ez dadukala esan nizun, alegia, arrebari zorra kitatuta etorri nintzalako. Orko bialgoari begira egon gabe,

Bankuan neukan ondarra atera nun, eta arekin egin arrebarekikoa. Eriosuar bezela etorri nintzan Tolosa'tik –au ere nere begiz ikasi ta ikusi bearra nedukan– ‘nere etxean sobratua zaude’ entzun bear izan nun. Emen esker ohea ematen didea. Kunplimentu guzik egiten dizkidea, janean eta denetan. Orain neguan ederki, lan gogorrik ez daukatelako. Gero udara-bidean ez dezakete ukan olako arretarik”. Baina baserrian ere, urtebete pasa orduko, diru berriaren egarri sentitzen ditu etxeokoak. Eta berak, ez osasun eta ez diru, ezin eman ez daukanetik. Arrangura-tanta lodiak darizkio aitorle berari zuzentzen dion 1957ko urriaren 25eko gutuneko pasarte honek: “Etxe ontan ere, len emanak aski ba'lira, diru berriari begiratzten diote. Esan zaar ua gero ta egiago gertatzen da: ‘aideak alboan, eta ortzak agoan’. Jainkoagatik beste pixka bat supritu bearra dago. Ala ere osasun aundia eta pakea, ta beinere eskutik utziko ez naun itxaropena. Noizbait ere gu zuloan sartzeko ordua etorriko da, ta orduantxe, bai, *requiescat in pace!*”.

Mortala da benetan Orixeren etsipena! Harrezkero, hilabeteak joan hilabeteak etorri, etxe-giroa txartuz doa, ez dute nahi kanpotik bisitalariak etor dakizkion. Elkar-ikusteko, hamabostero Tolosara jeisten dela eta, Antonio Maria Labaienen etxean jartzen die hitzordua lankideei. Aita Isidor Baztakarrikari 1958ko irailaren 12an egindako gutuna, hain zuzen, bizi duen giro kontraesankor eta itogarriaren isla garbia da: “Nik emendik mugitzeko asmorik ez daukat, ez Lazkau'ra, ez Arama'ra. Bertan goxo. Beste aldera, zu edo beste iñor onera etortzerik ez nuke nai, gure etxekeori lotsak ematea omen dalako!!! Nola ikusiko dugu bada, elkar, zuk diozun lan ortarako? Neretzat errexena au da: Amabostero ateratzen naiz Tolosara, egun-pasa egitera, eta urrengo eguna, datorren astelena da: ilaren amabosgarrena. Bazkal ondoan etorri ba'zendi, Labaien'ean arkituko nauzu atsaldeko seirak arte. Bitartean egingo dugu zer edo zer”.

Azkenean, aita Isidor Baztarrikari “bertan goxo” zegoela esan eta handik aste batera eskas, albiste triste hau igortzen dio aita Justo Maria Mokoroari Aramatik 1958ko irailaren 19an: “Berritxo bat eman bear dizut, geiegi arrituko etzaituna: noizbait ere, etxetik bialdu nautela. Etxearen balioa baiño geiago nere dirua jokatzen baldin ba'dute ere, nik ez det agiririk, eta arrebak bere itun-paperetan ez dauka nere alde ezer esanik, etxera biltzeko edo olakorik. Beraz, *à la porte* esan didate, eta onara etorri naiz, Parroko jaunaren etxera, iloba baitet, bear ba'da zuk ezagutuko dezun Jose Mari Aranalde, gazteluarra”.

Baina Orexan egindako bi urte horietan, mindurak mindura, ez zen lanerako nagitu. Bizien eta hilen Jauna bidera atera aurretik, zahartzaro sufrituaren atarian aurrera sartuta, bera hasi zitzaion bila. Hone- la, bere azken zakukoak atera behar zituela eta, itsasoan hasi zuenari ekin zion gogoz eta patxadaz. Aita Justo Maria Mokoroari, aldika-al- dika, liburu honi buruzko genesi-xehetasunak igortzen dizkio Bilbora: noiz hasten den, zatirik zailenak zein egin zaizkion, apaiz batzuei zer iruditzen zaien, eta horrelakoak kontatuz.

Jainkoaren billa-rekin noiz hasi zen lanean? Orexako egonaldian, 1957ko apirilaren 7an, orduan ematen baitio aita Mokoroari bigarren ekinaldiaren berri: “*Jainkoaren billa*’ri biar emango diot bigarren eki- ñaldia, Jainkoak onez. Patxaraz egin nai nuke, gauzak eskatzen dun bezela. Buru biotzetan ondo erabili, Jainkoarengana ernai nagola”. Bi- garren ekinaldi horrek, seguru asko, lehorrean hasitako 2. atalaz dihar- du. Maiatzaren azkenaldirako, zazpi atal eginak ditu, liburuko zailenak. Hala esaten dio Tolosako aita eskolapioari Bilbora egindako 1957ko maiatzaren 29ko gutunean: “Azken ontan denbora berdotzak eta lan aundirik ez det egin, baiñan erabat jeiki nintzanetik egin ditut zazpi Kapitulu *Jainkoaren bila*. Aietatik sei *Los sentidos espirituales* arilduz. Au da nere liburu guziko zatirik zailena; baiña bost apaizek (elkarrekin gertatu baitziran gure etxean ileta elizkizun batean) esan zidatenez, izugarri errex ulertzeokoak. Eskueran neuzkan, eta aietako batek iraku- rri zitun. Ez dizkizut bialtzen, bi kopia berdiñak ez dauzkadalako. Laister etorriko al zera oporraldiz, eta orduan irakurriko dituzu”. Apaiz adiskideek ematen dioten adoreaz bihotz-berrituta, urriaren azkenerako lehen zatia bukatu eta bigarrenarekin hasia da: “Aspaldion ez degu al- karren berririk, baiñan oraingoan nereak onak dituzu, Jainkoari esker. Nere liburuaren lenengo alderdia bukatua det eta bi kopia atereak (133 orrialde). Bigarrenean ere asi naiz. Asi ta asi”. Hau da pozaren pozez aita Mokoroari jakinarazten diona 1957ko urriaren 25ean. Bi- tarte horretan, euskaltzain izendatzen baitute, Euskaltzaindian sartze- ko hitzaldia prestatzen emango du alditxo bat. Azaroaren 22rako bida- lia zuen bere txostena Euskaltzaindiara, erantzun-hitzaldia egin behar zuenak eskuetan garaiz izan zezan.

Liburua argitaratzeko nori eman pentsatzeak ere, aita Mokoroari egindako 1957ko urriaren 25eko gutunean datorrenez, kezkatu- rik dauka: “Nik ez dakit Doña Concha Ebangelioko alaba orrek esker edo istimazio emango ote lioken nere liburu onen originalari. Pozik emango nioke. Lazkauko praileak eskatu didate, eta kopiak aterako dizkidatela”.

Osasunez hobetoxeago dabil, eta, betiko adiskideari 1958ko urtarrilaren 24ko gutunean esan bezala, bigarren zatiko lehen bost atalak egin da dauzka: “Jainkoaren bila bigarren alderdian oraindik bost jardun bakarrak egin ditut, 152’garren orrialderaino. Tarteko zenbait gauzatxo ere eraunsi dizkidate. Osasunez gero ta obeki arkitzen naiz, eta itxaropena Jainkoak naiko dula nere lanik aundien ori bukatzea ta besteren batzutan saiatzea”. Gutun honetan, Kristoren gizatasunari buruzko arazoa dela eta, eliz-zentsurak bere iritzia ontzat ez ote duen hartuko beldurra azaltzen dio: “Ez dakit Eliz-iritziak ontzat emango ote dun azkenena egin dedan Jardun au. Nere ustez berria da, neri Santa Teresa’k idarokia”. Atal hau “Jesuskristo Jainko-gizona nola gertarazi gure barruan, otoitzerakoan” deitzen zaiona da, liburuan 33. atala osatzen duena.

Iritzi hori berria duela Orixek? Ez dugu uste, lehenago *Quito’n arrebarekin*-en agertua baitzuen. Aski da begiratzea 8. atala, “Asi berrian (Horeb mendian)” izeneko zatia. Apirilaren 25eko gutunean aita Mokoroari esaten dionez, ordurako menderatuxe du bigarren zatia: “Oraintxe lana mendean det. Bigarren Alderdia ia bukatuan daukat, eta gaiñera Lasarten negola, egin nitun, beintzat, Sinfonia’ren iru emanaldi. Beste biak ola ateratzen ba’zaizkit, etzait iruditzen burutik joana dagonen batek egiñak izango dirala”. Gerorxeago esango dugu zergatik eta zertara joan zen Lasartera. Kronikaren harian presa gehiago du Simeonen *Nunc dimittis* hura 1958ko maiatzaren 14an kantatu zuela esateak: “*Nunc dimittis* esana det Simeon’ekin. Ilabete onen amaulaugarrean bukatu nun *Jainkoaren bila*, bai bigarren alderdia, bai eta Sinfonia ta Fuga. Orain notak ipintzea palta; gero, txukundu ta kopiak atera”. Horra hor data horretan aita Mokoroari agertzen dion pozaren betea. Sinfoniaren laugarren emanaldian, “Ez’aren eta bai’ren bandera” izenekoan, etorkizunerako idatzirik utzi nahi izan zuen *Jainkoaren billa* liburua bukatzean sentitu zuen poza, bertako urrezko pasarte honetan idatzirik utzi ziguna: “*Nunc dimittis*, oraintxe, bai, pakean uzten nauzu, Jauna, esaten dute kristau askok bizitzaren azkenean, geienik opa zuten zerbait gertatzen zaienean. Oraintxe, bai, esaten det nik ere, nere amets aundienetako liburu au ia-ia bukatu rik ikustean. Ara azkenengo mugarrria. Ia-ia ikutzen det. Oñaze, zorobio ta nekeen artean egiña det, zuti bañon oiean geiago egonik. Une batean, bizitzez oso etsita egon nintzan. Gizonaren adina bete det: irurogei ta amar urte, *dies hominis septuaginta anni*. Bitartean, zenbat adiskidek eta lagunek eutsiaz diote nere bizitari, bai beren otoitzekin, bai lurrerako laguntzarekin. Esker asko guziet, eta egin dezatela berririo otoitz, lenbailen zerura nadin” (JB; IG, I, 1991, 950).

Orain bai, hirurogeita hamar urtetan zehar Haren bila ibili eta gero, atsedean har zezakeen deblauki. Bere lan handia bukatuta, pozik dago, lehenbailehen hiltzeko ere pronto. Baina oraindik beste hiru urtez segituko du lanean. Ez goazkizu liburu honetaz ezer esatera, esatekoak *Quito'n arrebarrekin irakurriz*-en aurkituko dituzu eta. Hauxe bakarrik berrituko dugu hemen: balitekeela errazago eta goxoagoa izatea, agian, *Jainkoaren billa*; berezkoago eta landuagoa, ordea, *Quito'n arrebarekin*. Gai bera harrotuz, hura honen birsorketa dela esango genuke. "Oraingoan zakukoak atera bear ditut" eta "nere burua kaxkar utziko det" esanez jardun zen *Jainkoa billa* idazten, ilusioz gainezka, baina, gure ustez, ez bide zuen gaintitu Amerikako saio mistikoa. Bizi-giroz nahiz osasunez nahiz inspirazio-ukaldiz zainaldi hobean harrapatu zuen hango aldiak.

Orixeren bere sorterriko egonaldian, *Jainkoaren billa* egiten ari zela, beste bi kultur gertakari gurutzatu ziren: Euskaltzaindian sartzeko ospakizuna Leitzaan eta Martin Oiartzabalekiko lankidetza Lasarten.

Arestian, 1957ko urrian, Euskaltzaindian sartzeko hitzaldia presatzen utzi dugu. Abenduaren 22an, San Tomas egunean, hain zuzen, euskaltzale-munduez eta beste hainbat herritarrez ondo inguratuta, omenaldi hunkigarria eskaintzen zaió Leitzaan. Neguak egun hotza paratu zuen, bihurria, ospakizunerako. Hala dio Jon Garmendia "Zelleta"k (1965, 41): "Urte artako neguak izan zuen egunik otzena ta makurrena izango zan, iñolaz ere, egun artan tokatu zitzaiguna". Manuel Lekuonak dioenez (1958, 1-2, 3), sarrera beste ohiko sarrere-tan baino ospe handiagoz egin zitzaion: "Ospe aundiz egin oi dira baztar guztietan olako Sarrerak. Eta gure Euskaltzaindiak ere olaxe dauka erabakirik, Euskaltzain berriaren sarrera ospe aundiz egin dedilla. Bañan ez da iñor arritu, gure Orixe'ren Sarrera, oitu baño ospe aundiagoz egiten ikusita. Ala zegokion, izan ere, Euskaltzain berriari". Koldo Mitxelena (1958, 3, 36) bere hitzaldi-hasieran esandako hitzok irakurrira, berehala iger daiteke zergatik eman zitzaion tratu berezia Orixeri: "Ormaetxea jaunaren sarrera-itzaldiari erantzuteko jeikitzean, arako aurrenak azken eta azkenak aurren izango diren aldi artaz oroitu bear, nai ta ez. Orrexegatik, ozen eta argiro aitortu bearrean arkitzen naiz, etzuela gaur Euskaltzaindiak 'Orixe' goratzen, 'Orixe'-k goratzen duela Euskaltzaindia Euskaltzaindi'koen artean sartzearekin". Jesusen Lagundian ez, baina Euskaltzaindian ate handitik sartu zen. Berandu, baina handikiro: *cum himnis et canticis*. Orixe, goiz eta arratsalde, aldamenen izan zituen herrian festa-giroa jarri ohi duten

ia guztiak, hala nola txistulariak, dantzariak, Tolosako “Gorriti” korua, beren borondatez etorritako kantariak, herri-kirolak (aizkora-apustua, ahari-talka, koskol-jokoa) eta abar. Manuel Lekuonarekin batera esateko, Patmos berri bat antzo, Leitzako herria egun hartan *Euskaldunak* poemaren eszenategi bihurtu zen.

Cum himnis et canticis ez ezik, *et cum poetis* ere esan beharko genuke. Antonio Maria Labaienen (1958, 1-2) kronikan datorrenez, Basarri zen bertsotan egiteko izendatua, baina ez zuen etortzerik izan. Horregatik, bertsolarien ordeaz, poetak izan zituen goresle, hala nola Nemesio Etxaniz, Eusebio Erkiaga eta Bordari. Hauek, aho batez, omenduaren maisutasuna eta gidaritza goraiatu zituzten.

Pierre Lafittek malizia gaitzaz esana kunplituko da azkenean. Azkenean diogu, eta berriro Manuel Lekuonarekin batera: “Eta ola gertatu da gertatu dana: zuzen-bidez aspaldi ontan Euskaltzaindiko izan bear zuana, oraintxe arte ez dala egin, ez euskaltzain, ez –ori betidanik izan da–, baizik-eta ‘Euskaltzaindiko’. Baina epe ori ere aizkenik bete da. Ez danok nai orduko. Bera izan da, besteren batzuek aurrerago-koak zirala-ta, bere apaltasunean atzeraka ibilli izan zaiguna bide ortan. Bañan aizkenik, iritxi da gure gizona ortara limurtzea”. Inork jakitekotan, oiartzuarrak zekien ondoenik Orixek Euskaltzaindiko izateari uko egin bazion, zinez egin ere, ez zela izan bere burua gutxiesten zuelako, baizik eta, nagusiki, Euskaltzaindiaren hizkuntz jokabidearekin ados ez zetorrelako. Nor aldatu ote zen Orixek Euskaltzaindian sar zedin: Orixek ala Euskaltzaindia? Leitzako hura zeremonia hutsa izan ote zen? Erantzuna geroagoko utziz, oraingoz esango dugun bakarra da, garai batean Orixek ez zuela asko pentsatuko, egun gogoangarri hartan, hitzaldi-aretoan sartzeko bila joango zitzaionetako bat Pierre Lafitte izango zenik. Berak halaxe aitortua da xalo-xalo haren heriotzerakoan: “Erran behar dut, eskualzain sartu zenean, hainitz estimatu zuela, agertzeko bi laguntzaletarik bat ni bainintzen; eta geroztik gutarteko lanho guziak barreatu ziren” (*Herria*, 1961-08-17). Laino guztiak? Baldin lehen arakatuak erabat ahaztu nahi ez baditugu bederen, ezin esan hainbeste, hil eta gero ere bera izan baitzen Orixekeria eta Orixetasuna bereizten lehena. Nolanahi ere, egia esan, denborauruntasunaren gantzuak zauri asko leunduko ditu. Historiaren errota kontalariak zenbat irri eta barre egiten duen gizonttoak ohi ditugun zapultzadien kontura! Bizitzaren ironia zein lotsagabea den! Dena den, Euskaltzaindiaren onarpena aski berandu iritsi bazizaion ere, ezin

esango da azken orduko ekintza publiko hori haren bizitzan parentesi hutsa izan zenik, lanean segitzeko arrazoi bat gehiago baizik.

Martin Oiartzabal aspaldiko adiskidea zuen, Saubionen bezala Amerikan, baita partaidea ere euskal aditzari buruzko lanetan. Amerikatik 1956ko Gabonak inguruan itzuli zen eta Orixeri berarekin bizitzeko asmoa agertu omen zion. Hala ikasten dugu aita Mokoroari 1956ko abenduaren 17an egindako gutunean: “Baña Jainkoak, ain zuzen, emen ekarri du gure Don Martin, eta ni berarekin bizitzea nai zula esan zidan”. Batera izatekotan, inoiz, berriro Lazkaoko monastegira itzultzea ere bururatu zitzaion. Elkarrekin bizi eta lan egiteko asmoak erabat betetzen ez badituzte ere, hogeiren bat egun bederen egingo ditu Orixek haren Lasarteko etxean. Hara nola gertatu zen ezustekoa, aita Mokoroari 1958ko urtarrilaren 24ko gutunean kontatua: Donostian lurrinak eta argi-izpiak hartu behar dituela eta, tratamenduak irau bitartean Lasarten geratzea erabakitzen du, kalkulatu, bide batez, 1941ean hasi zuten *El lenguaje vasco* liburuari bukaera emango ziotela epealdi horretan. Baina intxaurra, gaitzak jota, ustel suertatzen da. Hala jakinarazten dio aita Isidor Baztarrikari Lasartetik igorritako 1958ko martxoaren 26ko gutunean: “Donosti inguru auetan ibili naiz tximist-erraiak artu bitartean. Don Martin’ekin egin det ogeialdi bat, ia nola moldatzen giñan biok lanerako. Lenbiziko bi egunetan zerbait egin gendun, bañan andik aurrera ezer ez. Gizagajoari atsedena komeniyo zaio lana baiño. Gaiñera, nik agoz esanda arek idazteko, gorreri aundia dauka, ta bion artean gizon bat ez degu osatzen. Uste ustean nengoan ni berriro Lazkau’ra joanda, ua ere aldi batzutan an egonez, lana egin genezakela biokikoa; baiñan uste orrek erdia ustela ukan du...”. Gaixotasunak ezin osatu osasuna. Ez al da Orixe berak esana, Heideggerrekin eta sutan, baia ez datorrela ezatik? Horrela, gutun berean datorrenez, medikuaren gomendioz, Lazkao-rako burutzioa utzi eta, Orexako egoitza hobesten du: “Etzi, Jainkoak onez, Orixe’ra noa. Sendagileak nere burua zaintzeko esan dit, eta an baiñon obeto ez naizala iñon egongo. Eguzki-baiñuak artzeko agintzen dit. Beraz, ni Lazkau’ra joate ori gerta-ez-gerta dago”. Ezinak ezinduta, 1958ko asmoak bertan behera utzi eta, ez dira elkartuko 1960. urtea arte. Orixe *El lenguaje vasco*-ri egiten dion Hitzaurrean datorrenez, orduan burutzen dute bigarren zatia eta, halaber, euskal gramatikari azken orraztua orduan ematen, argitaratzeko gertu utziz. Bertan (1963, 5) zehazki azaldua dator zer norena den eta liburuaren zati bakoitza noiz egina den: “La primera redacción de esta Gramática se

hizo allá por los años 1941-1942. La Providencia permitió que nos separasen, y hasta el año 1960 no nos hemos reunido para darle la segunda. En la primera redacción mi colega tenía buena parte, y en ésta ha ido puntualizando y aumentando, sin que yo haya tocado nada, salvo en la última preparación”.

Lan hori, bada, egoera benetan aldrebesean egina da, aldizka eta nekezka, ezinaren poderioz.

Orixe Araman (1958)

Orexan bere etxeko egoera ez zen batere gozoa. Halabeharrezko etxe-aldaketa 1958ko irailaren 18an gertatuko da, hurrengo egunean Martin Oiartzabal apaizari egiten dion gutunean halaxe esana baitator: “Ematera noazun berritxo batek arrituko zaitu: atzoko egunez bota ninduten etxetik. Etxearen balioa baiño gehiago nerea ba’dute ere, nik ez dut agiririk, eta arrebak bere itun-paperetan ez du nere aipurik egiten ni etxera biltzeko edo olakorik. Beraz, legez ni etxetik landa bialtzeko eskubidea dute”.

Nora joan? Berriro monastegira? Ez. Ez dakigu zergatik baina, Lazkaorekin erne ibiltzeko idatzia zion Martin Oiartzabali 1958ko uztailaren 3an: “Etxe zakurra da ua. Ni ez naiz ausartzen ioatera, asmoe-tan banintzan ere”. Une horretan Arama herritxo horretako Erretore den Jose Mari Aranalde bilobak hartuko du berarekin, eta, nahigabeak bihotza hautsiko badio ere, lehen gauean ez du loa galtzen, gutun berean azaltzen dion bezala: “Arama’ko Parroko dan nere illoba Joxe Mari Aranalde’k pozik artu nau bere etxean (...) Etxe polita du bere baratzarekin. Lenengo gaua lo batean egin det. Illoba onek ba-du grña ikas-lanerako, eta ikasle on bat atera nai nuke onengandik. Emen ere Completa’k kantatzen dituzte igandero, eta datorren igandean entzungo ditut, Jainkoak onez”. Antza, aita Mokoroari 1959ko otsailaren 24ko gutunean esaten dionez, etxeko biloba izan zen kanpoan jarri zuena: “Oinbeste diru emanaren ‘garbitasunak ateratzeko’ esan zidan illobak, eta nik ezin, ez bainion eskatu arrebari pezeta baten jaso-agiririk ere. Beraz, nere etxean nere burua arrotz ikusi det, eta atera egin bear, ematen zizkidaten trato txarrangatik”. Honaino berak idatziak. Beude hor.

Une horretatik heriotza arte, osaba-bilobak ez dira elkarrengandik alduko eta gazteluarra bere osabaren lekuko pribilejiatua izango

da. Itxaropen handiak jarrita baitauzka beragan, berari utziko dio bere herentzia intelektuala. Pipita loretan bezala ikusten du haren etorkizuna eskal letretan.

Orixeren Euskaltzaindian sartzea ospatu eta justu hurrengo urtean, 1958ko abenduan, Bilbon bildu zen, Euskaltzaindiak antolatuta, “Euskaltzaleen Biltzarra”, euskararen batasunaz jarduteko, hain zuzen. Bilkura honen ondotik, *Jakin* aldizkaria Euskaltzaindiaren esanera jartzten da 1959an. Orixe, Euskaltzaindiaren itzalean belaunaldi berria urrunduz doakiola ikusita, honek proposatzen duen batasunaren kontra jeikitzen da eta, erreakzioz, Aramako gaindegitxotik bi lantxo igortzen ditu: bata Larreara, bestea Arantzazura. *Karmel*-ek argitaratzen duen “Euskaltzaindiaren aburua?” artikuluan (1959, 31), Bilboko bilera hartan bi euskaltzainek batasunerako alderdi negatiboa bakarrik azpimarratu zutela salatzen du. Aipua askotxo luzatuko da, baina beharrezko da transkribatzea, alderdi negatiboaren eta positiboaren arteko bereizketa iturri beretik jaso ahal izateko: “Euskerari iagokonez, euskaltzain bitzuen amesak ez gaitue ikaratu, iakintsu-antzean emoten dauskuezan arau, egi oiñarri edo egi-buru ori eman diran batzuekaz. Oingoan asma daben arau ori egi-buru ori, adarbakotxa da, au da, ezerakua edo *negatibua*, iauntxo orreik diñoenez: baierakua ez dabe aita-tzen bere. Ezerakua, au da, olango eta alango itz erderatik etorri diranak, ez ditezela aizatu, beste barik. Bego. Baierakua edo *positibua*, au da, erdal-itz orrein alboan erabili daitezala beste batzuk gauza bera esateko, adibidez, sendi *pamili* ordez, eta abar, txarto imiñiak ez ba’dagoz, batez bere, ikasiendako egiten diran idaztietan”. Beraz, ikuspegi honen arabera, bi ondorio atera daitezke hortik: bat, herri ikasiak baduela eskubidea erdal hitzak utzi eta horien ordez euskara garbiz hobeto esanik dauden hitzak hartzeko, eta bi, baduela eskubidea, halaber, erdal hitz txertatuak bezala berorien ordeko asmatuak erabiltzeko, hala nola *aingerulgotzon*, *alkatelendore*, *amodiolmaitasun*, *bekatuloben*, *berbalhitz*, *bertsolneurtitz*, *bedeinkatulonetsi*, *birjiñalhair*, *damulurriki*, *deabrultxerren*, *denboralnoizko*, *erregelbakaldun*, *erlijioliaurespide*, *elizal iauretxe*, *eskolalikasgu*, *izpiritulgogo*, *familialsendi*, *fedelsinesmen*, *fruituligali*, eta abar. *Jakin*-en zuzendariari bidalitako lanean (1970, 11), “Iritzi-billa” orriari erantzuten dio eta, Euskaltzaindiari eskainitako sarrrerari dagokionez, ez du uste haren egitekoa denik arauak ematea: “Ongi dago Akademia’ri diozun begirune ori; baiñan ez du ori egin-kizun, adieraziko dizudanez. Munduko Akademi guziak atzerakoi dira –bear ere–. Ama bat (sic), beure aurrari oinez erakusteko, atzetik ioan

bear du”. Orixek barruan egosten daraman prozesioaz hobeto konturatu ahal izateko, artikuluari atxekirik aita Santi Onaindiari 1960ko uztailearen 9an igortzen dion gutuneko xehetasun hauek ekarriko ditugu hona: “*Si audes*, emoizu artikulua ori *Karmel*-en. *Yakin*’eko orreik lotsagarriro diñardue. Euskaltzain bitzu orreik A. Villasante eta Irigoyen dira. *Karmel*’tik loraz bete ei nozue. Aspaldion ez dot irakurri. Etxetik ez dauste bialtzen. Orain emen bizi naz... *Yakin*’era bere bialdu dot beste bat; baiñan azkenengoa dadike”. Hemen dakarrenak ez du azalpen beharrik Orixeren balantzak norantz egiten duen jakiteko. Erbestealdiko *Euzko-Gogoa* eta *Egan*-en arteko hizkuntz antagonismoa, orain bi aldizkari horietan polarizatzen du Orixek. *Karmel*-ek lore artean daukan bitartean, *Jakin*-ek bizkar eman dio. Honek protagonizatzen duen eten historikoa erabakigarri bilakatuko da batasun-prozesuan.

Ez bakarrik *Karmel* eta *Jakin*-era, *Euzko-Gogoa*-ra ere igortzen du beste lan bat, “Paul gurenaren eskutitzak” izeneko, Olabideren gorazarrez egindako zenbaki monografikoan argitaratu zena 1958an. Gaian sartu aurretik, Gasteizko euskaldun berriaren defentsa egiten du, zuzenean A.E.ren kontra egin ere, berarekin zortzi urtetan zehar izandako harreman estuaren berri emanez: “Duvoisin’en eta besteen gafiñetik lan latza egin zigun Olabide’k, eta ez alperrik. Bere garaian, eta orain ere, Duvoisin’ek zekin aña erri-euskera dakinik nor da? Gipuzkera poliki zekin, eta Bizkaitar idazleetara iritxi zala ezagun du, Arrese Beitiari egin zition eskutizetatik. Baiñan Aita Olabide’k askoz geiago zekin. Azkue’reñ iztegi osoa buruz, ‘neronek baiñon obeki’ egilleak berak aitortu ziona. Gafiñera Euskaltzaindira bakoitzak zekartzin erri-itz ez-ezagunak, batez ere Aita Intzak Naparroan bilduak. Aurreko idazleetaz ere baliatu zan iñork uste baiño geiago, ta erri-euskeraz ere bai. Etzaitela irriz asi. Beti galdezka ari zitzaien bere Lagundiko Anaieri, baita sehieri ere, ‘au nola esaten da?’. Ni ondoan iduki nindun zortzi bat urtez, eta iñori bezainbat galdegin zidan neri ere” (EG, 1958, 5-6, 519). A.E. hori nor ote den? Altube, agian? Izan liteke. Martin Oiarzabali 1959ko martxoaren 30ean egindako gutunean datoz izendatuak, bere izen eta guzti, berak aurkakotzat dauzkanak: “Baitaratu al zera nola asi diran Aita Villasante, Altube ta Euskaltzaindia gure aurka? *Mi atalaya Montañera*’k oso muskildua eman du nere erantzuna. Arrazoi bizkorrenak bakanduz. Adibidez: ‘Sendi no es nada, pues ni el vasco lo entiende ni lo emplea ni lo ha empleado jamás’. Nere erantzuna: ‘Todos los días lo están usando Radio Segura, que no hace alarde de purismo. Eta abar. Bialdu dut beste lantxo bat Olabide’reñ

alde, ta ez diet barkatuko. Emeki, emeki, baiñan arrazoiekin”. Badi-rudi agintzen duen Olabideri buruzko lan hau, *Egan*-en (1959, 12) argitaratutakoa dela, bidalia duela jakinarazten baitio Martin Oiartzabali urte bereko uztailaren 3ko gutunean: “Olabide bai’ deritzon artikulu bat igorri dut *Egan*’era. Zer uste ote dute gazte inguma oriek?”. Nolanahi ere, esan behar da, artikulu horren izenburua ez dela hor datorrena, “Aita Olabide’ren *Itun Zar eta Berria*” baizik.

Orixe Añorgako Zabalegin (1959-1961)

Orixe, bere bilobarekin batera, herriz aldatuko ote dan hotsa zabaltzen hasten da 1959ko urte-bukaeran. Martin Oiartzabalek albiste honi buruz egindako galderari honela erantzuten dio 1959ko azaroaren 9an: “Emendik Zabalegi’ra noiz aldatuko geran, ez nik uste bezain laister. Illabete ontan, diotenez. Lekuona iauna (Juan Mari) Erroma’ra doanetik. Aren ordeaz bear baitute gure illoba au Apaiz Laguntzaile, aurtengo urte ontan. Datorren urtean Zabalegi’ko Kapillau”. Hotsak handik laster egia bihurtuko dira. Azkenean, Araman urtebete eta hilabete pare bat egin ondoren, biloba apaiza parrokiar aldatzeaz batera, Orixe ere berarekin etorriko da Añorgara, 1959ko abenduaren 29an, hain zuzen.

Bere bizitzako azken txanpa honetan, kanpoko harremanetan, aita Santi Onaindia du solaskide. Berrero, Araman bezala, Euskaltzaindiarekikoa du gutun-gai 1960ko uztailaren 9an: “Aspaldi andian egin eustan ‘Zeleta’k aurpegi-auste edo *entrevista* bat, eta, Etxaniz Abade launak esaustanez, geroz bialdu ei dau orra. Arrezkero, ba dira iru illabete, Euskaltzaindi’ari eskutitz ixil bat bialdu neutsola, eta belutxo izango da Zeleta’reñ ori argitara emoteko. Arren eta arren, ez egizula emon *Karmel*’en, Euskaltzaindiari yakokon ezebe. Len bereak eta bi entzunik dago”.

Ez dakigu Euskaltzaindiari zer esango zion gutun isil horretan, baina bai, batasunarena izaki hizpide, Jon Garmendiari (1965, 55) erantzun ziona: “Ez naiz egundo izan batasun’aren aldeko bero-beroa, batzuk aditzen duten eran... Nere eritziz, batasun-eredu bat, auxe litzake: bakoitzak besteren euskalkiak ikasi ditzala, irakurtzeko lain beintzat, eta orra or batasuna”. *Karmel* aldizkarian agertutako iritziak areago zehatzuz, mordoiloa ala garbia galderari honela erantzuten dio: “Garbi amorratuaren eta bien-erdikoa”.

Geroztik idatzia da, 1961eko uztailaren 24an hain zuzen, “En defensa de la lengua. El P. Arriandiaga” izeneko lantxoia (IG, III, 1991,

1042-1045), uste denez, bere azken lana. Benetan adierazgarriak dira artikulu honetan, batetik, purismorako egiten duen deia eta, bestetik, belaunaldi berriarekiko aiherra. Aita Arriandiaga klaretarrak 1959an argitaratutako *Goizparraik eta Beldubaik Egiña* itzulpena abiapuntu-tzat hartuz, joera garbizalearen defentsa egiten du, errebindikazio horretan sartzen dituelarik honako hauek: Olabide eta Arriandiaga, neologismoetan gidari; Euzko-Gaztediko aita Zabala Arana eta Gotzon Urrutia –hauek ere klaretarrak–, eta *Oleriti*, karmeldarren aldizkari neoflexismo-zalea. Eta lehenagokoen artean, Azkue bera, harritzekoa bada ere, lagunarte horretan sartzen du.

Eskola hau, belaunaldi berriak onartu nahi ez badu ere, bizirik dago. Frogak? Besteak beste, bi hauek: bat, apaizak Aita Olabideren Biblia irakurtzeko gauza direla, eta irakurri egiten dutela; eta bi, gehien erabiltzen den Isaak Lopez Mendizabalen Hiztegian Aita Arriandiagak asmatutako sei mila hitz datozela. Beraz, belaunaldi berriak purismoa baztertzen duen arren, ondo bizirik segitzen du: “Quien dijo que el purismo parecía ya vencido, mal profeta está saliendo”. Eta belaunaldi berria aipatzean, uste dugunez, *Jakin-ez* ari da, honek eman baitzion bere baietza Euskaltzaindiari: “Algunos escritores de la última hornada invocan a la Academia como tabla de salvamento, pero la mayoría de ellos y la gente consciente se vuelve contra ella”. Nahi gabe, gerraondoko oroitzapenak datozkio gogora eta, orduan bezala, erakunde barrutik batasunaren bidea aldeztzen duen taldearen kontra altxatzen da: “Ya Juventud Vasca tuvo la valentía de enfrentarse con la difunta Academia, a pesar de que en su seno había individuos prestigiosos; con mayor razón se enfrenta a la de hoy, en la cual, aunque también hay alguno que otro elemento de autoridad, abundan los de escasa reputación y son los que quieren campear, como si solos ellos fueran toda la corporación que los admitió”.

Aterabidetzat, praktikari begira, proposamen hauek aurreratzen ditu, hots: a) eskola bateko nahiz besteko autore guztiak –garbizaleak zein mordoiloizaleak– irakurri eta ezagutu behar direla, guztiengan beti zerbait onik ikasten delako, baita, bilaka saiaturaz gero, Kardaberazenean ere; b) ortografi batasuna jadanik gerraurrean egina dagoenez gero, oraingoz, gehiago gabe, hari eutsi behar zaiola; c) maila teorikoan dagoen anarkia gainditu ahal izateko, aski dela, helburu teoriko-praktikoetarako euskal idazleez osatutako Batzorde iraunkor bat sortzea, autonomia osoz funtzionatuko lukeena. Ez legoke, beraz, Euskaltzain-

diaren beharrik: “Eso de Academia es un lujo para nuestro pueblo, sobre todo con tan poco resultado”(IG, III, 1991, 1045).

Ez ditu oraingoxeak iritzi horiek. Orixek betiko lepotik dauka burua. Eta txapela kendu gabe. Denboraren ziztu biziak ez du aldara-zi haren jarrera. Baina ez da lehengoa. Gogoz bai, indarrez ez hainbeste. Euskaltzaindia, aldiz, belaunaldi berriaren mentuarekin, zuhaitz lerdan egiten ari da. Horregatik, lehen hain ausardia handiz larrutzen zuen erakundea, orain euskaltzain izanik ere, ez barrutik eta ez kanpo-
tik du aski kemenik, aski itzalik, hari oldartzeko. Gizakia bakarka kox-
kor da uholdearen kontrako borrokan.

Araman bizi izan zenean, betiko antzera osasunez motel ibili arren, ez zerabiltzan lanerako asmo galduak. Aita Mokoroari ikasten segitzeko eta metafisikaz liburu bat egiteko intentzioak azaltzen ziz-
kion 1958ko irailaren 19ko gutunean: “Zer egiteko asmoa dedan? Istudiatzen berri-berritik asi, irakasleen eta esamiñen bildurrik gabe. Zer? eta Metaphysika. *Ens, unum, verum, bonum, pulchrum, infinitum* oiekin liburu bat egin nai nuke, oraindik nere burua garaitu al ba’ne-
za. Ez da izango silogismoz, ez eta idor-idorrean. Nere kristau-biziare-
kin ezotua dedin nai nuke, meditazio antzera. Urrundik, bederen, San
Agustiñen antzera. Gaiñera nere eun bertso-rik oberenak egiten asia
naiz (amar bat egin ditut) eta tarteka bukatzeko itxaropena, Jainkoak
artaraño-ko bizia eman nai ba’dit. Zer iduri zaizu? Asmoak ez dirala
nolanaikoak”. Zertxobait lehenago, Bedaiotik Tolosarako bidean zihoa-
zela, “orain, besterik eskuartean?” galdegin zion Jon Garmendiak
(1965, 52), eta Orixek erantzun: “bat: Dantzak”.

Asmo horietako batzuk burutu edo erdi-burutu zituen, beste ba-
tzuk ez. Dantzari buruzkoa, bai, egin zuen; bere ehun bertso onenak
egiteari ekin zion, baina ez zen bederatzigarrenetik pasa. Metafisikari
buruzko saiokeraren inolako zantzurik ez dugu. Añorgan, gaixotasu-
nak gero eta gehiago erasotzen baitu, neke egiten zaio *Jainkoaren billa*
kopiatzea; halere, *Muxika ixilla*-rako gertu uzten du berari dagokion
zatia. Hainbeste lan egin eta gero, betiko sinfonia, isiletan isilena, ez
Entzelain ez Andetan ez inon belarriratu gabeko hura, behingoz en-
tzuteko merituak irabazita zeuzkan jadanik.

Requiescat in pace

Abandonatua, gizonen eskutik utzia, sentitu zen ilunaldi batean,
hauxe idatzi zion aita Mokoroari 1957ko urriaren 25ean: “Noizbait

ere gu zuloan sartzeko ordua etorriko da, ta orduantxe, bai, *requiescat in pace!*” Lehentxeago aurreratu dugun pasarte hartakoa orain beteko da. Barrukoak norbaiti esan behar eta, halaxe mintzatzen zitzaien Orexatik Bilbora, bere kexak entzuten ohitua zegoen tolosarrari. Orduan Gogortzanetik hain urruti ez zeukan eliza gaineko kanposantu txiki hartan pentsatuko zuen, seguru asko. Baina heriotzak Añorgan harrapatuko du 1961eko abuztuaren 9an, ez bere sorterrian, eta Donostiako Polloeko hilerrian ehortziko. Egun hartan, uda gorian, eguzkia gorri-gorri itzali zen eskal mendi-itsasoetan.

Ehorzketara Euskal Herri guztirik inguratu ziren euskaltzaleak Hegoaldetik bezala Iparraldetik, Orixeri azken agurra ematera etorrira. Añorgako eliza tontorreraino bete baitzen, jende askok kanpotik segitu behar izan zuten elizkizuna. Aldarean buru, Olano jauna, Guamgo (Ozeania) apezpikua, eta meza-emaile Jose Mari Aranalde, eta laguntzaile Karlos Iturralde, biak zenduaren bilobak. Bere zahartzarua hain bakarti eraman zuen hark, arrats hartan, mundu bat zuen ondoan: familiakoak, Euskaltzaindikoak, Jesusen Lagundikoak, eskal idazle asko eta kultur munduko hainbat.

Euskaltzaleak ohartu ziren, Orixeren heriotzarekin, eskal letrek norbait handi, norbait berezi, askorentzat jenu bat, galtzen zutela. Haren gorazarretan egindako artikuluetan, egileek hiru bereizgarri bederen azpimarratzen dituzte Orixeren nortasunean.

Lehenik, izakera bereziko zela. Puntu honetan batera datoz orduko kritikariak. Pierre Lafitterentzat, “gizon bat zen nehor ez bezalako, bortitza, bizi eta bitzia”; Ildefonso Gurrutxagaren (1961, 7) esanetan, “tenía un temperamento fuerte y algunos amigos le llamaban ‘basurde’, jabalí, por su carácter hirsuto y acometedor”. Jose Artetxek (1961) kontatzen duenez, Orixek berak bere buruari “zitala” deitzen zion: “Cuando terminado el acto de la recepción subí al estrado para abrazarle, Ormaechea se me echó a llorar. Nunca me olvidaré lo que me dijo en aquel momento, estrechándome en sus brazos: ‘A pesar de todo, ha venido usted a abrazar a este zitala (bellaco) de Orixe’”. Jesusen Lagundian nagusiek ez al zioten esan “gallo de pelea” zela? Psikologiak arretrez azertu beharko ditu noizbait haren izakerari buruzko ohar hauek. Guk nahita alboratu dugu alderdi hau, ez baita gurea.

Bigarrenik, erabateko euskalduna zela, peto-petoa, onean bezala, ez hain onean, edo txarrean, gizakiok, haren antzera, batetik bezala baitugu bestetik. Iritzi hau Artetxerena da, Gurrutxagak ere bere egiten duena: “hombre representativo de nuestra raza en sus virtudes lo

mismo que en sus defectos”. Koldo Mitxelena (1960, 148), Orixe hil baino urtebete lehenago, askoz gehiago esan zuen: “la figura más representativa de un período de las letras vascas que dura todavía hoy...”.

Hirugarrenik, haren lumari idortasuna dariola, sendotasuna. Puntu honi buruz ia gehienak ados datoz. Pierre Lafitterena da hau: “Bai, eskuara bazerabilan bildu-bildua, halako idor aire batekin; bainan bere laburrean, zer mintzairerik azkar eta aberatsa”. Honena irakurri balu bezala, gauza bera errepikatzen du Ildenfontso Gurrutzagak: “Se ha solido señalar en el estilo de Orixe cierta sequedad, consecuencia de una excesiva inclinación al párrafo corto”. Koldo Mitxelena ere berdín (1961, 160): “Alako legor-antxa ere arkitu izan zaio. Etxitzaion atsegín ‘Orixe’-ri erromantikoen biguinkerik ozena –eta erromantiko-kume gera geientsuok–, edozein nabarmenkeritik itzuri dabillén klasikoaren neurria baizik”. Kointzidentzia hau ere kontuan hartzekoa izango da.

Gu geuk ere, ehorzketara joaterik ez eta, Hitzaurrea eskaini genion *Arnas*-en (1961, 6). Artean gu, hogeí urteko mutiko mukizu, zor-



Orixeren hilobia Orexako hilerrian, Polloetik 1988an ekarria.

dun sentitzen ginen Orixerekiko, aldizkarirako artikulua eta gutunak bidaliz laguntzen zigulako, eta horregatik agertzen genion geure esker-rrona:“(Arnas) zorretan dago zurekin. Eztakigu zergaitik, baña arras atsegingarri zitzaizun, askotan esan oi zenigunez. Oraindik areago: izanik maixu paregabeke, egin zenizkigun oartxo ta idazkiak bide, jakin aal izan gendun nondik ibilli. Euskeraren eta jakintzaren altxorra nun zegoen erakutsi zenigun. Milla esker!, gidari on”. Bego hor idatzia, besterik gabe, orduko gure oroitzapenaren lekuko.

Hila da Orixe. Eta 1988an bere jaiotzaren mendeurrena iritsi arte, hilik segituko du, arras isilik, lurra berotzen. Orduan eramango dute orexarrek bere herrira jaiotzetik bertatik erbestetua izan eta sentitu zen gizon hura, “arkume gaitzetsi” hura, basoko “basurde” hura, “zital” hura. Haren hezurrek, orain, bere sorterriko hilerri xumean datzate, haizearekin jolasean, isiltasunarekin hizketan, Espuruko gainera egin ohi zuen ibilaldia oroituz. Bere hilobian, harrian idatzia, bere bizitzari izateko arrazoa eman zion *Barne-Muinetan*-eko ahapaldi hau irakurriko duzu:

“Agur, fede, lurrean
nuen itsu-mutil;
zuri esker leizean
ez nun egin amil.
Itzak beude, Jaunagan
naimena bil,
Au baita Argi betiko:
Ontan nadin murgil”.

Bego bakean fedearen erresuman. Atsedean beza bere leku naturalean, nekazarien artean eta mendian, hiri-iskanbiletatik aparte. Muntutik aparte, bizi izan zenean bezalaxe.

Bizi da

Hil zen Orixe, baina bizi da. Orexan, urtero, bertso-paper-lehiaketa egin izan da, 1988an hasi eta 2001ean bukatu. Sarituekin osa liteke bertso-bilduma polita. Uitzin ere, “Orixenea” kultur etxetik sustatuta, lehen literatur lehiaketa ospatu zen 2001ean poesiaren eta narratibaren saillean. Orobat, Añorgan, Orixe hil zen herrian, hain zuzen, aspalditik dator bertso-txapelketa egiten eta jadanik ospe handia hartua

du. “Orixe saria”, beraz, indarrean dago herri horietan guztietan. Donostiako parte zaharrea ere bada ikastola bat Orixeren izena daramana. Tolosako Institutuari ere halaxe deitzen zaio. EHUⁿ ere aipatua izan zen haren lana, 2000ko azaroan euskal erbesteratuen kulturaz egindako jardunaldietan. Aurreiritziz baztertua zeukaten batzuek Amerikako Orixe olerkari lirikoa aurkitu bide dute. Poztekoa da! Bizi den seinalea.

SEIGARREN ZATIA
ORIXEREN NORTASUNA

HAMABIGARREN ATALA

LANGILE HANDI, POBRE ETA ERI

Orixeren heriotzakoan, Pierre Lafittek, arras aingeruki, haren zorionaz pasarte hau idatzi zuen: “Zorion bat harrigarria gerthatu zitzaion: eskualdun kartsu batzuek ezagutu zioten eskuarazko bere jeinu paregabea, eta errechtasunak eman ziozkaten liburu egitean truk bizitzeko”.

Baina zein preziotan? Orduan ere baziren, laguntzak ukanik, erbestean kulturatik bizi zirenak. Eta airoski bizi ere, beren etxe eta gutti. Orixeri, aldiz, bizitzeko beharrezkoen-beharrezkoena falta izan zitzaion ia beti: jatekoa, janztekoa eta medikuetarakoa. Gerrate zitalak erbestearen leize krudelera jaurti zuenez geroztik, ez zuen ekonomi autonomiarik eskuratu ahal izan, eta, eskale gizarajo baten antzera, bizitzan zehar arrastaka ibiliko da txanpon miserable batzuen atzetik. Noski, Lafittek dioen moduan, euskararen izenean, baina ondo kostata. Egia da, berak esana delako, andregai xarmanta aukeratu zuela, maitagarria, baina jadanik badakigu harekiko fideltasunak poz hainbat negar-malko sortarazi zizkiola. Baldin ibilbide honen bukaeran sentitzen duguna adieraztea zilegi bazaigu, esango genuke, esan, euskarari gehiegi bezala eskaini zitzaiola, bere bizitza pertsonalaren kaltetan. Neurri handi batean, ez al zen hasarretu arazo horregatik Telesforo Monzon eta Jose Antonio Agirre buruzagi politikoeekin? Areago oraindik, adiskide min batzuekin? Eta oraindik mingarriago dena, eta senideekin? Horregatik esaten genuen ez zuela edozein preziotan bereganatu euskara maitea. Irudimenak lanik izan ez dezan, datu batzuen pintzeladaz, zahartzaroko Orixe langile zimelduaren irudia pintatuko dugu. Ez da korrika txikian Tolosara joaten zen hura, edota Orexako Espurun edo Uitziko Errekaldeko borda inguruan arineketan egiten zuena, edo

Donibane Lohizuneko hondartzan uhin saltariekkin jolasean paseatzen zena. Erbesteak gizon ezindua, zurbildua, etxeratu zuen. Herriratu orduko ohean zipla etzana utzi zuena.

Orixe gizonaren gurutzeta osatzen duten bi elementu nagusiak, orain alde batera utzita jesuitetikiko eta euskararekiko arazoak, osasunik eza eta ekonomi dependentzia dira, Orixeren kasuan batera doazenak.

Gaixotasunak oinazea berekin du. Eta askotan, tamalez, ingurua txartzen duen edo harremanak gaiztotzen dituen kalamitateak ere bai: ondoeza, ezinegona, gogoeza, umore iluna, tristezia. Eza gehiago baia baino. Orixek ia eguneroko ogia izan zituen oinazea zein ondoeza.

Osasunaren arazoa etengabeko kezka izan zen berarentzat. Bizibeharrak, diruak, lanak, eta abarrek ez dute hainbeste beldurtzen. Bere arreba Denuxik irabazitako sosak zahartzarorako nola ez dituen gordetzen esaten dionean, hauxe erantzuten dio: “Yainkoa axolatuko dun ortaz. Etxera itzuli ba’nendi, yana eta etzana nere zetunat beñipein, eta emen Ameriketan, osasuna ta Yainkoa lagun, nere diña egingo al diñat” (QA; IG, I, 1991, 712). Erantzun honek Ebangelioko San Mateoren hura dakarkigu gogora: Jainkoa zeruko hegaztiez arduratzen bada, nola ez du, bada, gizonen arta izango? (Mt. 6, 24-25). Hargatik, konfiantza Hargan jarria daukalako hain zuzen ere, orainaren nolakoak ez du penatzen ez etorkizunak kezkatzen.

Nahiz eta Jainkoa lagun izan, sarritan osasunak huts egiten du, eta Orixek badu horren kezka. Txikitatik zekarren gaixotasunaren gurutzeta, zahartzarora heltzean “Osasuna”ri kantatzen dion poema honetan (IG, I, 1991, 629) ikus daitekeen bezala:

“Txit gazte nintzala miñak eta griñak
lurrera kakoan ninduten bigurri”.

Itxuraz inolako ajerik sumatzen ez zitzaion soin lerden hartan, hazia lurpean haziz doan bezala, “hezueria” izeneko eritasun sor eta minkorra zihoakion areagotuz urteen poderioan. Felipe II.ak, Karlos I.ak, Martin Luterok, Francis Baconek, Benjamin Franklinek, Charles Darwinek, Isaac Newtonek, eta beste hainbatek jasan zuten gaixotan berbera zeukan berak ere. Sasoirik onenean, 28 urterekin edo, egindako “Indar-iturri” poeman (IG, I, 1991, 615) ematen digu bere gaitz horren berri:

“Egunezko neke naigabeen saria
gorputz gotorrean osasun makala;

beso, zango, gerri, ezueriz nagi
gaiz-koipea lodi, zurbillik azala”.

Gorputzez, berak ahapaldi horretan aitortzen duenez, ez genuen batere herbala eta bai gizakume sendoa. Baina itxura onak sarritan gaitza ezkutatzen baitu, halaxe Orixeren kasuan ere. Gorputz gotorra, bai, baina osasun makala.

Eta osasunaren arregura izateko bazuen moriborik aski, zeren, arestian aipatutako ahapaldi horretan dioen bezala, gatzetatik nozituz zetorren eritasuna baitzuen hezueria. Nemesio Etxanizek (1965, 26) Comillasen (1915-1917) ezagutu zuen, eta orduan ere maiz ikusten omen zuen buruari helduta burukominez hiltzen: “Sarri, gure ikas-aretoan ikasleok zaitzen zegoela, buruari eutsika ateratzen ikusten genduan. Hainbeste mutikoren lurrinak etzion onik egiten, nunbait; eta buruko miñez irten-bearrean aurkitzen zan geunden tokitik aizetara”. Amerikara iritsi berritan (1950), “osasunez beñere baño obeto” dagoela esaten dio bere arreba Denuxiri. Baina haren euforia horrek gutxi iraungo du, zeren, Jokin Zaitegiri 1953ko ekainaren 20an jakinarazten dionez, gaixoaldi luze batek menpean hartzen baitu Zaragozako bere bizilekuan: “Egun oean atzeman nau zureak, gerruntze-miñarekin. Aldegiten asi da ta ieki naiz. Bestela osasuna erabat ona. Otsailaren 8’gn eroriko gogorra izan nun, eta illabete t’erdi egon nintzan nere onetara gabe. Gero, Apirilaren 26’gn gripa itsu batek artu nindun, bi illabete urbil”.

Batean gerritako mina duela eta bestean gripea, ia bost egiten ditu gaixorik. Hurrengo urtean, berriz, hezueriak itsuski jotzen du eta goriak ikusten ditu. Ezertarako gauza ez dela geratzen da aldi batez. Hona hemen zein egoera errukarritan aurkitzen den gure gizona: “Ezueri edo gotak gogor io nau iru illabete auetan eta ez dit barkatzen. Baditut galduak 32 libera. Beera-koskan onela ba’noa, emendik sei illabetera enaiz gauza izango etxerako. Ezurrak emen utziko ote? Oraindik ez da ikaratzeko, baiña bai kezketan sartzeko. Igokunde egunean, ez indarka ez eztulik egin gabe, ibili utsean, sabel-xume edo hernia atera zitzaidan. Nonbait sarea geiegi meatu. Txango batzuk egiteko... on egiten baitidate... esteak zintzilik ezin ibili. Ortzez gora ere bizitza itsa, bestela al dala. Eserita ezin egon, berriz, lanik egiteko”. Hau da kontatzen diona Jokin Zaitegiri 1954ko ekainaren 1ean. Urte horretan bertan, azkenaldian, Amerikatik itzulian Tolosaratu aurretik, berriro ohean ikusiko dugu indizioak hartuz.

Tolosan oinak jarri bezain laster, ohealdi luzea egiten du, 1954ko azarotik abenduaren erdira arte, *Thiamina* indizioen mende. Lazkaon ohetik diktatzen zion kopiatzaileari. Zutik dabilenean, besoa mahaira arrimatu orduko kalanbreak jotzen du. Monastegitik Bedaioko Sarasola txistulariarekin egotera abiatzen den egunean, 1956ko Gorpuzti ondoko igandean, komeria beltzak ezagutzen ditu: Beasainen hiru gizonek lagundu behar izan zioten trenera igotzen, Tolosan atzeraka jaitsi behar izan zituen Antonio Maria Labaienen etxeko eskailerak, Bedaion, arratsalde erdian festa puri-puri zegoela, Tolosara etorri behar izan zuen arrebarenean oheratzeko. Eskaera hori egiten dio Jon Garmendiari (1965, 51-52): “-Oia artuko nuke oraintxe pozik... Ai etxean ba'nengo! –dio, egon-ezin minkorrari eutsi eziñik; eta unerik atsegiñenean, erriko ta inguruetakoko gazteak txistu-soñuan dantzatzeko urbiltzen asi diran garaian, irten bearra izan degu etxeruntz. Ontan, berealaxe biurtu gera Tolosa'ra: eta bere arrebaren etxeko oge-goxoan eroso utzi ondoren, agur egin diogu”.

Lazkaotik itzulita, Tolosako bigarren egonaldian, senperrenak ikusten ditu. Gaitza nondik datorkion orain jakiten du. Aita Patxi Aizpuruari beren erorikoen berri ematen dio 1956ko irailaren 1eko gutunean: “Baldar xamar ez ba'nengo, joango nintzake zure sotanari musu ematera. Ni gorriak pasea naiz, ondoena nengoenean. Korderik gabe erori nintzan, eta iru egunez burutik nasturik. Ilabete osoa ortzaz gora; bañan bizkortzen ari naiz. Nere zorabioak asi dira aldegiten. Sudurretako espezialista batekin nabil, eta ark au esan dit: Nere gaitz guziaz eta gota ere sudurrean neukan aspaldiko zornetik datorrela. Oraingoan sendatuko omen naiz. Ala obe”.

Tolosako gaixoaldi hori pasa eta, Orexako kaskoan gorputzak onaldira egiten dio. Desagertzen zaizkio beheko zokoko larrialdiak. Agur zorabioak, goralariak eta apetitu-eza. Baina zeru horren urdinak oso gutxi irauten du, aita Mokoroari 1956ko abenduaren 17an egingdako gutunean irakurtzen denez, sabeleko krisialdi gogor batek belzten baitu haren gabon-aurrea: “Atake gogorra ukan det Abendu ontan: iru egun janaririk estamoan iduki ezin nula, ura ta naranjaren zumoa besterik”. Eta oinazeek ez diote bakerik ematen hurrengo urteko apirila arte, hilabete horretako 6an haxe idazten baitio lehengo berari: “Gabon-ilaren lena ezkerro, eziñez egon naiz oraiñarte. Ataque batek jo nindun estamora, janari mokor guzia gora botatzen nula. Gero, betiko egoaize orrek kirioak altxa zizkidan, oiñaze askirekin. Gaur ustu det oia goiz eta atsalde”. Bost hilabete ohean bada zerbait! Ordurartekoak

ez aski izaki, berriro azaroan beste erorialdi bat izango du. Oraingoan honen lekuko, aita Baztarrikara da, beroni idazten baitio 1957ko azaroaren 29an: “Ez nintzan joan Batzarreetara. Zure aurrean nolabait egon ba'nintzan, gaberako burura jo nindun gaitzak gogor, eta oiñaze aundiekin ukondoetan. Biaramonean makal”. Hurrengo urtean, Donostian lurrunak eta argi-izpiak hartzen aritu eta gero, aurreko urteko sintoma berberak –janezina, goralarría, zorabioa– agertzen zaizkiola jakinarazten dio aita Mokoroari 1958ko apirilaren 25ean. Hilabete t'erdi pasatzen du horrela, “pattal xamar”.

Araman dagoela, ebaketa bat egiten diote 1958ko abenduaren 17an, Ategorrietako klinika batean, seguru asko, San Inaziokoan. Orixek berak aita Mokoroari 1959ko urtarrilaren 24an kontatzen dienez, mirari bat egin zioten gorputzean: “Osasunez eziñ obeki, ezueri au ezik. Nerekin klinikan mirari bat egin dute. Bi eten neduzkan eta bien operazioa batean egin zidaten Abenduaren 17^{garrenean}. Barrunbez oso ongi. Bi egunez aztertu ninduten zearo, eta etzidaten arkitu ez zuringokirik, ez azukrerik, eta urea ere tamañaz. Biotzetik, berriz oso bizkor. Beraz, etzangiora. Amalau egin nitun klinikan, eta berela sendatu zitzaizkidan urratuak. Lengo aldean, obekienik egon izan naizan aldean, askoz obeki nago. Estamotik, beintzat; ondo jan, ondo dijerritu, lo ederki egin, eta batez ere lanerako amorrazioa sartu zait aundia”.

Araman, bada, optimismoa da nagusi, lanerako ere amorrazio bizia sortzen baitzaio. Baina Añorgako Zabalegik ez du hain ondo hartzen osasunaren aldetik. Ahul sentitzen da eta lanerako gauza ez. Hala adierazten dute Aita Onaindiari zuzendutako gutunek. Batean, 1960ko uztailaren 9an, ohealdiaz mintzo zaio: “Ni oge aldetik ibilli naz luzarotxo, eta lengo *Karmel*erako ezin bialdu izan dot ezer. Urrengoan, Iainkoak gura ba'dau”. Azkenekoan, hots, 1961eko uztailaren 25ekoan, hil baino hamabost egun lehenago, hauxe idazten dio: “Ni osasunez makal, sendagaillu barriakaitik edo. Bapere ez deukot kemenik bearrerako. Etorriko ete iata, datorren illabete ortan *Jainkoaren billa* kopiatzez amaitzen ete dodan?”. Antzematen zaio biziarekiko erdietsita dagoela. Atarian ikusten du azkena.

Orixeren gaixotasuna, deskribapen horretan agertzen denez, kronikoa da. Gaur erori eta bihar jeiki. Gutxitan du gorputzaldi ona. Ohea hustu eta ohea bete. Lana egin nahi eta ezin. Bera bere buruaz ezin baliatu eta besteak bere zerbitzura eduki behar. Bizipen horretatik pasa denak bakarrik dadike zer den hori. Hobe ahoa ixtea, askotan isiltasuna baita hitzik zuhurrena.

Bere giza grinak menderatu beharraren beharrez gorputzari borroka bizia egiten baitzion, haren osasuna horregatik egin zuela okerrea uste du Nemesio Etxanizek (1965, 32): “Handik auldu zitzaion osasuna, ta ezueria gehiago nagusitu”. Ezaguna da Amerikan errejimen aszetiko-dietetikoa egiten zuela bere grinak hobeto menderatzearen. Hau egia da. Baina, bestalde, nonahi entzuten dena da, eta gaur egun inoiz baino gehiago, jan garbia –eta fruta jan garbia dela nork uka dezake?– mesedegarri ez ezik, beharrezko ere bazaiola gorputzari. Jan-neurriari dagokionez, gotadun gaixoak bi etsai fitu erabat baztertu beharrezkoak, hots: baraua eta alkohola. Hezueriak erasotzen duenean, berriz, jan-neurri egokia arrautzez eta esnez osatutakoa omen da. Hori da medikuek gaitz horri kontra egiteko gomendatzen dutena. Esnea eta esnekiak izugarri maite zituen Orixek. Hor ez zegoen arazorik. Zerbaitekin izatekotan, arrautzarekin izango zuen, arrautza frijituia grin-pizgarri zitzaiola aitortua baitzuen. Zein neurritan egin ote zion uko arrautza jateari? Ukorik egin al zion? Ez dakigu.

Nolako gaitza zeukan jakinda, beti ahalegindu zen bere eritasun hori erabat sendatzen ez bazen ere, bederen arintzen. Gauza jakina da, bereziki Uitzin eta Orexan, Orixek gogoko zuela ariketa fisikoak egitea: ibilaldiak, pilota, korrika-saioak. Eta pentsa liteke, kirolerako eduki zezakeen zaletasunaz gain, helburu terapeutikoak ere gogoan izango zituela. Ez da ahaztu behar bizimodu sedentarioa zeramala eta komeni zitzaiola gorputza mugitzea.

Orexara joaten bazara eta han galdetzen badiozu adineko bati Orixek zer egiten zuen, beste erantzunen artean, zerbait ohargarri gisa, hauxe entzungo duzu: “Espuru gaineko ‘Muskerra’ izeneko belazean korrika egiten zuen. Txotzez 500en metro inguruko biribil bat egina zeukan eta han ibiltzen zen, Matxineko Paskual nagusia, belarra zapaltzen zuela eta, kexatu zitzaion arte”. Robustiano Arrigallagak 1985eko abuztuaren 4an kontatua da hori. Uitzitik zekarren ohitura zuen, zeren, hemen ere, Martin Martirenak esan zigunez, Martikoreneko borda inguruko zelaiune batean egiten baitzituen bere korrika-saioak, Errekaldeko bordatik zertxobait gorago. Donibane Lohizunen, itsas bainuak oin-hezurretarako biziki onak zirela eta, hondartzan joan-etorri ibiltzen zen uhinekin berriketan. Hau J. A. Duradoñari jaso genion 1986ko azaroaren 29ko hizketaldian. Zaragozako “Miramar” basetxean, oinazeak gogor jotzen zuenean, simaur gainean etzanda egoten zen, hari zerion lurrunaren beroan mina ezitzeke. Pasadizo honen berri Antonio Maria Labaienek eman zigun 1985eko uztailaren 5ean izandako

elkarrizketan. Lekuko hauek guztiak Orixe oso gertutik ezagutu zutenak ditugu.

Orixek berea zuen gorputza eta igerriko zion nola tratatu. Terapia guztiak, onenak erabilia ere, ez dira gaitz jakin batzuk sendatzeko gai izaten. Orixerena ere sendagaitz horietako bat zen eta, azkenean, bizitza osoan zehar teke-meke ibili zitzaion eritasunak eraman zuen bizitza hobeagora.

Morrontza handia da, dudarik gabe, gaixotasunak ezartzen duena. Edonun. Baina eritasunaren eta dirurik ezaren arteko ezkonztatik sortzen dena, ez da hobe. Zer? Esklabutza. Orain iritsi gara Lafitteren pasarte hartara. Orixeri, euskararen maitale izateagatik, ondorio hori etorri zitzaion. Guretzat zorionez, harentzat tamalez.

Guatemalakoei agur egiterakoan, besteak beste, Jokin Zaitegi esker beroz agurtu zuen, guztien gainetik lagundu ziolako. Zernahitarako luzatu zion laguntza: janzteko, hortzadura berria jartzeko, etxera itzultzeko.

Eta hemen? Ongileek noiz zer emango zain ikusten dugu, Otsanbelako Mikela Iriarte eskuzabalaren antzekoren bat non agertuko begira. Bigarren aldiz Tolosara biltzen denean, Bilboko Prentsa-Elkartetik datorkion laguntzari esker bizi da: mila pezeta hilean. Arrebari ordaintzen ziona doi-doi. Iturri hori agortu eta beste etorririk gabe geratzen denean, harekiko zorra kitatzeko bankutik ateratzen du zeukan apurra eta gabe geratzen.

Orexan, gastu handirik ez daukan arren, botikak eta arropak erosteko hemen ere poltsikoak hutsik. Berriro aita Mokoroarengana joko du 1957ko apirilaren 6ko gutunean: “Emen etxean ondo zaindurik naukate, eta gastu aundirik ez daukat alde batera; baiña sendagailuak garesti daude, eta erropa ere bear nuke, Ameriketara egina ez baitit balio”. Handik eta hemendik, nik ez dakit nola, ongileen euri gozoa jausten da, poliki eta tantaka, haren diru-lehortea azaletik bederen bustitzera. Laguntzaren zati bat, lehen Bilbotik bezala, orain Caracastik jasotzen du. Hala esaten dio aita Mokoroari 1957ko ekainaren 6an: “Julitxo Laskibar’ek beste mila pezeta bialdu zitidan Otsailaren azkenean, baiñan ez bide da gauza antolatuz Caracas alde ortatik. Gero adiskide batek mila pezeta, senide batek bosteun, eta ola dauzkat bildurik lau mila pezetaraino”. Laguntzaile horien artean, seniderik ere badu. Datarik gabeko gutun batean, berriro Julitxu Laskibar emaztekiaren eskupekoa aipatzen dio aita Mokoroari: “Zurea jaso baino egun batzutaz lenago, Labaien’en emazteak mila pezta eman zizkidan

Julitxu Laskibar'en partetik! Donibane'n topo egin omen zun eta, itza nitaz zala, bertan eman omen zizkion eskura...". Amerikako etorria ahitu zenean, eskatzeaz ahalge, beste behin aita Mokoroarenean jotzen du txilina 1957ko urriaren 25ean: "Orain... *de tribus capellis, Posthume*: nere kartera askotxo auldu dala, esateak gorritzen ba'nau ere. Ez da, bada, xur bizi ez naizelako! Ameriketako aiek asi ziran mila pezetakoarekin; gero bosteun bialdu zizkidaten, aspaldi xamar, eta kito. Berriz ere zure bearretan izango naiz. Sendagailu garesti ua uzten asi nintzan, bañan amabost eguneko atzeraldia ekarri dit. Oraindik ere jarraitu bearra. Ikusiko noiz arte". Hurrengo hilaren 22ko gutunean, ustegabeen etorri zaizkion bostehun pezetaz, egin dioten erregaliaz eta abenduan Leitzako festan bere alde egingo den diru-bilketaz hitz egi-ten dio. Pozez zorutzen, Antonio Maria Labaienek hamar mila pezeta bildu zituela esaten dio aita Mokoroari 1958ko urtarrilaren 24an. Aspaldiko partez, mokado polita! Urte hartan erregeak portatu zitzaizkion euskaltzain berriari.

Aramara joanda, aita Mokoroari 1958ko irailaren 19ko gutunean datorrenez, berriro diru-esperantzan dago: "Diru-laguntza espero det adiskideengandik. Labaien jauna asia da mugimenduan. Jainkoak ez nau beñiere eskuetatik utzi, ta aurrera ere lagunduko didala iduritzen zait". Bitarte horretan zer behar tokatu ote zitzaion hamar mila haiek hain agudo urtzeko? Esana dugu abenduaren 17an operatu zutela. Otxoteko medikuak, ordea, hutsaren truk eman zizkion lurrinak eta argi-izpiak. Klinikako hamalau egun haiek, asegururik gabe eginda, txanpon batzuk kostatuko ziren eta baliteke gastuak hor izatea. Kontua da, Urteberri egunez, aurreko urtean ez bezala, sosik gabe aurkitzen dela, hurbilekoenak errukitzeraingo ezaren jabe: "Adiskideak kupituta laguntzen asi zaizkit. Bi apaiz asi dira neretzat diru-bila, ilean oinbesteko bat emateko bildu al ba'lezate. Jainkoak ez nau beñiere eskutik utzi, ta aurrera ere konpianza". Hauxe da aita Mokoroari egi-ten dion aitortza 1959ko urtarrilaren 14an Aramako herritik.

Gerozkorik ez dator gure egunkari hits honetan. Aski da, noski, jakiteko nola gizon handi bat, argia bezain zintzoa, bizi izan zen beti lanean eta beharrian premiazkoenei erantzuteko beti ezinean. Orixe da, bai, euskarak izan duen lehen idazle liberatua, profesionala, baina zein preziotan?

HAMAHIRUGARREN ATALA

IZAERA ETA GRINAK

Inoiz esan izan da Orixe izaeraz zakarra zela. Nonbait noizbait horrelako zerbait heldu zen bere belarrietara, zeren bera esamesen bide-erdira ateratzen baita *Quito'n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 711): “Biotz zekena dutala esan ziñadate; ez dutala biotzik. Nik zekiñat ongi zenbat aldiz biurritu bear izan dutan. Biotz ba arkitu nai nerearen atse-denerako, aurtzaroan eta geroan ere, ta arkitzen ez. Nik ere aragiz egiña diñat eta amaren ordaiña billatzen ibilli arren, umezurtz gelditu naun. Amaren musu bat etzekiñat zer den. Lagunartea etsai izan diñat oraintsu arte! Oraintxe asi zaizkidan esker ematen eta kutun artzen”.

Ezin ukatu da testu horretan dioena benetan garratza dela. Hori ulertzeko psikoanaliaren sakoneran murgildu beharrik ez badago ere, gai honen inguruan zenbait pasadizoren berri ematea egiteko osagarritzat daukagu.

Gizon bortitza zen, oso primarioa eta erasokorra. Zer pentsatu bu-ruan, hura fite asko ezpainenan. Hitzak zuhurtziaren legez ez neurtzea-gatik etor zekizkiokoen ondorioetan batere pentsatu gabe. Hizketan noren aurrean ari zen gehiegi kontuan hartu gabe. Eta bere bat-bateko sen horrek, Espainiako gerrate zibilekoan fraile bedeinkatu batek Tolosako Komandantzian salatu zuen bezala, erbestealdian ere antze-ko zerbait gertatuko zaio, 1939an Donibane Lohizuneko Udal-Libu-rutegian lanean ari zen egun batean, Espainiako erregimen frankista-ren kontra zerbait esan omen zuelako, bertan zegoen jaun saldu batek entzun eta salatu egin baitzuen. Salatu eta trantze gaiztoan jarri, han-dik ohildua izateko zorian egon baitzen. Pasadizo hau Karmen Bandres

emaztekiari, Lizardiren anaia Antonio Agirreren emazteari, hartua da, orduan Orixe haiekin bizi baitzen.

Norekin ez zen haserretu? Bizitzan zehar hurbilekoak izan zituen ia guztiekin. Ahaideekin, adiskideekin, euskaltzaleekin... Baziren ezkerreko begitik ikusten zituenak: Uitzin Mikela Iriarteren senarra, Ortiz jauna; El Salvadorren, Muyschondt nagusia; euskaltzaleen artean, Aitzol, Telesforo Monzon, Lafitte, Krutwig, eta abar. Bere adiskide Jokin Zaitegirekin ere izan zituen, antza, tirabiratxo batzuk. Bidarrain egon zenean Domingo Ormaetxea lehengusuarekin Liseronea base-rrian, etxekoekin konpontzen ez zelako aldatu zen Noblia ostatura. “Adiskidetarako hobea etsitarako baño”, esango du Antonio Maria Labaienek. Izaeraz, beraz, menderaezina izan genuen. Eta eztabaide-tan, oilar. Gustuko ez zitzaion zernahiren kontra, mokoka egiteko beti gertu. Luma sarritan zeukan polemikarako zorroztuta. Zentzu batean, bere kaltetan, orduan su eta gar bazterrak hautsi beharrean agertzen baitzen, Koldo Mitxelenak zioen bezala, “inoiz baño ibilera arriñagoa” erakutsiz; beste zentzu batean, berriz, euskararen faboretan, zeren –hau ere luma berak idatzia da–, borrokarako grinak sortarazten baitzizkion “orrialderik bizienak prosaz”.

Inoiz, eskuekin keinuka, arerioa jango zukeenaren plantak ere egi-ten omen zituen. Haserre bizi-bizian jartzen zenean, bereziki. Orixe, jesuitetatik ohildua izan eta gero, Uitzira joaten omen zen beti, edo gehienetan, udako oporretan. Behin batean –hala kontatu zigun umore handiz Uitziko Pedro Ariztimuño apaiz zahartuak Iruñeko bere etxean–, Orixe oporretan zela, ibilian-ibilian joan omen ziren hango geltoki aldera herriko lau ilustratuak, medikua eta sekretarioa lagun zituztela. Han eleketan zeudela, geltokiko buruzagiari uitziarrek zikin batzuk zirela esatea otu omen zitzaion, odolkiak txerri-pertzetan egos-ten zituztela, eta antzeko zozokeriak. Hori gezurra zela eta, han odol-kiak kobrezko pertzetan egiten zirela eta, ahotsa goraki altxatuz eran-tzuten zion bitartean, ia-ia erantsi omen zion bekainekoa.

Ipar Euskal Herrian, Bidarraiko Noblia jatetxean ere, izan bide zuen antzeko beste beroaldi sutsuren bat. Egun batez, Manu de la Sota eta Marc Legasse bazkaltzera gomitatu omen zituen. Bazkaltzerakoan, honetaz eta hartaz kontu-kontari ari zirela, gure Orixe biziki samurtu omen zen, dirudienez ideien gorabeherengatik. Bero-bero eginda, altxa eta esan omen zuen: “Zoazte hemendik, bestela botila honekin joko zaituztet buru gainean”. Une hartan haiekin zen Piarres Iratxet apaiz

idazleari, Bidarraiko semeari, entzun genion Nôtre Dame de Buglosse-
ra 1986ko azaroaren 28an egindako ikustaldian.

Aldi berean –eta hau Antonio Maria Labaienek bere alde esana da–, bake-gizona zen, barkazioa eskatzen zekiena. Haren jarrera oldar-
korra, batez ere, zahartzaroan apaldu omen zen: “Urteak eta eritasunak
eztitu ta bigundu zuten azken-aldian. Iñoiz zitalkerriren bat egiten ba
zuan, barkazioa eskatzen zekian eta utsegiteak aitortzen. Azalez legor
zirudin arren, bein baño geiagotan eskerroneko malkoak zerizkiola
ikusi izan dut”.

Haserrealdiak haserrealdi, Orixe beti Orixe. Zekena izango zen,
basurdea, nahi duzuna. Baina beti noblea eta beti garbia bere bidean.
Orixeren okerrik handiena ez zen izaera gogorrekoa izatea. Bazen de-
soreka psikologiko nabaria zekarkion beste ziorik, haurtzarotik hilobi-
ra nekezka eraman izan zuena. Zer? Amarik eza, amaren musurik eza.
Horregatik aitortzen du hain garrazki: “Biotz bat arkitu nai nerearen
atsedenerako, aurtzaroan eta gero, ta arkitzen ez”. Mundu honetako
ibilaldia umezurtz gisa bizi izan zuen, berotasunik gabe, umerik gabe
kulunkan dabilen sehaskaren antzera: hotz eta bakar. Bakardaderik bi-
luzienean eraman zituen bizitzan zehar gainera etorri zitzaizkion zori-
txar guztiak, hots: dirurik eza, beharra, kartzela, erbestea, eritasuna eta
gainerako oinaze fisiko eta moralak.

Moral hertsian hezia eta hazia, gogor hartu zuen bere gorputza.
Seigarren aginduari errespetua zion edo, agian, zuzenago esanda,
beldurra, izua. Soinean dardarizoa eragiten zion. Orduko baserritar
mutilen neskekiko portaera motza bazen, bi aldiz edo gehiagotan zen
motza Orixeren kasuan. “*Euskaldunak* poeman ez omen dago zinezko
maitalerik. Maitale historiko benetakorik, batik-bat. Ez, ez dago”, dio
Joxe Azurmendik. Erotismoa begietan zakarra baino eramanezinagoa
zuen literaturan. Orixe nahiko ondotik ezagutu zuen aita Onaindiak,
experientia teste, aitorten hau utzi digu idatzirik: “Loikeri kontuan
Orixe beti izan genuen txit begiratu, bai beretzat bai euskal-erriaren-
tzat: bere lumatik etzun ezertxok ere irten ganorazko ta garbi etzanik”.
Milla euskal olerki eder bilduma prestatzen ari zela, zer sartu eta zer ez
erabakitzeke orduan, Orixe “ut moralista, non ut litteratus homo”
irizpidearen arabera jokatzeko aholkua eman zion. Eta haren esanari
jarraiki, ez zituen sartu Juana Bixente Olabereren poesiak eta beste hola-
ko batzuk. El Salvadorko Zaragozan zegoela, *Euzko-Gogo*a-n idazten
zuten zenbait olerkari belaxka eta gordinzalari bere betoa jartzen hasi

zen. Adibidez, “Mirande oso nabarra da. *Gernika*-n atera zun zerbait... lotsagarria”, esango dio aldizkariko zuzendariari 1952ko azaroaren 3ko gutunean; orobat, “Lauaxeta zenaren belaskakeri batzuk ere, on baño kalte gehiago egiten dute”, dio leku berean. Hurrengo urtean, *Euzko-Gogoa*-k antolatzen duen Poesi Lehiaketara bidalitako poesiak irakurtzen dituenean, harri eta zur geratzen da poema likits eta gordin batzuen aurrean. Haren harridura are eta handiagoa izango da jakiten duenean egilea, apaiz bat dela, berak estimatzen duen norbait. Bere botoa nori eman erabakia dauka, hauxe idazten baitio Zaitegiri 1953ko urriaren 17an: “Zaragoza’n ântzia utzi dut erabaki-gaia, baiñan or doazu nere erabakia. Mitxelena ta Iratzeder batzaldiz landa uzten ez ba’ditugu –len-saria ukana baitute Laphurdin, oker ez ba’nago– orainarte Mitxelena’ri ematen diot. ‘Griñaren loa’ oso gordiña da, likitsa da. Bialduko dizut erdarara itzulia. Bestela, karmeldarrari eman bear-ko len-saria, ta ‘Amar Olerki’eri ta Etxaniz’i dedu-aipua. Lotsagarri litzake likiskeri oiek argitaratzea”. Handik astebetere, 25ean, beste gutun bat igortzen dio, esanez horrelako lanek ez luketela lekurik izan behar ez sariketa batean ezta *Euzko-Gogoa*-ko orrialdeetan: “Baitaratu zera, orregatik, Etxaniz’en ‘Griñaren loa’ gordiñegi dela. ... *Alderdi*’koek ez dute onartuko, inolaz ere, likiskeri ori. Arri ta belarri egiñik nago olako gizon onari nola ialki zaion olerki lotsa emangarri ori. Zorigaiztoko moda!”. Hurrengo hilean, 1953ko azaroaren 10eko gutunean, hain zuzen, aita Onaindiari ere antzeko kezka agertzen dio: “Ele edertzale oriek burua galtzen dute edozer ausarkeri ta gordinkeri ontzat emanez. Satsa, gain-zuriturik ere, barnean ustel. Zaitegiri esana daukat, ez dudala aurrera irakurriko *Euzko-Gogoa*. Mosu garaia, Iturriko laztana, Ars amandi ta olako oriek *nec nominetur in nobis*... Olerki-gudu ortarako gauza bat igorri dute guziz nabarmena. García Lorca’ren *La esposa infiel* antzera, emazte zintzoa baiñan *incidit descriptio coitus valde vivida*. Gure adiskide E’tar N. Apaizarena da. Burua galdu ote du? Eta Zaitegik len-saria eman ote lekidion? Oarkizun batean au ipintzen du egilleak: ‘Ba-dakit Orixe’ri atsegin izango etzaiona. Irakurri diet Lekuonari eta beste zenbait apaizi, eta ‘euskaldunok ez omen dugu beti gizagaixo agertu bear’. Literatura orrek gizona asko buruarintzen du”.

Zalantzarik ez da Orixe ez dagoela ados Jokin Zaitegik daraman jokabidearekin, uste baitu lizentzia gehiegi hartzen dituela zenbait idazleri sarrera emanez bere aldizkarian. Arrasatearra bera ere, ez hain

zorrotz baina, Erosen zakuan sartzen du Mercedes Contrerasi egindako 1952ko azaroaren 18ko gutunean: “*El erotismo fino* del P. Zaitegi? –Lo tengo por una cosa enteramente convencional, a la moda de hoy, porque si fuese verdadero sería indigno en un sacerdote de Cristo. Solo el preocuparse de esas cosas es espiritualmente morboso. Lo más que hay que concederle a Zaitegi es un ejercicio que ha hecho del género, pero absolutamente impersonal”. Orixek zentsuratuen zerrendan sarztekoak dira, bada, Mirande paganoaren ondoan, Lauaxeta laikoaren belaxkeria eta, orobat, Etxaniz eta Zaitegi apaizen arinkeria erotikoak.

Orixek autore horiei egiten dien zentsura-kritika horretan, uste dugunez, kristau-moraletik bezainbat edaten du platonar pedagogiatik. Izan ere, Platonek bere Errepublikan dakarrenez (1981, 696-697), greziar hezkuntzaren funtsezko literatur testua Hesiodo eta Homeroen poemek osatzen zuten eta haurrei horien istorioak kontatzen zitzaizkien. Baina poema horietan ez da dena onargarri Platonen ustez, bereziki, teologia eta moralaren aldetik begiratuta. Horregatik, haurrek hezkuntza egokia har dezaten, bi eratako garbiketa-lana egin behar da: batetik, jainkoei buruzko doktrinak gezurtatzeko, hau da, antropomorfitzatzeko ikuspegia dutenak gaitzetsi behar dira, eta, bestetik, berriz, jokabide okerrerako joera agertzen dutenak. Platonen asmoa da, beraz, errorera daraman edo propaganda txarra dakarren oro errotik kentzea. Kontuan har dezagun, bidenabar, Orixek “erotismo” substantiboa darabilela, kontzeptu nagusi gisa, horri erantsiz “gordina” eta “likitsa” adjektiboak.

Platonek ez du onartzen arteagatik artearen eta ederraren izeanean egindako zernahi gauza. Lehenik moralki kaltegarri denetz ziurtatuta behar da, moralaren aldetik onargarri ez den literatura ez baita hezkuntzarako on. Orobat Orixerentzat. Likits edo gordintzat hartua den literatura, ederrera izanda ere, arbuiagarri izango da, zeren, moralaren helburuarekin bat ez datorrenez gero, gizarteari ondorio kaltegarriak ekartzen baitizkio. Jainkoagana ez daraman oro –zer esanik ez Haren aurka doan oro, hala nola erotismoa–, ez da ez literatura ez artea ez ezer. Harrigarria da honetan Platonekin duen kidedasuna, kristau-hezkuntzatik edoskitako moralaren eraginez osatua. Ez da ahaztu behar Orixe Platonen irakurle eta miresle dela, baina harena “kristau-moralaren” begiekin irakurri zuela, edo, zuzenago esanda, Orixek zuen ikuspegi bereziarekin.

Beraz, ezin da baliatu erotismoaz ezta literatur aitzakia gisa ere. Ez da zilegi. Egiatzko poetak, egiatzko literaturak, beste baliabide batzuen

bidez erakutsi behar du bere gailentasuna. Areago oraindik: literatura mistikoan datozen zenbait pasarte kontuz-kontuz irakurtzekoak direla esaten dio Mercedes Contrerasi 1952ko azaroaren 23ko gutunean. Eta hau esatean Santa Teresa eta Joan Gurutzekoa ditu gogoan: “Santa Teresa no fue erótica. Su amor fué carismático. También el de S. Juan de la Cruz, pero en este encuentro algo más de humano, que no llega a sensual, como pretende Fitz-Maurice-Kelly”. Santa Teresarekin ez dago arriskurik. Joan Gurutzekoarekin, bai, ordea. Ez berez erotikoa delako, baizik eta irakurlearengan izan dezakeen eragin negatiboarengatik, hobe lukete zenbait mojak “los abrazos con el Esposo” eta horrelako esaerak ez irakurtzea. Azken aholku hau ematen dio Jokin Zaitegiri 1952ko azaroaren 3an.

Dena den, izartegian bezala, erotismoan ere mailak daude. Mirande edo Nemesio Etxaniz baten gordinkeriatik Jokin Zaitegiren erotismo finera eskailera luze samarra dagoke, eta Jokin Zaitegirengandik Joan Gurutzekoarengana, berriz, oraindik luzeagoa. Nolanahi ere, kasu batean zein bestean, baita literatur arrazoiengatik erabiltzen denean ere, erotismoaren erabilera arriskugarria da. Obsesio batek duen indarrez, maitasunaren landare garbia etengabe zainduz eta jorratuz jardun zuen bere gogoetazko baratzen, inguruan loikeriaren belar txarrik sor ez zedin. Maitasuna bai, Erosa ez. Horra hor Orixeren bidea!

Orixek haragiari, kontzienteki eta *ex profeso*, biziarteko gerra deklaratu zion. Arierio bihurria tokatu zitzaion eta ez zion bakerik eman. Uitziko festetan gaztetan gertatuak kontatzen digu Nemesio Etxanizek (1965, 32): “Egun batean, gaztea zala, Uitzin jaiak. Jai-pozera, nexka lengusu bat etorria zuten. Gabean, etxean beste lekurik ez, eta neska-txa ura `Orixe`ren gelan beste oe batean sartzen dute. Aiek jakin mutila nolako zintzoa zan, eta nexka kezkarik gabe an utzi zioten. Orixe larri bere ogean. Gaztea izan eta irudimenak eta odolak pakerik ez. Alako gau larririk! Gau guzian alde batera eta bestera ogea ederki nastu zuan, baiña gau osoa lorik artu gabe joan zitzaion”. Pasadizo honetaz ohar txiki bat egin zigun Pedro Ariztimuño apaizak, bere zeratxoa duena: alegia, Errekaldek areto eder bat omen zeukala, eta han bi gela aparte. Beraz, areto berean egon arren, ez ziren gela berean egon.

Gaztetan bezala, gero berdin adin heldukoa zenean, emakume-kontuak beti *vetanda* gisako zerbait izan ziren harentzat. Gorputzaren irrikak irakiten jar ez zekizkion, haragia, arrautza eta beste janari asko uzteraino iritsi zen Amerikako egonaldian. Eliasekin hizketan, hala dio *Quito`n arrebarekin*-en (IG, I, 1991, 757): “... aragia ez ezen arrautza

janak ere odola beroarazten dit neri geitxo”. Horregatik, fruta izango du janari nagusi: laranja, pikua, mangoa, anana, kokoa eta horrelakoak. Hori zen gorputzari ezarri zion aszetikazko zerga. Etxanizek lehengo leku berean dakarrenez, “amerikarrak, ‘Ave fría’ deitzen omen zioten, emakumeak, beste gizakumeen antzera, begiz jaten etzituelako”. Bale.

Emakume-kontuan oso estua zelako, pentsa dezake norbaitek Orixeren bihotza harrizkoa zela, edota gutxietsi egiten zituela emakumeak, misoginotzat ere hartua izan baita. Uste oker honen kontra ateratzen da Orixe Mercedes Contreras andereari, 1952ko azaroaren 23ko gutunean, era arras konfidentzian egiten dion aitortza honetan: “Orixe es un hombre frío y no humano. –Hum! ya se ve que los que dicen eso no me han oído en confesión. Orixe tiene las mismas pasiones que los demás hombres, y no se chupa el dedo. Orixe ha tenido más dificultades en la castidad por plétora o por debilidad; no por buena y perfecta salud. Pues hablo en la mayor intimidad a una Señora casada y a un sacerdote este año en que mi salud está tocando lo perfecto, creía yo que me había *enfriado*. Estaba yo oyendo Misa el domingo pasado en San José de la Montaña –cripta– y en esto se pone delante de mi banco una joven bien ligeramente vestida. (Acordarse de San Agustín). Y además no se arrodilló al Sanctus. Allí sintió Orixe a sus 64 años hervirle la sangre como por electricidad. Bendito sea Dios que le conserva a uno la *hombredad*, sin peligro ya o con menos peligros de caer que es la juventud! Movimientos que entonces molestaban por tener que guardar la castidad, hoy se aprecian desde el punto de vista de la salud”.

Aipu honek luze jo du. Luze, baina beste inon ez bezala, sakon. Orixeren alderdi hau barrutik ezagutzeko ez dugu beste bat hobeagorik atzeman, bera baita zuzenean mintzo dena halako xalotasun hunkigarri batez. Munduko beste gizontxoak bezala, gizonari berezkoak zaizkion joera normalez hornitua zegoen. Hezur-haragizkoa zenez, haren barne-errotatik ur-mota guztiak pasatu ziren. Horixe besterik ez da aitortza horretan esatera datorrena.

Maitasun sexualari uko egin zion Orixe gizonak zertan sublimatu zuen bere bizitza? “Agur Guatemala’ri” sarreran lehen ikusi ahal izan dugunez, euskara izan zuen bere andregaia. Beroni eskaini zizkion hainbat ahalegin eta hainbat sufrikario. Baina erantzuna, gure iduriko, ez da hor bukatzen. Entzuna dugu bestelako maiteminik ere izan zuela. A. M. Labaienek irribarez bezala kontatzen zigun, Bidarraiko andregaia zela eta, adiskideek adarra majo jotzen ziotela. Amerikan zegoela, handik

Uitziko Joana Ariztimuñori gutun bat idatzi omen zion pretendituz. Ezkontza-mandatua hartu zuenak ez zion kasurik egin eta horretan bukatu zen guztia. Hango bakardadeak eragindako krisiaren ondorioztat jotzen du pasadizo hori Pedro Ariztimuño berriemaileak, Joanaren anaiak, hain zuzen. Aita Luis Villasante, berriz, Arantzazuko fraile baten arrebari egindako bihotz-eske batez mintzatu zen EUTGn egindako hitzaldian. Inoiz Elbira Zipritia irakaslearen izena ere aipatu izan da. Kontu askotxo denak egiak izateko!

Orixek ezkontzeko izan zezakeen bokazioaz edo desiraz, ez gara ausartzen ezer erabatekorik esaten, dauzkagun baino datu gehiago eduki beharko bailirateke. Guztiz normaltzat ikusiko genuke, halere, Orixek inoiz ezkontzan pentsatu izana, edota batzueganako maite-min-ukitua inoiz sentitu izana, gero ezertan gauzatu izan ez bazen ere. Eta harekin inor ezkondu ez bazen, ez dugu uste eguneroko ogia irabazteko kapaz ez zela antzeman ziotelako izango zenik, inoiz entzun izan dugun bezala.

HAMALAU GARREN ATALA

EMAZTEKI BATEN OROITZAPENETAN

Orixeri buruz, hartaz eta honetaz mintzatzeko, askorengana hurbilduak gara. Eta beti ikasi dugu zerbait berri. Batek ez zekiena, besteak zekien. Eta bakoitzak bere Orixe eman digu. Hausnartzen ari garen gai honetan bai egoki datorrela filosofia eskolastikoan hainbeste erabili ohi zen esaldi hura, dioena, bakoitzak bere modura ulertzen dituela gauzak. Esan nahi baita, aurrean daukaguna, hurbilekoa zaiguna, nolako begiez begiratzen den, nolako jarreraz, alegia, hala ikusten dela.

Orixeren izaera berezia askotan aipatu da orrialde hauetan zehar, haste-hastetik aipatu ere. Baina, dakizunez, haren alderdi horri buruz ez dugu aurreratu nahi izan ezein interpretaziorik, ez psikologikorik ez bestelakorik.

Erdi-ustekabeen, ordea, Ipar Euskal Herrian Orixe arras hurbiletik ezagutu zuen emazteki batekin mintzatzeko zoriona izan genuen 1988ko irailaren 7an.

Marie Hélène Gastigard da andere prestu hori, Jesus Etxeberria eskultorearen emaztea, bera ere pintore trebea, Kanboko “Kantoina” etxetxo xarmantean bizi dena, hantxe trenbide ondoan. Orixeren barne-gaztelu ilunean barneratzen hasteko ez dugu kausitu segidan dakar-gun elkarrizketa hau baino lekuko hoberik. Orixe gizona areago ezagutzeko balioko duen itxaropen osoz eskaintzen dugu atal honetan. Plazer handia izan da berarekin mintzatzea.



*Etxe honetan bizi dina Etxeberria-Gastigard senar-emazteak.
Orixe hona etortzen zen noizbehinka.*

–Nola ezagutu zenuen Orixe? Noren bidez?

–Nik euskaldun jendea ezagutzen nuen aski, bai. Zeren eta, ezagutu nuen lehenik orain nire senarra denaren arreba. Han eta hemen estudioak eginak bainituen, nik nahi nuen espainola ikasi eta ikusten nuen beti neskatxa hura pasatzen hemen. Haurra nintzen artean, baina gurasoek utzi ninduten neskatxa hura ikusten eta, horrela, sartu nintzen hemen Kanboko beheko plazan den etxe batean, “Kaserna” izenekoan. Eta han bazen errepublika txiki bat bezala. Errepublika edo kolonia bat, hala erraten zuten. Errefuxiatuak zeuden han. Nire senarraren ama gaixoa denen ama bezala zen. Han zenbait gizon bazen eta hark egiten zituen etxeko lanak, sukaldea, etab., guztientzat. Han zegoen Uruñuela musikaria, nire senarraren osaba, Jesusen amaren lehengusua, alegia, haiekin bizi zena beti.

–Noiz izan zen hori, zein urtetan, eta zuk zein adin zenuen?

–Nik orduan hamalau urte edo horrela izango nituen. Hori gerra denbora izan zen, zeren gero etorri baitzen Ibarnegarayren dekretu zikin hura eta beheko plazako errefuxiatu guztiak barreiatu egin ziren. Dekretu horren ondorioz, eraman zituzten hango gizon guztiak (Jesusen aita, Uruñuela eta beste hainbat), eta Gurseko zelaian sartu. Eta nik handik urtebete barru edo horrela, klaseak hasi nituen neure senararren arrebarekin. Eta adiskidantza handia egin nuen, hain handia, ezen, ama-alabak inolako errekurtsorik gabe bizi baitziren, hemen gurekin hartzea galdetu nien gurasoei, nahiz nire gurasoak gauza handirik ez eduki. Etxe hau, nik uste, errefuxiatuen etxea izan da betitik. Ordutik bederen. Eta, beraz, gurekin egon ziren hemen. Eta haien bitartez sartu nintzen gero Don Pio Montoia apaizak alokatua zeukan “Nive” etxean. Don Pio Montoiarekin, musika zela bide, harremanak banituen. Nik ez nuen inoiz entzun neure etxean ez Beethoven, ez Bach, ez Mozart. Eta horrela kuriositatez sartu nintzen musika-munduan. Kasik egun guztiz, han nintzen. Eta horrela. Eta orduan Don Piok erran zautan: “begira, nik gomendatuko dizut Nikolas Ormaetxea eta harekin ikasten ahal duzu latina, espainola, eta besterik.

–Zer, musika entzuterara joaten zinen “Nive” etxe hartara?

–Ez, horretara bakarrik ez. Sekundino Rezola apaizak han ematen zizkidan espainolezko eta latinezko eskolak eta, harekin finitzean, fitefite, beheko aretora jaisten nintzen Don Piok pianoan jotzen zuen musika aditzera.

–Lehen erran duzu Tolosan egon zinela ikasten eta “passante” edo “surveillante” gisa lanean. Zer da hori?

–Ba horixe: ikasleen begiralea.

–Eta Tolosan ez zenuen nehor ezagutu?

–Ba ez, ez.

–Beraz, lehen euskaldunak hemen Kanbon ezagutu zenituen?

–Bai, lehenik, Kasernan eta gero “Nive” n. Azken etxe honetan bizi ziren Don Pio Montoia, bere arreba Anjeles, eta Inaxi neskamea. Baina etxe hartan beste jende gehiago ere biltzen zen, ia egun guztiz, arratsaldez, beste batzuen artean, Mateo Mujika gotzaina, Uruñuela bi anaiak, Sekundino eta Rufino Rezola anaiak, Ziaurritz senar-emazteak. Eta ge-

hiago. Rufino Jauregi ere egunero etortzen zen. Bera baitzen juduak eta erresistenteak mendiz bertzaldera pasatzen zituen, Don Piorengana joaten zen xehetasunak kontatzera, eta behar zuelarik, dirua eskatzera.

–*Etxe horretara Orixe ere joaten al zen?*

–Bai, baina ez zen biziki joaten, zeren lan handiak egiten zituen eta ez zituen ibilaldi handiak egiten. Bidarraiko bere etxean lan egiten zuen. Baina etortzen zen, bai, eta txoko batean egoten isil-isila.

–*Nola ezagutu zenuen Orixe?*

–Bo, nik banekien Don Pio mintzatua zela berarekin eta honek errana ziola: “Beno, zuk galdetzen badidazu hori, baia emanen dut, nahiz eta badudan lan anitz egiteko”. Era horrela joan nintzen goiz batez ikustera eta oso sinpatikoa kausitu nuen. Ni biziki herabea nintzen, baina harekin, ez dakit, ez. Konfiantza bat berehala kausitu nuen. Biziki sinplea zen, eta niri iruditzen zitzaidan nire osabekin, aitarekin, nire familiarekin, hots, baserritar batekin bezala nintzela. Sinple-sinplea zen.

–*Zuk harekin zer egiten zenuen?*

–Latina eta espainola. Eta gramatika anitz.

–*Gramatika?*

–Bai, gramatika konparatua. Hartzen genuen Alphonse Daudeten *Lettres de mon moulin* eta hori itzultzen genuen frantsesetik espainolera eta zenbait aldiz puska batzuk frantsesetik latinera. Daudet hori izigarri maite zuen. Eta beti erraten zidan: “A, begira, begira, euskara gauza ederra da. Gu beti-beti gauza printzipalera joaten gara direktuki, zuzen”. Erraten zuen frase bat frantsesez: “J’aime beaucoup les cerises”. Gero berak: –Eta hemen zer da inportantea?– “Les cerises”, eta guk euskaraz emanen dugu: “Gereziak maite ditugu”. Inportantea den hura berehala ikasten dugu. Hura da euskara. Ez beti bideska batzuk pasatuz. Beti hori irakatsi daut, beti-beti.

–*Bidaia nola egiten zenuen?*

–Ni joaten nintzen trenez.

–*Astean zenbat aldiz?*

–Astean bi aldiz eta zenbaitetan hiru aldiz.

–Lehen aldiz non ikusi zenuen?

–Ni joan nintzen Bidarraira, “Pont Noblia”ra eta han zen bera. Bera ez zen “Noblia” hotelean bizitzen. Lehenik pentsione osoa zuen ostatuan, baina gero, ez dakit erraten noiz, hartu zuen ganbara edo gela bat beste etxe batean. Jatekoak eta, ordea, hotelean egiten zituen. Beharbada lasaitasun gehiago izateagatik hartuko zuen gela. Badakit etxe hartara joateko eskailera luze bat bazela.

Ni joaten nintzen, beraz, trenez bederatzi eta erdietan edo. Ordurako han nintzen eta hark meza entzuna zuen lehenik, eta, mezaren ondotik, egina zuen bere ibilaldia, bere korrika.

–Korrika egiten zuen?

–Bai, egiten zuen bere korrika goiz guztiz. Modernoa zen horretan, eta, zioen, deporte ezin utzizkoa zela eta lan intelektualak egiteko, lehenik, gorpuzta prestatu behar zela. Deportea, egin, alegia. Eta ez anitz gizendu. Ez zuen nahi gizendu. Ez gizentzearena obsesio bat bezala zen harentzat, erraten baitzuen gizentzea zahartzea zela. Ez zuen horrelakorik nahi. Orduan egiten zituen bere hiruzpalau kilometro korrika eta gero hasten ginen lanean.

–Non egiten zuen korrika? Errepidean?

–Errepidean, bai, errepidean. Ez zuen hark ahalkerik. Eta gero Donibane Lohizunen zelarik, hondartzan.

–Inoiz entzun al duzu osasunagatik egiten zuela korrika?

–Neri beti erran daut ez zuela gizendu nahi. Hori zahartzea zela.

–Eta zuen lana?

–Eta gero lana egiten genuen eta bazuen egiazko pasione hat gramatikarentzat. Egia erraten zuen. Erraten zuen gramatika zela filosofiarik funtsezkoena. Beste guztia hitzak ziren, hitzak, eta literatura.

–Badakizu literaturan nor maite zuen?

–Beti ari zen Dantez mintzatzen. Izigarri maite zuen Dante. Kultu bat zuen harentzat. Gero, literatura espainolean, nik esaten nion: “Nik maite dut Cervantes, nik maite dut honen Quijotea eta...”. Eta berak: “Bai, bai, bistan da, bai ederra da, baina nik nahiago dut Quevedo”. Nik berriro: “Ez dut maite Quevedoren kontzeptualismo hori”. Baina berak Quevedo maite zuen izigarri. Eta bazekizkien buruz haren pasarte batzuk.

Eta bitxi zait Quevedo hark maitatzea, zeren, begizu nolako kontradikzioa kausitzen dudan hor.

–Zergatik kontradikzioa?

–Hara: musika maite zuen eta bo, mintzatzen ginen –ez ginen betibeti lanean ari– eta galdetzen zidan: “Don Piorekin ze musika entzun duzu egun hauetan?” Nik: “Alta, ez da pozik gelditu”. Berak: “Zer ba?”. Nik: “Nik biziki maite baitut Mozart, eta Bach. Eta dezepzioa badu Don Piok, zeren hark nahiago luke nik musika errusiarra maitatzea. Baina niri Mozart eta Bachen musika entzutean iruditzen zait zerua ukitzen dudala, zerua zabaltzen zaidala”. Eta Orixek: “Ba, ba, Bach ederra da, bai, bistan ederra dela, baina nik musika sabelekoa maiteago dut, eta horregatik maite dut Beethoven. Honek sabeletik hartzen nau”. Eta Orixek jarraitu: “Gurseko zelaian egon naizelarik, Uruñuela bi anaiekin, banekien Jose Uruñuela musiko handia zela, banekien Ravelen adiskide sakona zela. Bo, elkarrizketa ederrak izan ditugu, baina Uruñuelak ez du nire temperamentua. Uruñuela da niretzat biziki zerebrala. Eta nik ez dut maite zerebrala bakarrik dena. Nik maite dut sabela izatea, eta odola, eta temperamentu azkarra, eta horregatik maite dut Beethoven”.

Eta hori kontradikzioa da Quevedorekin, zeren hau dena zerebrala baita, kontzeptualista.

–Baina Orixe ez dea kontzeptualista, Jesuiten Eskolan ikasia?

–Uste dut deformazio bat zela. Bere estudioetako deformazioa zuela hori, zeren bere temperamentua ez baitzen horrelakoa. Nire ustez, ez.

–Baina bere idatzietan ez al da kontzeptualista?

–Bai, hala da, baina deformazioa jasan duelako. Zeren erromantiko handi bat baitzen. Ez zuen iduri. Baserritar bat zirudien, pausatua, baina baziren haren barruan, nik uste, sentimendu handiak, benetan handiak, eta, nire iduriko, ez bakarrik sentimendu handiak, baita tenpestate edo ekaitza handiak ere.

–Eta zuk zenbat denbora egin duzu berarekin?

–Nik uste, hi urte egin ditut Bidarrain. Eta gero, behar bainuen bizi ere, “passante” gisa toki bat atzeman nuen Donihane Lohizunen eta hara joan nintzen. Eta justuki urte hartan bera ere Donibanera joan zen. Ez dakit zertarako joan zen Donibanera. Etxe simple batean bizi

izan zen hor, hondartzatik hurbil. Emazteki bat bazen han, adinekoa, bakarrik bizi zena. Han bazuen gela bat eta, nik uste dut, han jaten zuela. Seguraski pentsionez egongo zen. Urtebete edo, egin zuen han.

–Eta gero Donibanen segitu zenuen harekin harremanetan?

–Bai, baina ez Bidarrain bezala. Bidarraikoa oso zen segitua, eta egiten genuen bederatzi eta erdietatik eguerdira arte, gero han berean jaten genuen; eta gero, behar zela pausatu pixka bat, eta egoten ginen solasean eta gero erraten zidan: “Orain segituko dugu estudioa, baina peripatetikoak”. Eta orduan joaten ginen mendira, Bidarraiko mendietara, ibilian hura gramatika latinoak eskuan eta ni atzean hari entzuten. Baina, bada-kizu, naturaleza biziki ederra zen eta nik distrakzio handiak izaten nituen. Hura arrunt sumitua zen bere gramatikan, biziki maite baitzuen, eta, beraz, horrela joaten ginen, eta egiten genuen ibilaldi handi bat. Zenbait aldiz estasiatua geratzen zen naturalezari begira, besoak zabalik. Izigarri demostratiboa zen. Erraten zuen Euskal Herria bezain ederrik ez zela. Grazia handia genuela hemen sortuak izana, eta... Egiten zuen bere poema bezala. Gero berriz itzultzen ginen Nobliara, eta bederen astean behin eta zenbait aldiz bitan, hartzen zuen trena nirekin eta hona etortzen zen, Kanbora, alegia. Bere errekreoa bezala. Hemen, Kantoinan, egoten zen hor sukaldean, nire amarekin eta euskaraz mintzatzen, simple-sinplea, eta gurekin hartzen zuen tea, edo txokolatea, edo zerbait. Eta gero laguntzen nion geltokira eta joaten zen. Familiakoa bezala.

–Entzuna dut ez zuela nahi emaztekiak esposa zitezen. Zer da hori? Feminismoa?

–Nik ez dakit. Alde batetik gizon biziki normatiboa ikusten zen, disiplinatua, eta horrela; bestetik, deskubritzen zenuen bere estusiasmoetan eta horrela, sekulako pasioea zuela eta sentimendu handiak zituela eta problema handiak ere bai.

–Baina bazekarren familiaratik arazo psikologiko handia, ezta? Bi ama eta amarik ez.

–Bai, uste dut bazuela problema afektiboa. Bazuen tirabira handia barruan gizon horrek. Eta orain oroitzen naiz nola esan zidan egun batez –eta ez nuke zozokeriarik esan nahi–, baina uste dut, neska bat oso maitatu zuela jesuita sartu baino lehen edo ondoren. Izan du pasione bat. Ez naiz ongi oroitzen horretaz. Badakit hori esan zidala, ez beharbada garbi-garbi, baina horrelako zerbait esan zidan, bai.

–Eta, bertsolariak zirela eta, merkatuetan zer egiten zuen?

–Nik dakidana da bazuela koaderno bat bertan apuntatzen zituena. Eta afizio handia zuela bertsoetarako. Zioen, Euskal Herriaren arima horretan adierazten zela eta, bertsoak jasotzen ez baziren, denak galduko zirela. Jasotzeko, zerbait egin behar zela. Baina nola? Orduan pentsatu zuen, gramofono handi bat hartuta, merkatuetara joatea. Norbaitek eramaten zuen kotxean eta joaten zen Donibane Garazira, Orzaizera, eta abar. Herri titxietara. Baina dezepzioa izan zuen, zeren ez baitzuen horretan girorik ikusten eta, ondorioz, ohartzen baitzen ez zutela beren neurria ematen.

–Lehen “huraño” hitza entzun dut. Zer da hori?

–Berak esaten zidan jende handiekin ez zela gustura sentitzen. Baserritarrekin, bai, arras ongi. Jende xehearekin, bai. Eta hala da, zeren nire amarekin eta, biziki kontaktu ona zuen. Baina begira: behin batean joan zen elkarrizketa bat egitera, errusiar jakintsu batekin, hain zuzen, eta orduan ez zen kontakturik sortu. Bakoitza bere munduan sartzen zen, bakoitza bere obsesioarekin eta ez zen harremanik izan.

–Elkarrizketa hori non egin zen? Hemen?

–Errusiar hura adiskide baten aita zen. Eta hona etorri zen Kanbora gaixo bezala Sanatoriora. Errusiar hau Posamentiroff deitzen zen, espezialista handia Liburuaren historian. Karreraz injinerua zen, biziki intelektuala, kultura handikoa. Eleketan, eztabaidan, hiru ordu egin zituzten. Ez ziren minutu bat ere isilik egon. Bi bide desberdin ziren.

–Eta jesuitez, zer?

–Esaten zuen balio handiko gizonak zirela, kultura handikoak, baina...

–Eta, lehengo haritik tiratuz, nola ikusten zuen emakumea?

–Esaten zuen, noski, ez zuela nahi emakumeak ezkontzea. Oro har, nahi zuen emaztekiak ezkontzea, baina ez emakume intelektualak. Badakit, konkretuki niri dagokidanez, ez zuela nahi. Bazekien pixka bat Jesus ezagutzen nuela. Eta, uff!, ez zuen fitxik entzun nahi. Eta esaten zidan beti: “Ez ezazula horrelako zozokeriarik egin. Emakumeak ez du ezkondu behar, zerbait egin ahal izateko estudioan, munduan. Zeren emakume bat ezkontzen bada, galdua da. Orduan ez du lan intelektualik egin ahal izango.

–*Entzuna dut bizitza bakartia eramaten zuela. Bai?*

–Orain hobeto ikusten dut, hartaz mintzatzean, monje haren bizimodu egiten zuela: goizeko meza, korrika, estudioa, gelan beti ikasten edo idazten. Egiten zuen denbora hartan itzulpen bat.

–*Misala, agian?*

–Ez, ez, nire iduriko, Virgilio edo Ovidio. Uste dut Virgilio zela, baina ez dakit honen zein obra.

–*Zeretik bizi zen? Nondik jasotzen zuen dirua?*

–Anitz errefuxiatuek hartzen zuten orduan subsidio txiki bat, baina ez guztiek. Euskal Gobernuak bazituen bere legeak eta baziren errefuxiatu anitz benetan tristerik bizi zirenak. Baina nik uste dut Orixeri dirua beste iturri batetik zetorkiola. Oso diskretua zen. Nik uste dut, familiatik.

–*Nola janzten zen?*

–Gizon bat zen, nola erran, ez zuen diru handirik gastatzen. Izigarri metodikoa zen, biziki zaindua. Eta beti garbiki jantzia. Eta gizon bat bakarrik zena, donado bat bezala. Biziki garbia, pisatua, beti garbi. Ez zenuen haren baitan ez abandonorik ez utzikeriarik atzemango. Biziki sinpleki, baina biziki garbi. Eta gero ordrea handia zuen. Ni haren gelan ari izan naiz eta lanean anitz denboraz, eta bere gela ordenatua zuen. Izigarri organizatua zen. Bazuen, nik uste, ohitura handi bat, “ordre monacale” delakoa.

–*Nola izkiriitzen zuen, makinaz ala eskuz?*

–Eskuz. Bazuen makina bat ere, erosia. Orain oroitzen naiz, egun batez pozik kausitu nuen makina izanik. Nondik eta nola ez dakit. Haur bat bezala zen. Haur bat bezala zen, pozik geratzen zen, espantio batzuk, entusiasmo batzuk azalduz.

Afektibitate mailan sekulako beharra zuen. Eta orain ikusten dut, hainbeste urte pasa ondoren, ni maitatzen ninduela edo alaba bat bezala, edo arreba bat bezala, edo... Beti ere zerbait komunikatzen zuen, pixka bat. Nik uste dut, eta normala da, bazuela joera emakume batekin komunikatzeko, nahiz eta hura haurra edo biziki gaztea izan. Bazuen hori, bai.

–*Inpresioa daukat, hari eta honi entzun ondoren, Orixe bufoi gisa zeukatela. Piok kontatua da, Kanbon behin elkartuta zeudela, nola etorri*

zen Orixe “Nive” etxera, andregaiia zeukala esanez. Eta irri egiten zioten. *Ingenuoa zela, diote, “ingenuo jesuita”, alegia. Zuk, zer?*

–Don Piok admirazio handia zuen Orixerentzat. “Hau da gure poeta handia, Euskal Herriko gizon handia”, erraten zuen denen aitzinean. Ni orduan gaztea nintzen. Niretzat gizon hura aitaxi bat bezala zen. Nik ez nuen sekula orduan pentsatu gizon hark izaten ahal zuela pasio-nerik. Baina orain, denbora pasa eta, orain ikusten dut bazuela pasio-
ne bat barruan, bolkan bat, eta, nik uste, bazuela nostalgia bat izigarrria familiaz eta emakume batekin bizitza egiteaz. Afektiboki behar zuela hori. Eta orain ikusten ditut erreakziona anitz eta anitz. Berdin du eta nik hori erraten dut. Oroitzen naiz nola, Donibane Lohizunen nintzelarik, aldi batez lagun batzuekin kontzertu batera joan nintzen. Ez zen beste munduko kontzertua. Ni haurrekin nintzen, eskolakoe-kin, eta nire adiskideekin han goian, balkoietan. Handik bi egun pasa eta gero, Orixe etorri zen eskolara nire xeka eta erran zidan, nik ez nekiela, baina kontzertu hartan ni balkoian nintzela eta hura beheran, eta izan zuela inpresioa Albrecht Dürer grabadorearen emazteki bat ikusten zuela ni ikustean. Asko maite zituen artista horren marrazkiak. Baina bazen zerbait. Nik uste dut sufritzen zuela. Azpian bakardade izigarria zegoen. Biziki erromantikoa zen, baina konplexua, zeren eta, batetik, ordrea, organizazioa handia zuen eta, bestetik, haur handi bat zen. Nire iduriko, bazen pertsonaia bat bere egiazko izatea, izaera, zanpatua zuena. Eta nik uste, gizon horrek behar zuen esplosio bat eta esplosio hori ez du izan, nik uste. Eta nire iduriko, bere obran eta denetan, hobeto izanen zen esplosioarekin. Gizon hori ez da osoki liberatu.

* * * * *

Orixe ez zela misoginoa izan esan da. Berak atera gaitu zalantza horretatik. Orain, elkarrizketa hau irakurri eta gero, ausartuko ote ginateke misogamoa izan zela esatera? Norberak atera bitza bere ondorioak.

ITURRIAK

ORIXEREN IDAZLANAK AIPATZERAKOAN ERABILITAKO LABURDURAK

Haren *Idazlan Guztiak* bildumako hiru tomoak oinarritzat hartuta egin dira aipuak, segidan datozen arabera:

- (1991) BM; IG, I *Barne-Muinetan*; Idazlan Guztiak, I: Sorkuntzazkoak
(1991) JB; IG, I *Jainkoaren billa*; Idazlan Guztiak, I: Sorkuntzazkoak
(1991) SKA; IG, I *Santa Kruz Apaiza*; Idazlan Guztiak, I: Sorkuntzazkoak
(1991) E; IG, I *Euskaldunak*; Idazlan Guztiak, I: Sorkuntzazkoak
(1991) QA; IG, I *Quiton arrebarekin*; Idazlan Guztiak, I: Sorkuntzazkoak
(1991) AGA; IG, II *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak*; Idazlan Guztiak, II:
Itzulpenak

EGILEAREN IDAZKI NAGUSIAK

- (1920) *Tormes'ko itsu-mutilla*, Verdes-Atxirika, Bilbo
(1929) *Santa Kruz Apaiza*, Gero, Bilbo
(1930) *Mireio* (Mistral), Verdes-Atxirika, Bilbo.
(1934) *Barne-Muinetan*, Itzaropena, Zarautz
(1943) *De mi vida externa*, in Iztueta, P.: *Orixe eta bere garaia*, V, 1991, Eusko Jaurilaritza/Etor, Donostia, 175-183 orr.
(1950) *Euskaldunak*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo
(1950) *Urte guziko Meza-Bezperak*, Garikoitz'tar laguntzaileak, Tours
(1955) *Officium parvum*, Estibalitzeko Artxiboan
(1956) *Agustin Gurenaren Aitorkizunak*, Itzaropena, Zarautz

- (1967) *Salmutegia*, Lazkao'ko beneditarrak
- (1971) *Jainkoaren billa*, Etor, Bilbo
- (1988) *Quito-n arrebarekin*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz
- (1991) Orixe. *Idazlan Guztiak*, I: Sorkuntzazkoak, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia
- (1991) Orixe. *Idazlan Guztiak*, II: Itzulpenak, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia
- (1991) Orixe. *Idazlan Guztiak*, III: Artikulu eta saiakerak, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia

EGILEARI BURUZKOAK ETA HEMEN AIPATUAK

- AGIRRE, Xavier (1986), *Osasunbideak*, Elkar, Donostia.
- AGIRREAZKUENAGA, Joseba (1985), "Euskal Herriko historia ekonomikoa", in INTXAUSTI, Joseba (zuz.): *Euskal Herria. Historia eta gizartea. Historia y sociedad*, I, Lan Kide Aurrezkoa, 241-262 orr.
- ALTUNA, Patxi (1989), "Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)", *Eusker*, XXXIV (1), Bilbo, 71-122 orr. Uitzin emandako hitzaldia 1988-11-27an.
- ALVAREZ SOLÍS, Antonio; LÓPEZ VIGIL, María; MORALES, José Luis (1982), *El Salvador*, Ed. Revolución.
- ALVAREZ, Jose Luis "Txillardegi" (1972), "Orixe", *Zeruko Argia*, 500, 15 or.
- ARANALDE, Jose Mari (1965), "Gure iruxki aundia", *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 35-40 orr.
- (1965), "Orixe zanaren bizialdia", *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 13-14 orr.
- (1971), "Itzaurre-gisan", *Jainkoaren billa*, Etor, Bilbao.
- (1988), "Euskaldunak: Orixe bere berri ematen, edo egilea protagonista", *Eusker*, XXXIV (1, 34, Bilbo, 123-129 orr.), Uitzin emandako hitzaldia (1988-11-27). Orobat, in IZTUETA, Paulo (zuz.): *Orixe, Mendeurrena (1888-1988)*, Hitzaldiak, IV, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia, 1991, 451-458 orr.
- ARTETXE, Jose (1961), "Ormaechea, el gran humanista", *La Voz de España*, 1961-08-11.
- ATXERRI (1939), "La Roseraie", *Euzko-Enda*, 3, 5-6 orr.
- AZCONA, T.; TELLECHEA IDÍGORAS, J. I.; RODRÍGUEZ DE CORO, F. (1985), "Historia de la iglesia en el País Vasco", in INTXAUSTI, Joseba

- (zuz.): *Euskal Herria. Historia eta gizartea. Historia y sociedad*, I, Lan Kide Aurrezkia, 337-350 orr.
- BARZUMENDI, Joxe (1976), *Zer dugu Orixeren kontra*, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- (1977), *Zer dugu Orixeren alde*, Jakin, Arantzazu-Oñati.
- BARANDIARAN, Luis (1976), *José Miguel de Barandiarán. Patriarca de la cultura vasca*, CAM, Donostia.
- EMALDI, Jon (1985), “Euskal Herriko nekazal sektorea”, in INTXAUSTI, Joseba (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*, II, Lan Kide Aurrezkia, 192-208 orr.
- ETXANIZ, Nemesio (1965), “Orixe gizon”, *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 15-24 orr.
- EUSKALTZAINDIA (1965), *Orixe. Omenaldi*, Donostia.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan (1982), *Burnigintza eta zurlagintza Berastegin*, Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.
- GARMENDIA, Jon “Zeleta” (1965), “Orixe Euskaltzain”, *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 41-44 orr.
- (1965), “Orixe ta Bedayo’ko Txistularia”, *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 45-52 orr.
- GURRUTXAGA, Ildefonso (1961), “Nicolas de Ormaetxea, Orixe”, *Tierra Vasca*, Buenos Aires, Iraila.
- IBINAGABEITIA, Andima (1965), “Orixe euskaratzaille”, *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 87-118 orr.
- IKUSLE (1939), “Los bascos concentrados en Gurs”, *Euzko-Enda*, 7, 11 or.
- INTXAUSTI, Joseba (1979), “*Euzko-Gogoaren lankideak*”, *Jakin*, 12, 120-137 orr.
- IZTUETA, Paulo; APALATEGI, Jokin (1974), *Marxismoa eta nazional arazo Euskal Herrian*, Irati, Baiona.
- IZTUETA, Paulo (1961), “Eskeintza Orixe’ri”, *Arnas*, 6, azaroa, 3 or.
- (1981), *Fenómeno contestatario del clero vasco: 1940-1975*, Elkar, Donostia.
- (1987), “Quito’n arrebarekin”, in IZTUETA, Paulo (zuz.): *Orixe. Mendeurrena (1888-1988)*, Hitzaldiak, IV, Eusko Jaurlaritzza/Etor, Donostia, 1991, 473-491 orr. EUTGn 1987ko abenduan emandako hitzaldia.
- (1987), “Orixeren bizitza”, in IZTUETA, Paulo (zuz.): *Orixe. Mendeurrena (1888-1988)*, Hitzaldiak, IV, Eusko Jaurlaritzza/Etor, Donostia, 1991, 21-39 orr. Donostiako Aurrezki Kutxa Probintzialeko Hitzaldi-Aretoan 1987ko abenduan emandako hitzaldia.

- (1988), *Quito'n arrebarekin irakurriz*, Eusko Jaurlaritz/ Etor, Donostia.
- (1990), “Ormaechea Pellejero, Nicolás (1888-1961)”, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, Auñamendi, Donostia.
- (1991), *Orixe eta bere garaia*, V, Eusko Jaurlaritz/ Etor, Donostia.
- (2003), *Orixe auzitan*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- (2003), *Orixe saiogilea*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- IZTUETA, Paulo (zuz.) (1991), *Orixe. Mendurrena (1888-1988)*, IV, Hitzaldiak, Eusko Jaurlaritz/ Etor, Donostia.
- KORTAZAR, Jon (1986), *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*, Desclée de Brouwer, Bilbao.
- LABAIEN, Antonio Maria (1965), “Nicolas Ormaetxea (1888-1961), *Orixe. Omenaldi*, Donostia, 15-24 orr.
- LAFITTE, Pierre (1961), “Nicolas de Ormaechea itzali zaiku”, *Herria*, Baiona, 1961-08-17.
- LAHARIE, Claude (1985), *Le camps de Gurs (1930-1945). Un aspect méconnu de l'histoire du Béarn*, Infocomp, Pau.
- LARRAKOETXEA, Hipolito (1978), *Erroma'ko Eleizaren Araundia*, Karda beraz bilduma.
- LATXAGA (1970), “Gorriti”, *Zeruko Argia*, 1970-09-20.
- (1970), “Uizi, Nafar Euskal Lur Berezia”, *Zeruko Argia*, 1970-09-27.
- LEIZAOLA, Jesus Maria (1974), *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*, Ekin, Buenos Aires.
- LEKUONA, Manuel (1958), “Orixe'ren Euskaltzaindian sartzea”, *Egan*, 1-2.
- LINAZASORO, Iñaki (1983), “Oreja”, in *Guipúzcoa bihotz-begietan*, CAPG, Donostia.
- MADOZ, Pascual (1845-1850), *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar*, XVI.
- MARTIALAY, Roberto (1983), *Comunidad en sangre*, Mensajero, Bilbao.
- MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier (1988), “Orixeren itzulpena”, *RIEV*, 1, Donostia, 35-44 orr. Donostiako Diputazioko Hitzaldi-Aretoan 1988-12-1ean emandako hitzaldia.
- MINTEGI, Laura (1988), “Gotzon Garate”, *Argia*, 1.203, Donostia.
- MITXELENA, Koldo (1956), “Agustin Gurenaren aitorkizunak”, *Egan*, 5-6, 142-144 orr.
- (1960), “Asaba zaarren baratza”, *Egan*, 3-6.
- (1960), *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid.

- (1965), “Atarikoa”, *Orix. Omenaldi*, Donostia, 5-9 orr.
- (1988), “Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean”, *Euskera*, III, 36-44 orr.
- (1988), “Orix gure artean”, *Egan*, 2-4, 3-4 orr.
- (1988), “Orix-ren eriotzean”, *Egan*, 4-6, 157-163 orr.
- MONZON, Telesforo (1947), *Gudarien egiñak*, Lapurdi.
- OIARTZABAL, Martin (1965), “Orix izkera-zale”, *Orix. Omenaldi*, Donostia, 119-124 orr.
- ONAINDIA, Santiago (1965), “Orix olerkari”, *Orix. Omenaldi*, Donostia, 125-164 orr.
- (1974), *Eskutitzak*, Bilbo.
- OTEGI, Lurdes (1987), “Orix eta gerra aurreko literatur mugimenduak”, in IZTUETA, Paulo (zuz.): *Orix. Mendurrena (1888-1988)*, Hitzaldiak, IV, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia, 1991, 89-109 orr. EUTGn 1987-05-7an emandako hitzaldia.
- PERURENA, Patxiku (1985), “Plazaola aldizkariak zer egin zuen?”, *Egin*, Donostia, 1985-07-13.
- PLATON (1981), “La República, o de la justicia”, Libro II, 376c/379b, in *Obras Completas*, Aguilar, Madrid.
- ROCHER, Guy (1968), *Introduction à la Sociologie Générale*, II, HMH, Paris.
- RODRÍGUEZ, Alonso (1954), *Ejercicio de perfección y virtudes cristianas*, Apostolado de la Prensa, Madrid.
- SILVÄN, Leandro (1974), *Lizarza-Oreja*, Aurrezki Kutxa Munizipala, Donostia.
- SOBRINO, Jon (1989), *Compañeros de Jesús. El asesinato de los Jesuitas Salvadoreños*, Sal Terrae, Bilbao.
- UNZURRUNZAGA, Xavier (1985), “La arquitectura y el urbanismo en el siglo XX”, in INTXAUSTI, Joseba (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*, II, Lan Kide Aurrezki, 55-66 orr.
- URRUTIKOETXEA, Josexo (1985), “Historia de la población”, in INTXAUSTI, Joseba (zuz.): *Euskal Herria. Historia eta gizartea. Historia y sociedad*, I, Lan Kide Aurrezki, 159-180 orr.
- VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari (1981), *Iokin Zaitegi*, Izarra, Usurbil.
- VILLASANTE, Luis (1967), “Uizi”, *Aranzazu*, XLVI.
- (1987), “Quito’n arrebarekin edo fede eta otoitz-gizona”, in IZTUETA, Paulo (zuz.): *Orix. Mendurrena (1888-1988)*, Hitzaldiak, IV, Eusko Jaurlaritza/Etor, Donostia, 1991, 459-472 orr. EUTGn 1987ko abenduan emandako hitzaldia.

VILLOTA ELEJALDE, Ignacio, *La Iglesia en la sociedad española y vasca contemporánea*, Colección Magisterio Derio, Bilbao.

ZAITEGI, Jokin (1974), “Urkiaga ta biok”, in Lauaxeta: *Olerkiak*, Etor, Bilbao.

ARTXIBO PUBLIKOAK

Euskaltzaindia, Bilbo

Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxiboa, Donostia: *Libro de difuntos, Libro de bautizados*

Koldo Mitxelena, Donostia

Loiolako Artxibo Historikoa

Nafarroako Elizbarrutiko Artxiboa, Iruñea

Orexako Parroki Artxiboa: *Libro de difuntos, Libro de bautizados*

Orexako Udal-Artxiboa

Uitziko Parroki Artxiboa: *Libro de difuntos, Libro de bautizados*

ORIXEREN GUTUNAK

1. *Lagundiko nagusiei eta Erljijosoen Kongregazio Santuko kardinal txit agurgarriari egindakoak:*

–Tuteratik, aita Leza probintzialari, 1919-08-21.

–Aita Pietro Boetto bisitatzailari, datarik gabe.

–Oñatik, aita Probintzial-ohiari, 1922-09-10; 1922-09-21; 1922-10-30; 1, datarik gabe.

–Oñatik, Erljijosoen Kongregazio Santuko kardinal txit agurgarriari, 1922-09-20; Xabiertik, 1922-10-20: 1922-12-25.

–Xabiertik, aita Villalonga probintzialari, 1923-05-1; 1923-05-7; 1923-07-12; 1923-07-14; 1923-07-30; 1923-09-12: 1923-09-23.

2. *Jokin ZAITEGIri egindakoak:*

–Orexatik, 1933-03-25; 1933-08-14; 1933-12-31; 1934-01-20; 1934-06-16; 1934-07-7; 1934-07-14; 1935-12-6; 1936-02-26.

–Bahía Blancatik, 1959-02-17.

–Avellaneditik: 1950-03-6; 1950-03-19; 1950-03-20; 1950-04-21; 1950-04-29; 1950-05-3.

–Quitotik, 1950-06-1; 1950-05-26; 1 datarik gabe.

–El Salvadorko Zaragozatik, 1950-12-14; 1950-12-22; 1951-01-17; 1951-01-19; 1951-02-19; 1951-04-6; 1951-04-26; 1951-05-5; 1951-05-13;

- 1951-05-26; 1951-06-4; 1951-07-19; 1950-12-14; 1950-12-22; 1951-01-17; 1951-01-19; 1951-02-19; 1951-04-6; 1951-04-26; 1951-05-5; 1951-05-13; 1951-05-26; 1951-06-4; 1951-07-19; 1951-12-10; 1951-12-29; 1952-04-4; 1952-04-21; 1952-05-17; 1952-05-26; 1952-06-9; 1952-07-8; 1952-07-22; 1952-09-16; 1952-11-2; 1952-11-3; 1952-12-9; 1953-06-20; 1953-10-17; 1953-10-25; 1954-03-26; 1954-06-1; 1954-08-16; 1954-09-20; 3 datarik gabe.
- Tolosatik, 1954-11-30; 1954-06-1; 1954-08-16; 1954-09-20.
- Lazkaotik, 1955-01-10; 1955-02-15.
- Orexatik, 1958-10-29.

3. *Justo Maria MOKORO*Ari egindakoak:

- Bilbotik, 1929-08-22.
- Orexatik, 1934-10-24; 1934-11-1; 1934-11-26; 1935-02-9; 1935-03-18; 1935-04-2; 1935-04-12; 1935-04-27; 1935-09-4; 1935-10-23; 1935-11-4; 1936-01-4; 1936-03-19; 1936-04-28; 1936-06-12.
- Iruñako San Kristobalگو kartzelatik, 1936-09-1; 1936-10-6.
- Donibane Lohizunetik, 1938-09-16; 1949-03-11; 1949-03-9; 1949-04-30; 1949-06-20; 1 datarik gabe.
- Avellanedatik, 1950-01-26; 1 datarik gabe.
- El Salvadorگو Zaragozatik, 1951-03-9; 1951-04-29; 1951-07-21; 1951-10-27; 1951-11-10; 1952-11-13.
- Lazkaotik, 1955-01-14; 1955-03-23.
- Tolosatik, 1956-09-23; 1956-09-30; 1956-10-17; 1 datarik gabe.
- Orexatik, 1956-12-17; 1957-04-6; 1957-05-29; 1957-10-25; 1957-11-22; 1957-12-8; 1958-01-24; 1958-04-25; 1958-05-16.
- Aramatik, 1958-09-19; 1959-01-24.

4. *Martin OIARTZABALI*, egindakoak:

- Donibane Lohizunetik, 1949-03-10.
- Quitotik, 1950-06-9.
- Guatemalatik, 1950-12-10.
- El Salvadorگو Zaragozatik, 1950-12-18; 1951-01-8; 1951-02-28; 1951-05-22; 1951-08-14; 1951-10-4; 1951-11-5; 1952-11-7; 1953-01-6; 1953-02-3; 1953-02-15; 1953-05-14; 1953-08-5; 1953-11-10; 1953-12-17; 1954-02-16; 1954-02-29; 1954-03-19; 1954-04-12; 1954-09-3; 1954-11-4.
- Lazkaotik, 1955-02-21; 1956-04-12; 1956-12-11.
- Orexatik, 1957-04-10; 1957-08-9; 1957-11-5; 1958-01-16; 1958-04-25; 1958-08-3; 1958-11-19.

–Aramatik, 1958-11-14; 1959-01-24; 1959-03-30; 1959-07-3; 1959-11-9;
–Zabalegitik, 1960-11-9.
–1 datarik gabe.

5. *LIZARDIri egindakoak:*

–Bilbotik, 1928-10-17; 1929-01-14; 1929-01-30; 1929-03-13; 1929-04-17;
1929-04-18; 1929-04-11; 1929-05-18; 1929-06-13; 1929-08-12; 1929-
08-14; 1929-11-17; 1929-12-17; 1930-02-19; 1930-04-12; 1930-05-2;
1930-05-6; 1930-05-22; 1930-05-24; 1930-05-27; 1930-06-4; 1930-
08-6; 1930-08-30; 1930-11-13; 1931-05-25.
– Tolosatik, 1929-10-13.
– 2 datarik gabe.

6. *Beste batzuei egindakoak:*

AGIRREri, Jose Antonio, El Salvadorko Zaragozatic, 1951-03-12.
AIZPURUari, aita Patxi, Lazkaora, 1956-09-1; 1956-10-15.
APRAIZi, Julian, Bilbotik, 1930-01-28.
ARGARATEri, ZAITEGIri *et reliquis*, Oreatik, 1933-05-5.
AZKUEri, R.M., Bilbotik, 1929-09-1; Oreatik, 1932-03-1.
BAZTARRIKari, aita Isidor, Lazkaora, 1956-12-4; 1957-11-29; 1957-12-
14; 1958-03-26; 1958-09-12.
BERari, aita Roman, El Salvadorko Zaragozatic, 1953-07-3.
CONTRERASi, Mercedes andrea, El Salvadorko Zaragozatic, 1952-11-18;
1952-11-23; 1 datarik gabe.
FAGOAGari, Isidoro, Avellanedatik, 1950-05-6; Guatemalatic, 1950-12-6;
El Salvadorko Zaragozatic, 1951-04-7; 1952-11-14; 1952-11-19.
GARMENDIari, Eusebio, Bakiotik, 1918-08-28; 1918-11-17; Xabiertik,
1919-12-8.
IRAOLari, aita Jesus Maria, El Salvadorko Zaragozatic, 1951-07-21.
JAKAKORTAJARENari, Txomin, Bilbotik, 1930-06-22.
KRUTWIGi, Federiko, El Salvadorko Zaragozatic, 1951-04-7; 1951-05-3;
1951-06-2.
LARRAÑAGari, aita Gilermo, Oreatik, 1933-08-9.
LEIZAIOLari, Jesus Maria, El Salvadorko Zaragozatic, 1951-07-21.
LETURIari, aita Pedro, EL Salvadorko Zaragozatic, 1954-09-3.
MASSÓri, aita, Guatemalatic, datarik gabe.
MITXELENari, Koldo, Lazkaotik, 1955-01-15; 1956-05-5.

MONZONi, Telesforo, Guatemalatik, 1950-10-10; 1950-11-25; El Salvadorko Zaragozatic, 1951-03-12.

MUJIKARI, Gregorio, Bilbotik, 1930-01-28.

OLABIDEri, Erraimun, Oñatik, 1920-12-11; 1 datarik gabe.

ONAINDIARI, aita Santiago, El Salvadorko Zaragozatic, 1953-11-10; 1953-12-12; 1954-01-26; Aramatik, 1959-05-27; Añorgatik, 1960-07-9; 1961-07-25.

SEGURARI, aita Ladislao, El Salvadorko Zaragozatic, 1954-05-8.

TAUERri, Norberto, El Salvadorko Zaragozatic, 1951-11-25.

URKIJORI, Julio, Comillastik, 1917-05-4; 1917-05-15; 1917-05-30; 1917-07-1; 1917-07-24; Carrión de los Condestik, 1918-04-9; Bakiotik, 1918-08-28; Tuteratik, 1918-12-13; Xabiertik; 1920-07-31; Bilbotik, 1924-08-18; 1924-11-24; 1929-03-23; 1929-07-26; 1929-11-30; 1 datarik gabe.

VIENNOTi, Wilhan, Saubiondik Donibane Lohizunera, 1941-01-1/27; 1941-03-5; 1941-05-8/17.

ZATARAINi, Ambrosio, Betharramandik, 1944-06-2; 1944-08-11; 1944-08-28.

ORIXERI EGINDAKOAK

AGIRREk, Jose Antonio, Paristik, 1951-04-6.

AZKUEk, R. M., Bilbotik Orexara, 1935-02-20;

BARRIOLAK, Maritxu, 1953-09-23; 1954-02-3.

BERAk, aita Roman, Buenos Airestik, 1953-03-31; 1 datarik gabe.

EGUESek, Kasimiro, Buenos Airestik, 1950-07-13.

ETXANIZek, Nemesio, Azkoititik, 1951-07-11.

FAGOAGAk, Isidoro, Donibane Lohizunetik, 1950-02-28; 1950-05-24; 1950-07-24; 1950-08-23; 1951-03-30; 1951-04-17; Peron-Cutytik, 1952-03-9; Buenos Airestik, 1952-11-30.

GOIKOETXEAK, Jon (Gaztelu), Buenos Airestik, 1951-08-14.

IBINAGABEITIAk, Andima, Paristik, 1950-09-15.

KRUTWIGek, Federiko, Bilbotik, 1951-04-19; 1951-09-20.

LABAIENek, Antonio Maria, Tolosatik, 1950-08-2; 1950-08-26; 1950-10-6; Donostiatik, 1950-11-26.

LEIZAOLAK, Jesus Maria, Baionatik (datarik gabe).

LIZARDIk, Tolosatik, 1929-04-7; 1929-04-23; 1929-05-13; 1929-05-19; 1929-06-4; 1929-07-9; 1929-08-12; 1929-08-16; 1929-09-4; 1929-12-14; 1930-01-13; 1930-02-4; 1930-04-19; 1930-05-1; 1930-05-4; 1930-05-26; 1930-06-10; 1930-06-17; 1930-07-8; 1930-08-9; 1930-08-30; 1930-10-19.

MITXELENA, Koldo, Donostiatik, 1955-01-10; 1955-02-8; 1956-04-26; 1956-05-18; 1957-06-10.

OIARTZABALek, Martin, Buenos Airstik, 1953-11-3.

REZOLAk, Joseba, Ziburutik, 1950-08-4.

REZOLAk, Martzelino, (nondik gabe), 1953-12-22.

ZAITEGIk, Jokin, Guatemalatik, 1955-07-28.

ELKARRIZKETAK LEKUKOEKIN

Robustiano ARRILLAGA jaunarekin, Orexan, 1985-07-4an

Antonio Maria LABAIEN jaunarekin, Tolosan, 1985-08-5ean.

Fermin IXURKO apaiz jaunarekin, Uitzin, 1985-07-20an.

Martin MARTIRENA jaunarekin, Uitzin, 1985-07-20an.

Pedro ARIZTIMUÑO GALARZA apaiz jaunarekin, Iruñean, 1985-07-26an

Jose Maria MALKORRA jaunarekin, Orexan, 1985-08-4an; bigarren elkarrizketa, 2003-06-5ean.

Jesus Maria LEIZAOLA jaunarekin, Donostian, 1985-12-5ean.

Fernanda IRISARRI anderearekin, Orexan, 1986-08-4an.

Manex LARRAT jaunarekin, Bidarrain, 1986-08-4an.

Mari Grazien LAGARTO anderearekin, Bidarrain, 1986-11-28an.

Jean Pierre IRATXET apaiz jaunarekin, Nôtre Dame de Buglossen, 1986-11-28an.

Jose Antonio DURADOÑA jaunarekin, Donibane Lohizunen, 1986-11-29an.

Jose Mari ARANALDE apaiz jaunarekin, Donostian, 1987-01-22an.

Jose Mari ARRALAGO jaunarekin, Areson, 1987-02-8an.

Pio MONTOLA apaiz jaunarekin, Donostian, 1988-06-14an.

Justo Maria MOKOROA apaiz jaunarekin, Bilbon, 1988-08-2an.

Marie Hélène GASTIGARD anderearekin, Kanbon, 1988-11-7an; bigarren elkarrizketa 2003-06-6an.

Pedro ARIZTIMUÑO ANSORENA jaunarekin, Andoainen, 1989-01-17an; bigarren elkarrizketa, 2003ko maiatzaren 31n.

Joan Inazio OTAEGI apaiz jaunarekin, Donostian, 1988-06-14an.

BILA

BILDUMA

1. Paulo Iztueta: *Euskal irakaskuntza Autonomi Aroan (1983-1994)*, 2000
2. Paulo Iztueta: *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*, 2000
3. Paulo Iztueta: *Erbesteko euskal pentsamendua*, 2001
4. Ander Iturriotz: *Boterea gizarte homerikoan*, 2002
5. Paulo Iztueta: *Orixe saiogilea*, 2003
6. Paulo Iztueta: *Orixe auzitan*, 2003
7. Paulo Iztueta: *Orixe gaitzesia*, 2003
8. Txomin Peillen (koord.): *Euskaldun etorkinak Ameriketan*, 2003